


ANTONIO TRUEBAREN IPUIÑAK IV ATALA



OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO

ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

JOSÉ
MARIA
MUÑOZ

ANTONIO TRUEBAREN

IPUIÑAK

IV

ATALA

ANTONIO TRUEBAREN

**IPUIÑAK
IV
ATALA**

**ITZULTZAILEA
OTAZUA TA ASUA'TAR BENITO**

**ARGITARATZAILEA
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA**

BILBOKO UDALAREN DIRU LAGUNTZAZ ARGITARATUA

AURKIBIDEA

MOZKORTIAK.....	9
ILDAKO TA BIZIEN IPUIÑAK	
ERREGEAREN SUIÑE	37
ERREGEA EMAZTEGAIA BILLA.....	51
ZEKENKERI GIZONA.....	55
MARGO ASKOTAKO IPUIÑAK	
GIZON JOSTUN BATEN GALBIDEAK	75
ZITORIZKO ZARTEA	87
LIBURU BATEN TXATALAK BIOTZ BEROTASUNAK.....	97
ERRI EDASPENETATIK.....	101
LAU URDAILLEKOA	107
ERRI-IPUIN BARRIAK	
EZ DAGO ABERRI ITSUSIRIK.....	121
ARELLANOKOA	129
ARANGURENEKOAK.....	133
ERRI ORKAI	137
IKOA.....	143
MIÑ LUZEA	145
GERREZTU TA TXAMARRAREN TARTEKO IPUIÑAK	
BURU TA BIOTZA	151
TXIMIST ARRI TA URREA.....	153
GERRESTU TA TXAMARREA.....	157

MOZKORTIAK

I

Margolari batek margo-lauki bat margotzen asi baño leenago, oiala gertatzen dau ta nik be bardin-bardin egin bear dot, ba da naizta zurdaki lodikoa izan, margolaria naz ta.

Alan da ze, leenen leenen, oiala gertatu dagibun.

Margotuko dodan oialan Bizkaiko lurralderik polit eta ederrena begiratu al izango dozue; bertako aran, ibar, zoragarri bat.

Ara zergaitik polit eta ederra dala diñodan. Zio bigaitik da. Bata bene-benetan polit-ederra dalako, ta bigarrena beratan jaio nintzalako.

Eta guri, irakurleok esango dozue, zu lurralde orretan jaioteak edo inpernuan, naizta au beroago izan, zer jatorku?

Nire jaiotze-erria zein dan jakitea, ez da izango ba zuen ardureko. Beratan jaio nintzala esatean, zer diñodan ba dakidala baiezten dot, sarritan berba, itz, egin edo idazten dabenei jazoten ez jakena.

Ara, ibar, eze orlegi sakonetik errekatxu baten urak doaz, errekatxua ez da urtsua baiña ur garden, ozkirriduna bai.

Aaa gatzain-ondoak! Aaa intxaur-ondoak! ibar, aran aretatik doan ur igeslari areitan begiratzen zarienok! Nor izan leiteken intxaurra ez, eta ez gaiztañea be, nor leiteken artelari zuen izpilluan bagiratu al izateko!

Egoaldeko ibar, arantxu aretan, mendizka txiki bat dago, eta an, bertan, etxe zuri ta leizarrakaz inguratuta Santa Maria eleiza, niretzat, beintzat, kanpairik saratatsuenak daukazana, irudirik politenak, deun eta oroimen gozoen geien daukazana.

Eleizatik ibairañ, berreun bat oinkada luze dan aldatz-gora bat dago. Aldape txiki aretan gauza guzti oneik aurkitzen dira: errotara urak daroazan nasa bat, ur oneik bur-

dinol batera be ba doaz; errotea ta burdiñola intxausti baten zugatz artean; apur bat berago ikusi leikez, eskumara lau edo bost etxe, ezkerretara ortu orlegi ta eze bat, eta azkenean zubi bat, bere arkupetik Lorentzo lau-txakurrean sarritan igaroten zana...

Baiña ze Lorentzo ta Lorentzo bako, ondiño oiala gertatzea be amaitu ez ba dogu! Zubia guztiz zaarra da, gogorra, tinkoa, guztiz goia, estu ta agiria.

Ibai beste aldean, bizkar guztiz goi bat gaindurik, kurutze bat agertzen da. Bertara lorrailako otoitz-aldian erriko abadea, bertatik inguru aretako lurraldeak bedeinkatzen, igoten da.

Mendiska-magala, mendetako arteakaz beterik dago, eta mendekoak diñot, ba nire aititagandik sarritan entzun dot, zelan bere gaztaroan, arte arein kerizpetan inguru aretako neska-mutilek jai-egun arratsaldeetan, eta bear ba da, aran aldean illargiak nekarazitzen ebezanean, jolasten ebela.

Ze zertzelada ain bikaiña, gure asabak, euren artean, neska-mutilen artean, egunez, egun argitan, jolasten ebela baieztatzeko!

Aldapea, arte ta arrilosak ibai barrenean asita, mendiska gorantz osotzen dabe. Ibai bazterrak, basa-mats, urretx, auntz-ostu, urkitz, basalarrosak altzak eta satzez beterik, aurkitzen dira.

Bideak, zubia igaro orduko, Lorentzok bezela alboz-alboz egiten dau...

Baiña beti Lorentzotzaz, oiala gertu baño leenago, beratan izan dogun gizon ori!

Bidea, barriro diñogu, mozkorti baten antzera aldaroka, mendiska magaletik doa ta bidean aurkitzen dauan iturritxuan be ez da gelditzen, naizta an, iturrian, ugarixoak elikatzen dirala ezin leiteke esan.

Arteen kerizpetan, aldatz-gora leenengo arloan, an emenka iru edo lau etxe agertzen dira.

Ibai berantz, aran, ibar, beti orlegi eze, ta intxausti bat. Leen esan dogun lez, intxaur onein adar bitartetatik, errota ta burdiñol bat ikusten dira. Burdiñolaren teiletu baltzak bidalei esan nai dautse: "A zelako zalaparta ordu gustietan izaten dan emen!", eta errotako teilatu zuriak: "Au beste zorro bateko uruna da!"

Ibai gora, ibai goi aldera, aran estu ta biurkia, bere alde sakonean ur-aska batek gelditzen dauan uren zurrumurrua entzuten da, ba naizta ez naiz izan, burdiñolarantz joateko bidea artuazoten dautsa, ta beraz baita be errotarantz.

Artediko etxe artean, lau itxast-ukitxuakaz margotu, marraztutzea egoki izango jakun etxe bat dago.

Bere lau aldetatik, iruk, ortu polit batera emoten dabe; arri ganean, ibaitik lurra eskuz ekarriaz, arri ganean egindako ortua.

Ortuak bere barnean, arresi barnean matsar bat dauka ta amabiko bat igalizugatz etxera urreratuta.

Etxeko ate ganean zurezko balkoitxua, eta onen ganean mats adarretan, araona zabalduz eta dindilizka, mats-mordo ugari.

Sortaldera begira dagon ate aurrean, zelai txikitxu bat; zelai au gizonaren lanez

egiña izan bear dau, ba da zabaltzen dan aitz ganean ondiño genbelateen ezaugarria agiri da. Zelaitxu au arte itzal bik kerizpetzen dabe alde banatan indartsu jasoaz; ezkerrekoak laba bat estalpeturik, ta eskumakoak etxetxu bat eta etxe ostean burdin-zaar pillo bat aurkitzen da. Etxe txiki aretan antziña burdiñol bat egoala, burdin pillo onek argi adierazoten dau.

Gertu dogu ba, margo-oiala.

Orain... beratan margotu dagigun.

II

Ekain arrast baten, ilundu baño apur leenago, bere aita ta nebakaz arto-jorran egoan soloan Errosak bere lana bazterturik, eleizatik zubirantz jaitsitean dagozan etxetariko baten sartu zan.

Apur bat geroago egoitz aretatik kea ugari urteten zan, eta andik laster besopean lusaila besopean eskegita abeslari, zubia igarotean Errosak onelan abesten eban:

Itxi, utxi, eistazu igaroten, ba da

ur bare artzera noa

arpegia garbitu dagidan

baltzizketa nazala dirauste ta.

Lorentzo, bere bekokian dizdiratzen zan izerdia garbiturik, kenduta, sutegiko atean agertu zan. Errosa ikustean bere espanetan irribarre gozo bat nabaritzen zan, eta neskatilatxuak be, Lorentzo beste irribarre pozez beteriko bateaz agurtu eban. Lorentzok sutegiko atea ixi, ertsiten eban bitartean, Errosa len bezela abeslari iturritzantz joian.

Iturritik jariatzen zan ur apurra batzeko, Errosak lusaila iturrian ezarrita egoan teilara urreratuta ezarri eban, eta ira eze batzukaz buru-sorki bat egiten asi zan.

Errosa ogei bat urteko neskatil ez guztiz ederra, baiña bai guri, sendo ta baita be txantxezalea, alai ta garbia zan. Eta batez be ontasun-aurpegiduna ta maitalea.

Eta zeintzuk dira ontasun-aurpegidunak?

Dirazanak.

Erantzun polita.

Gaztetan nik neskatil bat ezagutu neban, bere amak mezara amarretan bialtzen ba eban, etxera amabietan itzultzen zan, bitartean ordu ta erdi orretan bere gizongaiaz alkar-izketan egoten zan.

Baiña umetxua, non egon zara ain luzaro? bere amak itauntzen eutsan.

Ara ze galdera, itauna! non egongo nintzan ba? Mezan.

Baiña mezea amar eta erdietan amaitu ba da ta amabiak baño geiago da!

Bai, bai, zu be! neskatileak erantzuten eban.

Errosa ipuñi baterako gauza ez zan, baiña etxea zaindu ta bere gizona zoriontsu egiteko, orretarako neurriz-kanpokoa zan. Josus ze neskatilen ederra!

Lorentzo iturri albora eldu orduko, lusaila urez beteta egoan.

Lusaila burura jasoten lagunduko dautsut, nire biotzeko ori?

Uste izan neban ez zarala agertuko, pozez irribarretxu bat egifiez Errosak erantzun eutsan.

Mezede urri egiten zeustan, laztana.

Oker zara, baleiteke ugari egitea be, jakin bear dozu alkar-izketa baño egin-bearra aurreragoa dala.

Zer ba, nire berbetea, izketa, ez jatsu atsegintsu ala?

Asko be asko, baño zure langiletasuna geiago guztatzen jat.

Zuk zubia igaro zenduan une beratan, laia bateri, bera konpontzeko azkenengo mailukadak emon nebazan, eta orain ez dot lan, bear, geiago.

Orduan ondo egin dozu etorteaz.

Orain ikusi ez ba gintzazan, biar arte alkar ikusi barik egongo giñakez.

Zer! Baiña gero gurera pipakada bat erretzen ez zara joango, ala?

Ez, erri-zaiña, Mentxaka ta beste batzuk alegindu dira edantegian aumeki ta azun-bre bat ardao-gorritzka jokatzeko.

Edantegian!.. Lorentzo, orrelako toki batean zure oiñak ipineaz txarto egiten dozu.

Baiña andrea, ez zara konturatzen, batek uko egiten ba dau, laurleko bat ez erazitegaitik izango dala, uste izango dabela?

Ez dau lebarik, ardurarik, iñoren uste izateak.

Ori da!.. Zuok andrazkook!..

Guk, andrazkook, zuek añako jakitunak ez izan-arren, bide ona irakatziteko beste ba dogu, ta batez be maite doguzanakaz eukiten dogu.

Baiña andrea, ez da izango nik edango dodan ardaogaitik, ba da nik kuartillotxu-erdi bateaz, naiko be naiko dot.

Ba dakit, baiña ardaoa edan gura, nai, ba dozu, etxean edan eizu.

Nik sendi bat izango ba neban, beragaz etxean edango neuke, baiña ez dodan ezkerre ta lau orma erdian bakar-bakarrik gaba emotean goibeltasun ikaragarria izaten dodan lez, orregaitik laguntasun apur bat aurkitu neiken lekura jolasten joaten naz.

Aaa Lorentzo, ze emongo neuke nik zure bakartasun ori amaitu daiten!

Bai! Bai! Je, je! Neuk be emongo neuke, maitasunez eta Errosari begiratzuz Lorentzok esañ eban.

Bitartean Errosaren aurpegia gorri-gorri agertzen zan.

Ala maltzur ori, bai, zügaitik diñot, apur bat obeto eratuta bizi zaitezana da, beintzat ori da nire guraria, ba da zuek, gizonezko etxeko gauzetan, gu barik, emakume barik, ez zarie ezer eta.

Zuzen zara nezkatilatxua, eta arira datorren ezkerre, noiz eskonduko gara?

Barrero Errosa gorrizkaturik, bere begiak apur bat aldatuz, iñoan:

Ori zuk esan bear dozu...

Ba orduan, nik esan bear dodan ezker, zure aitak nai ba dau, dirautsut, datorren Igandean meza nagusian leenengo eskon-deiak geierak, entzungo dirala.

Nire aitak bein baño geiagotan esan dautsu, zeuk gura dozunean izango dala.

Olan ba da, biar arazo au adierazoko dautsat, orretarako zuenera joango naz, eta datorren Igandean erri osoak jakingo dau, errementarin andrea izango zarala.

Aaa, au da lotsea! irugarrenez gorri-gorri eginda, Errosak esan eban.

Begira, mila erreal ba daukadaz aurreratuta, eta eurakaz sekulako estegua egingo dogu.

Errementari apal, txiro batzuk bezela ospatuko dogu, ta naiko da.

Ala, ala! dirua gordetzeko uts-utsean ez da, olako egikisunetarako baño, eta iñoiz ez dozu izango aukera obarik...

Aukera ederra zentzunduna izateko be.

Baiña alkar-izketa au albo batera itxi dagigun, eta gogoratu dagigun, zein zoriontsu izango garan. Selako atsegiña bizi osoan alkarregaz bizi al izatea, jai ta jolasketa guztietara batera joan beti!

Aaaii! Lorentzo, tamala da, zu beti jolasketatzaz gogoratzen egotea!

Baiña, zergaitik? Ez naz ba langile ona?

Zaralako maite zaitut, bestela...

Ba lan, bear egiten dauanak, jolasten be, bear-bearrezkoa dau.

Jaungoikoaren legepean eskonduta dagozanentzat, jolasketarik berezieta ta atse-gingarrieta, etxea zaindu ta sendi-maitasunean bizitzea da.

Je! Je! Sendia! Orduan uste dozu izatea, eukitea, ez?

Lorentzok sendia, arrunt aldetik begiratu ebala ikusirik, seme-alabatza arturik, Errosa laugarrenez gorriturik, bere senargaiari filologiko ikaskai bat emon gura izan eutsan.

Ia, lusaila burura jasoten lagundu eistazu, ba da nire sendiari afaria gertatzen joan gura dot, esku bateaz lusailaren kirtena oratuta ta beste eskuaz ira-buruzorkia buruan ezarrita, esan eutsan.

Lorentzok lagundu eutsan, eta aukera polita zan lez, besarkada bat be emon gura izan eutsan, baiña Errosak, naizta lusailaren eragozpena izan, atserazi eban.

Biar arte, Lorentzok esan eutsan, bere etxe alboan agurtuz, eta zubirantz joian bide-ziorretik jarraituz.

Agur. Edantegira ez zaitezala joan.

Joan gura dot, datorren Igandeko gure eskon-deiak ospatzeko baño ez be da, be. Ez! Ez! atxakiak, zuk beti izango dozuz!

Agur, sermoiegilea.

Agur, txiliña.

Errosa zubi ostean estaldurik, Lorentzo bere etxean sartu zan, etxeratu.

Irakurleak, Errosatzaz gitxi daki, baiña ba daki eskongea dala, beintzat, ondiño, andra zuzen, ona ta maitekor izan bear daben neskatilei, Jaungoikoak aurreratzen dautsen aztura, itzal eta zuzentasun apal, ebazala.

III

Ille bete joanda egoan Errosa ta Lorentzo eskondu ziranetik, eta andrazko bat etxean izateak, etxe beretako andra bat eukiteak, etxe ta bere inguruak, aldatuta ikusten dira.

Eskondu baño urte bete aurrerago, Lorentzok bere ama galdu eban, bera zan bere sendi bakarra, eta arrezkero auzoko atsotxu batek bere etxeko garbiketa ta lan guztiak egiten eutsazan. Atsotxu au, bere etxeko zeregiñak alde batera itxita, Lorentzonera bertako zeregin berezienak egiten joaten zan.

Atsotxu batek egin leikezan lanak zeintsuk diran ondo dakigu, batek ba daki, eta alan da ze, Errosa bere egoitz barrira etxeratu zanean, guztiz bizkortu, gaztetu, alaitu zan etxe au. Orma ta zapaietatik, armiarma-sare ta autsak aldendurik, aretoko oltzak, euskalerriko etxe jaseko diranetan lustratzen diran bezela, dizdiratzen eban; zillarri, tresna ta altzariak, bakoitza euren lekutan ezarrita aurkitzen ziran, eta ganera garbigarbi, zillarkia iruditurik; katu eder bat sagutxuak uxatzeko, oneik, sagutxuak, ile luzeetan etxe aretako jaun eta jabe izan ziran; txakur eder bat, etxe ta bere alboko lurraldeen zain; Errosak, goiz eta arrast bete-bete egiñik, gizentzen eban txarri lodi bat, eta esakerak diñoanez, bere San Martin eguna itxaroten. Eskerrak berari, txarriari, bere ugazabak, txarriki bikain eta ugari eukiten eben, eta azkenean amabi bat oilo kar-kar etxeko andra-gizonarentzat arrautz ederrak opatuz, arrautz-opil ederrak egin dagiezen.

Etxe aurreko mats-parrea be, leen goibel eta bere burua erdi-ilik jausita balkoi ganean aurkitzen zana, orain andra-ugazabak, ugazandra barriak eraginda, bere betiko toki berrezian ezarrita egoan.

Bedarrak, belarrak, eurentzat ezarriak ez izan ziran bideak eta beste toki batzuk eurakanatuta izan ebezanak be, euren ausartasunari dagokion lez, ezereztuta izan ziran; larrosa, klaveliñ, tomillo, ezanillo, esplika-belar eta batan mordoak, leen egarriz legortuta ziranak, orain ezotuta, margodun eta usaintsu agertzen ziran; eta azkenean, ortua bere izena be ukatzen ebana, bere adiskide, lagun zan sukaldeari, eskutada bat perrexil opatu ezin izaten eutsana, orain perrexila eder eta mamintsua ugari ez eze, aza ta ilar, indaba-seruga, tomate, piper, berakatz eta kinpula ederrak, opa, eskeintzen eutsazan.

Eta aldaketa guzti onein errudun, nor zan? Lorentzo ez beintzat, Lorentzo egunero, goiz eta arrast sutegian jo ta ke burdiña lantzen, ikasle bat lagun ebalá, bere bizi osoa emoten eban.

Errosa zan bai, bere etxe ta etxe inguruan aldate guzti oneik egin ebazana.

Zutik, eguna argitzen zan ordutik bere gizona ogeratu osterarte, zutunik, etxeko zeregiñetan; lurrak, ortua landu, errekan soñekoak garbitu, txarri ta oiloak ezitu ta zaindu, ta bardin joaten zan iturrira uretan, zein mendira egurretan, narraz edo birabiraka egur-txorta anbat etxeratuz, labea berotu, ogia oreztatu ta erre aste osorako, ta ibai beste aldean be usaintzen zan bazkari zein afari gertatzen eban.

Lorentzotzat be aldakuntz apur bat izan zan; leenago jai-egunetan erritarrakaz eleizpean pipea agoan ebalá alkar-izketan geratzen zan. Orain osterá bere auzokideak, garbi ta edurra añaiko alkondara zuriáz ikusirik esaten dabe.

Nok esango leuke orain errementari bat dala?

Igande egun bat zan, eguerdia baño apur bat beranduago, beluago, Mari Doneko kanpaiak agurtzarako deika egozan.

Lorentzo, Kapitanagaz olgetan ebilen bitartean, balkoian pipakada bat erreten. Kapitana bere txakurra zan.

Errosa agurtze-otoitzara joateko buru-zapia ipinten egoan.

Mentxaka, artediko beste etxetariko baten bizi zana, jakea bere sorbalda ganean, pipea agoan eta eskuan adarrez beteriko gorozti-makilla itzal bat ebalá, Lorentzone-rantz abiatu zan.

Mentxaka berrogei bat urteko gizona, sei oiñ goi ta zortzi arropa astuna zan. Indartsua, Otxaraneko indartsuak berak be bekaitztuko eban. Gizon au, Otxarango indartsua azkenengo mendearen irugarren aldian bizi izan zan, eta bere indar-jazokisunak, ipuiñ onen egilleak idatzita liburu baten agertzen dira. Liburu baten "Artalak", deritxona.

Mentxaka jaiotzez Bizkai barneko baserrikoa zan eta ogei urte ziran Enkarterri aldera bizitzen etorri zala.

Bere indarra dala ta, lurralde onetan ospetsua ta baita be kantara bat ardao begiak, bere begiak, bat be bizkortu barik edateko erreztasuna ebalako.

Baiña bere ospe bereziena, guztiz arrunt ez zana, zoritxar bategaitik eban. Mentxakak bere min, mingaiña, beste edozein gizaseme bezela bikain eta eragiña eban, osterá mutua zan. Azaldu dagigun. Enkarterr lurraldetan naizta guztiz naastaurik zan bere izkuntza, bere jaiotze izkuntza aitzu eban, gaztelarrez ikasi ez ebalako.

Baiña goazen aurrera, ba da Mentxaka bezelako abere batek ainbeste zeaztasun ez dau merezi ta.

Irakurle, leenen-leenen adierazo bear dautsut, Mentsakaren senak idaztean apur bat landuta izango dirala, ba da bestela, bere izketan, berbetan, lagun izaten dauan zifuketa zeatz azaldu ezina da, deabruak berak be ez leukez ulertu al izango. Eta deabrua izkuntzatza ain azkarra dala esatean, guztiz txarto egiten dot. Bilbon urte bi luze

euskera ikasten egon ei zan eta itz, berba, bi uts-utsean ikasi ei ebazan, ardao ta emakume.

Lorentzo, ba zatoz ba, azunbre bat ardao ta sardiña-katzuelatxu bat jokatzen (Vie-neste pues, jugar asumbre vino y casuelita sardinas), Mentxeka, gizontzarrak atarian unetxu bat geldituz esan eban.

Ez, ez, errosariora noa ta, eta ondoren txakur eta eiza-izkilluaz, ortik ia erbi anbat ilten ba dot, joango naz.

Leloa zara, ba zer obeto kazuelan eta pitxarrean eistatzea baño. (Pues que mejor casar en casuela y jarro).

Goizeti etxeratuko naz, eta ordurako nire andreak gertatuta daukazan gjar apur bat tomateaz eta kuartilotxu bat ardao, alkar-maitasunean, eiztatuko dogu.

Nik ondo ulertzen zaitut. Zu edantegira ez zatoz, dirua ez irazitegaitik, ez gastatze-gaitik.

Oker zara, Mentxaka, Lorentzok esan eban. Nik ez dot izaten miñik, adiskideakaz ogerleko bat edo beste irazigaitik.

Esakerak diño, egikisunak dira maitasunak.

Ba, ikusi dagizun zuk eta baita be gaiñerakoak, ontza bat irazitzekeo gizona nazala, une batzu barru edantegira joango naz. Joan zaitetz bertara ta ni, zure atsetik joango naz.

Errosa unetxu aretan aretora sarturik, bere gizonaren azken itz, berbak, entzun al izan ebazan.

Nora zoaz, Lorentzo?

Mentxaka ta besteok, musean jokaldi bat eurakaz egitera, edantegira joan naiten, ekin eta ekin ziardue ta.

Edantegira?

Bai.

Lorentzo, edantegira ez zaitetz joan, eta notin, pertsona orreikaz, ez zaitetz alkartu be! Baiña, andrea, itza, berbea, emon dautset eta..!

Ze itz eta itz bako...

Gaurkoz ez dot beste urten biderik, zin egin dautset eta...

Zin egiteaz, txarto egin dozula, ez zara konturatzen?

Bai andrea, zuzen zara, baiña laurleko bat irazi-eztearren edantegira ez noala esan dauste, eta orretzaz guztiz oker dirala erakutsi nai dautset. Agindukoa, zorra da ta...

Agindukoa, maltzurkeri bat ez danean, bai.

Ara alabatxu, au da azkenengoz nire oiñak edantegi bat zapalduko dabena.

Olan izan daitela, Lorentzo, baiña ez da izango. Ba da bide oker bat artzen dauan-ak, bide zuzenera itzultea, ez da izaten ain errez.

Lorentzo edantegira joian bitartean, Errosa eleizarantz abiatu zan.

Edantegia eleizatit oinkada batzuk ur egoan, eta Errosa, errosario amaitu ondoren elizatit urtenda, edantegi begira, adi-adi, bere gizona ikusi naian geratu, ia Lorentzo,

ate edo leio ertz anbatetik ikusita keiñu bat egिñez, beragaz etxera joan eiten. Edantegia saratatsu egoan, eta Lorentzo atean ez leioan be, ez zan agertzen. Ostera Errosak ikusi eban, bai, edantegitik Lorentzo eskongea izan zanean, bere nezkamea izan zan atsotxua, bere ametalpean, erdi-estalduta ardao-sato ardoaz beterik eroala, urteten.

Atsotxu au baserrian, errian, La Botera ezezunaz ezagutua zan, eta egia esan ezizen au ederto jatorkion. Bera ta bere senarra, gizona, zaletxuak ziran "bota"ra" ta. Erri aretan olako zaletasunari olan deitzen dautsoe. Etxean, euren egoitzan, ukondoa jasoteko oitura eben, baiña edantegian ez, orrelan ardao-satotxua amentalapean eroala, ardao-edantegitik jon-etorriak egiten sarritan ikusten zan, eta ara emen zergaitik, Mikaela bere izena izanik, La Botera biurtu zan.

Erremerteriaren etxean La Boterak berak nai, gura eban guztia egiteko oitura eban, eta beste andrazko batek etxe aretako agintzea kentzen joan zalako, amurru apur bat ba eban!

Zer! Zure gizonaren begira zagoz!, maltzurkeri apur bateaz, Errosari itaundu etusan. Gaba-erdia izango da, bera zugana eldu baño leenago.

Josus gaba-erdia! Errukitu zaituz beregaz, gaba osoa edantegian emoteko gizona ez da ta, Errosak naigabez esan eban. Jai-egunetan goizaldeko ordueetararte edan eta jolasten egoten ziran Mentxaka, Udazaiña ta beste iru edo lau gizon galduakaz, bere gizona antzeratua uste izateak, Errosa naigabetzen eban.

Zuk ikusiko dozu, oker ba naz. Orainxe, une onetan dabiltz aume ta ardao, ta ez da izango bakoitzantzat asunbre bat baño gitxiago, jokatu naian eta apur bat geliago berotzen ba dira, jakiña, ortik ez dabe urtengo, alkate jauna euren bultzaka eldu arte.

Lorentzok ezin leike egin olakorik.

Jaungoikoak gaizkatu naiala ur baretatik. Mentxaka berak baño aldizkorrago egiten dau berba, itz, eta beragandik urten dau afari ori jokatzeara.

Ikusiko dozu zelan ez dauan jokotuko lotsez beterik, Errosak esan eban, eta bereala, bere gizona bertatik atera naian, edantegirantz abiatu zan.

Leiopean gelditurik, iguin egiten jakon alako etxe mozkor-toki ta zalapartatsua baten sartzea, eta alkar izketa au entzun eban:

Esana, esana da, gizona da, aume ta kantara erdi ardao jokatzeko, emen jazarri daitela, naizta ordurarte kuartillo ardao bat baño ez edan, aldizka Lorentzok iñoan.

Bene benetan diarautsuet. Zuek uste dozue ogerleko bat irazitzeke gizona ni ez nazala? Baita ontza bat be.

Bai, bai zara, baiña zure andrearen bildur be, udazaiñak iñoan.

Nik milaka deabruaz batera andrazko guztiak bialtzen dodaz.

Zeurea izan ezik.

Nireari, ezer esango baleuskit, belarrondoko bateaz matrail-agiñak aterako neuskioz. Ederto! Ederto!, txaloka edantegiko ardao-zale guztiak iñoen.

Au entzutean, berba, itz areik bere gizonagaitik entzuteak, Errosaren biotzean, oiñaze, atsekabe, samintasun sakon-sakon bat eragin eutsoen.

Okerrezko arrokeria, txarto ulertuko arrokeria, Lorentzo gizon zintzoen bideetatik baztartzan ebana, arruntki izaten zan.

Edantegira, ba zatoz, Lorentzo? bere lagunak esaten eutsoen.

Ez.

Ala, zikotz ori!

Eta Lorentzo, zikotza ez zala baieztatzeko, edantegira joaten zan.

Lorentzo beti ebillen arrokeriz, bere andrearen bildurrik ez ebala esaten.

Bere andrea, Errosa, zuzen be, arrokerigaitik bere eskuak ganean ipintea gauza zala, gomutauz, oinkada batzuk atseraturik edantegitik aldendu zan, baiña eleiz aurre-ra eldu zanean gogoratu eban, bere egin-bearra, gizonari geratzen jakon bere zuzentasun apurra galdu baño leenago, erritarren txantxeta ta iseka izan ez eiten, eta ondiño txarrago, kaltegarriago, bear ba da, auzitegien zigorra, edantegitik ateratzea, zan.

Errosa, bere begietatik jariatzen ziran negar-malkoak ikustapean legorturik, edantegira ausarki itzuli zan.

Lorentzo! atera bere aurpegia leio ondotik agerturik, iñotsan.

Entzun mezu bat.

Lorentzo, albo-alboka eseak egiñik, naizta berak eleak egin nai izan, urten zan.

Etorri zaitetz nigaz gurera. Erdu etxera.

Azkaltzen dogun ordurako joango naz.

Ala, etxean obeto azkalduko dozu.

Andrea, eziña da. Ara, pitxarrari moztuxu bat emoten sartu nai ez ba dozu, gero arte.

Olan esanez, Lorentzok bere andreaki sorbaldea emon eutsan.

Alkar-izketa zan bitartean, Mentxaka ta bere lagunak, eurak be leiora apur bat agertu ziran.

Iñoiz Errosak entzunda eban, guzur poliki ornidu bat, gitxi kostatzen zala ta oste-ra bere balioa aundia izan leitekela, ta gaitz-gabeko guzur batek eragin al leikena, ikusi nai izan eban.

Lorentzo, etorri zaitetz, makal aurkitzen naz eta ogeratu bear naz.

Lorentzok, bere andrea makal zala entzutean, edantegiko ate ber-beratan gelditurik, esan eutsan.

Zer dozu, ba?

Ez dakit zer dodan, baiña makal aurkitzen naz.

Joan zaitetz etxera, eta katillu bete salda artu eizu.

Etorri zaitetz laguntzen, ba, Lorentzo, zubia igarokeran beldur naz, burua zorobiotu eiten.

Andrazko ausarte biziagaitik! Lorentzok mur-mur iñoan, beragaz etxeratzeko asmuz, ziurki.

Baiña edantegiko leioan euren buruak agertuta egozanak, barre saratatsu bat eginda, esan eban:

Gora gizon ausartak!, Lorantzok.

Lorentzok burua arropuz oilarturik, naizta au, burua, astunkiro izan, bere batzar-kideak begiratu ebazan.

Goneen bildur zara ta ausartekeriak egiten dozuz? Mentxakak, ernargarri ta mal-tzurkeriz, itaundu autsan.

Bildur ni?, ukubillak estuturik Lorentzok esan eban, indartsu estuturik esan eban. Lorentzo nire biotzekoa! bere gizona maitasunez oratuta, Errosak diñotso, orrei ez eiezu jaramonik egin eta nigaz etxeratu zaitetz, ba da oso makal aurkitzen naz ta!

Ba il zaitetz eta millaka deabruak eroan zaizala!, astakeriz Lorentzok esan eutsan, eta bultzakada baten bitartez beragandik aldenduta, bere adiskide zantarren txaloak lagun ebazala, edantegira itzuli zan.

Errosa unetxu baten ixil-ixilik geraturik eta negar-turrusta geldiarazi eziñik, etxerantz abiatu zan, baiña eleizako ate aurretik igarotetan, eta naizta aldare nagusiko argi txikitxu batek uts-utsean argizaturik eta erdi utsik egon, bere barnera, eleiz barnera sartu zan.

Sifñismenez beteriko biotz batek eta oteundegiko argitxuak uts-utsean argiztatuko eleiz-barne batek, neke atsekabe, samin guztiak gainezkatzen dauz.

Errosa eleizatik urten ebanean, bere begietan ez zan negarrik, bere biotzean itxaropena ta bere ariman etsimen utsa zalako.

Ordu batzuk geroago aran osoan zan bake, ixiltasuna, txakurren auziak eta ibaieren mur-mur leunak uts utsean etentzen eben.

Gaba aretan Errementarien etxeko leiotariko bat nozean-beinka idegiten zan eta beratan emakume batek bere burua agerturik, arretaz, adi-adi entzunez, eta ibai beste bazterretik urrats ez abotsik ez entzutean, leioa ertsita etxeratzen zan. Alperrikoa da emakume a nor zan itauntzea. Errosa bere gizonaren zain, noiz ikusiko egoana.

Santa Maria eleizako ordutegiak amabiak goibeltasunez jo ebazanean, Errosa ogeigarrenez leioan agerturik, zubi beste aldean, baztarrean, urrats batzuk entzun ebazala, uste izan eban.

Goiz aretan euria ugari izan zan lez, ibai urioltsuak zubiaren aldamenetan jokeran bere asarrea murruskatzen eban.

Nire Jaungoikoa! Atsekabez beterik Errosak iñoan, zure esku Deuna emoiouzu ta gaitz, zoritxar, guztietatik gaizkatu eizu!

Zuzi bat biztuta, Errosa ibairantz leiatsu joan. Zubi estu ta goi, esku-bandagabea a illuntasun aretan igarotetan, bere gizonak igarotetan uretara jauzi ez eiten, bilduturik, kezkatu joan.

Zubira urreratzean, Errosa guztiz arrituta urrats batzuk itzuli zan, bere eskuetan eroan zuziaren esker, narraz, suge baten antzera zubiaren aldape batetik jaitzirik, mukulu bat, zerbait egoala begiztatu eban.

Berari eritxi jakon mukulu a, zubiaren igaro ebanean, nezkez, baiña zutundu zan, orduan Errosak bere gizona zala mugitzen zana, jakin eban.

Norberan biziaren eutsi-sena, abereetan beti izaten da, eta Jaungoikoak zentzuna ezarri dautsoen beste piztietan be eutsite-zen au izaten da, naizta sarritan pitxar bat ardao eateagaitik ukatu, norberan bizia aurrera eroateko zena sekula be ez jake faltatzen.

Lorentzon itxurea, ez ain zintzo maite eban bere andrearentzat uts-utsean, baita beste edozein gizasementzat, guttiz errukigarria zan.

Emakume argalari Jaungoikoak esan ei eutsan: "Makala zara, ta neketsu dan bizi-bizitza aurrera eroetako, laguntza bat bear dozu, ta zure makaltasuna eutsi dagian, or dozu gizaseme sendo bat". Jaungoikoagandik esaldi au entzun eban emakumeak, kurutz astun areri bere besoak eskeiñi eutsozan, beratan zurkaiztuta, egoitza dan santutegira itzuli eiten.

Gaba aretan Errosaren espanetatik itz, berba, maitekorrak uts-utsean urten eben. Bere soiñeko, Lorentzon soiñeko, basaz bete ta urratuak kentzen eutsozan bitartean eta maitekiro ogeratzen ebanean, izketa apal, maitegarria Errosak bere gizonagaz erabilen.

Biramon goizean guttiz goiztar, Errosa iturrira joan zan eta bertan La Boteragaz topo egin eban, topatu zan.

Atzo arrastian, Boterak esan eutsan, zure gizonak apur bategaitik muturreko bat emoten dautsu, ez?

Andrea, berba, itz, egizu mezedez fatxadaz! Errosak garrats erantzun eutsan. Nire gizona iñoren aurpegian eskua, bere eskua, ipinteko gauza ez da, eta gitxiago bere andrearenean.

Zer ba? Ez dozu ukatuko bultzakada anbat emon eutsula?

Ez, ez dot ukatzen, baiña autortu bear dot, neuk izan nebala errua, ba da neure asarreak eraginda iraindu neban, eta beste edozein senar batek ukubilkada itzal bateaz zigortuko ninduan.

Gaur, jakiña, mozkorra lotan aldenduko dau, ez?

Nire gizonaretzaz, iitzaltasun bereziagoaz berba, itz, egizu, besterik ez ba da be gaixoari dagokion begirunegaitik, ba nire gizona gaixorik dago.

Eta upel bat egiñik, La Boterak esan eutsan.

Gutziz oker zara.

Berba, itz, oneik esan ebazan aboskererak, La Boteraren itaunak amaitu ebazan.

Errosa etxeratu zanean, sutegi aurrean albo-erriko iru edo lau erritar ikusi ebazan. Lorentzogana etozan, lurgintzarako tresna batzuk, konpontzeko asmuz ekarsela.

Aaaii! Benetan sentitzen dot zuek alperrik egin dozuen bidali au, ba Lorentzo ogean gaixorik dago eta, Errosak esan eutsen.

Ori da txarrena, nekazariiek erantzun eutsoen. Eta zer dau ba? Gaixo garrantzitsurik dau, ala?

Ez, atzo goizean buzti zan, eta kostipedu itzal baten jabe da.

Ba, ori egun bi bat ogean egonez eta kuatillu bar ardao bero, egositako, gozoki apur bateaz kentzen da. Zurrumurrua jo pitxarragaz. Kaltegarritxu egiten jaku barriri itzultzeaz, baiña txarrena berantzat, Lorentzotzat, da.

Osatu daitela, bizkortu daitela, eta laster arte, itzuliko gara.

Erbestetarrak euren errietarako bideak arturik joan ziran, eta Errosa, bere gizonaren jokaera zentzungabea al izan eban bestean ostendu, edo edertu ebalako, atsegiñez, bere gizona egoan logelara sarturik, oge albora urreratuta esan eutsan:

Seme, gozaldu baño leenago, lapikotik katillutxu bat salda bero-beroa urdaila gozotu dagiatzun, emongo dautsut.

Lorentzo bere oker-egiña gogoratuz eta bere andrearen zintzotasuna ikusirik, onen parkamena errugutu gura izan eban, baiña bere arrokeriak eragotzi eutsan. Baiña bere biotz-barnean, sakon-sakonean, lotsatuten eban olako utskeririk geiagotan ez ebalda egingo, zin egin eban.

IV

Lorentzo leenengoz zubitik narras igaro zanetik, aldi luzea joan da zan.

Zenbat bider barriro era lotsagarri aretan igaro eban? Bere egoitz ta bere sendiaren egoera aztertu dagiguzan, eta azterketa onek, adierazoko dausku.

Arratsaldeko ordu biak ziran eta Lorentzo bere etxe aurrean, besoetan urte bi inguruko umetxu bat eukala, atsera ta aurrera ebilen.

Sutegia ertsita egoan eta lantegi aurrean egoan burdin-zaar moltso bat estaltzen eban bedarrak, luzarotxutik moltso aretan burdin-zaarrik ez zala botatzen, adierazoten eban.

Lorentzo argal ta begipedun, etsita, eta bere soiñekoak, naizta garbi ta arretaz adobatuak izan, txirotasun utsa adierazoten eben.

Sasi ta bedarra ortuaz jabetuta, ta bere egoitzan antziñako zeaztasunik ez zan nabaritzen; Lorentzo ta Errosa eskondu ziran leengo iletan izan eben joritasunaren itxurarik, iñondik be ez zan agertzen.

Lorentzok bere besoetan eukan umetxua guztiz ederra ba zan, baiña gaixoti ta goibel dirudian. Lorentzo umea alaitzen saiatazen zan, alegin guztiak egiten ebazan, bein ortuko ormatik agertzen ziran loratxuak artuaz, bein abesti maite ta bigunak abestuz, bein besoetan, dantzatu eragiñez; edo mozukatuz eta kutuntasun aundienagaz laztanduz.

Mentxaka bere etxetik urteñ eta zubirantz abiaturik, Lorentzo etxe aurretik igarotean, onegaz izketan, berbefan gelditu zan.

Mutil polita dozu, Lorentzo.

Bizkai osoan ez dago bere aiñako polit-ederragorik.

Asko maite dozu, ez?

Ludi onetako nekerik aundienak, Jaungoikoak umetxu au zaintzen daustan bitartean, niretzat ez dira ezer.

Nik umetxuak asko maite dodaz, baiña zuk bezela eurakaz nezkamea egitea txar-to deritxot.

Semerik ez dozulako, nik lez bat ba zeunke, arro egongo ziñake, eta jagon, zaindu, ta laztandu atsegifñez egingo zeunke, eta baita be bere naia betetzeko, umea zeu biurtu.

Mutila emoiizu bere amari, ta zatoz gugaz muzean, erdu edantegira.

Ezin dot. Errosa azokatik da ta.

Ekarri eizu orduan edantegira mutila be.

Edantegian geiago muzik egitea ez dot gura.

Keto, geldo bat zaralako.

Izan naitela.

Mentxaka bere bidean zubirantz joian, eta aldenduten ikusirik, Lorentzo norberatu ta goibeltzen joan zan.

Ostera La Botera beti bezela bere amentalpean ardao-zato eroala, etxetik urten eta Lorentzoren atarirantz abiatu zan.

Aii! Lorentzo, Lorentzo! esan eutson. Zelan zoaz oituratzen age bat bezela artez, artez ibilten!

Egin-bearraren ondorioa, Lorentzok erantzun.

Baiña, gizona, mailua apurtu egin jatzu ala? Amabost egun baiño geiago dira burdin otsik entzuten ez dodala.

Nire zoritxarrez, naiko senditzen dot nik, barrez.

Zer? Ez dozu lanik ala?

Ez andrea.

Ba seme, zeuk eta ez beste iñok, dau errua.

Lorentzo ixil-ixilik geratu zan, La Boterak errozoia ebala, ixiltasun aregaz baietzatuz.

Ikusten da! La Boterak jarraitu eban. Sei edo zazpi bider legua bat edo bitik, urrutetik, tresna batzukaz korkorduta etorri ta gero eurakaz, errementaria ondo ez dago-lako, konpondu barik etxera itzulteak, azkenean bezeroa nekatu egiten dau ta eroapen aundienatariko gizona bera be betirako uxatu.

Mezedez baketan itxi naizu, sermoirik, itzaldirik, entzuteko ez nato ta, zaurituta azkenean bere zentzungabeko arrokerian, Lorentzok erantzun.

Ala, piper ori, ez zaitetz nekarazitu, bada zure onerako diñot eta. Jaungoikoaren aingerutxu orreri mozu bat emoten itxi eistazu.

Atsotxua urreraturik, umetxua mozukatu esanez:

Serafin polit-ederra, ze zoritxarrekoa izan bear dozu!

Lorentzok ixilkiro, bere begietan agertzen ziran negar-malkoak estaldu gurean, apur bat bere burua makurtu eban, eta La Botera bere bidean abiatuta, bere aurpegia

ikusten ez ebanean, orduan bai, Lorentzon begietan negar-malko ugari izan zan eta umetxua sekulako maitasunez mozkatu eban.

Apur bat geroago Errosa, bere buru ganean otsara bat ekarrela, eleizatik ibaira jaitziten dan aldatz-beratik etorren.

Errosak be aldakuntz aundia izan eban. Bere aurpegiko margo gorritzka eder areik iges eginda, iru azken urteetan, amar edo amabi urte zaartu zala esan zeinkean.

Umetxua bere ama ikusiko orduko alaitu zan.

Ama, ama, ogi, ogi! umetxuak iñoan, bere esku txikitxua leiatsu amaren otsarantz luzatuz.

Bai, alabatxu, nire biotzeko maitea, bai! Errosak erantzun eutson, mozkaturik eta laztanez betetuz, ogi-kurruskutxu bat emon eutsan.

Aingerutxu arek, ogia jan ez, irunsi egin eban.

Zer? Ez dozue jan, ez? Errosak itaundu eban.

Ez

Zergaitik?

Ogirik ez geunkalako.

Ez neutsun esan ba, bestaldekoari gero ordea emoteko, ogi bat eskatzeko?

La Botera ta Mentxakaren andreari eskatu dautset, zuri euren bizi ta arimea be emongo leikizuela, baiña niri ezetz, esan dauste.

Eta umetxua gozez! Errosak arrituta esan eban.

Umetxuari emon gure eutsoen, baiña nik, ogia ta eurak be arbiatu dodaz.

Gutziz txarto egin dozu, Lorentzo.

Izan be, bakoitzak bere arrokeria dau.

Arrokeriak bidezko izan bear dau, eta sarritan, naizta olan izan buruari, norberan buruari, uko egin bear jako, ta orretarako zio naikorik da, onetariko umetxu batentzat ogi zati bat lortzea.

Zuzen zara andrea, Lorentzok ia negarrez eta bere izakeragaz nekarazita, erantzun eutsan: ergel, keto bat naz, eta ondiño txarrago, gaizto bat...! Onelako umetxu baten aita, ta zulako emakume, andra, done baten gizona, izatea ez dot merezi!...

Ara, ara! Asi zara zure betiko lelokeriakaz! Ara goazen, baztertu eizuz zure lañokeriak eta zoaz jaten, Jaungoikoari eskerrak, biar barau izan ez dagigun, ogi apur bat eta dirua be, emen dakardaz. Igaliak ederto saldu dodaz eta ganera zure zordun bat azokan aurkitu dot, eta zoor eutsuna ordaindu dauz. Lapikoa zaindu dozu?

Bai, eta beratik umetxuari katillukada bat salda emon dautsat.

Ba goazen gora ta ikusiko dozu, Jaungoikoaren bake ta gratziaz ze gogotsu jango dogun.

Alan zan, Jaungoikoaren gratzi ta bakez, Errosak, alboko urirantz urten baño leenago su-mukurren ondora urreratu eban lapikoan egoan janari urri, baiña mamintsu, maitekorra, Lorentzok, bere andra ta alabatxuak jan eben.

Egun aretan Errosak azokara otsarakada itzal bat igaliz beterik eroan eban, zama

astuna zan benetan andrazko batentzat, lau arropa gitxienez, baiña guztiz arña, Jaungoikoak eskondu zanean emon eutzonagaz berdintzen ba dogu.

Entzun eta ikusi dogunagaz eta daukaguzan beste zeastasun batzukaz, Errosa ta bere gizona barrero ikusi genduzanean izan eben egoera larri, ilun naigabetsuaren eretxi ziarri bat, osotu geinke.

Lorentzok bere andrea maite eban, guztiz maite, ta bardin bere alabatxua, ta ba ekian bere jokaeragaz berak ain maite ebazan gizaseme biak zoritxarrekoak egiten ebazala, baiña naizta egunero edantegira narrasten eban, menperatzen eban eta bere etxe, egoitzaren ondamen zan eta izen-gabetzen eban aje madarikatua aldatzeko erabagi zintzo bat izan, bere gogo baño aje gogorra goa zan eta egunero edantegira narrasten eban.

Erritarrekaitik baztertuta, gizonak ez eban aurkitzen adiskiderik eta errementariztan bezerorik be ez eban. Bere adiskide bakarrak Mentxaka ta bere aiñako zorigaizto ta baztertuko bi edo iru ziran, berak bezela edantegian euren sendien ogi ta bizi-bidea jaten, obeto esanda, edaten eben iru edo lau auzokide ergel, ganorabako batzuk ziran.

Errosa errukigarria, etsimen eta borondaterik txalogarrienakaz, atsedengabe lan, bear, egiten eban eta beraz dirua aurreratu. Bere gizonak bein baño geiagotan guztiz deuna zala, iñoan, eta egia zan. Bere eguneroko lan gogor eta neketsuak ez ziran gauza, naiko, naizta ugariak izan, bere ukamenak, etxeko bearzenak betetzeko.

Bazkaldu ondoren, umetxua bere amaren altxoan lo geraturik, onek, amak, ogeratuta, ogeratu orduko, bereala lusalla besopean artuta, txakurra lagun ebala, ibairantz abiatu zan.

Lorentzok balkoira urtenda, La Botera bera ardao-zatoa amentalpean ia estaldurik itzultzen zala, ikusi eban.

Olan da obetao, Lorentzo, olan guztatzen jat eta ez arratsaldero edantegira joanda, bertan upel bat bezela geratu arte egon, oraintxe mozkorti areik egiten daben lez. Etxean geratu zaitetz beti.

Itz, berba oneik La Botera uste eban guraria ez eben lortu. Lorentzon biotzean egin eban eragiña, guztiz ezbarðiña izan zan. Lorentzok bere baitan La Botera ta bere gizona ardao-zatotik zurrutada luze-gozotsuak egiten ikusten ebazan, eta beste alde bate-tik, Mentxaka ta bere lagunak alkar-izketa mamintsuan, eurak be ukondoa jasoten, iruditen jakozan, eta jakiña, beti bezela bere erabagi on-egite nai guztiak, irudi lilluragarri arein aurrean iges egin eben.

Lorentzo bere andreak diruak gorde ebazan kutxara urreratu zan, eta euratatik apur batzuk arturik, txanpon batzuk arturik, leiatsu, andrea itzuli baño leenago, edantegirantz abiatu zan.

Lorentzok, bera menperatzen eban aje madarikatu a azetzeko, beti atxaki anbat izaten eban; naigabe, atsekabeak ebazanean, eurak aitzutako edaten eban, eta atsegintsu zanean, zorion ori ospatzeko. Arratsalde, arrasti aretan edantegira joateko atxakia, goizean bere andreak azokan egin eban salduketa, izan zan.

Errosa bere buru ganean lusaila ekarrela itzuli zanean Lorentzo zubi ganean ikusirik deitu eutsan, baiña Lorentzo unetxu baten zalantzaz geraturik, ondoren bere bidean aurrera jarraitu eban. Bitartean, Errosa, Kapitan txakurra txeratsu, koipekeriz saltuka, zerbait esan nai baleuskio lez agurtuta, eskillera, mailadi gora joian. Kapitan txakurra bete atsetik jarraitzen eutsan, esan gurarik: "Andrea, nik ezingo dautsut zamaaldiak eroaten lagundu, baiña maitatu, maite izan eta zure alboan poz-pozik egoten, iñok, beste iñok, ez nau gaiñeratuko".

Ordubete geroago, Lorentzo ta bere adiskideak edantegitik alkate jaunak bultzakadaka ateratzen ebazan. Eutsi eziñeko mozkorragaz, oiuka Fernando VII aldian lez: "Gora kateak", Isabel II'en aldian "Gora gizon azkeak", eta aldi guztietan: "Jakin bear dozu, nik beti daudakala ogerleko bat adiskideentzat".

Beste ordu bat barenaduago, beluago, Lorentzo ta Mentxakak zubia lautxakur igitaroten ziran.

Unetxu batzuk geroago, Lorentzoren andrea ta Mentxakarena batera negar baten egozan, auzokideak entzun ez egien, ixillean, ba da Lorentzo ta Mentxaka euren eskuetan makila banagaz, euren atsegin eta naigabetan lagun ziranei, Errioxako edari baltzikatxuak zilegiten eutsen indar guztiakaz, zartada politak emoten eutseezan.

V

Lorentzok bere sendia aunditu eban, leenengo nezkatilatxuen ganera orain seme bi dauz, guztiz eder eta osasuntsuak. Euratariko batek sei urte ta besteak lau urte dauz. Euren arreba Margaritak amar urte beteko dauz, eta etxeko andratxu bat da; bere amaren urruntze aldietan etxea zelan zaindu, garbitu ta antolatzen dauan, bere nebatxuak garbitu ta jantsi, janariak egin ta oiloak ta txarria elikatu, ikusiaz, andratxu bat dala baietzatzeko ez da besterik bear.

Jazokera oneik izan ezik, Lorentzon sendi ta etxeak, azkenengoz ikustatu genduzanetik ez dau aldakuntzarik.

Txakurra, Kapitan, zaartxu dago, baiña lodi ta gogor, bere bizia egokituta daualako, eguneroko ogia bere narruaren izerdiaz irabasten dau, alboko mendiskatan erbi anbat edo beste arrapatuz.

Burni moltsoa, orain bedarrez ez eze sasiz be estalduta dago.

La Botera ta bere gizona ardao-zatotik zurrutadatsu dira, baiña ori bai, Jaungoikoak agintzen dauan lez, euren etxean, eta orrek antza danetik, edantegian edateak baño osasuntsuago izan bear dau. Lorentzo ta Mentxaka adifez andra-gizon areik baño gazteagoak dira, ta zargail batzuk egiñik dagoz, ostera La Botera ta bere gizona, Lorantzok etxe aurrean dagozan arte biak baño gogor, sendoago.

Lorentzo ta Mentxakak zubia gabero narraz, lau-txakur igaroten dabe. Oituratuta dira olan igaroteko ta.

Gutziz makal, apal eta zaartuta dagona Errosa da. Amabi azken urteotan izan dauazan zartadak, bai ekanduzkoak eta baita be gorputzezkoak, beragan zantzu berezia ezarri dabe.

Barrero ikustatzen joan giñanean, Errosa ogeratuta egoan, itxuraz gaixorik txarto, ta bere gizon eta alabeak kutuntasunez jagon, zaintzen eben bitartean txikitxuak, ezjakiteak eragiten dauan argitasun zoriontsuaz, artegian olgetan egozan.

Lorentzo guztiz lotsatuta dabil, oituraz zan baño lotsago, eta onek, oiturazko zitalkeria birritan aunditu egiten ebala, adierazoten eban, au da, zubia leenago, arterago egunero gabaz uts-utsean narraz igaroten ebana, orain egunero goizean eta gabaz, lau-txakur igaroten ebala.

Errosa kexaz aurkitzen zan, saietzatan, alboan eban min itzal batek nekarazita, geroago ta geiago naigabetuta zan. Lorentzo bere gizonak, bere eretxi ta La Boteranari jarraituz, alboan, minduko lekuan, arrilu bero-bero bat ezarri ta katillu baten salda piperbaltzeaz emoten eutsoen, osaki oneik, etxeosaki oneik, euskotarrentzat guztiz eraginkorrak dira.

Lorentzo, Jaungoikoagaitik, osagileari deitu eiozu, guztiz txarto aurkitzen naz eta! bere itz, berbaren doñuak une larri baten aurkitzen zala adierazoten eban.

Aail nire biotzeko ama maitea!, Margaritak naigabetuta negarrez, bere ama mozkutzen eban bitartean, iñoan. Naizta itz, barbarik ia egin ezifñik egon, ama nasaitu naian alegintzen zan.

Lorentzo, bere alabea ain larri ta atsekabetuta ikusirik, osagilearen bila urtenda, ordu lauren geroago beragaz agertzen da.

Osagileak gaixoa azterkatzean, Errosaren saitz ganean aurkitzen dauan arrilua, guztiz asarre jaurtitzen dau ta baita be umetxuak antolatzen egoan salda piper-baltz katilua. Alabatxuak ain maitasun bizi-biziaz bere amarentzat gertatzen eban saldatxua.

Guzti ori gaixoa il daiten naiko da, Errosa makaltzen dauana gibelego miña da, ta beraz gaixo ori baretzeko osaki guztiz ezbaridiñak bear dauz.

Osagileak, Errosantzat kaltegarria zan gaixotzaz azalpenak eginkeran, gaixoak eta bere sendiak ulertu ez egien, griegoz itz egiten eban.

Gaixoarentzat berak, osagileak, egokiena uste eban sendakia agindu ondoren, bere gogoia nasaitu egiala esan eutsan, bere eretxian gibelego gaixoetarako osakirik egokiena zala, uste izanik, eta Lorentzo lagun ebala, oneri jarraitu egion kiñu bat egifñik, gelatik urten zan.

Lorentzo, osagileak garrastasunez diñotso. Zure andrea ilten da, ta zuk kentzen dautsazu bizia. Luzaro, urte askotan emon dautsazuzan atsekabeak eraginda, gaur egun gaixo zital bateaz aurkitzen da, ta oraingo gaiztkondura atzoko zeure egikisunaren ondorio da; egun osoan edantegian egonez, eta etxeratutean andrea iraindu ta matrail, ukubilkada batzuk emonda, zeuk, gorazten zaitun damutzen zintzo autortu

daustazun orregaz, baiña zoritxarrez damutze orrek zure andrea eriotzatic ez dau gaizkatuko, ta egikisun orreik il-zorian ezarri dabe.

Lorentzo, begiak ezotuta negarrez egoan.

Orain, jarraitzen dau osagileak, gizon eta bere langintzaren eginberrak betetuz, diñotso, Errosa bear dauana negar-malkoak ez dira, zure maitasun, zure nasaitasun eta zure zaintze bereziena da. Beintzat azkenengo orduetan, senar on bat, aita obabago bat eta egizko gizon zintzo bat, ikusi dagiala.

Jauna, naizta iñoiz ez nintzan izan, orain izango naz, zin egiten dot, bere negarrak zenbatu naian saiaturik, Lorentzok erantzun eutsan.

Lorentzok bere andreari agertzen eutsan damutzea, artero sarritan egiña zan, eta aje madarikatu aren aurrean, milaka bider men egin ebala, Errosak gogoratzen eban. Onetariko gaixoak eragiten daben ildura ta sumebaretasunaz, une larri aretan Errosagan beste gogoketa batzuk be agertzen dira. Ume errugabe areik arik aurrera euren ama barik geratuta, etorkisun ilun eta gogor bat eurentzat iruditurik, bere biotzean min, samintasun izugarri bat eragiten dabe, amaek eurak utsean, eurak izan ezik ulertu, aitu eziñeko ta ikuspegi negargarri onen ondorioz bere gaixoa aunditzen zan ta azkenenean osagileak eleizakoak artea erabagi ta agindu eban.

Arime eder, bigun eta deuntasundun ziran bere gizon, seme-alaba ta auzokieak, negarrez ziran artean, Errosa, erreligiñoaren ats-aldiak arturik, bai gorputzez eta baita be arimaz, nasai geratzen da.

Errosa etzanda aretoan aurkitzen da, eta Marikita bere ama zaintzen bakar-bakarrrik dago ta bildurrez beterik; txakurra, Kapitan, artedian uluka dagolako. Danak aldendu ziranean eta Errosa gertaera oneaz konturatu zanean, umetxua aretoan bakarrik geratu zala, berari deituta, abots ixil ixilean, abots bigun, ez bere abotsa makala zalako, beragaz iñor nabaritu barik itz, berba, egin gura ebalako baño.

Nire alabatxua, iñotsan, ni zuek baño zoriontsuago izango naz, negar-malkoak geldiarazi naian dirautso.

Zergaitik, amatxu?, uste izanik, bere amak ludi onetako zorionatzaz egiten eutso-la berba, alaitasunez galdetu eutsan.

Zerura joango nazalako.

Aail! Ez zaitetz ill, azaldu eziñeko samin, atsekabeaz bere amagaz besarkada baten bat egiñik, umetxuak oiuka iñotson.

Alabatxu, negar egiten ba dozu eta ez ba daustazu adi-adi entzuten, ilgo naz, ba osagileak esan dauan lez, osatu naiten, ni ez nekazaritza bearrezkoa da.

Umetxua nasaitzen da, begiak legortu ta amari itz emoten dautsa, nasai-nasai aditutzea.

Ba aditu eizu, umetxua, bere biotza urratzen eban samintasun, oiñazea geldi-arazi naian saiaturik, jarraitu eban. Danok jaio gara ilteko, ta errezagoa da nilako gaixo bat iltea. Orain apur bat obeto senditzen naz, eta ziur naz laster ondo izango nazala, osatu, sendatuko nazala, ba nire kaltegarri ziran arrilu ta piper-saltza bazterturik nasaiago

aurkitzen naz, baiña Jaungoikoak nigan beste urten-bide bat erabagita ba dau, zeruratu nai ba nau, ain atsegintsu dodan tokira eroaten ba nau, zure nebatxuak, nik zain-tzen nebazan bezela jagon, zaindu dagizuzala, amatzat eurakaz egin dagizula, ba beste ama bat ez dabe izango... eskatzen dautsut.

Errosa, negar-malkoak eta biotz-samintasunak ia erdi itorik, ixildu zan, eta Marikitak, bera be negarrez, bere ama mozuz ta lastantasunez betetzen dau.

Nik, amatxu maitea, agintzen daustazun guztia egingo dodala, zin egiten dautsut!, eta umetxuak atzamarrak kurutzaturik, gure erriak bere agintze ta opakisun berezia emoteko, ain gozoro artzen dauan ikurra, beratan mozu luze bat, ezartzen dau.

Zure itz-emona beteko dozula, zugan itxaroten dot, nire biotzeko alabatxu maitea!, samintasun eta pozez batera, negarrez, Errosak iñoan.

Eta jarraitu eban:

Nigan ikusi dozun maitasun eta arretaz, eta baita be eroapenez, zure aita jagon, zaindu eizu, bere aginduak bete eizuz eta mendetu nik mendetzen dodan lez. Bete egizuz ba, nire agindu oneik.

Umetxuak barrero bere amaren agintze guztiak betetzea zin egiten dau, ta orduan Errosa nasai-nasai geraturik, umetxua beatz ganean ama izartu ez daiten ixil ixilik urtetzen da.

Errosa bai, lo dago, baiña betirako loa da, Jaungoikoak, ludian maitatu ta negar egiten daben gizaseme guztiei, lo au, deuntasun eta maitasunez osotzen dau.

VI

Errosa il zanetik ile batzuk joan dira, ta Lorentzo guztiz goibel egoan. Bere zoritxarrerako, done zan bere andra maitearen gogorapenak, toki ta ordu guztietan beragaz joiazan; kezka ta maitasunaren irudia bezela, gozo ta garrats batera.

Bedar eta sasiz estaldutako leenago burdin moltsoan, beste burdin-zaar pillo txikitxu bat agertzen da. Antziñako albo errietako bezero bazuk eta baita be bere erritar batzuk, Lorentzo ain goibel eta bere arterako jokaereaz bene-benetan damaturik ikusita, laia, atxur eta golde batzuk konpontzen eroaten eutsoezan, eta bere etxea itxita, utxita, Santa Maria eleizaren aldamenean leizarpean ikusten zan barruti itzaltsu aretan Errosaren gorpua ezarri zanean, errementariaren etxean zan goibeltasun, mailukada otsan alaitasunak, apur bat sakabanatze eban.

Esan zeinkean Errosaren arimea, zerura egaz igon bearrean, Marikitan gorputz, soin, makal, bigunean geratu zala.

Marikita bere ama izan zanaren irudi ber-bera zan. Bai etxeko lanak egiteko ardu-

ra, leiatasuna, ta baita be bere aita ta nebak jagon, zainduten ebazan arreta, laztanta-sunagaitik.

Lurralde a, aran a, goizeko eguzki alaiak argitzen eban orduko, errementeriaren egoitzatik ke-edoi zubi batek igoten eban, eta Marikita bere buru ganean lusaila ebala, aunditasunen bere añaiko lusaila, iturrira joian.

Txarria gurrintzeka ta oiloak kar-kar goizaro euren gozaria eske asten ziran, baiña euren eskariak bereala izaten ziran betetuak, Marikita leiatsu atarian galdarakada bat egosari bero-bero aska baten iraulirik, eta bere amentalean arto-garao lurrean ereinten antzera edatzeko; txarri ta oiloak saratak umetxuiri adierazo nai eutsoen: "Jaungoikoak ordaindu dagizula ta nik iruntsi dagidala".

Sarritan umetxuak, bere nebak, txarri ta oiloen zalapartak, gozari ekartzelako egiten ebazan saratakaz izarturik, alkondara utsetan Marikitan atsetik jaitsiten ziran.

Lotsabakook! ifñotsen Marikitak, Ori da etxetik urtetzeko erea, itxurea!

Galdarea besotik eskegita, euren eskutxuetatik umetxuak ebazala ta agirekadaka jarraiturik, gora itzultzen zan. Bertan arpegia garbitu, gura nai gura ez jantsi, ta bakoi-tza ogi zati bana eskuetan ezartzen eutsen, eta alboko artedian, sutegian edo ortuan, bazkaltzako ordurarte deabrukeriak egiteko baimena eben.

Ordu bete geroago bere aita ta nebatxuei bazkaltzera igoteko balkoira deika ager-tzen zenean, Lorentzok bere alabatxua, onek, umetxu onek gertatzen eutson bazkari gozoa bera baño be, alabatxua gogotsuago mozuka jango eban.

Marikitak soñeiko eta oialak garbitzen ebazan, Marikitak oreztatzen eban, Mariki-tak josten eban, Marikita guztien ardura zan, eta ildako bere amak bezela egiten eban, Jaungoikoak bere amaren arnasea, gogoa beragan ezarri ebala dirudian.

Ez egoan erritarrik, igandeetan bere nebatxuak lagun, meza nagusirako kanpaiak deika entzuten ziranean, baltzez jantsita, esku baten argiziri bellegi, oria, ta bestean opari zuria, bere amaren ilobi ganean belaunikoturik eta meza osoan bertan errukita-sunez, jasean, negarrak begietan eta otoitza espanetan, bere amaren gogoa beragan eta Jaungoikoa biotzean, iraundurik, ez egoan, diñot barriro, guztia au ikusirik, negar-malkoz begiak buztitzen ez jakonik.

Naizta Mentxaka, Lorentzon arerio tentalaria, zubia lau-txakurraren igaroten jarrai-tzen ebanak, Lorentzori ia egunero aje madarikatu aretara barriro itzuli eiten, deitu, Lorentzok bere oñik edantegian ez eban geiago ipiñi, bada ba ekian toki ori bere sendi ta bere galmena izan zala.

Mentxaka aitatatu dogun ezkerro, aitzuta itxi dogun gure gogorapen bat ezarri dagi-gun emen, era obarik ez dogu izango gizon aren jokaera, mozkorti aren izaera ta jokaera azaltzeko.

Ipuin onen egilea, orain iru urte bere baserrira itzultean, ogei urte baño geiago urrutiraturik egonda, Mentxaka gizon-galdu bat lez aurkitu eban.

Zelan Mentxaka? Itaundu eutson.

Txarto, ba.

Zelan ori?

Bizkaitarrak, Madriltarrak bezela zurrutadak ez egin.

Eta zure anaia bizi da?

Edaten dau.

Eta zelan, ondo dago?

Ooo! A zorionsua da. Sagia dauka etxean.

Iparralde probintzietako mozkortien amesa, etxean Errioxako aradao sagi bat eukitea izaten da.

Griñak ez dabe kentzen jakiturrik, bearrezkoa dogu autortzea, lurralde aretan, ain zintzo ta deduzko erri aretan mikelete ta guardi-sibillek alperrik dagozan erri aretan, eltxoak benetako zigorra dirala.

Arratsalde baten, erbestetar bezero baten tresna batzuk, lan gogor eta neketsuz konpondu ondoren, onek, erbestetarrak, Lorentzori esan eutson.

Ara Lorentzo, gaur kuartillutxu bat edan bear dogu, nigaz gaur ondo jokatu dozu ta.

Eskerrik asko, Lorentzok erantzun eutson, lotsaturik beragan opari onek sortzen eban gogorapenagaitik, ardaorik antziñatik ez dot edaten eta ez dot usterik be geiagotan edateko.

Ara gizona, keto bat ez zaitetz izan. Uste dozu egoera danean kuartillutxu bat ardao edanagaitik gizonak bere osasuna, etxea ta izen-ona galtzen dauanik?

Nire sendi ta nire zoritxarrez, aje madarikatu orretzaz larregi dakit. Ondo be ondo dakit ze kaltegarria dan.

Ze aje ta aje-bako! Gauza bat da urdaila erosotu ta lanerako bizkortasun apur bat izateko edatea, ta beste bat mozkortzeko edatea. Lurralde onetan gizon deduzko ugari, ta ostera ardonazkak guztiz urri.

Nik neure burua zentzunduna ta gizon deduzko, zintzoa nazalatzat dot, baiña orregaitik adiskide on batzukaz kuartillu bat ardao edan bear ba da, iñoiz inkiririk nire lagunari ez dautset egiten. Eta ederto egongo litzake, zuk niri olako zerbait egitea!

Ara jauna, ez da inkiririk, neuk neure buruari ezarri dautsadan agindu bat da...

Emen ez dago agindu, ez agintaririk be. Goazen edantegira, gizona.

Barrero dirautsut ez noala... Lorentzok iñotsan.

Zer, uste dozu bakoitzak bera ordaintzea eragingo dautsadala?, erbestetarrak, esan eutsan.

Olako bildurrik ez dodala ikusi dagizun, goazen ara, beti bezela bere arrokeriak alako zalatar dollor bat jasan ezifilik, azkenean Lorentzok erantzun eutsan.

Lorentzo ta bere laguna edantegirantz abiatu ziran, baiña Lorentzo asmu zintzo-zintzoaz, ardaoa dastatu uts-utsik egiteko.

Marikitak bikote ori zubitik igarotean ikusi ebazan, eta nora joiazan igerririk, dardar, ikeraz beterik bere gorputz osoa eban, baiña erbestetarra Mentxaka ta bere laguna bezela mozkorti, ardaozalea ez zala gogoraturik, eta bai ostera gizon langile, zin-

tzo, deduzko ta etxe-gizona. Naizta olan izan eta olan jarraitu, nozeanbein bere lagunak ardao apur bat edaten ebala, ba da ardao larregi edan ezik, edari osasuntsu ta poz-eraile dalako, batez be langileentzat, guztia au gogoraturik, neskatilatxua nasaitu zan.

Lorentzok bete eban bere guraria. Bera ta bere lagunen artean azunbre erdiko pitxar bat utsitu ebanean, edantegitik aldentuta bere etxerako bidea artu eban. Bere gorputzean azunbre bat ardao baño geiago eroala, edantegitik aldendurik, sekula izan ez ebalako poz-alaitasun bat sentitzen eban.

Lorentzok, alargundu zanetik, naigabetu, ezereztuten eban goibeltasun, beragandik ezin izan eban aldendu, ta gaba, gau baten be ez eban afaldu gogotsu ta lorik egin be, ostera gau aretan alai aurkitzen zan, eta bere semeak lagun ebazala, jatun afaldu ta guztiz nasai lo egin eban.

Egunak eta asteak joan ziran eta Lorentzon goibeltasuna beragan izaten zan beti, toki guztietan eta zio guztiekaitik bere andra maitearen gogorapena bizi-bizirik agertzen jakon, eta bere biotz-barnea oiñazten eban kezka itzal a, ezin izaten eban ixildu.

Arratsalde baten, ia egunero egiten eban bezela, Mentxaka sutegira bere pipea biztuteko atxakiz urreratu zan, bere eguneroko bidalia edantegira zan. Arratsalde aretan Lorentzo, neskatilatxua apur bat makal ebalako, sekulakorik goibelen aurkitzen zan. Lorentzok umetxua guztiz maite eban eta bururatu jakon bera ta bere semetxuakaz, Errosaren ordezkioak itxiko baluskiez, zer izango zan. Burutasun onek arduratsu, kezkatu eban.

Lorentzo, Mentxakak iñotson, deabruak goibeltasuna aldenduten dabe.

Ezin dot Mentxaka! Lorentzok goibel erantzun.

Errosagan zergaitik beti gogarutzen dozu ba?

Ezin dodalako aitzu.

Guzurre diñozu.

Ez diñot guzurrik, ez.

Edan eizu kuartillutxu bat eta ikusiko dozu zelan aitzuko dozun.

Ni edantegira itzuli naiten erreguka ez zaitez alegindu.

Leengo egunean erbestetarragaz joan ziñan, ba.

Nire bezeroa da, ta edantegira joateko opa eustan, ta ezin neutson arbiorik egin.

Arraio, arraioa! Eta niri zer egiten daustazu, ba?

Zugan uste naz.

Orduan adiskidetasunez esan eistazu, erbestetarragaz joan ziñanean goibeltasuna zugandik aldenidu ba zan ala ez.

Bai aldendu jatan.

Orduan zatoz nigaz be.

Ez noa

Kuartillutxu bat uts utsean edango dozu eta ondoren mutilakaz afaltzera itzuliko zara.

Lorentzok, azkenengo edantegitik etxera itzuli zanean izan eban alaitasun eta poza, eta gogotsu afaldu ondoren ain naisatasunez lo egin eban gaba gogoratu eban, baiña baita be gogoratu eban, milaka bider Mentxakaaz edantegira joan zala ardao apurtxu bat uts-utsean edateko asmuz bizi-biziaz, eta beti lagunen ereduei jarraituz, zentzuna galdu arte edan ebala.

Mentxaka, mezedez, itz, berba, egin eistazu beste zerbaitetzaz, baiña ez naizu aje madarikatu orretara eroan, ez naizu bide orretatik narrastu.

Erreñak edanten dauan ardao edantegiko andreak artu dau gaur, eta sagia nik asiko dot oraintxe. Geldo bat izango zara, laurleko bat aurreratzearen ez ba dozu apur bat edaten.

Mentxaka! Lorentzok guztiz asarre esan eban. Begiratu eizu zer difiozun, zugaz ez ba noa ez da zekenkeriagaitik.

Egikisunak maitasunak dira.

Goazen ba! Lorentzok erabagitze sendoaz itz, berba, oneik esatean, Mentxaka ziur egoan arratsalde aretan Bakoren aldare aurrean laguna izango ebala ordainketa orduan.

Alan izan zan, Mentxaka ta Lorentzok edantegirako bidea artu eben. Bertara eldu ziranean, La Botera bere ardao-zatoa amentalpean ebala, bertatik urtenda bere etxerantz joian.

Aii! Lorentzo! atsotxuak samiñez esan eban! Ondo esan neutzun zure neskatilatxua zoritzarrekoa izango zala! Nire biotzeko txikitxu orrek ontasuna bere ama deunaren ondore dau, baiña baita be bere zoritxarra!

Au entzutean Lorentzo apur bat bildurturik, urrats bat edo beste atseratu, etxera itzuli gurean, baiña Mentxakak besotik oratuta ia narrez edantegira barrura eroan eban, esanez:

Sorgiñ orreri, ez eiozu jaramonik egin!

La Botera errementeriaren etxe aurretik igarotean, Marikita egur-txorta bat buruan ebala arteditik jaitsiten ikusi eban.

Neskatilatxua margul eta goibel egoan.

Umetxua, zama ain astun orregaz eztanda egindo dozu, La Boterak iñotson.

Makal ez banintz, ardura gitxi izango neuke zama onegaitik, umetxuak erantzun.

Ba zer dozu?

Ez dakit, baiña azpaldian apur bat makal aurkitzen naz.

Jakiña! Eta olan asto bat lez lan egiten ba dozu, zure ama, goian bego, il zan beze-la zuk be zure azkena izango dozu. Bitartean zure aita maltzurra edantegian mozkortzen.

Nire aitagaitik ez eizu esan olakorik!, neskatilatxuak asarrez mindurik, gorri-gorri eginda esan eban.

Egia esaten dauanak, Jaungoikoa gorezten dau.

Nire aita orain ez da mozkortzen.

Gaur gabean ikusiko dozu, edantegitik itzultzen danean, Mentxakagaz bertara joan da ta.

Mentxakagaz edantegira!, Marikitak mur-mur arriturik iñoan. Egia da ori?

Arren izango ez balitz, alabatxu!

Gaba aretan beste gaba askotan jazo zana jazo zan. Aran osoa ixil eta ilun egoan, eta zubiak aldamenetan topez egiten eban uraren zurrumurru uts-utsean entzuten zan. Baita be ibar, aran, aretako basetxetan euren egoitzak zaintzen ebezan txakurren ausiak, zaunkadak. Nozean bein errementeriaren etxean leio bat idegirik, bere barnean argiratzen eban argiziri baten argitasunetan, neskatilatxu bat bere burua, aurpegia, agerturik ikusi zeinkean. Umetxua, unetxu batzuk adi-adi leiotik kanpora egon ondoren barrero bera ertziaz, inguru aretan ilintasuna jabetzen zan.

Santa Maria eleizako kanpaiak amabiak jo ebazanean, zubia gizon bik lautxakurreen igaroten eben apur bat geroago banandurik.

Mentxakan etxean zer jazo zan ez dakigu, uts-utsik gizonetariko bat etxe aretarantz abiatu zala, baiña bai errementeriaren etxean jazo zana, au da beste gizonaren elmugan.

Marikita bere nebatxuen oge ganean jazarrita egoan, ba da oneik, aizeak arte artean egiten eban txistuaz bildur zirala ta, deitu eutsen, bere aita atean deika ta sara-taka entzun ebanean.

Neskatilatxua, leiatsu, bizkor, krisailu bateaz bere aitari atea idegiten jaitsi zan.

Lo zengoan, maltzur, alper ori..? Ara... zurtu zaitezan!, aitak iñoan, zartada bat emon gurean.

Umetxuak bere espanak ez ebazan zabaldu, ixil-ixilik geraturik, bere biotz barne-tik bere amaren laguntza otoitz bidez eskatu eban.

Benetan negargarria, ume erru-gabe onena, bai, zu ona ta biguna izanik, zu jotze-ko zure aitak jasoten dauazan besoak, Jaungoikoaren zuzentasun doneak, esku donausle orreik, azpiratu dagizala!

VII

Gaba ilun-iluna zan, Santa Mariako eleizako dorreko ordutegian amabiak jo-barriak ziran. Mentxaka ta Lorentzo gaba-erdi onetan edantegian aurkitzen ziran, bertako gizona, ugazaba, gizon arloté bi oneik bertatik atera ezifinik saiatzen zan. Ardao naiko ez eze larregi be edan ebela, ta orrez ganera erriko alkateak, endore jaunak, edantegiak gabeko amarrtatik aurrera idegita egotea debekatuta ebala, esan eutsen.

Baiña, zergaitik errozoi bi oneik, edantegiko nagusiak ez ebazan erabili gabako

amarretan, Lorentzo ta Mentxakak leenengo kuartillu ardao edatea amaitu ebenean? Zergaitik orduan ez eban betetu alkatearen agindua?

Azkenean, ardao-saltzaileak, naizta bultzkadaka izan eta erdi narraz, bere naia lortu eban, ta biak, maitasun eta laguntasunez, emen jausi an jaso, eleizatik ibairantz zan bidea artu eban.

Gaba aretan Lorentzorenean leiorik ez zan idegi.

Mozkorti biak, lurraldean aldatz-pikeagaitik zubi alboan aurkitzen zirala konturatu ziran, eta olako gertaeratan sarritan egin eban bezela, lurrean etzunda, narraz, lau-txakurrean, oituratuta egozan eta, zubia igaro eban.

Oiturari jarraituz, artediko aldatz-gorara eldu ziranean, banandurik bakoitza bere etxerantz joian. Lorentzo bere egoitz-atarira eldu zanean, Mentxaka joian inguruan, bera egoan toki inguruan, oi mingarri bat entzun zan.

Mentxaka, jausi zara? Lorentzok, bere mozkor berbeteak zilegiten eutsan bestean, abots egin eban.

Baiña ez eban entzun erantzunik.

Orduan, bere etxeko atean birao ta berba zakarrez beterik, deitu eban. Unetxu batzuk geroago, norbait jaitsi zan atea idegiten, baiña ez Marikita, bere seme zaarrena zan, negar baten itz, barbarik be egin eziniik.

Zer dozu auntz baten seme orrek?, ostikada bat emon naian, esan eutsan.

Marikitak il bear dau! mutiltxuak erantzun.

Au entzutean, Marikita txarto egoala entzutean, arritasun-mingarri baten mugitze egin eban, eta bereala beragan bere zentzu apurra, geratzen jakon zentzun apurra, lorturik, bere aurpegia nasaitasun irudia zan.

Eskilerak leiatsu ta larri igonda, neskatiltxuak lo egiten eban logelan sarturik, Marikita ogeratuta aurkitu eban, bere neba txikiena bere alboan negarrez egoala.

Zer dozu umetxua?, Lorentzok bere zentzun apurra bururatuta, maitasunez eta larri, kezkatu, itaundu eutsan.

Aita, ilten naz!, abots bigun eta larritasunez erantzun eutsan.

Nire biotzeko alabatxua! Neskatiltxuen aurpegi ia otz eta gorpu antzekoa mozkaturik, iñotsan.

Eta balkoira beingoan urtenda, ojuka asi zan:

Auzokideak, mezedez etorri zaitze, alabatxua ilten jat ta!

Baiña ez zan izan erantzunik.

Txakurren ausi ta ibaiaren zurrumurru otsa uts-utsean entzuten zan. Aran osoa ixiltasunean jarraitzen eban.

Osagilea urrunegi bizi zalako ta Marikita bere nebatxuen laguntza uts-utsean geratu ezin zalako, Lorentzok adi-gabe kristailu bat biztu eban, eta bere auzikiderik urrenak ziran Mentxaka ta La Botera etxeetarantz, krisailu ta guztiz be zerbaitegaz topo egiteko bildurrez, topo egin barik eltzeko bildurrez, abiatu zan.

Lorentzok, aitz, arkaitz, bitartetatik Mentxakaren etxerantz joian bideziur bat artu

eban, eta oinkada batzuk egin ondoren, gizon bat lurtean etzunda, jausirik ikusirik, oiuharagarri bat, ixiltasun aretan ondiño izugarriago eritxona, egin eban.

Berak eroan krisailua gizon aregana urreratu ebanean, bigarren oiua, leenengo aifnako mingarria, asperendu eban. Lurtean etzanda egoan gizona, Mentxaka zan, odol-ozin baten erdian ilda, burua izugarritz porruzkaturik.

Bide-ziur aldamenean egozan aitz batzukaz topo eginda jausita, Mentxakaren burua zatituta geratu zan.

Une larri aretan, aita zorigaiztoko arek, zer egin, il-zorian zan bere alabatxuari lagundu, ala ilda zan bere lagunari?

Atsera itzulirik, La Boteran etxean, azkenean bere laguntza-eskea entzutea lortu eban, eta beraz bere naia betezea, au da, berari lagundu naian euren etxetik urtetzea.

La Boteran gizona krisailua artuta Osagileagana joan zan, eta Lorentzo La Botera lagun ebal, neskatilatxuen laguntzen joiazan, itzuli ziran.

Neskatilatxua ia berba barik egoan. Bere aita urreratu eiten, bere eskutxuaz kiñu bat egin eutsan, abots ixil-ixilean belarrira, arduratsudunez, ifnotsan:

Aita, ni ilten naz! Nire nebatxuek zaindu ta poz-arazteko ez dabe geiago izango amarik, baiña aitarik izango dabe?

Bai alabatxu!, Lorentzo negar malkoz bere begiak ondaturik, erantzun eutsan. Aita izango dabe. Zure ama ta nire gaizkatasunagaitik, zin egiten dautsut!

Eta ama be izango dabe! Lorentzo bezela negarrez eta umetxu biak bere bularrean estuturik, La Boterak ifnoan.

Jaungoiko, nire ama ta nigandik, bedeinkatuak izango zarie!, Marikitak poz, alaitasunez, mar-mar ifnoan.

Unetxu batzuk geroago, bere arimea, bere ama donea itxaroten egoan tokira igon zan. Zerura igon zan.

Kapitan, txakurra, ordurarte okoilu baten ixil-ixilik egon zana, burua makurturik artedira urtenda, guztiz goibel ulluka asi zan.

Une aretan zubi ganean argitxu bat agertu zan.

Berandu, belu, eltzen garala uste dot, La Boteran gizonak Osagileari esan eutsan. Zergaitik?

Ez dozu entzuten errementeriaren txakurra, zelan dago negarrez?

Gizona, olako txotxolokeriak, ez eizuz sifnistu!

Errosa il zanean be txakurrak, Kapitanak, bardin-bardin negar egiten eban.

Sifniste ori txotxolokeri bat zala, txakurrak norbaiten il aurreko unetan edo ilten danean, negar-auziak egiten dabezela, Osagileak uste eban. Baiña berak eban zalan-tza ori argitzeko sifnise-bidea beingoan izan eban. Neskatilatxuak, gaixoak, bere il-agiri ezartzeko aukera uts-utsean eskuratu eutsan.

Marikita ta Mentxakaren ileta urteurrunean, burdin zaar pilloa asko aunditurik egoan eta beratan bedartxu bat be ez zan ikusten.

Lorentzo guztiz goibel bizi zan, baiña zubia lau-txakur ez eban geiagotan igaro.

Udalzain edo beste anbatek edantegira joateko eskatzen eutsoenean, bere alabatxua il zan gaba krisailu argitan ikusi ebana, ta gaba, gau beratan bere alabatxuak belarri-
ra esan eutsozan itz, berba zoragarriak, gogoratzen ebazan.

Mutilak lodi, alai ta garbi egozan, eta ikastolara egunero utsik egin barik joaten ziran, itz, berba bateaz esanda, aita ta ondiño ama bat ba eben, eta zoriontsuak ziran.

Euren aita be ba zan? Bai odol-aitorle done ta aingerutxu baten ezaugarria bere eskuetan dauazan gizon batek, eta bere barnean dauan biotz-eragiñak zilegi leikion erara, bai!

ILDAKO TA BIZIEN IPUIÑAK ERREGEAREN SUIÑE

I

Errege bat zan, baiña guztiz zekena, bere menpekoak zoriontsu bizitzen alegindu bearrean, urre ta zidar meatzak bilatzen emoten eban asti guztia, ta laterriko arazoak alde batera, baztertuta itxita, utxita aurkitzen ziran. Urte gaizkia olako erregearentzat!

Basetxe baten albotik igarotean, etxe txiro, apal baten alaitasun utsa ebela ta bertako biztanleek leioetatik zu-ziriak botatzen eta mutikotxuei txanpo eta igaliak ugari jaurtitzen eutsezala, nabaritu eban.

Erregeak alaitasun au zergaitik zan jakin naian, nekazari apal areri itaundu eutsen.

Etxe aretan, andra-igartzaile batek ziurtatzen ebanetik, berari bururatzen jakon gustia lortuko eban umetxu bat jaio jakela, erantzun eutsoen. Orrez ganera umetxu onek ama bost urte ebazanean, erregearen alabeaz eskonduko zala, andra-igartzaileak iñoan. Orregaitik mutiltxu ari erregearen suiña deitzen eutsoen. Benetan umetxu au, zutik, zutunik jaioa.

Errege zeken eta gaiztoa aiñako aztikeri-zalea zan, eta bere baitan iñoan:

Ederto egongo litzake mutil ori eskonduko dan erregearen alabea, nire alabea izatea; orduan gizon arrunt, ez-jakin baten aitagiñerrabe izateari dagokion lotsea jasanez ganera, nire erako, aundiki, suin anbatek ekarriko leuskidazan ondasunak, uko egin-da izango litzakez!

Erregea oldozketa onetan ebilen, eta azkenean jaio-barrian aita-amagan aurkezturik, umetxua emon egiela eskatu eutsen; umetxua azi ta printzipe bat bezela ezitzen, bera arduratuko zala ta azkenean bere ministrotariko baten alabeaz eskonduko zala, esanez.

Leenengotan umetxuaren aita-amak, erregearen adierazpena ez eben ontzat artu, baiña erregeak dirua be opa eutsen (dirutzaz gure erriko, laterriko, bertso batek olan

diño: Txin-txin, diruaren otsa, onek emoten diost maitea biotzean poza“), orduan andra-gizonok, umetxua zutik, zutunik jαιο ba zan, egikisun guztiak ondo be ondo izango ebezala konturaturik, eta umetxuari erregeaz gaztelura joateak ezin leikiola eze-lako kalterik egin uste izanik, orduan bai erregearen naia on-artu eben.

Erregearen asmu, egin-naia, umetxua ibai albotik joian erreka urretan itotea zan. Uretara umetxua jaurtitzeko une beratan, bere alabatxuaren irudi berbera zala konturaturik, umetxua, aingerutxua itoteko adore barik geratu zan. Orduan umetxua kutxatxu baten ezarri, kutxa barnean ezarri eban, artero kutxatxuari, umetxuak arnasea artu egian, goi aldetik zulotxu bat egin eutsan, ondoren kutxatxua ur ganean arretaz ezarri eban. Beingoan erreka urak narrastzen ebala kutxatxua, jαιο-barria bere barnean ebala, erregearen begietatik estaldu zan.

Kutxatxua errota baten ur-askaraño elduta, errotariaren morroiak uxeta jaitsitera joan zanean, ikusi eban eta beratan altxor berezi bat egon eitekela uste izanik, sarda bateaz erreka bazterrera, ur-aska albo batera baztertu eban. Morroia kutxatxua idegi ebanean arrituta geratu zan, lotan bertaraño eldu zan umetxua ikusirik, azaldu eziñeko biotz-ikara bat izan eban. Morroiak kutxa idegiteko arri bateaz emoten ebazan zar-tadeen otsaz, ume eder-ederra, gorrizka irribarreka agertu zan, izartu zan.

Aurrerako egunetan errotari ile bi ebazan mutiltxu bat il jaken, eta morroiak, umetxu au sendi onentzat atsegingarria izan leitekela, uste izan eban. Egia esan, morroia ez zan guztiz oker, ba errotari-andrea, mirariz aurkituko umetxu a bere bularrean ezarri eban orduko, berana izango balitz bezela on-arturik, poz-alai sentitzen zan. Egun batzuk geroago bere jaiotze-ama balitzake lez maite eban.

II

Jazokisun au izan zanetik amalau urte geroago be, erregea orduan zan baño aberatsago egin eikien meatzen bila ebilen. Adifñez gorantz joiala, bere aundikeria be aunditzen joian, bere urre-zalekeria be bai.

Uste-gabe euri zaparrada itzal bat izan zan, eta erregea arifieketan bertatik ur egoan errota baten aterpean, beragandik babestu zan. Basetxe aren edertasun, ta errotariak beragaz eban maitasun, zaintze ta begiruneaz arrituta egoan. Bertako mutil gaztea, amalau urte ingurukoak bere alabeaz eban antza be nabaitu eban.

Mutil ain eder, polit au zuen semea da?, errotariei itaundu eutsen.

Ez jauna, guk ez dogu izan mutil bat baño, ta bera ile bete bi ebazala il jakun. Au gure morroia da, orain amalau urte kutxatxu baten barnean ezarrita aurkitu genduan. Ibaitek, errekatik berantz urak eraginda kutxatxua ekarrela, errotaren ur-askan gelditu zan.

Eta asko maite dozue?

Geure-geurea balitz baño be geiago. Ez dozu maite izango ba jauna! Sekula iñon-
go amagandik jaino dan gizasamerik on eta maitagarria ba da!

Erregeak ez eban izan zalantzarik, kutxatxu baten sartuta, ibaiara, uretan ezarri
eban mutila ber-bera zala, ziur egoan, eta ume a bere alabeagaz eskonduko zala, igar-
le arek esandakoa, esan ebana gogoraturik, iñoiz baño be kezkatu, bildurrez beterik,
errotarieri esan eutsan:

Mutil ori erregiarentzat eskutitz bateaz joan daiten, eragozpenik ba dozue?

Bat be ez, jauna, errotariek erantzun. Zure serbitsuan gara, Errege Jauna, zure
serbitsuan mutila aifian gu be. Atsegintsu gara zerbait baliotsua berorrenzat egitez.

Erregeak eskutitza idatzi eban eta bere alaberi iñotsan:

Gutun au artu orduko, mutil eskutitz eroleari burua kendu ta ondoren lurperatu
egiala, bere morroi, menpekoei agindu egiala, iñotsan.

Mutilari gutuna emon eutsan eta baita be ogerleko bi eskupeko lez.

Mutila aldentuta bere bidean joiala, alkondara bako ia gozez zan gizon bateaz topo
egin eban, eta onek amoin bat eskaturik, erregeak emon eutsazan ogerleko bietatik,
mutilak bat emon eutson. Ondoren bere bidean jarraitu bitartean bere baitan ausnar-
tuz:

“Ara, geratzen jatan ogerleko onegaz nire bidalirako naiko dot, eta emon dautsa-
dan beste ogerlekoaz zorigaitzoko gizon onek, bazizko alkondara bat baño ez ba da
be, erosi al izango dau, ta baita be berakatz-sopa apur bat gaur gabean afaldu”.

Eskekoak eskertasun eta atseginiñez bere begiak zerura jaso ebazan, bere ongilea
zaindu egiala Jaungoikoari eskatuz. Mutilak bere bidean jarraitu eban.

Apur bat geroago mutila, emakume adabuz beterik jantsita ta indargabe bateaz
topo egin eban, onek Jaungoikoagaitik amoin bat eskaturik, mutilak geratzen jakon
ogerlekoa emon eutsan. Oraingoan be bere baitan iñoan: “Ara ni gazte ta zolia naz,
beraz gatzeluraño jan barik be elduko naz, eta zoritxarreko onek emon dautsadan
ogerlekoaz gona bat erosi al izango dau ta gabean, gaur gabean berakatz-sopa bat
gozoro jango dau”.

Olan esan eta egitiik, mutilak bere bidean, bere bidalian jarraitzen dau, bitartean
andratxuak Jaungoiko ta Deun guztiei mutil a zaindu, jagon, babestu egiala eskatzen
eutsen.

Gaba iluntzen joian, eta sekula izan ez zalako euri ta edurtzeak ondiño be gaur,
gaba ilunago iruditzen eban; nire erri-aldean esatendan lez, “upea baño ilunagoa zan”.
Mutila mendi bakar eta abarotsu bat zearkaturik, gaba erdi arte, bide zuzena aurkitu
naian, an emenka ibili zan. Sekulako otza gaba ilun aretakoa ta otsoak, otso gozetiak
orroka entzuten ziran.

Galdua naz, Jaungoikoak ez ba nau jagon, zaintzen, babesten, orretariko otso
gozedun anbatek gaur gabean afaltzeko jango nau, edo gitxienez abaro ilun onetan
otzez ilgo naz, mutilak iñoan. Jaungoiko Jauna, errukitu zaitetz nigaz!

Au esanik bat-batean, zugaitz bitartetik urrunki aargitxu bat ikusi eban, eta bere
argitasunerantz apur bat bizkortuta ta aterpe bat izan eta atsedean apur bat artzeko
etxe anbat bertan aurkituko ebal, ueste izanik, abiatu zan.

Bere itxaropena ez zan izan utsa. Apur bat geroago, mendian egoan bakarlekurik ilun eta abarotsu baten aurkitzen zan etxe txiki baten ate aurrean, bere burua aurkitzen zan. Atea, etxe aretako atea bultzaturik etxe barnean argi izpi aren argitasun epe-laz lagunduta, su bazterrean egoan atxotxu bateaz topo egin eban.

Zer dakarzu ona?, atsotxuak arrituta mutil a an ikustean, itaundu eutsan.

Zar dakardan?, otza ugari, logure ta nekea zenbat nai, ta orreïn ganera, emen, berton, gaba emoten zilegi daistazula, eskatzen dautsut.

Ezin dot, aterantz begiraturik, atsotxuak erantzun eutsan. Bide-lapur batzuk, zein serbitzari nazan, laster agertuko dira ta emen aurkitzen ba zaitue, mutil ila zara.

Etorten ba dira, nigan arartetu eizu.

Emen geratzen saiatzen ba zara, zugaz aratertuko naz, mutil on baten antza, itxurea dozu ta batek ezin zeinteke ikusi maitatu barik; baiña nire aulkua nai ba dozu, emen ez geratzeko esango dautsut.

Naizta emen arriskuan izan, emen nire bizitza arriskuan izan, emen geratzen ez ba naz, nire eriotza ziur izango da. Bide-lapurrak nigaz errukitu leitekez, eurak be gizonak dira ta, baiña otsoak, basa-pistiak izanik, nigaz ez dira errukituko.

Geratu zaitetz ba, ta alegiñek egingo dodaz zu gaizkatzeko, babesteko.

Atsotxuak, mutilagaz zenbat eta arremnan geiago izan, geiago maitatzen eban, eta azkenean afaria be emon eutsan, eta mutila su bazterrean jezarleku baten, bere sake-la beteta, guztiz nasai, gozoro lo geratu zan.

Apur bat geroago bide-lapurrak agertu ziran, eta mutil ezezagun bat bertan ikusita, mutila erailtzeko euren sastakaiak aterata gertu egozan; bitartean atsoa gaztea etxean sartzea zilegi ebalako zemakaintzen eban. Atsotxuak bere erregua gogoketakaz, bide-lapurrak baretzea lortu eban; mutila, bide-lapurrak etxetik urteten ziran baño leenago, egun-sentia baño leenago izartzen ez ba zan, bizirik itxitea erabagi eban.

Bide-lapurrak mutila bizirik itxitea erabagi eban, baiña bere sakel eta garrikoan eroan ezer balioko guztia, eskuratu nai eban, baiña naizta guztiz ondo arakatu, erregearen eskutiz uts-utsean aurkitu eutsoen.

Eskutitzak erregearen aztarna eroala ikusirik, adi-adi begiratzen geratu ziran; bide lapur biak erregearen arerio purrukatuak ziran, erregeak, dirutxartelak iruditugaitik, eurak bilatu ta atxilotuteko agindua emon eban, argitaratu eban. Bide-lapurtariko bat, diru-txartelak iruditzen guztiz trebea zan, eta diru-txartelak ezeze beste edozein paper be.

Bide-lapurrak gutuna idegi ta irakurri ebenean, poztu ziran, aukera polita eban ba, euren aurrean, erregeari txakurkeri bat egiteko. Iruditzaile trebea zan bide-lapurrak, erregearen izki ta errege-aztarna iruditurik, eskutiz bat idatzi eban. Erregiñearentzat zan eta beratan iñotsan, gutun aretan iñotsan, erolea ikusiko orduko, aurkeztu orduko, bere aurrean aurkeztu orduko, bereala mutil aregaz bere alabea, erregiñaren alabea, eskondu egiala, ba ziur zala, alkar-maitale ta zoriontsuak euren bizi osoan izango zirala. Ondoren erregearen eskutitzen ordez, mutilaren sakelatariko baten idazki au sartu eban.

Biramonean, mutila izartu zanean, bide-lapurrak al denduta ziran, eta atsotxuak

gertatu eutsan udaiazpiko apur bat opil bateaz jan ondoren, bere bidean alai jarraitu eban.

Erregiñeak eskutitza irakurri orduko, erregearena zala ez eban izan zalantzarik, eta bere alabea ta gutun aren erolea, mutil gaztea, eskondu eitezan, gauza guztiak, gertaera zorigarri orreri dagokion guztia gertatzeko agindu eban. Eskontze, estegua, jai-keta alai ta zorionsuak ugari izan ziran, egia esan, eskontzak beti izaten dira alaiak, baiña onek beste zio berezi bat eban, erregearen alabea zan. Esan bear dot, erregearen alabea ta mutila ikusi orduko, alkar-ikusi orduko, itsu-itsurik maitamendu zirala.

Ez zan makala, ez, errotaritxuak arrapau eban nezkatilatxua! Jakin bear dozu irakurle, printzetatzua deun bateri oben astun bat egi-azoteko ainiako polit-eder, aurpegi ta begitxuen jabe zala!

Zutik, zutunik jaioteak, eta ez buruz-bera, dauan ondorioa!

III

Erregea nozbait gaztelura eldu zan, guztiz asarre ta nekaturik, ez urre ez zidarrezko meatzik aurkitu ez ebalako su-asarre, bere senetik urtenda egoan. Mutila ilda ez egoala ta bai bere alabeaz eskonduta adierazo eutsoenean, ondiño be askoz asarreago zan. Erregiña bera be, bere agindua bete ez ebalako, urkatu nai izan eban, baiña erregiñeak mutilagandik artutako eskutitza erakutsirik, bere erru-gabetasuna argi adierazo eutsan.

Erregeak, azkenean berak be, arazo onetan bere andreak errurik ez ebala, baieztatu eban, eta gutuna trebetasunik audienagaz iruditua, antzeratua izan zala, ikusi eban. Berari be, erregeari berari be, guztiz gaitz egiten jakon, eskutitz aren egilea bera ez zala, baieztatzea. Orregaitik mutilari, bere suiñari deiturik, idazki a nok eskarniatu eban itaundu eutson.

Jauna ziur ez naz, mutilak erantzun, baiña gaztelurantz joatean txabola baten bide-lapur batzukaz gaba bat emon bear izan neban, eta areitxetatik bat izan zala, uste dot.

Au entzutean erregeak, arazo onetan ebilen gizona, diru-txartel okertzailea, espetxeratzeke atrapau naian bere atsean ebilen zala, sumatu eban. Baiña une aretan bere gogo guztia, erregearen gogo guztia, osoa, bere suiña gaztelu ingurutik zelan aldendu, maltzurkeriz zelan aldendu, izan zan.

Nik, mutilari iñotsan, zu urkatzea be aginduko neuke. Esakerak diñoana, erregeak agintzen dauala, baiña gidatu ez, ori nigaz ez doa, nigan ez da. Nik zio txikienagaitik bururatzen ba jat, edozein urkatzen dot. Baiña alan edo olan izan zala esan ez dagien, bizia parkatzen dautsut. Ori bai, nire alabeaz izandako eskontsea onetsi dagidan eta nire ondorengoa izan zaitezcan, gauza bat uts utsean eskatzen dautsut. Au da, deabruaren iru ule, ile aurkeztu bearko daustazuz, baiña edozein okulluan aurkitutako ule-

rik ez daistazu ekarri, ba da nik, inpernuko arrien usain eta "Rubiskundus" judaen margogaitik, ezagutuko dodaz.

Errotaritua ba errotaria printzipea zan, deabruagandik ekarri bear ebazan iru uletatik bateaz, erregeak ito leikela, uste izan eban. Orregaitik bere aitagiñerrabearen ministro bategana aolku eske joan zan; gizon zaartxu bat zan "sabelotodo" deitzen eutsoen, guztiz ekian; mutila, printzipea, aldi baten mutila erregea izan leitekela asma-tuz, beragan adiskidetasun apur bat agerturik, mutilari Sabelotodok iñotsan:

Araza ez da or emengoa, baiña orregaitik ez dau berorrek larritu bear, guztia zuzenduko da ta. Aurkitzen dan toki guztietan dana dakila esan bedi berorrek, eta berorren nai, gurari guztiak betetzeko orregaz naiko izango da. Zelan uste dau berorrek ba, nik daukadana lortu dodala? Nik amabi urte izan nebazanean aita-amagandik umezurtz geratu nintzan, eta ludian zear joatea erabagi neban.

Ezitze publikoko zuzendari izatea lortu ebanaren atsoxtu ama-giltzari bateaz topo egitiik, beragaz alkar-izketan jarduntzean, dana dakidala esan neutsan, aldendu nintzanean, beragandik aldendu nintzanean, esan eustan: "Seme zuk ez dakizu ezer, baiña beragaz guztia lortuko dozun onu bat esango dautsut, esaizu, esan eizu, dana dakizula".

Leenengo oinperatu neban errian, gela-zain bat bear eban zaldun bat aurkitu neban, eta bere aurrean aurkezturik, gela-zain lan-toki ori nireztat guztiz egokia izan eitekela, esan neutsan. Bereala berak itaundu eustan: "Zer dakizu zuk ba egiten?" Guztia egiten nenkiala erantzun neutsan eta beste barik onetsia izan nintzan.

Nire nagusia, nik guztia nenkiala ziur zan. Gero bearzenak gauza asko ikasiaz eustazan eta orrelan nire nagusia atsengintsu izatea lorturik, laterriko Jaurleritza idazgelatan lantoki berezi baten ezarri ninduan. Toki onetan be beti guztia nenkiala esaten eban lez, epe laburrean zuzendaritza mailara igon ninduen.

Erregearen belarrietara be barri au, nik guztia nenkiala, eldu zan, eta berak baieztatu naian, egun baten deitu eustan. Erregeaz aurrez aurrez aurkitu nintzanean, nigaitik iñoena, guztia nenkiala, ia egia ba zan itaun eustan.

Bai jauna, nik dana dakit, erantzun neutsan eta egun batzuk geroago Jaurleritzan ministro izendatu ninduen, au da, ezer egin barik, lanik barik, diru asko eskuratu ta beraz ederto bizitea. Alan da ze, ikaskai au ez bedi berorrek iñoiz aitzu, ta ikusiko dau orrelan, zelan nai dauan guztia lortuko dauan.

Jon-etorria ainbatleen egiteko asmuz, Printzipea inpernurantz abiatu zan. Laterri aretako kontituzioak, erregei laterritik aldenduta urte bete baño geiago egotea galazotzen eutsoen, agindu au bete ezik erregeak bere erregetza galtzen eban eta printzipeak errege barria izateko bere eskubide guztiak ebazan.

Jakiña, printzipea bere andregandik aldendukeran, agurtzean andreak iñotsan: "kontuz gero andra-galdu anbateaz naastu barik eta beste olako egikisun zikin batzuka-z".

IV

Bere bidalian jarraituz, printzipeak bide-lapur talde bateaz topo egin eban. Oneik aurkitzen eban guztia orrazten eban, eta beragaz bardiña egiteko gertu egozan.

Nora zoaz, zu?, bide-lapur nagusiak itaundu eban; bitartean bere buruko garau-nak aterazteko aiñako izkilu bat agertuz.

Inpernura, printzipea guzurrik esan eziñeko gizoña zan ta, erantzun eutsan. Bide-lapur nagusiak erantzun arro au entzunik, bere izkilua lurreratu ta besarkatu eban, esanez:

Erantzun orrek eriotz ziur batetik gaizkatu zaitu, guri gizon ausartak guztatzen jakuz, zu bezelakoak, naizta eriotzea begien aurrean ikusi, berba, itz gogor egiten dabenak.

Jazoki onen ondoren, printzipea bere bidean joian, eta ibili ta ibili, erregu ta negarrak uts-utsean entzuten ziran erri batera eldu zan. Iñori ez eutsan itaundu, zer jazo-ten zan, ba itaundu ba eban ezin leikean autortu guztia ekiala, baiña erritarren alkar-izketatik jakin eban zein zan euren arazoa. Uri aretan iturri guztiz mirarigile bat egoan, beratatik dariola izaten zan ura edan ezkeru, ia gaixo guztiak osatzen ziran; orregaitik iturri aretatik ura edateko asmoz joanda, bere ingurua erbestetarrez beterik beti ego-ten zan, eta osatu, sendotzearen orde, bertan urre ta zidar ugari itxi, utxiten eban. Baiña zortzi egun luze ziran iturria legortu zantetik, bere zurrutsatik dariola ez eban urik; naizta, barriro iturria ura dariola ipinten ebanentzat, astokada bat urre opatu, ondiño au lortu egianik ez zan agertu ta urritarrak itxaropena be erdi-galdurik eban.

Jakiña, urira eltzen ziran guztiei zer ekien itauntzen eutsen, auren artean iturgin-tzan ekienik aurkitzen ba zan jakin gurarik. Printzipeari be itaun au egin eutsen eta onek guztia egiten ekiala erantzun. Baiña uritarrak iturria zergaitik legortu zan, zeaz-tasun geiago jakin gurean, itaundu eutsoenean, printzipeak leiatsu joiala ta itzultean, erantzuna izango ebela ta beraz astokada urrea irabasiko ebala, esan eutsen.

Urritarrak printzipen erantzunagaz pozik, itxaropentsu geratu ziran, eta onek bere bidalian jarraitu eban.

Ibili ta ibili beste uri bat oinperatu eban, emen be dana zan erregu ta negarra. Margo, usain eta gozamenez mirarigile ziran igali batzuk emoten ebazan sagartzar itzel bat egoan eta jakiña, erbestetako gaztelu ta jauregietatik, euren errege, printzipe ta jauntxueentzat eroateko, igali-erosle ugari agertzen zan. Sal-neurria ba guztiz ongarrria zan ezkeru zugaitz onek uri negarti a aberastuten eban. Baiña ara non, egun baten zugaitza legortzen asi zan eta bertako biztanle ez agintariak zugaitza sendotzeko osaki, sendokirik ez eban aurkitzen. Emen be naizta, arazo kaltegarria au zuzendu al egia-mentzat, astokada bat urre opatu, sendagilerik ez zan agertzen eta beraz guztiz naiga-betuta aurkitzen ziran.

Uri onetan be, arterako urian bezela, erbestetarrei zer ekien itauntzen eutsen, zugatzat ulertzen eban bat aurkitu gurean. Printzipeak be izan eban itaun, galdera au. Onek beti lez dana ekiala erantzun, baiña laiatsu joian ezkeru, itzultean sagar-ondoa sendatu, ta astokada urrea irabasiko ebala iñotsen.

Bigarren uri onetako biztanleak poz-pezik eta itzaropentsu geraturik, printzipeak bere bidean jarraituz, aurrera joanez, andik naiko urrun, ibai baten alboan, ibai beste aldera igaro baño leenago, basa-ostatu bat aurkiturik, beratana gaba emoteko asmuz geratu zan. Ogeratu zan orduko, basa-ostatu beratarana nekazari bi be astokada urre banagaz eldu ta bertan geratu ziran. Nekazari areik guztiz pozik eta alai egozan. Urre-meatz bikaiña aurkitu eben. Meatza, urre-meatza, aberatsa zan benetan, ba eurak, nekazariak, meatzatzaz ekien jakintasan urriaz ikertu ta bereala astoak zamatzeko, eta ondo zamatu be, ainbeste urre ateratzeko gauza dan meaztegia, benetan da aberatsa. Baiña jakifia, urre-meaztegi ori non aurkitu eben, ez eutsoen ifiori esan. Ostataria, ostatuan gizon jakitun bat guztia ekiena egoala urredunei adierazo eutsenean, eta urre-meatza ustiatzeko ta bertako lanak aurrera eroateko zuzendari on bat aurkitzea gaitz ikusten ebelako, meaztegian laguntzeko eurak bear eben gizona jakitun a izan leitekela, bururatu jaken, urrengo goizean, gizon onek meatzatzaz ezer ba ekian, maltzurkeriz iradokitzea erabagi eben.

Bururatu ta egin, biramonean, goizean bazter batera deiturik, printzipea bazter batera eroanda, zer ekian egiten itaundu eutsoen.

Nik guztia dakit, printzipeak erantzun.

Nakazariak, eurak ikertu eban urre-meatza non aurkitzen zan ba ekiela, uste izan eben, eta alkar begiraturaz, euren baitan ifioen: "Adiskide, au aurreratu jaku, ta onegaz guzurrean ibiltea, alperrik da. Zintzotasunez itz, berba egin dagigun eta guk ikertu dogun urre-meatzean zuzendaria izan nai ba dau, itaundu dagiogun, eta gura ez ba dau, naizta astokada urre onegaz izan ixildu dagigun, ba da urrea, urre-meatza onen ixilpean zaintzen dogun bitartean, geuk nai dogun beste urre eukiko dogu".

Zuk guztia dakizun ezkeru, printzipeari esan eutsoen, zintzotasunez itz, berba egin dagigun, Ikertu dogun urre-meatzaren lanak aurrera eroateko, lantegiko zuzendaria izan nai dozu?

Eziña da, leiatu noa ta.

Nora zoaz ba?

Inpernura.

Nakazariak au entzutean, jakitun a gizon ziztrin bat zala uste izan eben eta larriturik, euren gogo guztia, urre-meatzaren izatea edatu ez egian zan. Meaztegi orretzaz ifiori ez eutsola ezer esango zin egiten ba eban, astokada urrea opatu eutsoen.

Printzipeak zin egin eban eta beraz astokada urreaz jabetu zan. Apur bat geroago, itzultean beraganatzeko asmuz, asto ta urrea bertan itxita, basa-ostatuan astokada urrea utxita, bere bidalian jarraitu, baiña kezkatu, oldizkor joian bere baitan ifioala: "Nekazari orreik aurkitutako meaztegi ori, non arraio egongo ete da? Tamala dot ez jakitea, nire aitagierrabarentzat izpar, albiste polit bat izango litzake".

Joanda joan, ibili ta ibili, ibai bazter batera eldu zan, ibaia zearkatzeko, beste aldeira irgaroteko batel bat egoan. Batelaren jabeari gauza, arazo bakan bat jazoten jakon. Irurogei urte eginda ebazan, beteta ebazan, eta amabi urte izan ebazanetik, atsera ta aurrera batelagaz ibai zearkatzen ebilen, eta guztiz iguin egiten jakon ogi-bide aretan, berantzat ordezkari bat ez eban aurkitzen.

Ondiño mutikoa zala, bere ama doneak samintasunez ikusten eban, zelan bere semeak zaletasun aundia ebala edantegian astia emoteko, ta euratari gaiztoturik bildur zan inpernuratua izan eiten. Sekula edantegi bat oinperatu ez egian, bere amak Jaungoikoari esker bat eskatu eutsan. Bere semeak batelatik, beratan beste itxasgizon bat, berak baño moteltasun aundiago bateaz batela gidari egian gizon bat sartu arte, ezin eitekela urten.

Jaungoikoak, ama errukigarri aren eskaria bete eban. Bateldunak, bere ontzixuan gizon bat sartu orduko, arrauna bere eskuetan ipinten eutsan eta bereala bateletik urten nai izaten eban, baiña naizta azkenengo berrogei urteetan bardiña egin, beti izan jakon alperrik. Begiratu eizu, irakurle, batelduna zelako motela zan!

Bere bizi osoa batelean emongo ete eban, ala beste bizi-bide oba bat aurkituko ba ebanak zirikatuturik, printzipeari be, zakantza aretatik zelan atera ba ekian, itaundu eutsan.

Nik guztia dakit, printzipeak erantzun, baiña itzultean egingo dogu itz, berba, orain leiatsu noa ta.

Nora zoaz ba ain leiatsu?

Inpernura.

Erantzun ain garratsa entzutean, batelduna itaun barri bat egiten ez zan ausartu, ta printzipeak bere bidalian jarraitu eban.

V

Printzipeak, inpernua lurralde beroa dala entzun eban, eta uste eban ezaugarri oneagaz uts-utsean, berak bilatzen eban lurraldea errez aurkitzea. Ibili ta ibili, bere bidalian eten-gabe jarraiturik, bero, sargori itzal bat sentitzen asi zan, azkenean, bana-ka banaka bere soifneko guztiak kentzea bearrezkoa izan jakon. Ia billosik, aldondara utsean zanean, eta au be ia kendurik, aitz-zulo bat nabaritutua, inpernurako sarrera zala, ziurki zan, ba da bertatik andra-gizon ugari sartzen zan.

Aitz-zuloan barneraturik, apur bat aurrera ibiliaz deabruaren idatzgelara sartu zan, baiña au, deabrua une aretan etxean ez egoan, ez dakit zelako alderdi politiko anbat antolatzen arduratuta zan eta.

Deabruak laguntzaile ugari eban, eta euratariko batek bere andreari mezu bat eroan eutsan, eta ondoren, printzipea gelara sartu egiela agindu eban.

Etzat-aulki baten jezarrita, ia gela-erdi betetzen eban miriñake baten ezarrita aurkitzen zan. Aurkitu eban.

Zaldun ori ez dago?, printzipeak bere nasaitasunez lotsaturik, esan eutsan.

Ez, jauna, andreak irribarrez erantzun, bide batez, bere alboan jezarrri eiten, mutila jezarrri eiten, miriñakea apur bat baztertu eban. Eta jauna emen ez dagolako eskertu eizu. Izakera barregarria dau, eta emen balitzake, emendik bizirik ez zeunke urtengo.

Zergaitik?

Deabrua bera baño be bekaitzkorragoa dalako.

Andra-zalea da, ez?

Ez guztatzea izan leiteke!

Egia da, zuek serbitsu ona egiten dautsazue ta.

Guztirako bere esku ta oiñak gara.

Bera eldu baiño leenago, ona nakarran arazoa azalduko dautsut, eta egia esan, ez da guztiz makala.

Deabruaren andrearen irribarre maitagarri ta bere begirekada zirikagarri tentalariek bizkorturik, andreari bere laguntza eskatu eutsan. Leenengo eskaria arduradunaren, inpernuko arduradunaren buruko iru ule, ile, lortu egizala, eta bigarren, bidean, bere bidalian zuzendu-gabe itxi ebazan iru arazoen zuzena, au da, Iturri, Zugatz-ondota Batelduna.

Deabruaren andrea printzipeaz geroago ta adietsu ta maitekorrago zan eta deabruaz arazo gaitxenen zuzenbidea lortzeko beti zintzo jokaten eban. Printzipea adieratsi naian, asmakisun ugari auznartzen ebazan.

Onetan ustegabe, atean deabruak deitu eban, eta mutila bere atzazaletatik gaizkatu naian, bere meriñakepean sartu bear izan eban.

Kristauz usaintzen dot!, deabruak sartukeran, sarreran, muzturra biurturik, errekiña irauntsiten dan antzera, esan eban. Emen kristautzaz usaintzen dot, eta deabrugaitik emen batan bat ez ba dago!

Deabruagana zure ustekeriakaz!, andreak tolasgabe osoz erantzun eutsan. Zure bekaitzkeri madarikatuakaz etxea inpernuratu-gabe itxiko, utxiko dozu!

Barrio diñautsut, dirautsut emen kristau usiña dala...

Adarrara usainduko dozu, eta Jaungoiaik parkatu daistala!

Azkenean deabrua nasaitu zan; bai, andrazkoak deabrua bera be etsipetuteko gauza dira. Orrez ganera deabruak gizon politikoakaz izan ebazan arazoakaitik guztiz nekatuta egoan.

Deabrua, burua makurtu eban orduko lo geraturik, printzipearen atsegiñerako, zurrunka asi zan. Ordurarte bere soiña, printzipearen soiña, gorputza, alkondara barruan artu eziñik egoan.

Deabrua lo gogorrean aurkitzen zanean, bere andreak atzamarrakaz ule, ile bat arturik, trist!, tinkada bateaz atera eutsan, eta bere soiñekoaren irrizkotik gora eskua sarturik, edo gorago, ba da nik ez dakit gorago zer dagon, printzipeari emon eutsan.

Deabrua ule-tirakada miñagaz izaturik, oiuka iñoan:

Arraioa! Miñ egin daustazu, ta!

Ixildu zaitetz gizona, parkatu, andreak esan eutsan, amesetan zure uletatik tinkada bat egin dautsut ta. Lotan nengoan, eta gauza guztiz bakan bateaz amesetan nintzan.

Eta zertaz amesetan zengozan ban?, deabruak itaundu.

Uri bateko iturri bat legortuta zalako, bertako uritarrak negarrez eta Jaungoikoari, otoitzka, erreguka ziran.

Istunan zearkatu dan sapoa ilten ez ba dabe, barrio ura iturritik dariola ez dabe ikusiko, deabruak iñotsan.

Barriro deabrua lo geraturik, zurruka asi zanean, andreak beste teinkada bat bateaz, trsa!, ule, ile, bat atera eutsan. Au be soiñeko azpitik irrizkotik eskua sartuaz, printzipeari emon eutsan.

Arraioa! Izarrak be ikusi eragin daustazuz! Izaturik deabruak, oiuka iñoan.

Nasaitu zaitetz, gizona, andreak iñotsan, orain be amesetan izan da ta, barriro lotan geraturik, ames ain bakan-bakana izan dot...

Ze ameseta zan, ba?

Beste uri baten, sagar-ondo igali miraridunak emoten ebazan bat, legortzen zala-ko, negar, erregu ta otoitzka uritarrak zirala, amesetan egin dot.

Zugatzaren sustraia marrazkatzen dauan erratoia ilten ez ba dabe, guztiz legortu-ko da, deabruak esan orduko barriro lotan geratu zan.

Barriro andreak bere gizona zurrunka lo entzun ebanean, beste ule, ile bat bere eskuetan artu ta... trast! teinkada bateaz atera ta irrizkotik bere sartuaz, printzipeari emon eutsan.

Deabruak eroan zatizala!, asarre, garrats izaturik, oiuka iñoan.

Ixildu zaitetz gizona, andreak, andreak iñotsan, lo geratu nazalako, uletik teinkada bat baño ez ba da izan... eta zelako ames bakan-bakana izan dot, ba!

Ze ameseta izan da, ba?

Bateldun motel, astun batek, gurari, nai bizi-bizia dau, ia bere batelgidaritzean ordezkatuko dauan anbat, aurkituko ba dau ala ez, jakitea.

Bai, eta ganera bere ordezkoa errege bat izango da, deabruak esan eban.

Orduan printzipea andrearen miriñapetik ia erdi-itota, ixil-ixilik, arreta aundiz urtenda, ba bere soiñekoen aritasuna izan ez ba zan, bertan, miriñakepean beroz ilgo zan, andrearen arimea bere atsetik eroan ez ba eban, andrearen arimea deabruarena zalako, izan zan.

VI

Printzipea bere lurraldetara itzultera abaituta, inpernutik aldendurik barriro soiñeko-ko zu zan, jantsi ebazan praka ta alkondara ta beste soiñeko berogarriak, bertan, inpernuan billozik be bizi daiteke, inguru beroa da ta. Ibaia batelean igarotean, leen aitatu dogun batelduna apur bat poztu eban. Beste batel-gidari bateaz ordezkatua izango zala, adierazo eutsan, eta ganera bere ordezkoa errege bat izango zala.

Bateldunak eskerrak emon ondoren, aurrerako egun baten, bertatik nekazari bi astokada bat urreez igaro zirala, esan eutsan; onelan bere asmakisuak, ibai beste aldean meaztegi guztiz aberats bat egon bear ebala, baitzatzen eutsan.

Barri ona benetan nire aitagiñeraberentzat! printzipeak bere baitan iñoan.

Printzipeak basa-ostatuan andik igarotean bertan itxi, uxti eban astokada urrea

artuta, bere bidean jarraitu eban, eta bere astoa trailan eroala, ibili ta ibili, zugaitz-ondoko urira eldurik, zugaitz au marrazkatzen eban erratoia bilatu ta il eban. Biramonean zugaitz-ondoari lorak urteten asi jakozan, eta uritarrak jazoki miragarri au ikusirik, pozez ikusten ebana sifñistu be eziñik, eskertasunez, esker-onez, beste astokada bat urre emon eutsoen.

Bere astokada urre biakaz, Printzipea bidean joan eta joan, iturridun urira elduta, istuna itsututen eban sapoa bilatu ta il eban. Bereala iturria bere istunetik ura ugari dariola agertzen zan. Bertako uritarrak poz eta alaitasunez beterik, eta esker-onekoak ziralako beste astokada bat urre, beraganatu eban.

Printzipea bere iru astokada urrez biderai jarraituz, gaztelura eldu zan eta bereala bere andra-printzeatzua besarkatu ta agurtu eban, baiña, jakiña, merifñakedun andreaz jazorikoa azaldu barik. Bere aita-giñerrabeari, erregeari, deabruaren iru ule, ileak, aurkeztu eutsozan, eta onek legezkoa izanik, ontzat artu ebazan.

Erregeak urrez zamatuko iru astoak ikusi ebazanean, bere begiak geiago eziñik zabaldu jakozan, eta ainbeste urre egoan meaztegia, non aurkitzen zan, itaundu eutsan.

Bere suiñak ibaia beste aldean egon bear ebala esan eutsonean, bereala erregea, meaztegi ori aurkitu naian, ibairantz abiatu zan.

Printzipeak bitartean bere baitan iñoan:

Ze arraiotarako bear dodaz nik iru astokada urre oneik? Nire aundi-naia laburra izanik, nire andrearen maitasun eta erregetzaren alogorak naiko ba dodaz? Joan bedi eurakaz errotara, noakioe urre onegaz errotara, ainbeste maitasunez azi ta ezi nin-duenak abeeraastuten, eta bide batez, nire aitagiñerrabeak emon eustazan ogerleko biak banadu nebazanakaz aurkitzen ba naz, oneik be esku utsakaz ez dira joango, euren bedeinkapenak neure bizi osorako dodaz, eta beraz onein eragiñez, nire zorion utsa da.

Printzipea bere iru astoak urrez zamatuta trailan artuta, bidali barri baten or doa, bitarte naiko luzea egin ondoren, baserri batera elduta, bertako etxe txiro errukigarri baten aurrean agure ta atsotxu bat, eguzkia artzen, ikusi ebazan. Euren aurpegiak adidi, arretaz begiratu ebazanean, erregearen eskutitz, gutunagaz joan zanean bidean aurkiturik, laguntza izan eban eskeko biak zirala konturaturik, urrez beteriko astokadatariko bat emon eutsen, eta jakiña, agure-atsotxua euren zoriona sifñistu eziñik, alaitasun-negarrez bedeinkatzen eben, esanez:

Gaztelurafio joateko bear dogun beste ba daukagu, ta baita be, erregeak eroan euskun semea maitearen egoitza autemantzeko!

Zein sêmetzaz jardun eben atso-agure areik?, printzipeak, bikoteak eban alkarizketa entzutean, bere baitan iñoan. Nire aitagiñerrabearen antzeko anbat izango da, maltzur, txori ona da bera ba!

Ibai berantz, ura onen zuzenbidean luzaro ibilita, asto bi urrez zamatuta trailan eroazala, bera azi eben errotarien etxera elduta, bertan bere aita-ordezkoakaz maitasun eta guztiz poz-alai emon ondoren, urre ta guzti asto biak emon eutsezan eta

bereala gaztelura itzuli. Beratan iñoiz baño be maitemindurik zan printzipetxuagana, bere andreagana betirako itzuli zan.

Erregeak alde egin eban egunetik ia urte bete zan, eta bere urratsik ez zan agertzen, beraz zio onegaitik gaztelukoak arduratsu ziran, laterri aretako kostituzioari egokion bezela, erregeak gaztelutik urrunduta, urtea betetu ezkerro, bere erregetza galtzen eban.

Azkenean erregea bere urruntze urte betetzerako ez zan itzuli, ez zan gazteluratu ta bere erregetza galdurik, bere suiña erregea izendatu eban.

Orain arte printzipea zana ta orain erregea zanak, bere menpekoen zorionerako ziran gauzarik egokienak egiten saiatzen zan. Egia esan, bear be ba eben, aurrerako erregeak urre ta zidar meatztegiak bilatzen eta bere ondasunak aunditzen baño ez zan arduratzen ta.

Baiña, erregeari zer jazo jakon?

Bateldunak bere batela baño, erregeak bere erria txarto, gaizkiago gidaritu ebalako, bateldunaren tokia betetu bear izan eban.

Gogoratuko zara irakurle, zelan batelduna ibaian bere batelagaz atsera ta aurrera ibai zearkatzen, batelarako bera baño beste gizon makal, keteagorik aurkitu ez ebalako, bere bizi osoan ibili zala; baiña orain ba dau ordezkari, bere antzeko beste ergel bat.

ERREGA EMAZTEGAIA BILLA

I

Ara jauna, au, nezkatil eder-eder ta guztiz ona zan. Errosa, alan zan bere izena, txiki-txikitxutatik, aitagandik umezurtz geratu zan, baiña bere amak, maitasunez eundu ta batez be goruten irakatsiz, etxeko-andra on bat izan eiten, azi ta ezi eban. Bere amak lan oneikaz, ama-alabearentzat eguneroko ogia irabasten eban.

Errosak amabost urte bete ebazanean, bere ama gaixorik, naiko txarto aurkitzen zan, eta zoritxarrez egun batzuk geroago gaixoa, bere gaitza aurrera joian eta azkeanean il-zorian aurkitzen zanean bere alabearen deiturik, esan eutsan:

Nire alabatxu maitea, ni laster, zu emen lurrean bakar-bakarrik itxita, zerura joango naz. Ondoren lez, ondasun larregi ez dozu izango, baiña geratzen jatsuzanakaz zoriontsu al izateko, naiko izango dozu. Oneik dira geratzen jatsuzan ondasun orreik, egoitz bat beratan bizi zaitezcan, jostorrotz batzuk, neuk eurakaz irabasi dodan lez, zuk be zeure eguneroko ogia irabasi daizun. Goruetan, euntzen eta josten egiñez, bizi al izango zara.

Au esanik, amak bere alabatxua bedeinkatu eban, eta zuzen, artez, zerura igon, egazka igon, Ludian zintzo, langile, deduzko bizi izan diran guztiak joaten diran lez, ama deun-deun au be, zeruratu zan.

Bitartean Errosa negarrez, goibel, samintasunez beterik geratuta, goruten euntsen eta josten adoretzu; bere biotz barnean nekerik ez ba eban bezela, ori bai, abestu bearrean, lanean ziardun orduetan, negar eta otoitz bere ama maitegaitik.

Bere ama il aurrean, il aurreko egunetan, ez zan egon oker, ez; goru, aneska ta jostorrotza, eguneroko ogia irabasteko naiko izan ebezan. Bere erritarrak eta baita alboerrietakoek be, ta aberatsenak ganera, bere esku-lanak erosten ebezan. Lan ugari egi ten eban ezkerro ta diru gitxi irazi, bere etxekko atean deitzen eben eskekoei emoteko, txanpon bat edo beste beti eukiten eban.

II

Erregea osagileakandik gal-etsituta egoan, eta guztiz jaseko mutil bat zan bere semeari deiturik, esan eutsan.

Semetxu, nire egunak zenbatuta dira, laster ilgo naz, baiña leenago bost eta bost zenbat diran esan nai dautsut. Nire begiak betirako ertsi orduko, zure buru ganean errege-koroia ezarriko dabe, baiña zoriontsu izan zaitez, ori ez da naikorik. Leenen-leenen egin bear dozuna, eskontzea da; naizta gai onen buruz, eskontzatzaz, txakurkeri ugari entzun, eskontzea gauza ona da. Au baieztatzeko ez dozu bear besterik, alargunak, bai gizonezkoak zein andrazkoak, buzterrira ze griñatuta geratzen diran, aditzea baño. Aolku oneik ez eizuz artu arduragabe, baiña kontuan izan eizu beti, esakerak diñoana: "Eskondu baño leenago, begiratu eizu zer egiten dozun". Onek esan nai dau, eskondu baño leenago, ondo oldoztu bear dala, gogoan dozun andrea, onein artean diran alper, ajolagabetariko bat izan ez daiten.

Zelako andrea gura dozu orduan bilatu dagidan?, bere aitari printzipeak galdetu eutsan.

Txiroena ta aberatsena.

Azalpen ulerkorra benetan!, printzipeak marmartu eban, bere aitaren aolkua on-artu gabe.

Zer? Ulertu daustazu?, iñotsan. Ikasi eizu ba, adin egokia dozu orretarako ta.

Egun bi geroago erregea il zan, eta printzipea errege-aulkian jazarri zan, ezarri eban, izan be esakerak diñoan lez: "Errege ildakoari, errege barri bat ezarri".

Errege barria bere aitik esan eutsazanatzaz asi zan ausnartzen, au da, nezkatarik txiro ta aberatsena bilatzen. Ze arraio aiderazo nai izan eustan, iñoan. Naizta oldozke-ta ugari izan, esaldi orren egiazko esan gurea, ezelan be ezin izan eban bururatu.

Izango eta da, iñoan, ondasunez, txiro dan nezkatil bat eta edertasunez aberatsa, bilatu bear dodala?

Goazen ba erririk erri, ia ustegabetasunez edo nekazarien maltzurkeriz, nire aita zale zan ulergaitzasuna, ainatzen ba dabe.

III

Erregea emaztegaia bila erririk erri ebilen, eta leku guztietan nezkatil txiro ta aberatsenagaitik itauntzen eban; baiña galdera au iñok ez eban ulertzen. Erri guztietan bertako nezkatarik txiro ta aberatsenak ziranak, izendatzen eutsoezan.

Arraioa! erregeak iñoan, zuen adi-urritzeaz zoratu bear nozue! Nik nezkatil bi, bata txiro ta bestea aberatsa, ez dodaz bilatzen, nik nezkatil txiro ta aberatsa dan bat gura dot, nai dot.

Txantxelari da gaur berori!, pizka bat be ulertu barik nekazariiek esaten eben. Gu bezela egun osoan berotze aldietan mokilak joten ibiliko balitz, txantxetarako gogorik ez leuke izango.

Aste luzeetan emendik ara ibili ondoren, erregea Errosa bizi zan baserrira errira elduta, oiturazko galdera, itauna, bertan be egin eban, eta beste urietan lez emen be, neskatil aberats bat eta beste txiro bat aitatu etusoezan.

Beste errietan egin ebana, emen be bardin-bardin egin eban; neskatil biak ikustea erabagirik, leenengo neskatil aberatsa ezagutu gura izan eban; ez dakit nik zer izango dauan aberastasunak, baiña beti da bereziena, leenengoa bai aundikien artean eta menperokotuen artean be.

Neskatil aberatsa, txiroan antzera, umetxutan umezurtz geratu zan, baiña bere amak lan, bear, egiteko tresnak itxi, utxi bearrean, bere serbitsurako morroi ta nezka-meak utxi eutsazan.

Erregea ikustaldi bat egitera joango zala ta, an ziran ba, etxe aretan ziran ba apainketak, ango urre ta zidarrezko pitxiak ez eben amairik. Ikusi ba zenduen ango sedazko jantsi garestiak, ango txirlarri ta arri-biziak!

Bizikera onegaz, gaberdirik gaberdi, dantzalditik dantzaldira, guztiz zurbil ta nekatirik naz, esan eban. Larre-neskatilei jazoten jaken bezela ni gizonen aurrean, gorritzuko banintzake, nire zurbiltasun oneik ez leuskit lebarik izango, baiña apur bat gorritzatzen ez nazanez, koipe apur anbat emon bearko dot.

Esan eta egin, bere aurpegia margotu eban, bai, baiña zelan... je! je!

Apur bat geroago erregea eldu zan, eta neskatilatxuaz bakar-bakarrik geratu zan, erregeri neskatilatxakaz bakarrean egotea guztatzen jake, ta erregea zan ezkerero, berak nai ebana egin eikean.

Neskatilatxua Prantzin ezitua zan ezkerero, bere aurpegi mozu bat emon egion opa eutsan. Erregeak neskatilatxuen aurpegiak eukan orio-apaingarri aregaz, margotuta gorri-gorri espanak ezarri ebazan.

Naiz ta neskatilatxua erregea beragaz maitamendua izan eiten, jauzentsu ta txeratu agertu, erregea azpértuta, nekarazita egoan, eta iñoiz nonbaiten entzun eban lez, "nekez emoten dabenantzat, errekin bat erretea, onena", eta onelan rape-kutxatxua atera ta beratatik apur bat arnasatu eban.

Rape zurrutadak eraginda erregea domistikuka asi zan, eta bere jakearen botoi bat urratu jakon ezkerero neskatilatxuari josi egiala eskatu eutsan, baiña neskatilatxuak josten ez ekian lez, jostorrotzagaz gilbortean erregeari zartada bat emon eutsan. Zeruko izarrak be ikusi eragin eutsan.

Miñ eta izualdiak eraginda erregea erdi-zorobiotuta egoan, tea artuta, bere eragiñez nasaituko zala, uste izanik, neskatilatxuari katillutxu bat te egiala, eskatu eutsan. Neskatilatxuak sukaldaritzaz ez ekian tautik be, ta teari gatza bota eutsoanez, erregeak artu orduko bere sakeleko ondar guztiak be irauli bear izan ebazan.

Onetarako ez neban bear iñor, ez da iñoren laguntzarik be.

Erregea guztiz asarre, naigabeturik aldendu, zalduna bere zaldi ganean, errian beste aldetik bizi zan neskatil txiroen etxerantz, joan zan.

IV

Errosa bere amagaitik ainbeste negar eginda, zurbil aurkitzen zan, baiña beere etxe-sarean erregea bere zaldia lotzen ikusi ebanean, atea idegiten arifieketan joan zan eta klabeliñ bat bezela gorritu.

Erregeak adi-adi, guztiz liluraturik begiratzen eutsan, ain arreta aundiz, konturatu barik bere surreaz, surragaz, topo egiñik bere soiñekoan, lebitan, zazpi-antzeko ebagi bat egin eban.

Ara, erregeak Errosari iñotsan, mezedez apurtu au josi eistazu, baiña ule bat baño meatzago izan bear dau, guztiz me. Errosak jostorrotza bere eskuetan arturik, josten ekin eta ekin, gogotsu ta trebetasunik aundienagaz josi eban, gizon-josturik trebeenak be iñoiz soiñeko aretan ebagi bat izan zala, iragarri eziñekoa.

Erregeak, neskatil aberatsaren aurpegiko olio apaingarriaz izan eban iguiña, ezin eban aiztu, ta bere sakelean eskua sarturik, espanak garbitzeko, esku-zapi bat bilatzen eban.

Arraioa! Iguin orren etxetik ona etorkeran, esku-zapia ez dot galdu ba!

Nireak Jauna, berorrenzat arruntegiak dira, baiña itxaron eizu Errege Jauna, apurtxu bat, sedazko bat beingoan enduko dautsut.

Anezkari gogor eraginda, beingo baten erregentzat esku-zapi polit bat egin eban.

Jazokisun oneitan astia, denporea aurrera joian, ta naizta erregeak astiaren ardurarik ez izan, bere urdailean gozearen eragiña sorturik, beraz zerbait, zeozer, jateko gogoa eban.

Ara, maitea, Errosari esan eutsan, olan goruten, josi ta eduten dauanak, sukaldaritzan be guztiz trebeak izan bear dau. Ezin zeuskidat gertatu zeozertxu, zerbait, bazkaltzeko?

Jauna, Errosak erregearen apaltasunez maitamendurik esan eutsan, ez daukat ogi, ura, orio, gatza ta berakatz baño. Nai dau berorrek berakatz-sopa bat egin dagiodan?

Bai nire maitetxua.

Eta eritxi-politiko baten aldatze baño leenago, Errosak errege-erregiñak eurak be euran atzamarrak mizkatu leikeezan berakatz-sopa bat gertatu eban.

Bazkaldu ondoren erregea bere zaldi ganean lurralde areitatik aldendu zan.

Errosak erregea bere etxeko leiotik zelan aldunduten zan ikustean, negarrez bere baitan itaundu eban.

Zergaitik nago negarrez, orain nire amagaitik ez ba da?

Biramonean, bere menpeko zaldun eta nezkame lagun ebazala, zaldi-burdin apainduakaz itzulirik, Erregeak bere besotik Errosa artuta, beragaz erriko eleizara joan eta bertan beragaz eskondu zan.

Olan bete eban bere aita Errege-Jaunak arduratsu agindu eutsana: "Neskatil txiro ta batera aberatsa zanagaz eskontzea".

ZEKENKERI GIZONA

I

Berak uste baño be urre geiago eukan errege zeken bat zan. Eskeko bateri amoin bat emoteko, iñoiz bere eskuetatik ez eban urten txakurtxiki batek be.

Bere etxe alboan naiko ur, Aingeru Zaindariaren bazeliza bat egoan, baiña erdi-jau-sirik, loi, zikin, zantar aurkiturik beratan mezarik ezin zan emon, ospatu. Erriko Udalak bazelizatxua barrizatzea erabagi eban, eta lanak zeñiek merkeago egin deiturik, lan oneitan irabasi egokiak ikusirik, "Tio Miserias" deitzen eutsoen zeken batek, bera be tartekoa izanik, bazelizatxua barrizatzeke lanak egitea berantzat lortu eban.

Baselizatxua barrizatua izan zan, eta beraz polito geratu agertzen zan, bai, bertan egoitz barri polit bat eukalako poz-pozik Aingerutxua bein baten Jaungoikoagana aurkezturik, iñotsan:

Jauna, mezede baten eske natortzu.

Ba dakizu, aingerutxua zure nai, guraria, beti bete gura dodala. Jakin dagigun ba, zein dan zure arazoa.

Ara Jauna, "Tio Miserias" ilten danean artez-arte, zuzen, inpernura joango da, ba da deabruak atseratzeko, baztertzeko ez dau izango ziorik, ta tamala dot bere arimeagaitik. Zuzen be bera da nire egoitza barriztu dauana, eta poliki barrez, leen iguin eta drangal aiñako orain polit eta garbia da.

Bai, baiña!, "Tio Miserias" baselizako lanakaz arduratu zanean, bere irabaste zikiñak uts utsean bere gogoan izan ebazan.

Jauna, zuzen be olan izan zan, baiña esakerak diñoanez, miraria egin daitela, naizta berak, deabruak egin. Bera, "Tio Miserias" izanik nire etxea barriztu konpondu daustana, beragaz esker-onekoa izan bear dot.

Aingerutxu, or ikusten dauka zure biotz ona, baiña ni guztiz zuzena nazan ezkerero, ez dot ikusten or maltzur orreri mezederik egiteko errozoirik, ba dakizu iñoiz txiro, eske-

ko bateri be, ogi zati bat emon-gabea dala. Nik egin neiken guztia da, ta ori zu eskai-lea izanik eta guztiz begikoa zaitudalako, berari dagokion ziorik txikiena, beragaz errukigorra izateko, izango dot. Egon zaitez zain, ia geratzen jakon bizi laburrean, ezer onik egiten ba dau, egikisun on bat egiten ba dau. Egikera on txikiena egiten dauanean, etorri zaitez niri aiderazoten eta ikusiko dozu zelan zure naia, guraria, lortuko dozun.

Ederto dago, Jauna, eta mila esker nigan berorrek dauan ontasunagaitik.

Ez da zergaitik, zu niretzat izaki berezi bat zara, aingerua zara ta.

Egazkada baten Zaindari-Aingerua Navalcarnerora elduta, erri onetan "Tio Miserias" bizi zanez, bere babespekoan etxe inguruan, ordu guztietan egazka, onen egikisun on, berezi bat ikusi naian, gurarian, gero Jaunari jakin-azota beragaz errukitu eiten, ibiltan zan.

Egun baten "Tio Miserias" bere etxean, beko bizilekuan, leio baten ondoan, alboan, jezarrita jaten egoan. Leioa idegita eukiten eban ezker, bertatik aurrez-aurrez egoan edantegitik ardao usaia etorkion eta usain onek eraginda kuartilutxu bat zurrutatzeko guraria izan eban, eta bereala erosten edantegira urreratu zan. Mai ganean ogi gogor, baltz bat egoan eta beste jan-edaririk ez zan agertzen. Au zan "Tio Miserias"en jan-edaria, ogi zati baten kinpula apur bat igortzita, jaten eban.

Onetan leio aurrera eskeko, txiro bat urreratu jakon eta amoin bat eskatu eutsan, esanez:

Jaungokoagaitik amointxu bat mezedez, atzo goizetik barau naz ta!

Jaungoikoak emon dagizula!, "Tio Miserias"ek garrats erantzun.

Ara gizona, besterik ez ba da be, ogi zatitxu bat emon eidazu, Jaungoikoak ordainduko dautsu ta!

Barrero dirautsut, Jaungoikoak emon daiskula zer emon!, "Tio Miserias"ek geroa-go ta asarreago.

Anaia! Ogi zatitxu bat besterik ez ba da be!

Anka emendik, bestela deabru bat baño ez ba da be burura botako dautsut!

"Tio Miserias" su-asarrez diñotsa.

Eskekoak bere eskakisunean ekin eta ekin jarduten eban ezker, "Tio Miserias"ek amurruz itsuturik, mai ganean egoan ogi gogorra artu ta eskekoari burura jaurti eutsan.

Zartadeak eraginda eskekoa apur bat kolokatuta geratu, baiña apur bat bizkorturik, ogia pozez artuta, kaletik zear joiala, ogia irauntsi egiten eban.

Aurrez aurrez egoan etxearen teiletutik, aingeruak egikizun au ikusi eban, eta bere egoak zabaldua, poz-pozik, ortzi urdiñetik igon eta igon zerura eldurik, Jaunari esan eutsan.

Jauna, ba dau berorrek atxaki bat, zerbai, "Tio Miserias"en alde egiteko.

Ara, poztuten naz, ba dakizu zure naia bete gura dodala. Baiña esaidazu maltzur orrek zer egikisun on egin dauan.

Aingeruak, Jaungoikoari Navalcarneron ikusi ebana zeatz azaldu eutsan.

Ez da gauza andirik bere zigorra beratzeko, Jaunak esan eutsan.

Bai Jauna, baiña “Tio Miserias”ek eskeko bateri une txar batetik bere urdaila atera dautsa.

Ori egia da, baiña egikisun orren bidea, maltzurra izan da...

Jauna, esakerak diñoana, azken-lortzeak bideak zindotzen dauz, eta emen azken-lortzea, aurrerako egunetatik baraorik, egoan eskeko bateri gozea kendu dautsola da.

Zuzen-zuzen zara Aingerutxu, batez be zure naia bete gura dot eta orregaitik maltzur orrek merezi dauan baño geiago egingo dot. Gaur gabeen amesetan mezu bat emongo dautsat eta on-artze ba dau, zaldun bat bezela zeruan sartuko da.

Aingeruak Jaungoikoa eskertu ondoren, bereala umetxu bat zaintzen, jagoten joan zan. Umetxua oker-okerra zan, biurkin bat, Zaindari-Aingeruak bere babespetik baztertu ba eban, bere bateoa be apurtuko eban.

II

“Tio Miserias”, eskekoari ogia jaurti eutsolako, eta dirua alan irazigaitik, amurruz itsututa, negarrez asi zan. “Tio Miserias” tzaz, buruz Navalcarneron edesten dabezan jazokisun zikin, diru-zalekeriak ezagututa, orain, orain aitatuko jazokisun au, zalantza barik, irakurle, errez ulertu al izango dozu.

Beñiola, ilzorian aurkitzen zanean, bere azken-naian, ondorengoa bera, berbera izendatu eban. Bere azken-arnasa izan orduko, il orduko, il-kutxa laburragoa izan eiten, bere iztarrak kukuldu egiezela, agindu eban, orrelan bere ilobitaratzea merkeago izango zan. Beste bein, bidali bat egitera joanda, ostaetxe batera amabi-mabietan eldurik, bertako arduradunak adierazo eutsoan, bazkaria sei erreal zala ta afariagaitik lau errial ordaindu bearko ebazala, orduan bereala, afaria eskatu eban. Azkenengoz, egun baten guztiz atsekabetuta aurkiturik, bere burua urkatzea erabagi eban, baiña orretarako, egite izugarri orretarako, bere ortuko madari eder bat aukeratuta, bere etxean urkatzeko sokarik ez eukan lez eta bere auzokideek be ez eutsoelez itxi nai, denda batera soka ori erosten joan zan, baiña erreal bi eskatu eutsoen ezkerro, sokeagaitik errial bi eskatu eutsoen ezkerro, urkatzea beste egun baterako luzatu eban. Baiña goazen arira, ipuifien arira.

Gaba eldu zan, eta ordu bi inguru bere altxorrak zenbatu ta zenbatu emon ondoren ogeraturik, gabero jazoten jakon lez, ogean erdi izartuta, erdi lotan biraka ta biraka ebilan, jakifia, zekenak sekula be ez dabe lorik nasai egiten. Azkenean lo gogor baten geratzea lorturik, ames guztiz bakan bat izan eban.

Bere eskuma aldean, urrezko gaztelu eder-eder bat ikusten eban eta beratatik dizdira bizi-biziak, zeru-abesti liluragarriak urteten ziran. Bere ezkerreko aldean, espetxe ilun, zikin bat, an azur-kirriska, aragi-urratze ta aieñeka etsimenduak baño ez ziran entzuten. Negar eta oiua uts utsean entzuten ziran.

Gazteluko ate ganean, arri-biziz egindako esaldi bat irakurtzen zan, onela iñoala:
ZUZEN EGOITZA

Ostera espetxeko ate ganean, sugarraz egindako idatzi au agertzen zan:
DOAKABEEN EGOITZA

Bertan eukazan ba, "Tio Miserias"ek, bere begien aurrean, zerua ta inpernua.

Onetan ara non, Eriotzea bere sega zorrotz-zorrotz bateaz "Tio Miserias"eri zartada bateaz bizia kentzeko asmuz, bere alboan non agertu jakon. Bereala inpernutatik urtenda, artez-arte, zuzen-zuzen, segalariak zartadea emon orduko, bereak, deabruak atzazalakaz, erpak, sartzeko asmuz, beraganatz deabrua urreratzen joiala, ikusi eban.

"Tio Miserias"ek guzti au ikusirik, oliu ikaragarri bat egin eban, ondoren berak ogia burura jaurti eutsan eskeko ber-bera zerurik urtenda, beragana etorren. Eskekoa ikustean, deabrua bere agiñak amurruz zirrizkatuz, geldi-geldi geratu zan.

Anaia, eskekoak "Tio Miserias"eri iñotsan, zure ogi-jaurtiketak eraginda, egun batzuk geroago garaun-aldi bat izan neban, eta arik laster gorpu nintzan.

Parkatu eistazu, anaia...! bene-benetan damaturik, "Tio Miserias"ek esan eutsan.

Zartadea bereala parkatu neban, ogi zatiagaitik, goze nintzan ta. Guzurrik ez diñodala ikusi dagizun, gertaera niretzat zoriontsu bat, adierazoko dautsut.

Ludian nekatuta bizi ta parkatzen dabenak beti dira on-artuak eta, il ondoren artez-arte zerura joan nintzan. Bertara, zerura, eldu orduko, zure alde Jaunari itz, berba egin neutsan, eta berak, Jaunak erantzun eustan:

Maltzur orren alde, al dana egingo da, Aingeruari be bardin esan dautsat; arek be, bere alde arduratsu berba egin daust. Aingeruak eta zuk, arazoak biarko itxi, utxiten dauazan bat ez nazala, ikusi daizuen, eta naizta nekatuta ikusten zaitudan, mezedo bat egin bear daustazu.

Ara, Navalcarnerora itzuli zaitex eta nire izenean "Tio Miserias"eri mezu bat eroiozu. Esaiozu arren, bera ilten danean, ilda gero, bere arimea, ludian izan dauazan egikisunakaitik, inpernura zuzen joan bearrean, gorpuan, bere gorpuan, egun bitan egongo dala, ta bere alboan, bere gorpuaren zain unetxu baten be aldendu barik, notin edo pertzona anbat dagon bitartean, iñor, norbait, bere albora, gorpuaren albora, eroateko asmuz urreratuta, berari, gorpuari, ikuturik egitea be, ez dot zilegiko. Gau ta egun biak igarota, joanda, deabruak bere erpak gorpuan zertzea lortzen ez ba dau, orduan ezerez barik geratuko da, ta "Tio Miserias"en arimea artez arte zerura joango da. Alan da ze "Tio Miserias" azkar eta zuzen ibili daitela.

Eskerrik asko anaia, ta nire orde Errege Jaunari be nire eskerrik beroenak, zintzoenak, emoiozuz, "Tio Miserias"ek dardaritsu erantzun.

Bereala bere ikuspenetik zerua, inpernua, deabrua ta eskekoa estaldurik, izartu zan. Baiña Eriotzea ez jakon aldendu, bere sega zorrotzagaz bizia kentzeko asmuz, gerta egoan, eta ilunpean, leiotik egun-sentiko argitasuna sartu arte, bertan zain egoan, zain jarraitzen eban.

Arraioa!, "Tio Miserias" ori joan daitela ortik, eta beste gizaseme begikoago batzukaz, jardun dagigun. Ipuin idazleek, auzi-etxeko epaileen ondoan, abantail au dogu.

Jauna, eraile ta giza-seme galduakaz arremanak izatean, zerk iguinten gaitu? Orrelako maltzurak zoritarrekoak doguz eta gizaseme deduzkoakaz, neskatilarik polit, ederrrenak, naizta ezkonduak izan, niri jazoten jatan bezela, gure idatz-gelataro etorri-erazirik, eurakaz jolastu, ori bai zuzenki, atsegin izaten jaku.

Oraingoan topo egiten doguna, gudari azkatu bat da, Periko Valiente deritxona, benetan topaketa onegaitik, benetan poztuten naz, gudari azkatuak, gudaritzan diranak baño geiago guztatzen jataz eta.

Periko Valiente, zazpi urte luze erregiñapean bera zaintzen egonda gero izan da azkatua, ta Madrillerako bidean, bere jaiotze-errirako bidean, abarketa zaar batzukaz, udako prakak, amuko gorontza ta kuarteleko, gudari-etxeko txapelagaz, txapel au sedazko girgil bateaz apaindurik, eta beratatik dindilizka askatasun-txartela eroala, joian. Baita be bere bular ganean eskegita, xingoalztua izan zala adierazoz, girgil eta kurutze batzuk ebazan, eta bere prakatako sakel baten, bere aurrerakuntz guztiak, lau lauerreleko ekarzan.

Ondiño Navalcarnerora eltzeko, egun oso beteko bidalia dau, ta beraz egun biko bidalia Madrillera eldu nai ba dau. Uste gabe, ekaitz izugarri bat agertzen da, euria uriolaka ta bideak ibili eziñekoak geratzen jakoz. Perikon abarketak izugarrituta dagoz eta oiñez joatea beartuta izanik, zelan izango zan arritxu bateaz topo egiñik edo zapalzen ebanean, naizta eguerdia izan, zeru goiko izarrak be, ikusten ebazan eta?

Erri txiki batetik igarotean, bertako osaki-saltzailearen andrea beragaz errukiturik, bere gizonaren oski batzuk emon eutsazan. Oskiak beko zorua apurtuta daukie, baiña goi aldean, ez dago guztiz txarto ta ganera Periko belauteraño berotzen dabe.

Bai jauna, iñoan Perikok, andrazko orregaz topo egin dodalako, orain oski batzuk oiñfataratu dodaz.

Eta naizta aldean txakur bi baño ez geratu, pozik eta alai bere bidalian jarraitu eban.

Beste erri bateko plartzatik igarotean, gizon bat oiuka, entzun eban, bere lelo bakarra au zan:

Etxe jaurlaritza saltzen dot! Nok erosten daust etxe jaurlaritza?

Bere bititza osoan, Perikon asmakisuna zan, eskontzea izan da beti, eta Madrillera, bere errira asmu ber-bera orregaz doa. Orretarako, bere naia betetzeko, Afrikan mauritarrak ilten jabetu dauazan kurutze ta gorespenakaz, Madrilleko Udalak kaleak arriskatzen alogoratzen, egunero sei edo zazpi errial egunero eskuratzea, uste dau. Periko gizon a oiuka entzutea bere adi-adi geratu zan.

Gauza ongarria da, bere baitan iñoan, etxeko jaurlaritza, ta beraz garestitxua izango da. Onuratsu dana, garestia izaten da beti ta! Ain gauza ona erosteko dirua ba neuka! Ez dakit zer emongo neukan ori erostearren!

Txakurtxiki bigaitik etxeko jaurlaritza! gizonak barriro oiuka iñoan.

Au entzutean Perikok, zuzen be aldean txakurtxiki bi ba daroazala gogoratzen da ta poz-pozik, gizonak oiuka opatzen eban ori, erosten doa.

Gizonak saltzen dauana leizarrezko zarta batzuk dira! Perikok bere txakurbiakaz zarta bat erosten dau, ta pozik bere bidalian jarrai.

Iluntzea da, ta ondiño Navalcarneroko eleizaren dorrea ez dau ikusten. Goizean izan eban euritze, astintzen eban aize-ozkirri, bere urdail eta sakeletan dauan utsitasunaz, Periko errukigarria, dar-dar, agiñek alkar-joten, dago, ta bereala bere urratsak arintzen dauz. Navalcarnerora ainbat leen eldu naian, bizkor doa. Uri onetan afaria ez ba da be, au Madrilleko lurraldetan adiskiderik eta aldean dirurik ez dabenentzat guztiz zaila da, bai korta edo laztategi anbat, Guadalajarako ipar-aize otz-otzetik aterpeturik babestzeko, nok emon aurkitzea uste dau.

Periko errira urreratu zanean, Navalcarneroko ordutegian amabiak jo eben, eta erria ixiltasuna beragan jabeturik, kaleak Perikon etorkisun ainiako ilun ziran.

Obitegiko orma ondotik igarotean, Perikok obitegi barnean urrats batzuk entzuten dauz, baiña bertako zaindariak diralakoan aurrera jarraitu eban. Ilen egoitzatan zaindariak ipiñi, ezarri bear dabezalako, gizartea lotsez ilda izan bear leukela, oldozten eban.

Perikok ate baten deitzen dau ta erantzun au izan eban.

Buruaz!

Atean bigarrenez deiturik, au izan zan erantzuna.

Ez gagoz etxean!

Arago joan da barriri deitzen dau, ta erantzun eutsoen.

Lotan gara danok!

Gure Jaun eta Jaungoikoagaitik! Ostatua iñok ez eutsola emon nai ikusirik, iñoan. Navalcarneroko ilargipean gaba osoa emon bearko dot? Gaur goizeko zaparradeaz, gaba onetako otza eta nire soiñeko ta nire urdailaren arintasunagaz, gaba osoa izarpean emon bear ba dot, biar ilobitegira eroango nabe, ziur...

Ara, ilobitegiatiaz asmakisun eder, egoki bat bururatu jat. Bertako zaindariagana joanda, ilobitegian, naizta ilobitegi baten izan, gaba emoteko baimena eske joango naz. Eta zergaitik bertan lo egiten ez itxi, utxi? Bertan egoteko eskubide erdia ba dot, gosez eta otzez erdi ilik naz eta?

Au esanik, Periko itzultzen da ta ilobiko atean deiturik, ara emen erantzuna:

Joan zaitex inpernura! Zoaz inpernura! Barrutik oiuka iñoen.

Periko gosez eta otzez eta loguraz beterik zan eta ormea gaiñeratzea erabagi eban. Saltu itzal bat egitiñik, orma ganean ezarrita bere burua aurkitu eban, eta beste antzeko bateaz ilobitegi barnean zan. Naizta zoritxarrez egikera oneitan oskitariko baten zorua galdu, Periko guztiz pozik zan.

Periko Navalcarnerora eldu baño iru egun aurrerago, ta Aingeruak "Tio Miserias" ta eskekoaren jazokisuna ikusi baño egun bat geroago, edestu bearrezko gertaera bat izan zan.

Eguerdia zan, eta sei mutiko ogi eske saratatsu egozan, eta emakuma batek "Tio Miserias" bizi zan lekutik ur egoan etxetxu baten bizi zan gizon bateri, ogia atera nai eutsan. Etxe aretan "Tio Bragazas" ezezenez eritxon eta alogoretzan bere eguneroko ogia irabasten eban gizon txiro bat bizi zan; bere kondaira lerro gitxitan azaldu al izango dot. Erri-ipiuiñak, Maietzeko txirpilotak bezela arin-ariña izan bear dabe, ta Ekaiñeko goizaldeak ainiako argia.

“Juan Bragazas” naiko aberats, etxeguna zan, etxe polit eta ona, etxaldea be lur edatsuakaz eta iru bikote-mando ederrak. Ogeta-amar urte bete ebazanean, sasoi dala ta, eskontzeatzaz gogoratzen asi zan. Zelako neskatilea izango leitzakion onena etxe bizitza aurrera eroateko, oldoztu eta oldoztu, azkenean neskatil txiro bat izango leikio-la ondoen, erabagi eban.

Ni, bere baitan iñoan, ni ez naz aundi zalea, ta Jaungoikoari eskerrak nire etxean sendia azi, ezi ta elikatzeko bear dodan guztia daukat. Naizta Jaungoikoak amabi umeen aita izatea nai, ondo be ondo elikatu neikez. Beste batek nire lekuan, emazte-gaia dirudun, aberats bat aukeratuko leuke, ba emen be, beste toki guztietan bezela, mutil aberatsak neskatil aberatsakaz eskontzen dira, ta txiroak neskatil txiroakaz, beartsuakaz, baiña nik, artaldi bateko izaki bat ez dot nai izan. Neskatil polit, txiro ta deduzko bateaz eskonduko naz, eta olan alkarte zoriontsu bat egingo dogu.

Nire andreak dirutan, odansunetan, ekarri ezin izango dauana, esker eta maitasun-ean ekarriko daust.

“Juan Bragazas”, bere aurpegi politik eraginda, neskatil txiro, umezurtz bateaz maiteminduta, Telesforaz eskondu zan.

Telesforak bere baitan, iñoan.

Au, naiko aberats dana, nigaz ontza bat lurren jabe ez nazan neskatil txiro onegaz, nigaz eskondu ba da, guztiz maitamendurik dagolako izango da, ta beragaz neuk nai, gura dodan guztia egingo dot.

Esan eta egin, andrazko maltzur a, leenengo egunetik bere gogo ta gurariak, bere gizonaren gogo ta gurarien ganetik ezkartzen saiatu zan, eta onek, gizonak, bakearen maitasunean, ete eredu txar eta zer esan izan eztearren, azkenean eztabaida guztietan amor egiten eban.

Au txarra izanik, ez zan txarrena; Telesforak oparotasun utsa egoan etxean bizi zala, ziurki ikusi ebanean, berak artero izaneko barau guztiak ordaindu gura ebazan, eta Igandero antzerki-komediara goazela, Astelenetan Madrillera zezenetara, Astear-tean Mostolesera zekorketatara, Eguastenetan Alkalako azokara, Eguenean au ta ori nai dot, aurreratu izan ebazan laukoak eta eskonduta gero irabasiak be egaz egin eben. Juanek, ta beraz bere etxealdea zaintzeko ez lanerako ez eban gogo ez astirik be, olan sei urte geroago, etxe, etxalde ta mandorik gabe geratu zan. Sei ume txiki etxean, eta eguneroko zarrapadakaz, izartu orduko alkar iraiñiak eta asarre aldiak izaten ziran, eta gabean ogeratu arte bardin irauntzen eben. Esakerak diñoan lez “Urunik ez dan etxean, dana da asarrea”. Eta urunik ez-eze burudunik be ez dagon egoitzan, zer izango da ba?

“Juan Bragazas” azkenean argin-laguntzaile lez alogoratu bear izan eban, eta astero irabasten eban alogoragaz, al eban eran bera ta bere sendiak bizi bear izaten eben, jakifña, txarto; irabaste urrien ganera etxe-zaindaririk ez dagon egoitzan, jazoten dan bezela. Orrez ganera, egun baten uste-gabe, plum! aldamu, oltz batetik jausirik, beso bat apurtu jakon.

Auzokideak errukiturik, ez bera ta bere andreagaitik, ez ziran errukigarriak eta, bata onegia zalako ta bestea guztiz gaiztoa, euren seme-alabakaitik baño, aldi baten

lagundu eutsen, baiña azkenean nekatu ziran. Nor ez da nekatzen emoten? Azkenean egun zorigaiztoko bat eldu jakon, Periko guztiz etsita, naigabetuta aurkitzen zan, berak ez bere andra ta seme-alabak be, egun aretan ez eben gozaldtu, ta gozaltzeko itxaropenik be ez eben. Egun au, "Tio Miserias"ek eta eskekoak euren artean izan zan gertakisun biramonean, jazo zan.

V

Juan Bragazas'en etxean aurkezten zan antzerki-komedi antzekoa, gizaseme baten biotza ezeze arriak eurak be biguntzeko añaakoa izan zan. Leenengoan, Juan eta bere andrea alkar-izketan asarre, Telesforak bere gizonari, Juaneri, begiak atera gura eutsazan, Juan negarrez etsimenduta bere buruko uleak zuztekatzen; bigarren mailan, abesbatza, gaitzuru baten sartu al leitekezan sei umetxu batera oiuka:

Ni goze naz! Nik jan gura dot!

Etxe aretan jazoten zana ez ikustearren, Juan bere begiak ertsita, belarriak ostenduta entzun ezteko, kalera urtenda, bere baitan ikuste au izan eban.

Nora noa ni orain ogi apur baten eske. Inpernuko sumindu onentzat eta Jaungoikoaren aingeru oneintzat, atzotik ona jan barik dagozan oneintzat? Nora noa ni; errian "Tio Miserias" izan ezik, nire eskariakaz nekarazi ta azpertura ez danik, ez ba da? "Tio Miserias"egana, ez naz iñoiz mezede eske joango, beragana joatea, astia galtzea da, bera ezagutu barik, amoin bat eske joan jakon eskekoari, zer jazo jakon? Zorigaiztoko orrek, azaldu dagiala, ogi zati bat lortzegaitik, bere bizia galdu eban orrek. Aaa! Nik ogi bat atera al baneuskio, bizia, neure bizia galtzeak ez leuskit lebarik izango, ba olan nire neke ta atsekabeen amaia izango litzake, eta umetxuak euren uts-utsik dagozan urdailetan, adabu bat izango leukie. Bai jauna, egin bear dot, "Tio Miserias"egana joango naz eta Jaungoikoak nai dauana, izan daitela.

Olan esanik. "Juan Bragazas", "Tio Miserias"en etxerantz abiatu zan. Unetxu aretan be, Aingerutxua betiko teiletu ganean kokatuta egoan, "Tio Miserias"en zain, zerbait on, egikisun onik egiten ba eban; Jaunari aurkeztuz, beragaz errukitu eiten. "Tio Miserias" leio ondoan jazarri zan jateko, baiña ezin eban iruntsi jakirik. Aurrerako egunean izan eban ameseta bat gogoraturik, guztiz artaga ta urduri aurkitzen zan.

Jazotekoa da au be! iñoan, aldeko neure alkondarea be txiroei emoteko gogoz nagonean, eskeko bat be emen ez da agertzen, eta atzo, eurak ikustea niretzat deabrua ikustea zanean, maian bazkaltzeko jazarri nintzan orduko, bat-batean, txiro, beartsu bat aurkeztu jatan. Nire azken ordua urreratzen da. Bart izan neban ames ikaragarriak jakin-arazi ez ba eustan be, nigan dodan kezka, nekarazitzen nauan eragin onek, jakin-arazi egingo eustan. Arazo au, nire arazo au, oldoztu dagigun. Ara, bart izan neban ames zoragarri arek; nire gorpu ondoan, nire eriotza ondoren, nire gorpu

alboan, egun bi ta gaba bitan, bertatik unetxu baten be aldendu barik gizaseme batek irauntzen ba eban, nire arimea zuzen-zuzen, artez-arte, zerura joango zala, eta gizasemerik nire gorpuaren zain ez ba dago, deabruak bere ortzakak arrapatuko nauala... Adiskide bat be ez ba dot, nori arraio, nire gorpuaren zain egon daitela, eskatuko dautsat? Berrogeta zortzi orduan nire ondorengoan orde, nire gorpuaren ondoan zain egoteko, gertu izango diranak, milaka egongo dira, baiña gero, ordua eltzen danean, beteko dabe nire agindua? Or dago akatza, ba. Niri jazoten jatana, ikusi dagigun, inpernuratzeko ez ba da!

"Tio Miserias"ek, bere baitan izan eban bakar-izketa amaitu ebanean, ara non, "Juan Bragazas", bera egoan leiora bildurki non agertzen jakon. Zeken onek atsegintsu, maitasunezko aurpegi ta itz berbakaz, agurtzen etorrela ikusirik, "Juan Bragazas", arritu zan.

On "Bragazas" jauna. Jan gura dozu?

On egin dagiola, "Tio Miserias".

Zelan doatsu, gizona, zelan doatsu?

Zelan gura, nai dau berorrek, bizia joan eiten, "Tio Miserias", ainbeste umetxuaz eta ile bete bi osoan lauko bat be irabasi barik?

Or ikusiko dozu, zer dan etxealde bat zain-gabe egotea.

Ikusten dot, bai, ta negartzen nau, "Tio Miserias", bereala naigabez negar egiñik, Juaneke erantzun.

Zer da ori, gizona? Negar, zergaitik? Ez zara lotsa?

Zer gura dau berorrek egin dagidan, "Tio Miserias", atzotik ona nire etxean iñok ogi zati bat be jan ez ba dau?

Ara begira, ez zaitze atsekabetu. Esango dausudanatzaz zin egiten ba daustazu, zuen sakelak nik betetuko dausuedaz.

Berorregaitik zer egin naiken, esan bedi, ba daki berorrek, "Tio Miserias" ni berbako gizona nazala, ta naizta berorren agintzen dauanean, nire bizitza joan, berorreri emoten dautsodan itza beteko dodala, zin egiten dot, negarrez baiña oraingoan ez atsekabetsu, itxaropen eta alaitasunez baño, iñotsan.

Orduan "Tio Miserias"ek, "Juan Bragazas"eri aurrerako gaban izan eban ametsa azaldu autsan. Mailegu bezela bere sendia atondutzeko, berak bear eban guztia izango ebala, emongo eutsala, ta gero bere eriotz ostean, bere ondorengoa izendatuko ebala, adeierazo eutsan. Orretarako bera ilten zanean, bere eriotz ondoren eta unetxu bat be, bereala asita, galdu barik, bere gorpuaren alboan, zain, egun bi ta gaba bitan, egon bearko ebala, bearko zala.

Adierazpen au, "Juan Bragazas"ek, pozik ontzat artu eban, bein eta barriri zin egiñez, bera, "Tio Miserias" ilten danean, deabruak berak be, bere gorpu albotik, ez dautsola aldendu eragingo. Ogi bi, urdai-azpiko apur bat, eta ardao-zatoa besapean arturik, "Tio Miserias"ek emonda, jakifia, bere poza ta zoriona poztu eziñik, bere etxera itzuli zan. Bitartean, Aingeru zaiña bere egoak zabalduz, igon eta igon, urtzi urdifetik jaso ta jaso, ikusi ebana Jaunari azaltzen joan.

Biramon goizaldean, "Juan Bragazas" bere andrearen alboan nasai lo egoan, Eskerrak "Tio Miserias"ek emon eutsan ogiari, urdai-azpiko ta ardao zatoari, beragaz, bere andreagaz, bake egin ondoren, nasaien aurkitzen zan une ber-beratan, "Tio Miserias" il-zorian aurkitzen zala ta, non deitzen dautsoen.

"Tio Bragazas" leiatsu jantsirik, ilten egoanaren etxera ariñeketan joan zan. Gaixoa bera eldu baño leenago ilten ba zan, eta gorpua unetxu bat bakar-bakarrik, bera barik geratzen ba zan, bere zaintze gabe, deabruak bere arimea arturik, bere egoitzara, inpernura, eroango eban.

"Tio Miserias"enera eldu zanean, etxeguna, "Tio Miserias", erriko abadea lagun ebala, azken arnasetan egoan. Abadearen laguntza berezia eban, eriotz on eta errukigarri bat izan egian. Jakiña, ludian, ludi onetan iñori ezer onik egin barik, gertaera zintzo ta lagun-urkoari iñoiz lagundu barik, bere bizitza osoa emoten dauanak, azken orduetan beragandik danak aldatzen dira, Eleiza Katolikua izan ezik. Ludi onetako argalkeri, maltzurkeri, zitalkeri guztiak bazterturik, Jaungoikoak bere semeak beti babesten dauz.

"Tio Miserias", "Juan Bragazas" bere albora urreratzen ikusi ebanean, apur bategaitik une orretan bertan ilten da. Barriri bere gorpuaren albotik, berrogetazortzi leenengo orduetan, unetxu bat be ez dala aldenduko, zin egin-azorik, Madrilleko dorre urrunetan, eguzkiaren leenengo izpiak, lurraldea argitzen ebanean, bere oge ganean aingeru bat eta deabrua egazka ikusten ebazala esanez, bere azken arnasa bere estarririk urten zan.

"Juan Bragazas", gorpu egoan oge buruan jezarrita aurkitzen zan, naizta beti ileen bildur izan, gura nai gura ez, bertan ogetalau ordu geroago arte, lur-emaleak ilobitegira gorpua eroteko, etorriko ziran arte, egon bearko zan.

Gorpua ilobitegira eroanean be, Juan, "Tio Miserias"en gorpu albotik ez zan aldendu, bertan ilobi ganean, biramonean eguzkiak urten arte, au da berrogeta zortzi orduko epea betetzen zan sasoi arte, bertan jezarrita egoteko erabagi bizi-bizia eban.

"Tio Miserias" il zanetik aurrera, bere gorpu albotik "Juan Bragazas" kentzeko, deabruak egin ebazan alegiñak, azaldu eziñekoak dira. Il-zorian egoanaren albora joateko, Juan ariñeketan abiatu zanean, leenen leenen egin ebana, Telesfora bere adiskidearen alboan ogean sartzea izan zan, berela oneri iñotsola:

Zure gizona, "Tio Miserias"en ondorenari eskerrak, aberatsa izango da, baiña zu diru-botatzezalea zarala jakiñik, diru ta baita be ondasun guztiak, zazpi giltzapean ezarriko dautsuz. "Tio Miserias"ek ogean bururdirpean erre zorrotxu bat gordeten dau ta zure gizonak ez daki. Ia ze trebetasun dozun, bertatik zure gizona aldendu, ta berak begistatu baño leenago, zorrotxua artzen ba dozu. Katua arrapatzen ba dozu, beragaz ze atsegintsu izango zaran, ikusiko dozu, ta zure gizona zelan zirikatuko dozun.

Jakiña da, deabruak andrazkoen gorputzan sartzeko, trebetasun aundia dauala. Onetaz be, gertaera berezi bat azaldu nai dautsuet. Zallan, Bizkaiko Enkarrarrietako lurraldetan, San Pedro Zariketa deritxon eleiza bat dago, antziña-antziñatik, euren

gorputzetan deabrua dabenak ostatari zital onegandik gaizkatu naian, bertara joaten dira.

Bertan liburu baten, izen abizenakaz, euren arazo guztiak azaldurik, bertatik igaro diran guztiak, agertzen dira. Sarritan liburu au ikertu dot, eta benetan da arritzekoa nire zertzeladatan agertzen dana. Euren gorputzetan deabrua izanik, bertara aurkezten diran gizon bakoitzetik, ogei andrazko zio bardiñakaz, agertzen dira, eta geienei deabrua, euren abotatik sartu jake.

Gorpuaren zain onen etxean emon bear izan eban egunean eta batez be gaba osoan, Juan Bragazasek deabruaz borroka gogorra izan eban, onek, deabruak, Telesforaren soiñean, gorputzean sarturik, Juan bertatik aldendu naian, etengabeko, alegiñak egin ebazan.

Eta gabaz diñot borrokarik aundienak izan zirala, ba jakifia da, deabruak gabaz eta batez be gaberdiko amabietatik aurrera da borrokarik, alegiñik aundienak eta irabasterik berezienak egiten dauan sasoia. Bere, deabruaren egikera geienak, gabaz jazoten dira, gabaz erioleta ta iltze guztiak, gabaz ardao-saltzailleak ardao, gero egunez saltzeko, bateotzen dabe, gaba edantegian emoten dabe gizonak, euren emaztea, andrea, gabaz astintzen dabez, gabaz lo-zaindariak lo egiten dabe ta baita be gau-txori guztiak, gabaz ontzat sartzen dabez txanpon maketsak, gabaz, zalantza gabe, gabaz idazten dabez, gero liburu dendatan eta antzokietan erakusteko, eresi antzerki-lizun-keriz beteriko liburu orreik. Zelan ez da izango ba, gaba ta bere iluntasuna lagun berezi bat "Tio Miserias"en arimea arrapatzeko? Juan Bragazas, zekenaren gorpuaren albotik aldenduaz, irabaste bat geiago ba eukan?

Bai, jauna, egunez baño obeto. Bere guraria betetzeko, deabruak arerioaganako jokaera ausnartu eban, onelan bere naia betetzen ba eban, arrikada bateaz, txori bi ilten ebazan, au da, Juan Bragazas'ei guzur-zinazo, eta bata bestean atsetik, Juan Bragazas eta "Tio Miserias" eroazan.

Gabeko, zaindu bear eban, gorpua zaindu bear eban azken gabeko amabiak inguru zan, eta Juan Bragazas ordurarte garaile zalako, pozik egoan, baiña gaba aretan deabruaz borroka gogorra izan bearko ebala, uste eban, eta egin bearko ebazan alegiñak gogoraturik, sarritan dar-dar aurkitzen zan. Ziur zan, deabruaren azken alegiñak, sekulakorik gogorrenak izango zirala. "Tio Miserias"en arimea beraganatzeko ta beraz inpernura eroan, maltzurkeriz eta gogor jokatu bearko ebala.

Juan bildur oneikaz erasotuta aurkitzen zanean, ara non, Periko Valiente ilobiko atean deadarka, non entzuten dauan, baiña deabrua zala uste izanik, bere gogoan besterik ez zan eta, onelan erantzun eutsan:

Zoaz inpernura!

VII

Juan Bragazas'ek deabrua zala, ikusi ebana gela barruan ikusi orduko, kurutzsantua egin eban, baiña antziña, bere gorputzetik deabruak urten egion, kurutze-santua eragin bear eutsana, bere andrea zan.

Ez eizu kuruts-santurik egin gizona, deabrua ez naz ta, Perikok esan eutsan, arri-turik ilobitegiko zaindari bat, ori uste eban zala ta, olako gauzak, deabru bat edo beste ikusigaitik, arritu leitekela.

Etorri-barrien itzak, berbak, entzukuran Juan pozturik, nasai, pozaro arnasatuz bere birikiak aize-ozkirriaz bete ebazan, eta beragantz urreratuta, eta oraingoan ez arrituta, kurutze-santua egin eban eta aldentzen zanean esan eutsan:

Nor zara zu?

Gudari-azke txiro bat naz, beste edozein bezela emen sartzeko eskubidea dauan bat. Kepa beranean sartzen dan lez.

Zergaitik?

Au ileen etxea dalako, ta ni gosez eta otzez ilda nazalako.

Ileak eurak be osatzen, sendotzen dauan osaki bat emongo dautsut, Juanek iñotsan, bereala bere alboan eukan orni otsaratik ogi-erdi bat, giar zati batzuk eta ardo-satoa opa eutsozan.

Perikok, Perikok, pozez ardao-satoan leenengo mozua ezarri eban, eta bereala laz-tantasunak ogi ta giararentzat izan ziran.

Adiskide, Kristok Lazaroaz egin ebana egin dozu, berbitzu nozu, Perikok iñotsan.

Orain nai dozu, San Martiñek Kristoaz egin ebana, egin dagidan?

Ez jauna, soiñ-ganekoa beste beartsu bateaz banandu eizu, eta poztu zaitze afaria banantze onegaz.

Periko barrutik berotzen joian eta kanpotik ez eban otsik.

Ikusten danetik, zuri ilobitegiko zaindaritzak errege bat bezela bizitzeko aifnako emoten dautsu, ez?

Ze zaindari ta zaindari bako!

Zer? Ilobitegiko zaindari ez zara, ala?

Ez jauna.

Orduan, azaldu eistazu, zer egiten dozu emendik, ba?

Juan Bragazasek bere bizi osoko gertaerak azaldu autsazan, azkenengoa, "Tio Miserias"gaz izan ebana bereziki izanik; baita be adierazo eutsan, deabruagandik jasan bearko ebazan erazo barrien, bildur zala.

Etorri daitela, zaldun ori, gudari-azkeak esan eban, eta ikusiko dozu zelan buztana anka artean daroala, bialtzen dodan.

Perikok itz, berba oneik esanez batera, Navalcarneroko eleizan amabiak jo eben, eta ordulariak amabi kapai-ots jotea amaitu ebanean, ilobitegiko atean norbait deadarka zan.

Or dozu deabrua! ikeratuta, Juan Bragazasek, esan eban.

Berari dagokion itzaltasunez artuko dogu, bereala aterantz abiatuz, Periko Valientek, iñoan.

Idegi eban atea, ta ara non, deabru marraztu, adardun esaten daberen bezelako bat, ber-beragaz aurkituko zala, uste izanik, gain-soiñefeko eder eta galtzuko kapeladun zaldun bateaz, topo egiten dauan.

Ezezagunak, Periko gizabidez agurtu eban: "Jaungoikoak zaindu dagiazala" eta ez "Jaungoikoak gaba ona emon dagiguzala", esaldi errukitsu ta adegiz beterikoak, gaur egun notin, pertzona, arrunt, ergelak, aurak uts utsean erabilte dabezanak, onelako esaldia erabili barik, bage, ondoren jarraitu eban:

Ni Madrillerako bidean noa, bertan adiskide asko dodaz, baiña emendik legu erdi inguruan zaldi-burdia apurtu jat, eta guztiz berandu, belu, eldu nazan ezkerero, urian ostaturik ez dot aurkitu, ta emendik igarotean, norbait izartuta zala nabaitu dot, eta gaba bertan emoteko baimena erruguturik eskatzen ausartu naz.

Itxaron eizu apur bat, Perikok esan eutson, nire lagunagana noa, ia bera, zu emen gugaz geratzeaz, ni añako atsegintsu ba da jakitera noa.

Juan Bragazasagana urreraturik, ixilean iñotson:

Deabrua ez dau izan bear, soiñ-ganeko ta kapela dakarst ta. Nire eretxia barrura igaroten itxi bear dautsogula da, ta gero zain adi-adi egon ia adarrak eta buztena agertzen ba jakoz.

Bardin deritxot, Juanez erantzun.

Zalduna sartu, ta "Tio Miserias"en illobia egoanetik naiko urrun jazarri, illobiaren albo bietan Juan eta Periko jezarririk.

Etorri bedi emendik eta ez zaitez izan izakera ain makalekoa, gizona, Perikok iñotson:

Ezin neike, ezezagunak erantzun, debekatuta dot, ilobi beteta dagozanetara ez jat guztatzen urreratzea.

Gizona bere berbeteak galtzen dau, ixil-ixilean gudariak esan eban. Onak deabrua izan bear dau, baiña nik azkarrago, jakitunago eretxiten neban.

Deabrua Jaungoikotzaz gogoratzean zorobiatu ta lelotu egiten da, Tio Bragazasek erantzun.

Perikok prakatako sakeletik errekin apur bat atara ta bere esku zabalakaz zeazturik, beratan autz apur bat Tio Bragazasari emonda, au bereala doministikuka asi zan.

Jaungoikoak lagundu daitzula, Perikok iñotsan.

Soin-ganekodunak au entzutean keiñu baragarri bat egin eban eta Periko gertae-
ra oneaz konturatuta, ixilean iñotan:

"Tio Bragazas" ziur zezanak dira!

Baiña ziurrago jakitearren soin-ganekodunari itaundu eutson.

Zu otz izango zara, ez?

Olan, olan.

Lurralde beroetatik etorrikoa zara zu, ez?

Ikusten dozu, "Tio Bragazas"?, Perikok Juaneri iñotson.

Eta abots zolian jarraitu eban:

Jaunak, emen lurreratuta dagozan arimaren alde, uste dot, agurtza bat otoitz egin bear geunkela.

Soin-ganekodunak arrituta zurundurik, atserantz urrast bat egin eban.

Zer da ori, gizona? Perikok itaundu eutson.

Kirioak teinkada batzuk egiten daustez...

Josus, ze zoritxarra, gizona!

Au entzutean, soin-gabekodunak beste mugimendu bakan bat egiñik, Perikok azken saioa egiteko erabagia artu eban.

Ara gizona, beragan urreraturik esan eutson, Madrillera eldu orduko, soiflean daroazun soin-ganeko antzeko bat egingo dot. Mezedez zutundu zaitetz, ia ori, sorbal-datik, atsetik zelan dozun ikusi dagigun.

Ezezaguna zutundurik, zutik, Perikok, soifekoaren oiala zelakoan dan jakin naian, bizkarretik berantz, bere eskuak soka bat biurtuta topo egin arte, aztatu eban.

Ordurarte ezezagunak bere eskuak, otzaren atxakia dala ta, sakelean sartuta soin-ganeko sakelean sartuta euki ebazan, baiña orain leiatsu bere bizkarrera, atseko alde-ra eroan ebazan, Perikok bere eskua ebiltzan lekura.

Gudari-azkeak, ezezagunak atzazalak luzeak eukazala, ikusi eban, konturatu zan, eta bereala Perikok gogorapen au izan eban.

Au deabrua dala baieztatzeko agiri ugari dira, bere bizkarrean nabaritu dodan biurkin ori, ziarriki buztena da, atzazal orreik errugarriak dira, naizta orain, andiki zaleak be luze azten zilegiten dautsa, olan arlote iruditurik, adarrak ba dauka ikusi dagigun.

Perikok nai-gabe antzaturik, ezezegunaren kapela zaplada bateaz lurreatu eban, ori bai, "parkatu eidazu" jauna bein eta barrero esanez, eta leiatsu unetxu bat be galdu barik, bere eskuetan arturik, buruan ipiñi, ezarri eutsan.

Perikok gertaera onetan, ezezagunaren bekokia, goi aldean, ukututa, zerbait bakana eukala nabaritu eban, gauza bat sarratzen danean geratzen dana, zuen parkame-nagaz, adar bikote bat.

VIII

Maltzur arraioa!, Perikok biurkin eta atzazal luzendunen aurrez-aurre ezarrita, garrats esan eutsan:

Zuk uste zenduan, ez, ni atzamarra mizkatzen nengoala? Aldendu zaitetz emendik, eta zoaz inpernura, lurralde beroa da ta.

Nor nazala uste dozu, zuk ba?

Deabrua, maltzur ori!

Jakituna zarala, ikusteri dot.

Zu baño jakitunagoa, naizta ez egon ondo, ori nik esatea.

Zu ez zara ibili nigaz ikastetxean.

Baiña, bearzena, nire irakaslea izan dot, zu baño jakitunagoa dana.

Bai, bai, jauna, deabrua naz, zetarako ukatu!

Eta zelan zabiltz orrelan jantsita?

Zelan gura dozu, ba ibili naiten, bidalitu dagidan?

Buztena agirian, adarrak aserratu barik eta begietatik sua botatzen eta arnasa artzean, inpernu-arri usaña legu erditik usainduz?

Baiña gizona, ze atseratuta bizi zara zu! Ori orain eun urteko deabrua da, baiña gaurkoa, mende barruan, barnean, izan diran aurrerakuntzatan ezarrita bizi da; deabruak berak be, aurrerakuntz legeak mendetu bear dauz.

Baiña ulertu eziaña da, deabrua soin-ganekoaz jantsita ikustea.

Eta zergaitik ez? Baita be, erregez eta ministroz, eleiztar eta gudaritzaz be, gertae-rari ba dagokio.

Ez dakizu, zuk ba, nik ludi osoan arremanak dodazala eta toki guztietan bezero bereziak daukadazala?

Eta ona zertan sartu zara, ba?

Zuri eskeintze on-on bat egiten, adierazoten.

Ikusi dagigun ba, ze eskeintze dan ori.

Ara, ni mailegu diruetxetan guztiz on-artua naz... olan erreztasun aundienagaz ondatzen dira ta.

Or zure alboan dagon keto, ergel ori, bere andreagaz lotara joatea lortzen ba dozu, ta beragaz, bere atsetik zu be joaten ba zara, mailego elkargo baten, lantoki berezi bat lortu al izango dautsut. Lan urri ta irabaste onak izango dozuz.

Bai zera, urrengo egunean deabruak mailego-elkargo ta ni inpernura eroan gaia-zan! Ez dot aintzat artzen arreman ori.

Oraintxe egingo dautsut. "Tio Bragazas" zaldun oneri egitera noan eskeitz berezi au, entzun eistazu. Zaldun au bere soin-ganeko ta kapeldun au, deabrua ber-bera da.

"Tio Bragazas" bera ta bere lagunaren asmakisunak baieztatu zirala ikusirik, bil-durrez arritu zan, eta bere entzumena bizkortuta, adi-adi geratu, ori bai, "Tio Miserias"en ilobitik aldendu barik.

Zure eskuetan guztia itxita, utxita, nire laguna ta ni emendik aldendu gaitzean, nai ba dozu, nire oskiak betetzeko beste urre emon bearko dauskuzu.

Juan Bragazas, aukera onen aurka urtetzeko egoan, berak zin egin ebana, arazo guztien ganetik betetzeko asmu bizi-bizia eban, ludiko urre guztiekaitik be, berak zin au, au da, "Tio Miserias"eri zin-egiaña, ez eban ukatuko; baiña gudariaren zentzun eta zintzotasuna, uste izanik, ixil-ixilik geratu zan.

Nik be, arreman au, aintzat artzen dot, Juan Bragazasek erantzun eban.

Zuk be, zure lagunaren bezela, arreman au ontzat artzen dozu?

Bai, ontzat artzen dot, Juan Bragazasek erantzun.

Obitegira sartzeko Periko Valientek egin eban saltuketan, zorua jareindu jakon oskia, deabruarik aurkezturik, esan eutsan:

Bota eizu ta ganeska ez dagiala egin.

Baiña gizona, deabruak iñoa; toki guztietan adiskideak dodazan ezkerro, aldean ez dot dirurik erabilten, baiña egazkada baten, adiskide zeken anbateri eske joango naz, emen guztiz ur batzuk bizi dira ta.

Joan zaitetz ba, Jaungoiko ta Deun guztiekaz.

Deabruak purrustada bat egiñik aldendu zan, norantz edo zelan jakin gabe.

Baiña gizona, zu beragaz zagoz, Juan Bragazasek esan eban. Naizta gudariagan itxaropen osoa izan, apur bat larritu zan, bildurturik egoan, berak emoneko itza, zin egin ebana, ez betetzeko arriskuan ezarriko ebala ta, kezkatu zan.

Zer egiteko asmua dozu?

Zer? Deabruari iruzur egin?

Zelan?

Oski onen beste aldea, zorua, ikusi eizu.

Baiña ez ba dau zorurik.

Oski au lurrean ezarri barik eukiten ba dogu, ikusi eizu zenbat diru bearco dauan bera betetzeko.

Zu, deabru ber-bera zara! Deabrua ber-bera baño gaiztoagoa!, bere lagunak deabruari egin gura eutson maltzurkeria ulertuz, "Juan Bragazas"ek esan eban.

Ba dago ortik, emen ur, ilobi utsik?

Bai, adrilu, buztin-erreez, nik besoa apurtu baño egun batzuk leenago erriko aberats baten aginduz, nire irakasle ta biok egin gendua. Bai, eta okullu aretan egon bear dau.

Perikok ilobia bilatu eban, arrilosa, erdian zulo bateaz, bertatik tresna bat sartuta jasoteko estaltzen eban bat ikusirik, bertan gelditu zan. Arrilosa, aree-arria zan, guztiz biguna, ta eskerrak arriaren biguntasunari, Perikok bere aizto txikitxuaz, oskiaren zorua antzaturik, eta oskia arrilosaren ganean ezarri, zutik oskia, eta zuloa neurri bete-betean estaltzen ebala, ilobiaren zuloa aunditu eban.

IX

Deabruak, gizon bezela atean deitu bear izango eban, baiña deabrua bezela, olako zeregiñik ez eban bete bear izaten eta, ilobitegian urrez beteriko zorro bateaz agertu zan.

Uste dot, Perikok iñotson, ez dakarzula zuk naikorik, baiña bota eizu, ordaintze zati bat bezela artuko dogu ta.

Deabrua, Perikok eutsiten eban oskian utsitu eban urre-zorrotxua, ta oskia ez zala betetzen ikusirik, zirtzilkeriak esaten asi zan.

Gizona, iñotson Perikok, itz, berba, eizu itzaltasunez, jakin ba dakizu, ez zaitetz ainbeste larritu. Ez diñozu ba, kreditu-etxe ta gizarteak guztiz aintzat artzen zaituela?

Bai Jauna, alan da, eta baita Jaurleritza ta diru-etxeak be.

Ba, joan zaitetz eurakana, ia estutasun onetatik ateratzen ba zaitue.

Bereala noa, joango naz.

Joan zaitetz Ama Birgiñagaz.

Deabrua beste furrustada bat egiñik aldendu zan.

Perikok mixto bat biztuta, arrilosako zulotik begiraturik, "Juan Bragazas"eri esan eutson:

Juan, Madrillen be nire oskia betetzeko beste diru ez dago. Bedeinkatua izan bedi beti, berau emon eustan osakisaltzailea!

Neskatilla-oskisaltzaileagan gogoratzen egoan, deabrua beste zorrotxu bat urrez beterik, agertu zanean.

Naikorik ez dakartzula, uste dot, Perikok iñotsen.

Oski ori betetzeko ta askoz be geiago dago zorro onetan.

Orain ikusiko dogu.

Eutsi eiozu oskiari.

Zu asi zaitetz urrea botatzen.

Deabruak oskian zorroa utsitu eban, baiña oskia ondiño ez zan betetu. Au ikusirik, deabrua biraoka ta zantarkeriak esaten ziardun, bitartean "Juan Bragazas"en uleak, arrituta, kirikolatzairen antzera ezarten jakozan.

Gizona, Perikok iñotsan, Madrillera itzuli zaitetz barriro, ta urrea apurka apurke ekartzen ez zaitetz ibili.

Ala ba, gero arte.

Joan zaitetz Jaungoikoagaz.

Deabrua leenagokoak baño furrustada aundiago bat egiñik eta biraoka, estaldu zan.

Periko errekiñ erre ta erre, errekin bat bestean atsean erreten eta "Juan Bragazas"eri etxe ta laterriak ondo zaindu ta zuzen eroateko zer egin bear zan esaten, nekatuta egoan bitartean, deabruaren barririk ez zan ondiño.

Ba dakizu Juan, bere lagunari esan eutsan, deabrua apur bat ajola-gabetzen ba da, berandu, belu elduko da, eguna be argintzen doa ta.

Luzapen au bere ondamena izango da, Juanek erantzun eutsan. Banco de España diru-etxera diru bila joango zan, eta berton lerroan, diru-artzetzeleen lerroan itxaroten egon bearko eban, eta batek ba daki zer jazoko jakon.

Ez eizu ergelkeririk esan gizona, gudariak iñotsan. Diru-etxeetan bertako adiskideak lerroan itxaroten ez dabe egon bear izaten.

Juan eta Periko alkar-izketa onetan jarduten eben bitartean, ara non zorro aundi bi urres beteta asto bat trailan ekarrala, agertzen dan.

Deabrua guztiz nekatuta ta urduri etorren, leiatsu, sortaldera begira, bildurrez eguzkiaren argitasuna noiz ikusiko.

Ikusten dodanetik, Perikok esan eutsan, ondiño be ez dakarstazu naikorik.

Gizona, olako txantxetarik ez eizu asmau be, bildurki deabruak diñotso!

Oski barnera bota eizu, ta zalántza guztietatik urtengo dogu.

Deabruak zorrotzariko bat oskian utsitu eban, baiña oiñetakoa ez zan betetu.

Sortaldea argitasun bizi-biziaz dizdiratzen asi zan, eta deabruak gertaera onegaz konturaturik, leiatsu artu eban beste zorroa ta oskian utsitu eban, baiña oraingoan be zoritxarra zan berantzat, oskia ez zan betetu.

Oskia urrez ez betetzeak, Deabruagan sekulako etsimena sortu eban eta bere begietatik sugartsua urteten zala, itz, berba, zakar eta birao izugarriak bere espanetatik urteten eben. Bereala, eguratzean soñu ta abesti lilugarriak entzunik, deabruak Karpetanos mendietan be entzun al izateko orro ikaragarri bat eginda, lurbira barnean lurperatu zan.

Juan eta Perikok, sortalderantz begiratuta, Madrilleko dorre urrunak gorritzatzen ebezan leenengo eguzpi izpiak, ikusi ebazan. Une aretan "Tio Miserias"en ilobitik, sekulako argitasun batek ingurua zuriturik, zekenaren arima damutua, Aingeru Zaindariaren egoetan ezarrita, apur bat leenago beragaz topo egitera jaitsi zana, zerura egazka, soñu ta argitasun lilugarriaren artean zerurantz igon, jaso zan.

X

Juan Bragazas eta Periko Valiente, "Tio Miserias"en arima, zeru urdiñatan, goietan estaltzen zala ikusirik, poz-alaitasunez besarkatu ziran.

Bereala bazterreko ilobira joanda, bertan aurkitzen zan urrea bene-benetakoa zala, ikusi eben, eta adiskide on batzuri dagokion bezela, banandu.

Ze zoriontsuak izango gara orain!, Periko Valientek, erosiko eban etxea gogoraturik eta Madrillera eldu orduko aurkituko eban neskatilatxua gogoan izanik, esan eban. Ostera "Tio Bragazas" goibel eta susmabera, dirautso.

Zu izango zara, baiña ni ez.

Zergaitik?

Zaintze on bat ez dagon etxean, ondasunak alperrikoak dira.

Zuzen zara Juan. Eta zer emongo zeunke zuk, etxean, zure etxean zaintze on bat eukitearren?

Diru guzti au emongo neuke.

Ba asko be gitxiagoagaitik eskuratuko dautsut, besarkatu naizu.

"Tio Bragazas"ek, Periko maitasunez besarkatu eban.

Ia, ba, or dozu etxeko zaintze-ona, leizerrezko zarta bat emonaz, Perikok esan eutsan.

Perikok, deabruak baztertuta itxi, utxi eban astoan, zamatu eban diru guztia, eta or doa bideari jarraiturik, Madrillerantz.

Uri ospetsu orretara barneratu orduko, asto bat ainbeste urre eroala ikusirik, urtar guztiak, arrituta geratu ziran. Erri-altxorreko ministroak be, uri egoa egoera larritik urteteko, urten-azoteko, laguntza eskatu eutsoen, ori bai, jaurleritzako langile berezi bat ordez izendatuta.

Baiña ze arraiogaitik, Perikok bere baitan iñoan, astokada bat diru ikusi dabela ta arritzen dira, Madrillen ainbat eta ainbat basa-pisti urre ta arri-biziz beterik, ikusten ba dira?

Baiña ez dozu ikusten, erantzun eutsoen, Madrillen txakurtxikirik be ez dagola?

Eta diru-etxeak?

Orreik be ez daukie.

Eta diru-etxetako zidar milloak?

Kitu eginda.

Baiña gizona, nora joan da ainbeste diru ba?

Deabruak eroan dauazala diñoie.

Perikok alkar-izketa au amaitutzat emon eban, eta bereala Erregiña ikustera joan zan.

Erregiña, Lavapies auzoan etxe txiro baten bizi zan, obeto esanda, ilzoria egoan atsotxu bateri ikustaldi bat egin, eta bide batez poz-arazi ta laguntza apur bat opatze-ra joan zana, une aretan itzuli zan.

Zaindu bedi Jaungoiko Jauna, biotz onekoak! Perikok, Errgiñearen biotz on eta errukigarria, ta beste bere egikisun ongarriak entzutean, biotz-bigundurik, esan eban. Zer ez neban nik gorde izango Erregiñeari opatzeko, "Juan Bragazas"eri opa neutsan zartea bera be bai!

MARGO ASKOTAKO IPUIÑAK GIZON JOSTUN BATEN GALBIDEAK

Nosedonde aranean, ipuin eta kondaira idazleen artean, bere zikinkeriagaitik guztiz ospetsua zan sorgin maltzur bat bizi zan. Ipuin au bear dan bezela ulertzeko, bere bizi ta mirariak zeaztasun osoz azaltzea bearrezkoa da.

Gure ipuiñeko sorgiña, erritik naiko ur egoan baso baten bizi zan, berak lantzen eban ortu txiki batetik, uzta bezela lortzen ebazan janariakaz, eta bere txabola loi ta iluna kerizpetzen eben gataiñatatik artzen ebazan igaliakaz, bizi zan. Iñor ez zan ausartzen beragana urreratzen; batez be andre umedunak beragandik igez egiten eben. Bai eban, bai, andrazko oneik beragandik zergatik urrundu, iges egin. Sorgiña guztiz gaiztoa zan, andrazko umedun bat ikusten ebanean, “jaingoikoak deun bat emon daitsula” esan bearrean, “ jaingoikoak deabru bat emon daitsula” esaten eutsen. Erritarren artean lapur eta eraile batzuk bizi ziralako, au olan izan zan. Urte txarra aitaturako sorgin arentzat!

Nosedonde andra-gizon erritar jostun bi bizi ziran. Lagun-urkoa maitatu ta mezedo ugari eurakaz izaten ebenak, batez be bilostuak jantsirik, eta orregatik auzokide, erritarren artean guztiz maitatuak ziran.

Andra-jostuna umedun zan egun baten, sorgiñ au bizi zan basotik igarotean, emakume maltzur eta guztiz gaizto arengandik, zaindu egien, Jaungoiko ta zeruko deun guztiei otoitzka joian. Ezelan be ez eban nai sorgin aregaz topo egiterik, baiña ara non, sorgiñak bere etxe, egoitza eukan lekutik, aldetik, ke-edoi ikaragarri batzuk zerurantz jasoten zirala, ikusi eban, eta sorgiña ber-bera oiu negargarri batzuk, laguntza eske, entzun ebazan.

Andra-jostuna biotz on-onekoa zan, biotz bigun eta errukigarriduna ta bere lagun-urkoen gaitz eta naigabeen aurrean, bere neke ta arazoak alde batera baztertuta, arein eskakisunak betetzen narratzen eben. Une aretan be, bere gogo guztia sorgiñari laguntzea izan zan, eta arifeketa baten, keak eta ojuak izan ziran alderantz abiatu zan.

Laster igarri eban, zein zan sorgiñaren arazoa, bere txabola txikia sugarratan aurkitzen zan, eta onen, sorgiñaren alegiñ guztiak sua amatua naian alperrikoak zirala; sua geroago ta indartsuago, ta azkenean bere egoitz zikin eta errukigarria, beragaz bere altzari ta uzta urriak be, bere txabolea aifiako ezerezak, suak eraginda biurtu bear eben.

Sorgiñaren txabolaren aldamenetik, apur bat goragotik zearkaatzen eban basoan egoan errota baten uraskea ostikada bateaz apurturik, sugarratan erretan egoan txabolako ate aurrera uriol ikaragarri, ur-uriol ikaragarri bat jaitsitea, lortu eban. Bereala andra-jostuna txabolara elduta, sorgiña lagun ebala, lapiko bete ur emendik, beste lapiko bete ur andik, sua amatau al izan eben.

Pozaren pozez, sorgiña negarrez, emakume arek egin eutsan mezedeoa eskertu ta bera goraltzeko, ez eban aurkitzen itzik.

Ez nozu ezergaitik eskertu bear, nik egin dodanak ez dau lebarik, garrantzirik, beste edozeiñek bardin-bardin egingo eban, jostunak erantzun.

Zuk egin dozuna egikisun berezienetarikoa da, ta ondiño bereziagoa, barriz ama izateko ur zaranean, sorgiñak esan eutsan.

Itz, berba oneik entzutean andra-jostunak gogoratu eban umedun, aurdun, aurkitzen zala ta ikeratuta, gorputz osao dar-dar eban. Sorgiña bera be konturatu zan andra-jostunaren larritasun eta kezka, urduritasuna, zergatitik eta zerk eragiten eutsan, eta nasaitu naian iñotsan:

Ikeratu bearrean, alaitu zaitez, andratxua, ba albiste, barri, on bat emon bear dau-tsut; egin daustazun mezedearen ordaintze lez izango da. Jakin bear dozu, ume txikitxikitxu baten ama izango zarala, baiña zartada bateaz zazpi iltea lortzen ba dau, zazpi probintziaren jaun eta jabe izango da.

Eraile nire seme bat! , negarrez andra-jostunak iñoan.

Ez eizu negarrik egin, zure semearen zazpi eriotzak ez dabe ez gizartea, ez sendia be laidotuko, sorgiñak esan etusan.

Azalpen onegaz andra-jostuna, apur bat nasaiago aldendu zan.

Andra-jostunak etxeratzean bere gizonari sorgiñagaz jazorikoa azaldu autsan, itxaroten eben aurtxuatzaz esan eutsana aitzu barik, au da, ume, aur, txikitxu bat izango ebala ta zartada bateaz zazpi iltea lortzen ba eban, zazpi probintziaren jaun eta jabe izango zala.

Bere andrearen siñiskeria entzunik, gizon-jostuna barre zantzoka asi zan. Jakiña, beraz ez eban siñisten olako sorginkerietan.

Aldi larbur bat geroago, andra-jostunak ukubilelako aurtxu, seintxu, txikitxu bat izan eban, eta orduan bai, sorgiñaren igarpena, beintzat leenengo zatia bete zala ta, gizon-jostuna bere siñisgabetasunagaitik damutzen asi zan.

Ume guztiz neurtuzki azi zan, amabost urte izan ebazanean, beste ume batzuk, ume arruntak, sei betetzen ebazalako zan. Naizta olan izan, jostun trebea zan, ta egia esan ederto etorri jakon, ba da umezurtz geraturik, aita-ama barik geratuta, bere bizi-biderako, egokia izan jakon.

Mutil-jostunak, sorgiñaren agerpena, bere aita-amagandik entzunda, ba ekian, au da, gorputzez txikia zan bezela, jakitunez aundia izango zala, ta naizta Sevillako Apaiz-nagusia izatea itxaron, ori ez zala zio naikorik, aulki-apatz baten jezarrita nasai-nasai, noiz izango, zain egoteko, au be guztiz ondo ulertzen eban.

Bere itxaropena, ta naia, guraria be bai, zazpi probintzitako jabe izatea zan, baiña jabetasun ori lortu bitartean, egun osoan etengabe jostorrotza emendik, oialak andik, lanean, abeslari bere lan-gelan eukan soso batek laguntzen eutsola; lortuko ebala, ziur zan.

Bere zorion edo txarra, zartada bateaz zazpi il edo ez iltea zan ezkerro, mutil-jostuna beti ebilen zanbakiaren atsean. Bidetik joiala iñurri lerro bat ikusten ba eban, ostikada bat emonez, zazpi iñurri il ba ebazan begiratzen eban; eiza-izkiluaz joaten ba zan eta artatxori aldra bat ikusirik, danbada bat eginda, zazpi txori il ba ebazan, zenbatzen ebazan, baiña zorioneko zazpi-zenbaki ori ez zan agertzen, alabearrez ilten ebazan artatxori edo iñurriak, beti geiago, zazpi baño geiago, edo gitxiago izaten ziran.

Goiz baten, mutil-jostuna bere dendan praka batzuk josten abeslari egoan egun baten, bere denda aurretik esne-opil bero ta guri batzuk saltzen andrazko bat, igaro zan. Une aretan mutil-jostunak oitura eban bezela, amaikatakoea egiteko asmua eban, eta ardao zuri apur bat lagun ebela, esne-opil areik ederto jatorkozola konturaturik, bikote bat andrazko-saltzaile areri erosi eutsazan. Eskuarteanean eukazan prakak amaitzeko, botoi, aletxuak ipinte uts-utsean izan eban. Bitartean, prakak egitea amaitzen eban bitartean, esne-opilak mai ganean ipiñi ebazan, eta jakiña, gozoki inguruetan izanten dan lez, an be euliak opiltxu gozoean ganean an ebiltzan. Jostuna euliak uxatzen azpirtuta egoan, eta azkenean asarraturik ospilen ganean prakazaz zartada bat emon eban, eta euli pilo bat il eta bereala zenbatu ebazan.

Aaaa! Zoriona! Ez ebazan il ba, zazpi euli zartada bateaz!

Jauna, emen nozu zazpi probintzien jabe izateko eskubideaz, eta ori nire eretxiz, guztiz ongarria da, izan bear dau. Baiña eskubidea da gauza bat, eta jabetasuna beste bat. Esakerak diñoan lez, esatetatik egitera bitarte aundia dago. Gaur egun koroï bat egokiro erabilteko ez da naiko eskubidea eukitea, orretarako bearrezkoa da, duiña izatea, lan eta jakitunen bitartez lortua.

Orain nire zeregiña ori sumatzea da, ta zuzen be, ber-ber ori egiten oraintxe asiko naz.

Mutil-jostunak, dirutan bere onðasun guztiak biurtu ebazan, guztia saldu soso izan ezik, au ezérgaitik be ez eban saldu nai; bere bularra xingol bateaz beratan izki aundi batzukaz au ipiñirik, zearkatu eban: "Nik zartada bateaz zazpi ilten dodaz", gerreztu aundi bat, xingola estaltzeko, jantsi eban, partikeran soso artu ta eskeintz-lurra bila abiatu zan.

Leenengo aurkitu eban erritik igarotean, beste bide bat artzeko esan eutsoen, ba bera joan mendian, erroldoi edo gizontzar batek, bertatik joiazan gizon guztiak ilten ebazalako.

Mutil-jostunak, erantzun bezela bere gerrestua lazaturik, barreak xingolako idazki edo esaldia, erakutsi eutsen.

Danak bildurtuta atseratu ziran, baiña mutil-jostunak, berak bere amaibako indarrak, gizon gaizto, eraile ta antzekoen aurka uts-utsean erabilten ebazala, adierazo eutsen, eta orduan erritaar areik, nasai ta alai, esan eben:

Eskerrak Jaungoikoari, azkenean erroldoi zital orrek, bere gaiztakeriak beratzeko aifako gizon bateaz topo egingo dau ta!

Alan izan zan, mutil-jostuna mendia zearkatzen asi ordukko, erroldoi itzal eta izugarri a beragaz topo egitera abiatu, garrats eta jauntxokeriz, iñotsola:

Geldi bego! Umetxua!

Nor da umetxua? jostunak erantzun, jakin eizu gizona, gizon-gizona nazala. Berba oneik entzutean, erroldoia barreak asi zan, eta mutilari ostikada bat emoten joan zanean, onek, gerrestu zabaldurik eta xingolan idatzita egoan esaldi ikusirik, erroldoia apur bat atseratu zan.

Baiña egia da, zuk zartada bateaz zazpi ilten dozuzana?, arrituta itaundu etsan.

Ibili zaitex olgetan nigaz, eta zu ta zulako beste sei, zelan arin beste ludira bialtzen dodazan, ikusiko dozu.

Zure besoak olako indar izugarria dabela baieztatzeko, egiztapen bat egin eistazu, nik siñistu al izan dagidan, erroldoia iñotsan.

Ze agitazpen gura dozu egin dagidan, ba?

Errez-erre bat, ara, arri bana gorantz jaurtiko dogu, ia zeifena lurreratugabe luza-roago izaten, egoten, dan.

Ederto. Jaurti eizu, zuk ba.

Erroldoia jurretik arri bat artu ta jaurti eban, minutu bat luze lurreratu barik egon zan.

Zer deritxazu, adiskide, erroldoia arruputz esan eban; ziur zan gariale urtengo ebala.

Zer deritxadan? Arri ori jaso dan baño gorago, nik ankapetik jaurtita be jaso al izango da, mutilak be arrokeriz, erantzun.

Zuk jaurti dozun arria minutu bat goi-aldetik egon da. Orain artu eizu ordularia ta zoaz, nik jaurtitzen noana lurreratu arte, minutuak zenbatzen.

Mutil-jostuna arria artzen makurtu zanean, arriaren orde gerrestuko sakelean eukan soso azke itxi eban, eta au ortzi zabalean tximista bezela arin estalduta, erroldoia ezin izan eban igarri arria ala zer zan. Alde batetik ikusmen laburrekoa zalako ta beste alde batetik iluntzen asita egoalako.

Erraldoia ordularia eskuan ebala an egoan arriaren zain, minutuak zenbatzen, baiña arria ez zan agertzen.

la mutila, esan eutsan; jarraitu eizu minutuak zenbatzen, baiña ni leiatsu naz eta ezin naz egon emen nire arria lurrera itzuli arte.

Joan zaitex Jaungoikoagaz, itzaltasunez arraldoia agurtu eban, arrituta alako gizon beso indartsudun bat ikuşi ebalako.

Mutil-jostuna bere bidalian jarraitu eban.

Mutila ibili ta ibili, bere bidalian joan eta joan, laterri edatsu ta eder batera eldu zan. Erri au ibai urtsu batek erdibitzen eban.

Nik jabetu bear dodan erria, au izango ete da ba?, mutilak bere baitan iñoan. Baiña erri aretzaz izan ebazan albiste guztiak ikusirik, sumatu eban a ez zala, ez agindutakoa, berantzat opatuta egoan erria. Leenengo, laterri a, zazpi probintzik ez eben osotzen, amalau probintzi ziran, bigarren, laterri aretako erregea ondiño gizon gaztea zan, eta ganera, printzipe ugari, bere alaba politaren atsean ebiltzan. Jakiña, onein artean egoan, egun anbatan gaurko erregearen ordezkoa, izango zana.

Mutil-jostuna gaztelura eldurik, bertako lorategiak, baratz-lorategiak, ikustatzen zear ebilela, leio batetik bere burua agerturik, printzetatzua ikusi eban.

Josus! esan eban, ze neskatila polita!

Eta adi-adi berari begiratzen erdi-zorobiotuta, printzetatzua gaztelu barnera sartu arte, geratu zan.

Ibilaldi luzeegia eginda, apur bat nekatuta aurkiturik, lorabartzeko aulki baten jazarrita, zugatz enbor baten zurkaitatuta, printzetatzua gogoan ebala, loak artu eban. Baiña leenago, bertatik ebiltzan txangolariak xingolako idatzia ikusirik, beraganatu ez eitezan, gerrestuko aletxo botoiak, azkatu ta gerrestua zabaldu eban.

Alan zan, beree aurretik igaroten ziran txagolari guztiak, bere xingolako idatzia irakurtean: "Nik zartada bateaz zazpi ilten dodaz", iñoen:

Naizta gizon txikia izan, ze indar ikaragarria esbestetar onena! Olako gizon bat, gure areriokandik jagon, zaindu, babestu gaiezan, bear geunke, batez be guda aldie-tan, orain alboko erriaz jazoten jakun bezela, borroka onetan lagundu daiskun.

Erregearen ministro batek be, xingolako idatzia irakurri eban, eta baita be erregeari gertaera au bereala jakin-arazi; gizon indartsu au bere morroi bat geiago izanik, alo-geratu egian, aolkatuz.

Erregeak aolku oneik zentzunez artu ebazan, ba da mugako laterriaz borrokan ebi-len eta guda zital bateri, guda guztiak dira zitalak, asiera emoteko bildur zan.

Erregeak gizon indartsu oneri gaztelura deitu eutsan, eta bere serbitzurako guda-ri bezela artu eban. Mutil-jostunantzaz jazokisun au guztiz zoriontsua zan, beintzat berari olan eritxon, printzetatzua laterri beratako erritar bat zan, eta ez edozelako erritarra, errege ber-beran alabea baño, eta egia esa, neskatilatxua ikusi orduko beragaz maitamendurik geratu zan, berantzat, mutil-jostunentzat au zan pozik egoteko zio bereziena.

Erri aretako gudarosteko nagusiak ez eban ontzat-artu mutil-jostuna, ez eben nai euren taldean kide izan eiten, eta bereziki zio bigaitik zan, bata, erbestetarra zalako ta bestea, erregeak beragaz izaten ebazan arremen bereziakaitik, eta egia esan, ez ego-zan guztiz oker eretxiaz.

Nor izan leiteke atsegintsu, olako gizon ezgaitz bat norberagaz gau eta egun euki-teaz? Zio txikienagaitik egun baten eztabaida bat izaten ba dogu, bere beso indar-tsuaz, danok zeaztuko gaitu. Nor da zartada bateaz zapi ilten dauzan bateri aurre aur-pegi emoteko ain ausarta?

Egun baten gudarosteko nagusi-talde bat erregeagana aukezturik, eurak gudarostea itxi ta beraz erbesteratzea erabagi ebela, adierazo eutsoen. Naizta erbesteratzeak geienetan izaten dauazan ondorio negargarria jasan bear izan, euren erabagia atseratu eziña zala, bein eta barriro agertu eutsoen. Mutil indartsua, erbestetar a, gudarostetik euren inguruetatik kentzeak uts-utsean euren erabagia baztertzea lortu leikela, azaldu eutsoen.

Erregeak, gudaroste-talde onen erostatxua erazkoa ikusten eban. Berantzat ainbeste gudari on, bere menpeko gudari on, erbestetar bat bere serbitsuan izatearren, baztertzea, bere menpekoak ez izatea, bere menpean ez jarraitzea, tamalgarria eritxon, baiña beste alde batetik, erbestetarra bere menpekoa izateko, errazioiak ebazan eta ez txikiak, eta bere baitan iñoan:

Baiña mutil orreri nok jakin-azoko dautsa, emendik alde egin bear dauala? Nok esango dautsa "Zazpi-iltzaile" orreri alde egin dagiala emendik? Nok? Zartadaka asten ba da, nire gudaroste osoa egun baten ezereztuko dau, gudari barik itxiko nau, ta gero azkenez, neu be ilgo nau. Esakerak diñoan ezkerro, indarrak baño trebetasunak geiagoko balio dauala, basapizti orregandik gaizkatuta izatea nai ba dogu, trebetasuna erabili dagigun.

Erregeak "Zazpi-iltzaile" ezizenez deitzen eutsana, egun baten bere aurrera aurkeztu eitela agindu eban. Uste gabe mutila erregearen aurrera eldu zanean, au, erregea, printzetatzua egoan. Au dala ta, mutil-jostunaren begitxuak neskati polit eder a ikustean, alaitu bizkortu ziran, baiña erregea be lo ez egoan, albora adi ez zan egon, gertaera onegaz nabaritu zan, mutilagaz arremanak errezago izateko, mutilagandik zerbait irabasteko, zio au bidetzat erabiltea, erabagi eban.

Ara, erregeak mutilari iñotsan, ibai beste aldetik dagozan basoetan, azpalditik mausari batzuk lapurketa ta erailtze ugari egiten dabiltz, eta naizta eurak menperatzeko alegin guztiak egin, nire naia, guraria ezin izan dot lortu. Izango zintzake, zeu, nire laterria laidoztu ta ikarutzen daben mausari orreik menperatu, ezereztu al izateko gauza?

Orretarako ta geiagotarako gizona naz, mutilak bere xingolako idatzia erakutsirik, erantzun eutsan.

Baiña ara, basapizti baten erraiñak, eta luki baten maltzurkeria ezeze Goliat erraldoi baten indarra be ba dau...

Errege Jauna, barriro dirautset berorreri, ludi onetatik gizon orrein kentzea, arazo orren arduraduna neu izango nazala, ta lurralde au epe laburrean baketsu izango da. Baiña Jauna, berorreri mezede bat eskatu bear dausat. Egite orren aiiñako sariketa, ordaintzè, izendatu bearko daust.

Alkar-izketa onetan, mutilaren begiak printzetatzxuenetan dizdiratzen ziran, baiña ez Erregea konturatu gabe, ta beraz pozik zan, zuzenean be, bere naia betetzeko bide egokia zala, gogoraturik.

Zure eskakisuna, nire guraria betetzen ba dozu, Erregeak iñotsan, nire alabea zure emaztetzat izendatuko dot, eta beragaz nire laterri erdia, au da, zazpi probintzi zuretzat izango dira. Zazpi probintzi oneik, ibai beste aldetik aurkitzen dira.

Ederto, guztiz ontzat-artzen dot, mutilak erantzun eutsan. Printzetatzua be bere aitaren erabagia entzutean, bere begiak alaitu egiten jakozala ikusirik, mutil-jostuna ondifo be poz-alaiago zan.

IV

Bereala mutila beste aldean egozan lurraldeetarantz abiatu zan, ziur zazpi probintzi areik, aurretizik berantzat autatuak izan ziranak dirala, gogoratuz, abeslari joian. Bidali onetan, Erregearen aginduz, andana zaldun-talde bat izan eban lagun.

Basoetara eldu zanean, aizkolari bateaz topo eginda, au guztiz ikeratuta etorrela nabaitu eban.

Zer jazoten jatsu, gizona? aizkolariari itaundu eutsan.

Ibarska orretan, ikusten dozun zugatz aundi aretan, bere kerizpean bazkalondokoa egiten, lo masauri biak ikusi dodaz.

Eta orrek ikeratzen zaitu?

Ez naz ikeratuko ba!, gizon aren nasaitasunaz arrituta, aizkolariak erantzun eutsan.

Gizontxu orrek eta bere lagunak, euren ausartasuna euren eriotzeaz laster ordainduko ebela gogoratuz, aizkolaria aldendu zan.

Zuok geratu zaiteze or, mausari bi orrei merezi daben zigorra ezartzeko, ni neu bakarrik be naiko naz, zaldun-talderi iflotsan mutilak.

Oneik, Jaungoiko ta Maria Birginiagaitik bakarrik, lagun-gabe, basoan ez eitela abortu erregutu eutsoen; baiña jostunak euren aulkuari jaramonik egin barik, aizkolariak esan eutsan ibarskarantz abiatu zan.

Abarotsu zan zugatzpen baten, ao-gora etzunda mausari biak laster ikusi ebazan; eta bere soñekoen sakel guztiak erreka-arritz betetuta, katagorri baten bizkortasunaz, zugatzera igon eban.

Zugatzaren adar baten, zaldi ganean bezela jezarrita ta zugatz-orriakaz estaldurik, zakel baten eroazan erreka-arri bat artu ta mausaritariko baten bular ganean jausten itxi eban.

Kristoren eriotzagaitik!, bere laguna bultzakada bateaz izartuta, esan eutsan:

Zergaitik bularrean zuk jo bear nozu?

Nik ukubilkada bat? Gizona, zu amesetan zara!

Ez jauna, amesetan zarana, zu zara, eta ziurki amesetan ukubilkada bat emon daustazu.

Ba leiteke. Olan izan ba da, parkatu.

Beingoan mausari biak lo zurrunka egozan, eta mutilak beste erreka-arri bat artuta, beste mausariaen bularrera jaurtirik, jo eban.

Jaungoikoagaitik, bularreko zaietzak be apurtu daustazuz!, bere laguna izartu-azoz, mausariak esan eban.

Nik?

Bai, zuk.

Zu amesetan zara!

Amesetan ni? Amesak zuereak izango dira.

Izan leiteke amesetan egonez, zuk leen egin dozun bezela, orain nik zu jotea, par-
katu.

Ara, ze ustegabetasun au!

Une batzuk geroago mutilak, jostunak, barriro lo zurrunkadak entzun ebazan, beraz mausari biak lo egozan, eta esku banatan erreka-arri bana artuta, biak batera mausarien bular ganetara jaurti ta jo ebazan.

Oneik guztiz asarratuta, biraoka izarturik, alkar-joten gogor asi ziran, leenengo ukubilkadaka, baiña gero zastaika, azkenean zartada bana alkarrerri emonda biak lurre-
ratu ziran, biak erdi-ilda. Orduan mutil-jostunari, zugatzetik jaitsi ta errez izan jakon bere espatea attera ta beragaz mausari biak, euren gorputzak zearkatuz, iltea. Mausari-
iek euren artean izan eben borrokan il-zorian geratu ziran ezkerro, ez eben ez adore ez indarrik euren buruak babestzeko.

Mutila, bere espatea ondiño odolez gorritzuta, gударiei mausari biak il ebazala, jakin-azoten joan zan. Apur bat geroago gorpu biak mando ganean ezarrita, eurakaz mandoak trailan eroazala, gatzelurantz abiatu ziran.

Erregearen guraria ez zan bete, berak naiago eban mutil-jostuna naizta ilda izan, bere inguruetatik aldendu, mausariak eurak baño be.

Erregeak, berak emoneko itza, bere alabeaz eskontzeko emoneko itza, baztertu, ukatu eutsan. Beste egikisun arrigarri bat mutilak bere guraria, au da printzetatzuaz eskondu, egin bearko eban. Orain aginduko eutsan eegikisunetik mutilak bizirik urte-
tea, Erregea eziñekoa zala, ziur zan.

Nire alabeak eta ibai beste baztar-aldetik dagozan lurraldeak asko balio dabe, ta asko balio dauana, ondo ordaindu bear da, Erregeak iñotsan. Nire ertzain izkutuak jakin-azo dauste, nire erritarrak zure egikisunak dirala ta mar-mar dabiltzala. Mausaria iltea uts-utsean, nik opa dautsadan nire alabea ta zazpi probintziari dagokion egi-
kisun naikoa ez dala, uste dabe.

Erriak, emen gure artean, ogi ta makilea, zartadak bear dabez, eta ori da geienbat alosodun erregeak egiten dabena. Baiña nire apaltasunak olako errege baten aifiako izatea, ez daust zilegiten. Orrez ganera, erritarrakaz ederretsi bear naz, ba da eurakan-
dik matxinada bat izatea, ez niri ez zuri be ez litsakegu bat be atsegin izango; bere ondorioz geure egoera bikain onetatik baztertuz, nik neure erregetza ta zuek beste aldeko, ibai beste aldeko, zazpi probintzi ederrak, galduko geunkez.

Guztiz zuzen da, Errege jauna!, mutilak esan eutsan.

Zu erexi bardiña izateaz, poztuten naz, eta erregeak jarraitu eban. Ara ba, ibai beste bazterreko baso baten, nire probintzitariko baten dagon notin eta abere guztiak baño eriotz geiago egin dauan adar-bakardun bat dabil. Naizta alegin guztiak egin, ezin izan dot ez il, menperatu ez lurralde onetatik aldendu.

Mausarien aurrean agertu zenduan ausartasuna gura neuke nirk orren aurrean be agertu dagizun, naizta au mausaria baño askoz zital eta basa-pistiagoa izan.

Ori baño ez ba da, laster berorren erritarrak ixilduko dodaz, geiagotan ez dabe al izango mar-mar ibilterik, mutilak esan eutsan.

Ba, orixe da guztia, erregeak erantzun.

Ikusiko dau berorrek jauna, ze apal adar-bakardun ori ekarriko dodan, bildots txikitxu bat bezela etorriko da.

Au esanez, mutila kalamu-soka eder bat, bas-oliokondo makila ederrago bat eta aizkora zorrotz bat arturik, adar bakarduna ori egoan basorantz abiatu zan.

Mutila bason sartu orduko, adarduna, baiña leenago azaldu bear dogu, basa-pisti au ikarragarrikoa zala, beragana, mutilagana, asarre, suarrasez bere adar bakarragaz, izugarriko adar-bakarragaz, kondartzeko asmuz, abiada itzelean erazo zan. Baiña mutila zezen-jokoan ikasketa batzuk egiñakoa zan ezkeru, zugaitz baten ostean estaldu jakon, orduan adar-bakardunak, basapisti, arek, bere indar guztiak zugaitzaren enborrean adar bakarragaz jota, bertan sartu eban. Naitz pistiak, jo batera jo bestera, alegin guztiak egin, bere adar bakarra zugaitzaren enborretik ezin izan eban atera. Onelan mutilak basapisti ikaragarri ori errez menperatu al izan eban. Nasaitasunez, sokeaz pistiaren samea iguratuta, makilakadaka akelarru bat baño apal itxi, utxirik, bere adar bakarra aizkorakada bateaz ebagi eutsan. Adar-bakarduna trailan artuta, erritarren txalo ta gora deadarren erdian, erriratu zan.

V

Mutil-joztunak bere eskontzea printzetatzuaz egiña zala, uste eban, baiña bai, Erregeak beste atxaki bat eskontzea baztertzeko bururatuta eban. Bere alaba maitegarriaz eskondu gura ba eban, beste egikisun ospetsu bat egin bearke eban. Ibai beste aldeko lurraldeak bereganatu nai ba ebazan eta orrez ganera printzetatzuaren gizona izan, Errege maltzurak oldoztu eban geratakisun berezi ta ez bat be erreza, egin bearke eban.

Printzetatzuak au entzutean, mutilagaz guztiz maitemendurik zan ezkeru, airbuizko kiñu bat egin eban,

Zuk irakurle, iñoiz entzungo zenduan, irugarrena dala garaipena, ez da egia? Erregeak mutilari itaundu eutsan.

Bai Jaunà, baiña nik zer dot orretzaz?

Beti erritarrak! jaurgo-zale ta alosdun errege lotsabakoak, iguintzen dodaz! Ze erritar eta erritar gabe! Erritarrak zuzena dana guztia ontzat artzen dabe.

Miñ ariña dauka morrozko onek! G izona ez eizu lelokeririk esan. Nok eskatu eban Kristo kurutzatzeko?

Bai, baiña erriak...

Ala, barriro be erria agertzen da...

Erriek dirauts, parkamengabeko uts aundi bat izango litzakela, zorigaitz izugarri batetik gaizkatzeko aukerea izanik, baliatzen ez ba naz...

Eta ze zorigaitz izugarri da ori, ba?

Ibai beste aldeko probintzi lurralde politenatariko baten, basurde zital, odolki batek, kalte ta ondamen ikaragarriak egiten dauz, eta bertako biztanleek guztiz ardu-ratsu dira.

Ba printzetatzuaz eskontzen nasanean ilgo dot.

Ori ezelan be ez! Ezkondu baño leenago ilten ez ba dozu, eskondu ezkeru ez dozu ilgo. Nire alabeak bere gizona, senarra, bera alargun geratzeko arrisku orretara joan zaitez, ez dau zilegiko.

Orduan arazo au be, zuzendu dagigun ainbat-leen. Ikusiko dau berorrek, Errege Jauna, aurtengo neguan ze giar eder eta gozoak jango doguzan. Basurdeki ugari jango dogu.

Mutil-jostuna basurdea egoan basorantz, bera bakar-bakarrik, ez eiztari ez gudaririk be ez eban nai izan bere laguntzarako, joan zan. Baso erdi inguruan egoan baseliza baten giltza uts utsean eskatu eban.

Basoan baselizara eldu zanean, bere atea idegi eban, zabal zabalik, atearen kanpo-ko aldetik serrailuan ezarrita, sartuta, giltza ezarri eban. Bereala baseliza inguruetatik basurdea bila asi zan. Basurdeak, aztarrenagaitik beingoan susmau eban gizon anbat ur egoala, ta mutila ikusi ebanean, ikusi orduko, amurrurik bizenagaz beragana, sutsu joan zan. Mutila ariñeketa baten, bertatik ur egoan baselizarantz joan eta bertan barneratu zan, bere atsetik basurdea be puska joian eta biak baseliza barnean, geratu ziran. Mutil eta basurdea baseliza barruan izan ziranean, mutilak saltukada bateaz kanpora irten zan, basurdeak be bardifia egitea nai izan eban eta an ebilen saltuko jo ta ke, baiña berantzat urtetea eziñekoa zan, baselizako leioa txikiegia zan.

Basurdea atxilotua izanik, mutilak ateak eukan leiotila txiki batetik deadarka ebilen, basurdea beragana urreratu gurean deika egoan, azkenean basurdeak berak be alegiñak egiten ebazan leiotilatik irten naian, olako baten bere zoritxarrerako, basurdearen zoritxarrerako, bere guraria bete eban, leiotilatik bere burua sartzea; lortu bai, baiña orduan mutilak, espata bat bere abotik sartuta, basurdea il eban.

Apur bat geroago mutila, ildako basurdea burdi, gurdi, baten eroala, gaztelurantz joian. Errira eldukeran, sekulako txalo ta goralmen beroenak entzun ebazan. Ludi onetan jaioko iñok sekula entzun dauazan txalo ta goralpen beroenak.

Ondiño be Erregeak, beste maltzurkeri bat asmatu, berak emoneko itza, berbea, ukatu gura izan eban, baiña erriarrak bere jokaera zital, gaiztoa ikusirik, matxinadarako bidean ezarri jakozan, eta apur bategaitik, bere erregetza ta bere alabea, ez ebazan galdu.

Jokaera maltzur aregaz jarraitzen ba eban, erriak zer egingo eban ikusirik, mutilak esan eutsan: Errege Jauna, zure gurari, naia, indarren bitartez baztertu-azo nai dau. Berorrek, berorren alabeaz eskondu naiten, nai dau, ta beraz ibai beste aldeko zazpi probintzi orreik emoten daustaz?

Jostun ona zara!, Erregeak iribarre maltzur bat egiñik, iñotsan.

Azkenean Erregeak, bere alaba ta mutila zoriontsuak izan eitezan, alkar eskontzea erabagi eban, eta bereala eskondu ziran.

Ibai beste aldeko lurraldeakaz jabetu zanean, ain apala izan ez ba zan, arrokeriz gogoratu al izango eban, berak ezarri eban lelo-bidean zintzo jokatu ebala, au da, gaur egun koroï bat bururatzeko, beratzaz eskubidea izan, euki, ezeze jakituriz eta lanaren bitartez be, duiña izan bear dala.

ZITORIZKO ZARTEA

I

Kadaguren uriolak itxasoa besarkatzen daben aran sakon eta estuan, bere besoe-tariko bat, arrera emoteko luzaturik, zubi goi ta ausarta bat dago. Kastrexanako zubia, mila ta laraunde ogetaamabosteko Ekaiñaren bedaratzia bere eraikitzea asi ta mila ta lareunde ogetaamaseiko Lorailaren lauan amaitu zan zubi oneri, olan deitzen jako. Bere egille edo arkitetoa Ortiz de Lekeitiotar Kepa, beintzat, San agustin, Bilbo, lekai-de aren paper artean mila ta zazpireunde irurogeitamairu, inguruan aurkitu ebezan idazki batzuk, olan diñoe. Baiña erritarrak diñoe, deabruak nekez eta izerdi ugari ondoren egin eban lan berezi bateaz jabetzea uts-utsean, bere lan guztia izan zala.

Deabrua gixajoa, Jaungoikoaren aurpegia ikusten ez dauana, eta ez beste bat, Kastrexanako zubia eraiki ebana izan ei zan.

Kondairaren zati bakan au, Irauregi ta Zubiletako gizasemeek edesten daben lez, azaldu dagigun.

Ortiz de Lekeitio'tar Kepak, Kastrexanako zubiaren eraikitzearen ospea deabruari kendurik, beranagatu ebanetik, Irauregi ta Zubiletako auzokideak, deabrua bere apiz-taileakaz, guztiz asarre ta amorrotuta dabilela, esaten dabe, ta eurei kalte egiteko, aukerarik txikiena ontzat artuta, bere lan kaltegarrian saiatzen ei da.

Kadagua ibai eskuma bazterrean, mila ta lareunde ogetaamabost inguruan base-txe txiro, apal bat egoan, igali-zugatzez beteriko ortu eder batek inguratzen eban, eta basetxe ostean, Pagasarri aldean, sagardi mardul bat.

Zertzelada urriaz azaldu dodan basetxe onetan, Kastrexana basetxea, au zan ba basetxe onen izena, Kataliñ eritxo amazortzi urtedun eta alaba eder bat eban andra alargun bat bizi ziran.

Kataliñ ibarreko lilura ta alaitasuna zan, Burtzeñatik Alonsotegi bitartean, bere edertasunagaitik ederretsi ta bere ontasunagaitik maitatzen ez ebanik, ez egoan. Bere

ama, urteak ori eragiten dabe ta, atsotxu bat izanik, lanerako ez zan gauza, berantzat bere etxea zaintzea naiko zan. Baiña etxe aretako gizonik-eza, alabeak ederto betetzen eban. Esne ta barazkiak, Kastrexanako gizaseme apalak elikatzeko jakirik berezienak ziranak, ortua landu, abereak zaindu ta sagardiko igaliak, Bilboko azokara, txanpon batzuk lortzekko, eroan. Lan, bear, guzti oneik adoretsu egiten ebazan.

Kataliñ beti zan lanpetuta, baiña alai, ibai beste aldean gaztanedi baten egoan iturrira abeslari joaten zan, eta abeslari itzuli, Bilbora joan-etorria abeslari egiten eban, Altamirako gaztañedia zearkatzen izan ezik, emen unetxu labur baten bere abestia ixiltzen eban; ortuan lanean, sagarrak sagastian batu edo Pagasarriren magalean abereakaz lan gogor egitean, abeslari zan beti.

Ibai beste aldea, Iturriotz basetxea egoan, bere lurraldea Gazteñedi (Castañar) eritxon iturri alboraño edatzen zan. Basetxeak bere izena, ziurki, iturri onegandik etorkion, Iturri-otz.

Kataliñ iturrira joaten zan bakoitzean, bide alboko soloetan lanean jarduten eben mutilak beragaz alkar-izketan, unetxu baten atsedean apur bat artzeko atxakiaz, geratzen ziran. Euretariako zaarrenak, Martin eritxona, iturrirako bidean egoan olesiraño leiatsu jaitsirik, soloko zugatzetan izaten ziran igalirik onenak, gozoenak, opatzen eutsazan.

Martin eta Kataliñek ia ume-umetxutatik alkar-maite eben, eta euren aita-amak, arto-indabak eraintzeko lan-laiatzea amaitzen zanean, nezka-mutil oneik alkar-eskontzea, erabagita eben. Lan oneik orrilaren izaten dira, ta Martiñek, Kastrexanako base-txera bizten joan baño leenago, bere aita-ama ta neba-arrebari lagundu gura eutsen.

II

Gaba, gau, ilun-ilun, ekaitzua zan. Kataliñ bere ama lagun ebala, oitura eban lez, errosarioa otoitzeko gertu egoan, onetan, norbaitek etxeko atean deitu eban. Kataliñ krisailua artuta, atarira jotzen eban leiotik bere burua ta argia agerturik eta erbestetar bat ikusita, galdetu, itaundu eutsan:

Gabon, jauna, zer jazoten jatsu? Zer gura, nai dozu?

Bilbotik nator eta Galdemesera noa, krisailuaren argi izpiaz, Kataliñek mutil gazte bat baltzež jantsita zala, ikusi ebanak, erantzun eutsan. Kadagua ibai euritze onegaz zearkatzea, alde batetik bestera igaro eziñakoa egongo da, ta mendi-baso troka ta leizaz ugaritsu orreik zearkatzeko gaba ilun, ekaitzdun onegaz, guztiz txarra da. Mezedez, gaur gabarako ostatua emoidaizue, biar egun-sentiaz arrisku-gabe nire bidean jarraitu dagidan.

Kataliñek bere amari baimena eskatu eutsan, eta oneik aintzat arturik, erbestetarri artea idegi eutsoen.

Mutila itxura onekoa, jasekoa ta ganera abots atseginkorra eban, baiña ez dakit zerk, bere itxura ta abotsa, bere lilura ezereztuten eban zerbait eban; begi dizdiratsu areik, amaibako irribarre a ta abots neurridun eta eztiitsu areik, erakarri bearrean, kalte egiten eben.

Erbestetarra, ama ta alabeak alkar-izketan jardun bitartean, alabeak afari apal baiña jan-gogotsu bat gertatu autsan.

Erbestetarrak afaltzea amaitu ebanean, atsotxuak esan eutsan.

Guk ondiño errosarioa ez dogu otoitz egin, nai ba dozu lagundu geiskizu otoitzen.

Mutilak keiñu atsekabetsu bat egiñik, biramonean goiztatu bear eban ezkeru ta ganera ain nekatsu aurkitu, ogeratzea naiago ebala, erantsun eutsen.

Atsotxuak krisailua arturik, erbestetarrari ogea gertatuta egoan logelara lagundu autsan.

Logelako leioa idegita egoan ate beratatik, ortuko lorak, eta batez be ia leiopean azi ta bertaño jasoten zan zitiri-moltso batek, euriak astindurik, lurrintzen eben usaiñ gozoa, arnasatzen zan.

Ama Birgiñaren zitiriak, ze usain gozoa egotziten dau!, leioa ertsikeran Kataliñen amak, esan eban.

Eta ze zitiri da ori?, erbestetarrak itaundu eban.

Urtero, Udabarri guztietan, gero Ama Birgiñari opatzeko Kataliñek landaratu ta zaintzen dauan lora usaintsua.

Erbestetarrak beste deabruzkerizko keiñu barri bat egiñik, eta atsotxuak alkar-izketarako gogo giztxi ebala ikusirik, gaba on bat opatuz, aldendu zan.

Kataliñ eta bere ama errosarioa otoitz egitea amaitu ondoren, ogeratu ziran.

Ama-alabak lo joan ziran logeleak be, leio bat ortura joten ebana eukan eta erbestetarra ogeratu zan orma-aldean aurkitzen zan.

Euren logelako leioa ertsi baño leenago, Kataliñek loratxuen usain gozoa arnasatu nai izan eban. Leiotik bere burutxua atera eban eta ara non, arritasun aiñako, atsekabez, erbestetarra ogeratu zan logelako leiotik, esku bat makila aundi bat eroala ta beragaz zitiri-moltsoa jarezten saiatzen zala, zalantzagabe apurtzeko asmuz, zelan ikusten dauan.

Eee! Zer egin nai dozu? Kataliñek, geldi-arazi eziñik, esan eutsan. Josus, gizon ori deabrua da!

Bereala makiladun eskua ezagertu zan.

Orduan atsotxuak, zitiri-moltso areik Ama Birgiñarentzat zirala, Berari opatzeko zirala, erbestetarrak jakin ebanean, atsekabe bizi-bizia agertu ebala, bere alabeari edestu eutsan.

Kataliñek ainbeste zeastasun eta maitasunez zaindu, jagon, eban loratsu a urren-go egunean ezereztuta egon leitekela ta, ortura jaitsi zan, eta arreta aundiz loratxua lazkitu ez eiten, zitiri-moltsoa ebagi eta bere logelara jaso eban.

Gaban, euria urri izan zan, baiña egun-sentiaz barriro zaparrada politak agertu ziran, ta erbestetarra ibaia uriolakaz zearkatu eziñakoa izan baño leenago urteteko asmuz, goiztar ibili zan.

Kataliñek, loratxuak zergaitik lazkitu nai ebazan jakitea atsegin jakon, baiña begirakune, abots diñua ta aurpegiak, zergaitik bildurtzen eben jakin-gabe, bere naia baztertu eban.

Kataliñ eta bere amak bein eta barriro eskatu eutsoen, gozaria gertatu arte itxaron egiala, baiña berak bereala urten bear ebala ta, zenbat zor eban afari ta ostatugaitik galdetu eutsen.

Gugaz ez dozu zorrik, zeure gogo ona, atsotxuak erantzun.

Orduan eskerrik asko, agur, au esan ondoren atserritarra, enbor eta arri aundi batzuk egiten eben zubi ganetik, gaur egun Kastrexana zubia dagon tokitik, ibaia zearkatu eban.

Erbestetarran bilduran, ibaia uriolakaz gaiñeratua laster izango zala, ez ziran oiñarribakoak; zearkatu orduko, ura enbor eta arri ganetatik uriolaka joian.

Kataliñ ibai aldera joten eban leio batera urreratu zanean, atserritarra Ituriotz estartatik joian, eta solo baten bekaldean, estartara urteera eban barr utia inguratzen eban lotesia, auntz batzuk sartu ziralako, Martin konpontzen egoan, mutil gazte bi oneik, atserritarra ta Martin ziran, Kataliñen arreta erdiz-erdiz arduratzen ebenak.

Ezezaguna, erbestetarra, Martiñeaz unetxu baten alkar-izketa geratu zan. Kadagua uriol saratatsuak alde batetik eta bitarte edo bide-sail larregi, urrunegi egotea, Kataliñentzat eragozpen bereziak izan ziran, alkar-izketa orren gaia jakin al izateko, baiña nabaritu eban, Martin su-asarre egoala ta Kastrexana basetxeera zemaikor begiratzen ebala.

Ez dakit etxean ura bear ebelako, ala Martiñeaz itz, berba, egiteko aukera polit bat zalako, Kataliñ bere buru ganean lusaila ezarrita, Kastañedi-iturrira joiala bere amari esan eutsan. Baiña ibai albora eldu zanean, etxera itzuli bear izan eban, ibaiko urak arri ganetatik joiazan, eta eziña izan jakon ibaia zearkatzea.

Apur bat geroago, Kataliñ barazkiz bete otsarea buruan, zitiori-lora txortea eskuan, egunero egiten eban lez Bilborako bidea artu eban, baiña oraingoan beti bezela abeslari ta alai, pozik joan bearrean, ixil-ixilik eta goibel joian.

Joan-etorri onetan, Bilbora joan eta bertatik itzultean, Altamira ingurura eltzean, eltzen zanean, bere abesti-aldia amaitzen zan, Begoñako Eleizanagusia ikusi edo estaltzen dan gatzaiñatzar ondo baten kerizpetan, belaunikotuta otoitz egiten une batzutan geratzen zan.

Goiz aretan be, Kataliñ belaunikotu zan eta iñoiz baño be geiago otoitz egin eban, negar-malkoz bere matrail gorriak ezotuaz. Zer jazoten jakon, Kataliñ errukigarriari? Berak be ez ekian, baiña bere biotz-barnean samintasun sakon bat, zoritxar izugarri bat izango ba ebala bezela, eban.

Bilboko platzara, azokara eldurik, otsarako barazkiak saltzen ebazan bitartean, zitiori-txortea lazkitu es eiten, arduratsu zan.

Lora areikaz maitemendurik, erosle batek baño geiagok erosi gura izan eutsazan, baiña Kataliñek ludi onetako diru guztiekatitik be ez leukezala salduko, erosi nai eben guztiei esaten eutsen, ba da berak, aingeru bateri opatzeko ekarzala ta ez dirurik esku-ratzeko, iñotsen.

Salgariak saldu ebazanean, Begoñarako bidea artu ta bertara igon eta Birgiñaren aldare aurrean zirori-txortea ezarrita, gure Ama beti Doneari otoitz eskari bero-berotsuduna izan eban.

Otoitza amaitu ebanean, ondoren, aldi aretan Ibaizabal ibaia zearkatzeko Bilbon egoan zubi bakarretik, gaur egun zubi oneri San Anton zubia deitzen jako, Kastrexanarantz abiatu zan.

Kadagua ibai geroago ta urtsuago zan; Enkarterri lurraldetan egun aretan goiz osoan euria dariola eten barik izan zan, eta zio onegaitik Kadagua urioltsu etorren.

Kataliñek, Iturriotz basetxe ta bere soloetara begira, adi-adi goiz osoa emon eban, baiña Martin ez zan agertzen, baiña ara non, zein izango zan bere arritze ta bildurra, Enkarterri aldeko mendien ostean eguzkia estaltzera joanean, Kadagua beste aldean dagoen Zubileta aldamenean, Barakaldotik igaroten, ostatu opa eutsan mutila azkonuztailla ta bular-oskolez izkiliztuta, matxinadatarak jantsita ebiltzan bezela, ara non ikusten dauan!

Aldi aretan oñazino ta ganboatar taldeak Bilkai ta Enkarterri aldeko lurraldeak ez ebezan errausten, baiña kastilatarrakaz amaibako borrokatan ziran, batez be Ebro inguruan, Puentelarratik Valdibisorañ, Salazar eta Belasko gidariburuak izanik, Bizkai aldeko lurraldetan be euren alde borrokatzeko, talde batzuk izaten ziran. Gazte asko euren, gudari-buruen, eskeintze atsegingarriakaz etsipeturik, etorkisun, ospe atsegintsu bat aurkituko ez eben eta bai, aitz aren beste aldean, euren eriotz eta ilobia, joiazan.

Kataliñ, tximist bera baño ba bizkorrago, ariñago, ibai bazterrera eldurik, bertan Martin mugara noiz etorriko zain egoan. Oleko baten, Martin ibai bazterrera, Kataliñ egoan toki ingurura eldurik, bereala arri bat papaer bateaz inguratuta nezkatileari jaurti eutsan, ondoren Iturriotz basetxerantz abiatu zan.

Kataliñek bitartean, paper aretako idazkia arrituta ta ikeraz irakurri eban, Martiñen esku ber-beragaz idatzita izan zan paper arek, olan iñoan:

"Emendik urrun Salazarren arerikaz borrokan, matxinadan, naiago dot il naiten, emen nireganako zura ezmaitasunaren aurka, borrokan iltea baño. Gabako amabietan Iturriotzko gaztañedian beste gazte batzukaz batuko naz, eta eurakaz Kastilako lurraldetara urtengo dot; bertan urrutiratzen edo iltzeaz zugaz aitzutea itxaroten dot".

IV

Burtzeñako eleiz-kanpaiak euren zoñuaz otoitzera deika egozan, eta Kataliñ guztiz naigabetuta, negar baten egoan. Astia aurrera joiala ta Martin aldentzekko eta bear bada geiago ez ikusteko, ordua ur egoala ikusirik, guztiz naigabe ta samifez, ondaturta egoan.

Zubiaren ordezkioak ziran arriak ikusi naian, uberara alperrik begiratzen eban, uriolak eraginda arriak uretan ondatuta aurkitzen ziran, eta eguraldia geroago ta euri-tsuagoa zan.

Zer egin dot nik, Birgiña Maria?, guztiz biotz-minduta, Kataliñek iñoan. Martin nigan zalantzaz beterik, ta Bizkaiko seme ta mutilik on eta deduzkoena, izurratzen dauazan guda zital orretara bera be ilten joan daiten? Alabearrezko uts-aldi edo gezur-irain gaizto, zital bat izan da, gure artean egoera zorigaiztoko bat sortu dauana. Baiña ez, nire itz, berbatxu bat, Martin zentzatu ta bere erabagi burugabea baztertu dagian, naiko izango da. baiña beragana ezin naz urreratu, ibai geroago ta urtsuago dator eta eragozpen au, ibai urioltsua ezin dot gaiñeztatu. Aaa! Burtzeñako kanpaiak, amabiak jota, nirezat ludian ez Martin ez zorionik ez dala izango niri jakin-azo baño leenago, uriol izugarri orreik zearkatu al izango ba neukez, neure bizia emongo neuke.

Kataliñ gaztaiñ-ondo baten alboan negarrez, bein ibaira, bertako arriak ikusi naian, gero Iturriotz solo ta landatara, beste aldi baten urrunako larretara, Martin maitea noiz ikusiko, zain begiratzen eban.

Bereala, uste-gabe, oinkada, urrats, batzuk entzunik, bere ostera begiratu eba-nean, bere alboan, ara non, arteroko gaban bere etxean zitiori-lorak lazkitu gura izan eban, txangolaria ikusten dauan.

Itxaropen zentzungabekoa, bere oiñarria burugabekeri utsa zan eta, Kataliñen bar-nean dizdiratu zan.

Emendik, iñoan bere baitan, Arangurenearño, Saltzedoko aran mugan, zubirik ez dago, ostera gizon orrek, mutil orrek, emendik ez urrun ibaia zearkatu dau. Bear bada ibai bazterrean dagozan zugatzetariko anbat uriolak lurreratuta, ibai bere bazter bate-tik bestera, zubi bat zearkaturik, alde batetik bestera igaro leiteke, ta ni bide ori bila oiñez ez bada be egaz joango naz. Mutil orrek esango daust, nik dodan arazo au zuzenduko daust, eta gaur gabean Martin ikusi al izango dot, eta beraz matxinada orretara joatea debakatuko deustat.

Guzei au, Kataliñek esan ez, unetxu baten asmau eban.

Nondik zearkatu dozu ibaia? ezezazunari leiatsu itaundu eustan.

Arangureneko zubitik, mutilak erantzun.

Baiña zelan, emendik Arangureneko zubira iru leko bitarte ba dago?

Egite arrigarrien bitartez.

Egite arrigarriak! Zuk bezela nok egin leikezan!

Eta zer izango litzake leenen-leenen egingo zeunkena?

Ibaia zearkatu.

Orretarako zubi bat bear da.

Bai, zuzen be.

Eta nik egin neike.

Zelan? Zugaitz onetariko bat lurreratuz, eta alde batetik bestera ezarrita?

Ez, ez, ori eziñekoa da, emen ibai zabala da ta zugaitz orreitatik bat be alde bate-tik bestera ibaia zearkatzeko aiñako luze ez da.

Orduan zelan?

Arrizko zubi aundi bat landuz.
Bai baiña orretarako asti luzea bear da, ta nik Burtzeñako eleizako kanpaiak kan-
padorreko kanpaiak, gaba erdiko amabiak baño leenago, ibaia zearkatu bear dot.
Ordu orretarako, zubia eginda, amaituta, eukiko dozu.

Aaa! Egizu ba!

Zer emongo daustazu egiten ba dot?

Neure bizia!

Zure bizia ez dot naikorik.

Orduan, zer gura dozu ba?

Zure arimea.

Egizu zubia!

Itz, berba, oneik esan ebazanean, Kataliñ senetik kanpo egoan, zoratuta lez, asal-
duta, ardaok bezela gurari ta itxaropenak eraginda, zoratuta. Azken itz oneik bere aotik
urten orduko, eurak eben garrantzi, larkeria bere zentzunean agerturik, baztertu, bera-
ganatu gura izan ebazan edo gitxienez azaldu, beiña gizon bakan a bereala aldendu
zan. Ibai bazterrean, gauaro ilun eta itzaltasunean, gaba upea bera baño be ilunagoa
zan, aizkora, mailu ta atxur-pikoen otsa entzun zan, arotz eta argin ugari, zubi-uztai-
rako zura ta arria landuten balitzaz bezela.

V

Kataliñen irudimenean, baltzez jantsitako gizon a deabrua zala zuzartzen joian.
Berak maite eban gizona galduko ebala baiña ondiño be askoz kaltegarriago, bere ari-
mea galduko ebala gogoratuz, Kataliñek oiuka gizon areri dirautso:

Nire arimea sal-neurria izanik, ez eizu zubirik egin, landu, ez dausut emongo ta!

Baiña bere abots errukigarria Kadagua ibaiko uraren zurrumurru ta aizkora, mailu
otsakaz, ibai bazterrean milaka argin eta arotz ikusi-eziñak lanean jo ta ke izango bali-
tzakez bezela egiten eben sarata artean, Kataliñen abotsa, barriro diñot, galtzen zan,
ezereztzen zan.

Baiña sarata izugarri aren artean, neskatil zoragaiztokoak, abots batek erantzuten
eutsola, uste izan eban.

Orain belu, berandu da..! Orain belu da!.... esanez.

Gaba aurrera joian, eta Kataliñek bere begien aurrean apurka apurka, dorre zurez-
ko bi gorantz ibai bazter bakoitzean agertzen jakozanak, zalantza barik zubiaren zur-
kaitz biak zirala, uste eban. Kataliñ biotz naigabetu ta leiatsu, bat-batean itxaropen
zoriontsu batek sendotuz, Kastrexanako aldatz-gora, abiatu zan. Altamirako gaztaiñe-
di ondora eldu zanean, bertan belaunikoturik, bere begiak eta bere biotza be, Begoña-
ko Ama Birgiñagan jasota, bere itsalpen, babespena otoitz egíñez, eskatu eutsan.

Jaungoikoaren Ama Birgiña maitea, gaizkatu eizu nire arimea, betiko ondamenagaz zematuta dago ta!

Ibaizabal ibar, arana, Kadaguako bezela ilun egoan, baiña itz, berba oneik esan orduko, milaka urte aarterotik Artagan magalean ezarrita Jaungoikoaren Amak zaintzen, jagoten eban aran maitegarri a, argi bigun, dizdiratxu batek argitzen ebala, neskatilatxuak uste izan eban. Ze argia zan a? Bear ba da itxaropen argia izango zan!

Beragaz, itxaropenagaz argitu ta sendoturik, Kataliñ Kastrexanako aldatzbera jaitsi zan.

Ibaizabal arana argitzen eban dizdira bigun ber-bera, Kadagua ibarrean be edatzen asirik, bere laguntza, bere argitasunaz Kataliñek bere begiakaz baño irudimenez ikusi ebazan dorre biak, ibai bazterrean gorantz joiazala, jasoten zirala, eta bata eskumarrantz eta beste eskerrerantz makurturik eta euren mugak, ertz-mugak alkartuta, arku oso on bat eraikitzen ebela, ikusi al izan eban.

Iurriotz basetxe inguruan zuzi-argi bat agerturik, apurka apurka gaztaiñedira jaitziten eta azkenean zugaitz onein kerizpe aboratsuan estaltzen zala, ikusi eban. Kataliñen biotz-taupadak gogor eta mingarriak ziran; argi arek, zuzi-argi arek, gaberdia urreratze ta Martiñ bere aita-amaren etxetik, bear ba da jaiotze aranetik be, aldentzeko gertu egoala, adierazoten eutsan.

Kataliñ zubira begira, adi-adi egoan; langileak zubia amaitzeko arkuaren azken lanetan jarduten eben. Onetan, bat-batean, uste-gabe, izugarrizko arritzar-makur aren ganean, zitorizko zarta eder bat beree eskueta eroala, andra bat agerturik, ondiño osotu gabe egoan arkuan zitoria ezarrita, zeru urdiñetan estaldu zan. Bere atsean, Ibaizabal aranean galtzen zan izar dizdiratsu baten antzeko zerbait, iruditzen eban.

Sartaldetik, ikuspegi bakan a estaldu zan aldetik, Kataliñen begiak aldatu ebazanean eta arrigarriro eraikita egoan zubirantz begiratuta, baltzez jantsitako gizona, mutila, bere eskuetan erreka-arri txiki bat, bere astuntasunez, izango balitzake bezela, arritzar izugarrizko bat eroala, arku ganera igon eta arrilosa astun a, bertan, arku-ganean ezarri nairik, ziurki zubia osotzeko asmuz, saiatzen zala ikusi eban.

Naizta mutil arek, arri aundi a arku ganean bere lekuan ezarri naian, alegin guztiak egin, ezin eban gardainatu ta erreka-arria ez zan beratzen. Baltzez jantsita zan mutilak, arria su-asarrez joten eban, joketa bakoitze birao izugarri bateaz legunduz, baiña arritzar arek berantzat egindako zulo edo bitarte aretan, zerbait gogor eta bera bezelako burdin aundi ta gogor anbatek eragozten eutsalako, ez eban sartu nai.

Mutil a bere lanean leiatsu ta indartsuago ebilanean, Burtzeñako kanpai otsak, ibar gorantz bere soiñua edaturik, gaberdia zala adierazoten eban, beraz amabiak joten egozan.

Soiñeko baltzdun mutilak, kanpaiak entzuetean, oiu ikaragarri bat egiñik, bere soiña, gorputza uriolatar a-bota eban, eta ur-bitz artean gora ta bera ibili ondoren, azkenean uretan, uriolatan estaldu zan.

Une ber-beratan zubian, arku ganean sarata itzal bat entzun zan, zure edo aga batek apurtzean egiten dauan bezelakoa, orduan arri-arkua apur bat beraturik, zubia osotuta geratu zan. Ur-mendi baten antzera, Alonsotegiko zearkadatik jaitziten ziran

uriolak eraginda, uztai ta andamuak Zubiletatik berantz narrastu ebazan. Orduan Kataliñek, ain arrigarriz eraikita izan zan zubia zearkatuta, Iturriotz kastañedira abiatu zan.

Ordu erdi geroago, mutil-talde bat azkon-uztai ta bular-oskolaz izkilututa Kadagua gorantz joiazan. Martiñ, maitasunaren emeki laztan bigunak, guda biotz-dardar ospe-tsuak baño naiago ebazalako, guztiz kezkatu joian.

Geroago Martiñ bere besotik Kataliñ oratuta etorrela, Kastrexana basetxera eldu zan, bertan nezkatilatxu maitasunez agurturik, barriro deabruaren zubia zearkatuta, solo artetik solo arte gorantz, Iturriotz basetxera eldu zan.

Kastrexana zubia bereziki osutzen eb ezan arrilosa izugarri ta aldameneko arrilosa bitartetan, urtero zitore-lora eder eta polit batzuk sortzen ziran, eta Ibaizabal arane-ko neskatil gazteak Jon Deun goizetan eurak batzen joaten ziran, orregaitik "Cataloras" deitzen eutsoen, euskeraz izen onen oiñarriak "Kataliñ lorak" dira.

Bizkaian mila ta bostende ogeitairuko irailaren ogeta bian uralde izugarriak eragin-da, zubiaaren zurkaitzak makaldu ziran, ondorioz arrilosa txikiago batzukaz barriztatu ta gogortu bear izan eben. Jausiko ete zan bildur ziran, zoritxar onegaz bizkaiko jau-rerriko zubirik ausarta ta txairoena galduz.

LIBURU BATEN TXATALAK BIOTZ BEROTASUNAK

I

An urrunen, zelaiune amaitzen dan lekuan, basetxe zuri ta polit batzukaz osoturik, aran sakon eta orlegi, eze bat dago. Aran aren sakon aldetik, apur bat geroago beratan estalduko dan itxasoa bilaturik, ibai bat zelaitasunerantz doa. Aran, ibar, aren bazter baten aldamenetik, nire basetxerako bidea dago.

Nire etxe alboan, beste bat, beste egoitz bat, oiñ-oil garesti, berogailua biztutua ta beira gardenakaz orniduta, dago. Sarritan bere leiotariko batera, ume eder bat urreratzen da, ta nik Sartaldeko zelaigunetara begiratzen dodan bitartean berak, Sorkaldeko mendietarantz, begiratzen dau.

Egun bi dira, bere betiko leioan umetxu au ikusi ez dodala, baiña ostera, bere ama, andrazko polit-ederra, pozik leioara agertzen da, ta bereala itauntzen dauzat.

Non da umea, egun bi oneitan ez dot ikusten eta?

Basetxera iges egin dauku, erantzun eustan.

Eta nire adiskidea leiotik aldendu zan, ni neure leioan, neure etxeko leio batetik neure burutxua agertuta ta umetxua gogoan izanik, zelaigunera begira, begiak negarmalkoz ondaturik jarraitzen dot. Izan be, umetxu aren iges egiten zioa jakiñik, biotzik gogorrera be, Jaungoikoak emon dauan biotzik gogorrera bera be bigundu, minberatzeko aiñakoa da.

II

Bere leiotik begirutzen eban mendian ostean, basetxe txiro, txikitxu bat dago, nirea bezela gaztaiñ eta intxaurrez inguratuta.

Aurtxu au jaio orduko, bere amak, bere zabelean sortua izan zana, bere bularreta-ko esneaz elikatzen ba eban, bere edertasuna igatu ez eiten, basetxeandra txiro bate-ri itxi eutsan, beranakaz batera umetxu au be elikatu egian; guzti au, elikatze ta aurtxua zaintzea, jagotea, alogor txatxatar baten ordez.

Oiñ-oial garesti, bero-gailu biztuak eta beira gardenakaz ornidua zan etxe aundiki baten jaio izan zan aurtxu au, baserriko basetxe txiro, euria ta aizea bazter guztietatik sartzen zan etxe batera, bizten joan zan, obeto esanda, eroan eben.

Basetxe-andra txiroak, aingeru arek bere bularretan bere espan bigun eta gorri-
kak ipiñi ebazan orduko, bere biotzeko semearen izen gozoa ezarri eutsan. Eta ume-
txua azten, gorantz joiala, eta bere altzoaren berotasunak eraginda umetxuaren aur-
pegi liluragarri, larrosa margo-gorri-
kadun a ebala ikusirik, poz-alaitasunez irribarretxu bat egin eban, eta bere benetako, jaiotzez, amaren altzotik baztertua izan zan aurtxo aren, amaren izen gozo ta atsegingarria esaten eutsola, poz-maitasunez dardaratzan zan.

Umetxua baserriko gaztain ta intxaurpetan zoriontsu ta ederra azten zan. Semetxu deitzen eutsoen andra-gizon bikote bat, umetxu batzuk, anaia deituaz eta bera, ume-
txua, goibel zanean, beragaz batera atsekabetu, biozkatu egiten ziran eta bera alai zanean, alaitzen ziran biotz batzuk izanik, zoriontsu zan.

Andra baserritar onek, bere sendiarentzat eguneroko ogia lan gogor eta neketxuaren bitartez lortzen eban. Baiña nire etxe alboan, uri-etxe baten bizi zan andraki ederragana txanpon batzuk bila, berak ondo irabasiko txanpon batzuk bila, etorten ez zan ausartzen. Andra aberast arek bere semea kendurik, negarrez itzuli bear izango ebala, bildur zan.

Udagoineko arratsalde gogo-ilunetan bera ta bere seme-ordezkoa gaztaiñen u zta batzen joaten ziranean, an bean, be-bean, aran sakonetan, uri-etxe oparo aren dorreak ikusten ebezanean ama ta semea alkar begiratzuz, negarrez besarkatzen ziran.

Azkenean baserritar andra txiroari umetxua kendu eutsoen. Naizta berak, bere seme ta gizonak negarrez belaunikoturik, nire etxe alboko bizi zan andra aundiki areri, eurakaitik errukitu eitela ta egoitz a atsekabe, naigabez beterik es egiala itxi eskatu, umetxu maite a barik geratu ziran.

III

Baserri baten, nirea bezelako erri baten, gaztaiñ eta intxaur artean ia estaldurik dan basetxe baten, andra-gizon bikote bat euren semeakaz, egunak dauazan ordu guztietan, atsekabez begiak negar-malkoz ezoturik, aldenduta dan umetxu baten buruz, umetxu batetzaz, izketan dagoz. Euren etxeko leio baten, mutila noiz ikusiko zain, agertzen ikusten ziran. Azkenean umetxua zugaztitik eltzen ikusten dabenean, poz-alaizko oiu itzal bat egiñik, beragaz topi egitera joaten dira ta bereala besarkatu ta mozukatu. Bere ama-ordezko errukigarriak, negarrez ito-bearrean, nire biotzeko seme maitea deiturik, bere bekokiko izerdia amentalaaz legortzen dautsa, eta baita be, bere oiñ txikitxuak bustirik eta dakarzan begiratu, soiñekoak botoiz-lotu otsitu ez eiten, ta sutera, sukaldera, mukurrak bota, sua bizkorturik berotu daiten, eta azkenean, gozez ilda etorriko dala, uste izanik, azkari eder-eder bat gertztzen dautsa.

Eta umetxuari galdetzen dautsoenean, uri-etxea baño basetxea naiago dauan, berak erantzuten dautse:

Aaa, biotz-berotasun zoragarria, oiñ-oial garesti ta berogallu guztiak baño zenbat geiago balio dozun!

ERRI EDASPENETATIK

I

Orain ainbat urte, Medina del Campotik Madrillera mando-burdi baten bidalirikide bat, andrazkoa bera, Valladolidko auzi-etxean bigarren ekiñaldian, leenengoan epaileak zuzen ez ziralako izan, eta oraingoan be bardin jazoko zalakoan, egun beratan ebatziko zan auzi batera, andrazko ori kezkatu joian.

Zio orretzaz edo atxaki ori dala ta, auzi-epaileakaitik zaldu-burdi aretan txakurkeri ugari entzun zan. Gizon ospetsu orreik biotz bigunenagaz epaitu ebazana, baserri bateko abade jauna izan zan. Berak, abadeak, auzi-epaileakaitik, begiak daukiezala baiña ez dabela ikusten, esan eban.

Ni epaileak babesten urten nai izan neban, baiña bitzta ta ondasunen jabe diran oneik, euren itzala dabe; ez dakit nire entzuleak ez ba ziran gertu nire itzaldia onartzeko, ala nik babesten neban zioa ez zan izan elederrez azaldua. Egia da, nire itzker betirik eragindar urrikoa izan da, ta beingoan ixildu bear izan nintzan, bestela nire bidalirikideak, bidali lagunak, jango ninduen.

Ez dakizue zuek "Tio Miserias" ena, nekazari maltzur, lodikote, alai ta berbaldun batek esan eban. Eztabaida onetan, nekazari au bidalirikiderik azkarrena zan; bere bidez zorrotik agertzen zan ardaozatoa bein eta barriro opatuz, "Nai dozue zurrutada bat? Zurrutada bat nai dozu", eztabaida bizkortzen ebana.

Ez jauna, danok batera erantzuten geuntsan.

Laterri jakintsuetan neure idatziei ta erritar-ipuiñei emoten dautsoen garrantzi gogoan izanik, eta erri-kondaira jakiteko aukera ona dala ta, orrez ganera, erritar ariurra adierazoteko zaletasuna gogoratuz, nire bidali lagunak bat egitiñik, nekazariak "Tio Miserias" en ipuiña edestu egiala, eskatu geutsan. Azkenean, naizta ez zeaztasun larregiaz, edestu eban, apur bat gora bera olan zan:

II

Kastilako erritxu baten, erriaren izenak ez dau lebarik, euren izakera bakan bereziagaitik guztiz ezagun ziran iru gizon bizi ziran. Euren izenak, olan deituak aituak izaten ziran beti, ta bakoitzaren berezigarriak azaldurik, argi agertzen da zelakoan ziran.

“Tio Interes”tzaz esanten eben, jostunagana soifneko bat berantzat egiteko joaten zanean, arnasea ez-arturik, kikeldu egiten zala, olan oial gitxiago ordaindu bear izango ebalako.

“Tio Justicias” buruz iñoen, erriko endore, alkatea izan zanean, ber-beraren burua atxilotu ebala, espetxean egun batzuk emonez.

Eta azkenean, “Tio Buenafe”tzaz, mailegu laguntzailea zala, iñoen.

III

Alako egun baten kalean “Tio Interes”, “Tio Justicia” ta “Tio Buenafe” alkat topaturik, alkar-izketan asi ziran.

Zelan doa “Tio Interes”, zelan gabiltz aldi onetan?

Zelan nai dozu joan naiten, “Tio Justicia”, urte oneitan izan diran uzta ugariakaz, txakurtxiki bat be irabasi barik?

Zer, uzta onak, uzta ugariak, kaltegarriak dira zuretzat, ala?

Ez dira izango ba, gizona, kaltegarriak!, Uzta urriak izan ziranean, dirua euneko-eun korri edo interesa ezarrita epean emoteko, nekazari ugari izan neban, baiña uzta ugariak dirazanetik ona, doan be iñok ez dau nai dirurik.

Ara, poztuten naz ori olan izateaz, nekazariiek euren lan gogor eta neketsuen orde, zuzena da uzta egoki batzuk lortzea. Eta beste alde batetik, zitalkeria da euren izerdiaz, zulako lukurreruak diru-zorroa loditu daizuen.

Zugan nago, “Tio Justicia”, “Tio Buenafe” esan eban.

Zuen lekaima barne-ziriakaz, dirua joan dan lekura, joan zaitez!, guztiz asarre “Tio Interes”ek esan eban.

“Tio Interes” ez zaitez asarratu, gizona, ludian geienen ondasuna nai izan bear dogu, ta gitxien kalte ta zoritxarrak sentitu, “Tio Justicias”k, iñoan.

Ganera “Tio Buenafe” jarraitu eban, gure Jaun eta Jaungoikoak, “Bisententzat emoten dauanean, bere aurrez-aurrez dagozan guztientzat emoten dau”. Baiña zelan arraio, gaiztoekandik ondasuna lortzeko, ikasten dozun ezker, urte oneitan diran uzta on oneitatik dirua irabasteko biderik ez dozu ikertzen, ba?

Bai, aurkitu dot, baiña orretarako nik daukadan baño diru gelago bear da.

Azaldu eizu, bear bada, “Tio Justicias” ta biok lagundu al izango dautsagu ta.

Ondiño Jaungoikoari eskerrak, gure aita-amagandik izan genduzan ondorenatetik milaka errial batzuk geratzen jakuz, naizta asko galdu doguzan. "Tio Justicias" k zuzengabeko auzi batzuk ez-ikusit ez egiñagaitik, eta beste alde batetik, nik gizon gaizto ta maltzurregan entzundagaitik, diru ugari galdu dot.

Nire eretxiz, gaur be diru asko eskuratu leike, Kastillan dagozan uzta ugariak erosi, gari, garagarra ta abar Kastillan erosi, ta Andaluzi aldean, uzta ain urrin diran lurraldetan, bertan salduaz. Nire asmakizuna zelan deritxazue?

Ara gizona, ondo deritxot, eta zuzen-bidez jokatzeotan lagunkidea izango nintzake.

Eta zuk zer diñozu, "Tio Buenafe"?

Ni be, "Tio Justizia" ren eretxikoa naz, asmakizun zuzena dot eta ontzat artzen dot, baiña gure egikisun guztien zuzentasuna izan bearko dau.

IV

"Tio Interes", "Tio Justicia" ta "Tio Buenafe", gari sal-erosketarako alkarturik, lankideak izan ziran. Saleroste-gizarte onen oiñarriak onek ziran:

1,- Gizartearen dirua, 60.000, errial, lankide bakoitzak, 20.000 errial ezarririk.

2,- Lankide bakoitzat Kastilla lurraldeetan garia erosteko, alda-ezin bat euki bear eban, eta Andaluzi lurraldeetan beste alda-ezin bat sal-eroskiak saltzeko. Orretarako Andaluzi ta Kastilla iru zatitan, iru lurraldetan banatzen zan.

3,-2,-Urte bat betetzean, iru lankideak Madrillen batu bear izango ziran eta elkargo onen era guztietariko ondasunak iru zatitan banandu. Naizta irabasiak ezbardifiñak izan, iru zati bardifiñetan zatitu bearko ziran.

Elkargoa osotuta, lankide bakoitza bere bidean joan zan... eta lanean asi ziran, merke erosi ta karesti saldu, sal-erosketatako arazo guztiak ementxe-sustraitzen dirata.

V

Urtea, leenengo urte au, bete zanean, "Tio Interes", "Tio Justicia" ta "Tio Buenafe", Madrillerako bidea arturik, bertara eldutean elkargoaren batzarra egiteko gertu egozan; guztitariko ondasunak batu, ta iru zatitan, bananduz, euren sal-erosketa elkargoa amaitzat emon.

Leenengo "Tio Interes" Madrillera eldu zan, zein itzalak izan ziran irabasiak jakin gurean, leiatsu ta artega, kezkatu etorren. Bere lankideen irabasteak, naizta beranak aundiak izan, berabak baño be aundiagoak izango zirala, uste eban, irabasteatzaz beti eretxiten jakozan urriak.

"Tio Interes" bere lankideak ez zirala agertzen ikusirik, guztiz artega egoan, eta azkenean, itxaroten euren etorrera luzea, jasan eziñik, euren bila, eurakaz topo egite-ra urtetea erabagi eban.

Mantxako lurralde zelaietan "Tio Justicia"gaz topo egiñik, itaun, galdera bi, egin eutsazan:

Zelako irabasteak dira zureak?

Ara ba, alako olakoak.

Eta nondik da "Tio Buenafe".

Guztiz atsetik geratu bear izan dau.

"Tio Interes" bere lankide "Tio Buenafe" noiz aurkituko aurrera jarraitu, ta Despeñaperros inguruetan beragaz topo egiñik, bereala irabasteak zelakoak izan zira itaundu eutsan.

Guztiz txarrak, ezin txarragoak, "Tio Buenafe" k erantzun. Luditar guztiekan entzindugaitik eta Jaungoikoak agintzen dauan bezela jokaturik, naizta lanean gogor egin, dirurik irabasi ezeze, eroan nebazan diruetatik zati on bat galdu dot.

"Tio Interes" k erantzun au zelan artu eban, ez dago esan bearrik. Zoratuta bezela amorrututa, baiña nasaitasuna iruditurik, "Tio Buenafe" az itzuli zan.

Bidean joiazala, "Tio Interes" k bere baitan iñoan.

Madrillen, bertatik urten baño leenago, iruron artean, bertara itzultean gure iruron ondasunak iru zatitan banantzea, irabagi genduan, olan da ze, bertara eldutean, guk irurok daroaguzan ondasunakaz pilo bat egingo dogu, ta gero beratatik, pilo onetik, beste iru pilo bardin-bardiñak. Orrelan niretzat, ainbeste diru irabasi dauan onentzat, eta "Tio Buenafe" keto onek irabasterik lortu ezeze, dirua galdu egin dauanantzat, moltso bardiña izango da. Egia esan, nik au ez dot bat be zuzen ikusten.

Asmakisun onetan zala, bere eroapena galdurik, Despeñaperros izena emoten dautsan mendi-lerro aretatik igarotean, artu eban "Tio Buenafe" garrikutik, ori bai, leenengo bere diru-zorroa kenduta, ta aitz bera jaurti eban, eta ilda troka baten bertan itxi eban.

Mendi-lerro arek Despeñaperros izena, moro ta mahometarren aldian, euren artean Jaungoikoagan siñisten ez ebenak, euren gogoz burua bertatik botatzen ei eben. Aldi aretan Jaungoiko siñis-gabeak euren erritar mahometarrakaitik be txakurra bezela begiratuak izaten ziran.

VI

“Tio Interes” Madrillera elduta, “Tio Justicia” aurkitzen zan osta-etxe ber-beratan ostaturatu zan.

Zer, bakarrik zatoz?, beragaz “Tio Buenafe” ez etorrelako, guztiz arrituta itaundu eutsan. Eta “Tio Buenafe”, non geratu da, ba?

“Tio Buenafe” dirua irabasi ezeze eroan ebanaren zati bat be galduta, bere zoritxarra edo obeto esanda bere ergelkeriagaitik, lotzez beterik da. Diru guztia, berak aldean eukan diru guztia neuri emon daust eta berari dagokion zatia be ez dau nai, gura. Gure aurrean be aurkeztea be ez dau nai izan. Alan da ze, ia, batu dagiguzan diru guztiak, eta bion artean banandu dagiguzan, olan bakoitzantzat geiago izango da.

Ori nik ez dot ondo artzen, asarre “Tio Justicias” esan eban. “Tio Buenafe”ri, berak galdu edo irabasi, guri bezelako zatia dagokio.

Gizona, ez zaitez izan keto...

Gizona, ez zaitez zu zuzengabea izan.

Olan izan bear dauala edo bestela izan bear dauala eztabaidan ebiltzan bitartean, “Tio Interes”, zelan diru guztiaz geratu asmatzen ebilen eta ustegabe gañibet bat atera ta zartada bateaz “Tio Justicias”eri begi bat atera eutsan.

“Tio Justicias” bertatik ariñeketan aldentzen asi zan, baiña “Tio Interes” bere atsetik eskuan gañibetaz semaika etorrela ikusirik, bere diru-zorroa jaurti eutsan, eta orduan “Tio Interes” dirua eskuratzeko makurtu zanean, “Tio Justicia” errukigarriak, ariñeketa egiñez bere burua gaizkatu al izan eban.

VII

Nekazaria ipuiñ edo kondaira au edestutean, arlo onetara eldu zanean, ardao zatoa atera ta mozu luze-luze bat emon eutsana; bitartean ni guztiz artega ta leiatsu izanik, itaundu neutsan:

Eta “Tio Interes” eta “Tio Justicia”az zer izan da, ba?

Egun batzuk dira euren errian egon nintzala, euragan gogoraturik, errekatxu baten oial eta soifekoak garbitzen egoan andratxu bateri, eurakaitik itaundu neutsan.

“Tio Interes” esan eustan, guztiz aberats dago, baiña lodi-lodi be bai, urte txarra berantzat. “Tio Justicia” erriko endore, alkatea da.

Parkatu, baiña eskumako begiaren utsa dau.

Despeñaperrozko erioakuntzagaitik erri aretan zer iñoen atera gurean, galdetu neutsan.

“Buenafe” deritxon gizon bat, erri onetan ez da bizi?

Buenafe...Buenafe...Buenafe... gogoratu naian bein eta barriri iñoan, Buenafe... ha bai! orain ez da bizi emen.

Nekazaria ixilduta, unetxu baten danok ixildu giñan, eta azkenean abade jaunak, ixiltasun au amaitu eban, esanez:

Erri siñisgabeak euren aje, griña txarrak, eta baita be birtute, griña-onak agertze-ko, ikur eta mitoak ba dabez, españatar erri kristauak be, berak be, adi-erazgarri ta zuurrak dauazala, ipuiñ onek argi agertzen dau, adierazoten dau.

LAU URDAILLEKOA

I

Lesmes artzaiña zan, naizta bere izena gogoraturik iñoiz ez eretxi, artzaiña zan. Artzaiñatzaz, idazle-aitor eta itzalgarrien liburuetan irakurri daben guztiak dakie, artzaiñak Nemerossos, Silvanos, Batilos eta abar deitzen zirala.

Lesmes, izenez artzaiñatzaz ez ba dau agertzen ezer, gizaseme bezela, ondiño askoz be gitxiago. Danok dakigu artzaiñak, artzain guztiak, Jaungoikoak agintzen dauan lez jaseko, garbi, zentsundun, soiñulari, abeslari, olerkari ta maitamenduak dirala, ostera Lesmes mots, itsusi, zikin, ergeltasunean txapel-dun izango litzake; bardin soiñurako entzunmengabe, abesti ta olerkirako; ta bere maitamendu berezia ta bakarra, bere urdailla zan.

Ostera Lesmes bee egikeratan zerbait artzaiña ba eban, bada ardiak zaindu, jagon, ganera sasi-sendagilea zan. Edozeiñek daki sasi-sendagilerik onenak eta geienak, artzaiñen artetik urten dabela, edo sortzen dirala.

Erriaren abotsak, Jaungoikoana dala esaten dabena, Lesmes gaixo guztietan garaile urteten ebala, baieztatzen dau. Baiña nik, erritar areik guzur berebil bat iñoela, ta beraz Jaungoikoaren abots, ez antzekorik be ez dala, siñistuazoteko errosoi indartsu bat dot. Lesmesek txakur amurrutu batek baño be gose aundiago izaten eban, orregaitik "Lau-urdailekoa" eban bere ezizena, ta izen onegaz, ezizen onegaz, errialde aretan ezagutua zan; bere jakituri guztia, osoa, ez zan naiko, ez gauza, gaixo, bere gaixo ikaragarri au osatzeko, sendotzeko.

Negu baten, Lesmesen artaldean gaixo izugarri bat sorturik, aldi laburrean ardi bat be barik geratu zan. Zoritxar onek Lesmesegan ondorio txarrago bat eragin eutsan; ardiak galtzeaz bere bezero ugaria be txikitu jakon, bere gaixo

bezeroak gitxiagotu, ta leen eurakandik gosea guztiz kentzen ez ba eban be, bai gitxienez gosea apur bat makaldu. Beragana joaten ziran erritarrak, euren miñ eta gaixoak osatu, sendotu naian, au iñoen eta ez errazoi barik:

Lau-urdailekoak ardien, bere ardien, gaixoa osatu ezin izan ba dau, gure gaixoakaz beragana joatea alperrikoa da. Eta alan zan, lurralde aretan, Lau-urdailekoagana euren min eta gaitzak azaltzen, iñor ez zan joaten, eta olan bere bezero guztia galdu eban.

Gosearen aurka i zan eban borroka gogorrean nekatuta, Lesmes eriotzeari bere laguntzen etorri eiten, deitu eutsan; ergel, ketoak, euren naigabeak jasan eziñik aurkitzen diranean, egiten dabenen antzera.

Eriotz Andrea! Eriotz Andrea! oiuka asi zan.

Bereala, ara non, aurrez-aurrez egoan edatengitik non ikusten dauan Eriotzea, basetxe alboan, ur-lotuakaz egoten diran ozin baten inguruan, jolasten ebilela.

Zer jazoten jatsu, gizona, zer nai dozu olan oiuka ibilteko? Eriotzeak itaundu eutsan.

Ia ainbat-leen ludi onetatik eroanda, nire neke ta atsekabeak kentzen ba daustazuz, ningandik aldentzen ba dira. Olako arazoak eratzen dodazan nire etxera eldu bear izan ziñan. Baiña, zer jazoten jatsun, ikusi dagigun.

Jazoten jatana da, nire ogi-igarolekutik, ez jatela ezer igaroten.

Ola, itz-jokozalea, orduan ez? Asetu zaidazan, deitzen daustazu, ez?, Zuzena orrek arritzen zaitu?

Bai orrexek arritzen nau.

Zergaitik?

Nire bezeroak, geienbat, asedun artean izaten dodaz, eta ez gosedun artean, Eriotzeak iñotsan.

Asetuta izango ba nintzake, ez neuskizu deituko.

Jakiña, zure deia gabe, zuk deitu gabe, neu etorriko nintzalako.

Ara, izketarako gogorik ez dot. Mezedez, sorbaldan daroazun tresna orregaz zartada bat emonez, neke ta atsekabe oneitatik gaizkatu naizu.

Ze tresna, sega onegaz?

Bai, andrea.

Sega nire ikurra da, ta beragaz ez dot iñor ilten.

Orduan zergaz ilten dozuz ba?

Atzipe au baño beste izkillu askoz be bereziagoak diran batzukaz. Osagile txarrak, sasi-sendagile on eta txarrakaz, jaurlaritz oker eta erri zaindu eziñekoakaz, Jaungoio ta azkatasunatzaz azal-uts diranakaz, apaikeri, gaizto ta erge-lak idatzitako liburuakaz, siñiste ajolagabedunakaz, sendi-bizitza bazterturik, edantegi bizitza-zale diranakaz eta laterri guztietan bizitzen diran bi edo iru mila

alper-aundi, gobernu-zeregiñ guztiak eurakana eskuratu gura dabezanakaz...

Zure txantxatakaz amaitu eizu, eta beste ludira bialdu naizu.

Zure gurari, naia, betetzea, atsegin bizi-bizia izango litzaket, bada sasi-sen-dagilea izan ziñanean, serbitzu ederrak egin zeustazan, baiña egia esateko, gurago, naiago, neuke, geiago lagundu daistazun, emen berton, ludi onetan bizirik ondiño luzaro baten, zu egotea.

Edozeiñek esango leuke, ni iltea iguin dozun ori, eriotz-zigorraren arerioa zarala.

Gizona, orretzaz be zerbait ba da.

Ulertzen ba dot, urkatu naiela.

Ba guztiz erreza da ulertzea; ilakandik izaten dodan laguntza guztiz urria izaten da, ilten diranetik guztiz usteldu arte botatzen daben zundea eguratsa kutxatuaz, ez da ezer biziakandik izaten dodan laguntzaaz berdinkatu ezkeru. Esan leiteke bildur-gabe guzurrean izan ezteko, iñor ilgo ez balitzake, askos be notin, pertzona geiago ilgo litzakezela.

Zoratu bear nozu zure esakerakaz. Zer, ludi onetatik ni kentzea nai dozu ala ez?

Ez.

Baiña ez dozu ikusten, olan izanik, ni gozez ilgo nazala?

Neuk egingo dot, il ez zaitez.

Baiña zelan?

Janda.

Baiña zelan jango dot, txakurtxikirik be ez ba daukat? Irabasterik be ez ba dot?

Neuk egingo dot, zeuk nai dozun beste irabasi dagizun.

Baiña zelan izan leiteke ori?

Osagile, sendagile bat zugaz egifiñik.

Baiña sendakaritzarik ez ba dakit...

Olako sendagileak dira zuzen be, niri ondo jatotsdazanak.

Eta non bizi dira orreik?

Non? Ori neuk uts-utsean jakin bear dot.

Barrero dirautsut, zuk zoratu gura nozu.

Apur bat ba zagoz.

Ba orduan..

Orduan, sendagilea zu izatea garrantzitsua da niretzat eta sendagilea izango zara.

Azaldu zaitez, bein, gizona!

Jokaera azalduko dautsut. Gizaseme bat gaixorik danean, bera osatzeko zuri deitu orduko, zure alboan izango naz. Gaixo osatu eziña ba da, oge buruan

ezarriko naz, eta osatzeko erreza ba da, gaixoaren oiñetan. Jaungoikoak, berberaren egikisun berezienak ezereztuteko indarrak ezarri ba daustaz, au da gizona ezereztuteko, beste indar txikiago batzuk be, ezarri daustaz.

Ze indarrak dira orreik?

Euretariko bat, ikusi-eziñean egotea.

Guztien begien aurrean?

Bai.

Ori bai, kirkir-eme ederra! Eta sendagileak ikusten ba zaitu?

Sendagileak ni ikusi? Zu burutik zagoz, baiña goazen zure sendalaritzara.

Nire sasi-sendakaritzara, esan gura izango dozu.

Sendagile-txartel, titulo barik, sasi-sendagilea izango naz beti ta iñoiz be ez sendagilea.

Bardin da. Jakintza ta ezjakintza orreik ez dira bardiñak. Baiña leen aitatu dodan lez, luditar guztientzat ikusi-eziña naz, baiña zuretzat ez naz izango.

Gaixo baten gelan sartukeran, bere oge buruan ikusten ba nozu, beragaitik, gaixoagaitik, ezin zeinkela ezer egin esango dautsezu; zoritxarrez berandu, belu, deitu dautsuela ta beraz gaixoa ilgo dala. Olan, gaixoa ilten danean, erritar guztiak esango dabe: "orrek bai, orrek dau begi berezia", "orrek bategaitik beste ludirako bidean azkenengo urratsatan dagola, esaten ba dau, albaftere guztien artean be ez dabe eriotzatic gaizkatu al izango".

Ostera oge barrenean, gaixoaren oiñetan ba nago, orduan gaixoaren etxe-koei, naizta gaixoa erdi-ilik egon, osatu al izango dozula, osatuko dozula, esango dautsezu. Edozein osaki emoteko aginduko dozu, ta gaixoa osaki onek eraginda osatzen danean, danak esango dabe: "ildako eurak be, On Lesmes orrek sendotzen dauz". Eta orduan ez dozu eukiko esku naiko dirua sakelaratzeko. Zer deritxazu nire adierazpen oneri?

Ederto, baiña zalantza txiki bat dot.

Zein zalantza da ori?

Nire aurpegi polit onegaitik, nik ez dot uste zuk babestuko nozula, eta zure asmakisuna zein dan jakin nai dot.

Ara, leenengo ta bein, nire esker-ona sendagilea izan ziñanean niretzat egin zenduan serbitsu bikañagaitik, eta bigarren, barrero itxaroten dodan zure laguntzagaitik.

Eta zelan lagundu neinkezu?

Esango dautsut; sendagile ospetsua, euren ospe, aomena guzurrezkoa danean, dira niretzat mezedegarrienak, eta onetariko bat zu izango zara.

Ez dot ulertzen.

Zuk ez dozu ezer ulertzen. Sendagileak olakoak izan daitezela, guztatzen jat. Ospetsu izatera eltzen zaranean, bezero bezela notintsa aundia izango dozu,

notin, pertsona onak eta osasuntsuak, eta eurakaz zikinkeri ta maltzurkeriak egini, gaixotu al izango dozu.

Oker zagoz, zure alboan ikusten ez dodazan guztiei, gaixorik ez dabela esango deutset.

Ez eizu olakorik egin.

Zergaitik? Olan jokutzen ba dozu, zure ospen, izen-on guztia galduko dozu ta beraz dirua.

Arraioa! Zure onu ori ez dot aitzuko.

Naizta Eriotzeagandik etorri, sendagarria da.

Ara ba, banoa ortik ibilaldi bat egitera, ia zakela zerbaiteaz betetzeko, ikustaldi on bat lortzen ba dot. Ikusi arte, Eriotz-Andrea.

Gero arte, Lau-urdailekoa.

Lesmes urrunetan ikusten eban kanpadorre baten errirantz abiatuta. Eriotzea beste erri batera joan zan; bertako sendagile ta osaki-dendalaria adiskideak ziran, bere adiskideak ziran, osasunkintza elkarte baten batzarkideak izan daitezcan, eske joian.

Lau-urdailekoa urren egoan errira eldu zanean, bertako erritarren artean izugarritzko lartitasuna nabaritu eban. Andra-gizon eta umeak be atsekabez beterik negarrez egozan.

Bertako alkatea, endorea, il-zorian aurkitzen zan, eta ori dala ta, zio ori dala ta, erritarren negar eta samintasunak ziran. Alkatea il-zorian aurkitzen zala, bere egunak zenbatuta zirala, jakin eban.

Erritarrak euren alkatea guztiz maite eben eta beraz Jaungoikoak alkatea beraganatzea, zoritxar negargarria eretxiten jaken, eta egia esan, ango negar eta alienekak ez dira arritzekoak, alako alkateak amabiko baten gitxi sartzen diralta.

Alkate onek, erriko alkatetzarako izateko, erritarrak mozkortzea ez eban bear izaten, ez da udaletxeko bere batzarkideakaz eta, jakina, erriaren lepotik jatordu oparoak atondutzea; erri-zergak, miña ixilik euki egian, udalzaiñari berana emonez, ez ebazan eskuratzen, irakurten ba ekian, eta erri-emendiotarako ez eban bear bitartekorik, eta azkenez, erri-diruak zaintzeko, jagoteko, gaba guztietan kutxaren giltza berari emoteko aginduz, bere adiskidetarikorik ez eban izendatzen. Argiketa, garbitasun oneik ikusirik olako alkateak, amabiko baten asko sartzen dirala, ez daustazu esango.

Ba dot nik orain zer egin! Lau-urdailekoak esan eban. Alkatea ikustera ba noa, ta bere gaixotik osasuntsu urteten ba dau, a ze irabasteak izango dodazan!

Eta gaixoaren egoitzara eldutean, alkatenera eldutean, udalzaiñari, udal-etxeko ate-zaiñaaz egiten eban lez; aurrera igaroteko baimena eskatu eutsan.

Erri aretan alkatea ikusi be ezin ebana, udal-zaiñ au zan, ta zio guztia, alka-teak, arek ezartzen ebazan zigor-zergan zatia, aurrerako alkateak emoten eutsoen lez, berantzat izaten ez zalako; zigor-zerga urri ezartzen ebalako ta berari egokion saria, besteakaz banantzen ebalako, zio ta atxaki osoa asarre orretarako zan.

Zertarako sartu nai dozu?, Lesmeari udal-zaiñak itaundu eutsan.

Gaixoa ikusteko.

Bai, ori da, zuk il daizun, ez? Abereak ilten dauazanak, alkate jauna be ilgo dauala, zin egingo neuke.

Lotsagaldu ori!, udalzaiñari ifotsan, itz, berbak asarre arturik, Lesmesek esan eban, eta naizta udal-zaiñak, geroago esango doguzan errazoiak buruan izanik, alegiñ guztiak egin galazotzeko, bereala gaixoa egoan gelara sartu zan.

Oge buruan, alkate gaixoaren oge buruan, lurralde areitako sendagilerik ospetsuenatariko bat gaixoaren zain, egoan. Leenengotan Lesmesek Eriotzea berbera zala uste izan eban, berak bein gaño geiagotan entzun eban, sarritan Eriotzea Sendagile lez zuririk jatsita agertzen zala, baiña bere arritze-bildurra arin, ogearen oiñetan, oiñak ezartzen diran alderdian, Eriotzea ikusi ebanean, poz-alai biurtu zan.

Zer dakarzu zuk emendik? Alkatearen andreak itaundu eutsan. Alkatearen andreak esan eutsan. Esan bearra dot, alkatearen andrea bibote, zuurpeko ederraren jabea zala.

Alkate jauna ikustera nator, ia bere osasuna zelan dan ikustera, Lesmesek erantzun eutsan.

Alkate jauna, guztiz saminduta, asarre Osagileak erantzun eutsan, beiñoz-kero bere osasuna, Jaungoiko ta jakituriagandik uts-utsean itxaron bear dau.

Jaungoiko ta jakituriaren laguntzaz, nik oraintxe emen berton osatuko dot.

Jakitura, zuk?, sendagileak irribarre maltzurraz esan eban.

Jakitura nik, bai jauna.

Naizta egoera a irribarretarako egokia ez izan, danak, alkate jaunaren andrea bera be, gizon lotsagalduko aren ergelkeriak entzutean, barre zantzo bat egiteko egozan. Zelan sasi-osagile keto arek, osagile ospetsuenak osatuziñeko gaixoa dala baieztatzen dabenak, sasi-sendagile batek gaixo orreri osasuna, galduta eban osasuna, birjabetu leikion, arrituta iñoen.

Udalzaiña matraka a entzutean logelara urreratuta, bere naia, alkatea beste ludira eroan egien zan ezkerro, Lau-urdailekoa guztiz egokia eretxion bere guraria betetzeko. Au zan ba, Lau-urdailekoari logelan sartzeko eragozpen gitxi ezartea, zio onegaitik, onen alde, Lau-urdailekoaren alde, berba, itz, egiten asi zan eta alkatearen andreari ixilien, barriro diñot andreak zuurpeko polita ebal, ifotsan:

Andrea, Osagilea emendik aldendu eizu, alkate jauna eriotzarantz daroenak eurak dira ta; erriko auzunean ebazan gune kutxatxuak, alkate jaunak garbitu ebazanetik, ondorioz ia gaixorik ez izateaz, errian gaixorik ez izateaz, Osagilea samindurik da.

Alkatearen andrea, andrazko geienak diran bezela, guztiz siñiskorra zan, eta egia esan, au ederto jatorku gizonezko maltzurrei, eta udal-zaiñiak esan eutsana, bete betean siñistu eutsan.

Osagile jauna, Lesmesek ba diño nire gizona bizirik ateratzeko gauza dala, gaixoa bere eskuetan itxi bear dogu, beintzat nire eretxia ori da.

Andrea, alkata jaunaren andrearen siñisgarritasuna ikusirik, Osagileak larrituta, esan eban. Zer, apur bat edan dozu ala zoratuta zara?

Ez bata ez bestea. Zuk eta zure lagunek nire gizona iltzat emon dozue, ta gizon onek bere beartzen dala berbiztuteko, diño, eta nik egia esan aukera ori ilegi gura dautsat, nire gizonari ilte baño txarrakorik ez jako jazoko ta.

Osagilea au entzutean, leiatsu, kezkatu bere egoera jakin gurean notintza aundia egoan, eta Osagilea etxetik urteten ikusi ebenean, ikusi orduko, itaunka beraganatu ziran.

Iltzat emon zeinkee, Lau-urdaileko astokoak oraintxe azkenengo laztanak emongo dautsaz, bere iges-egifíean jarraituz, Osagileak esan eban.

Erritarren artean, arriak eurak be urratzeko negarrak izan ziran, eta notin eta negar artetik, abots gogor batzuk entzun ziran:

Lau-urdailekoa il bedi!

Gaixoa egoan logelatik Osagileak urten orduko, Lesmes Eriotzeari ondo egiten ba eban itaunduz, begiratu eutsan, eta Eriotzea gaixoagandik apur bat urrundu zala ikusirik, eta zelan buruaz keñu bat egiten eutsala, pozik zan.

Lesmes geroago ta adoretuago, gaixoaren sakela ikutu zapaitik mar-mausare bat artu ta alkateari bere betazaletan ezarri, ta azpalditik zentzuna galduta eban onek, apur bat geroago barriro beragatu ebalá, adierazoten eban.

Emen dogu gizona!, poz-alaitasunez, bibote ederdun zan alkate-andrea besarkatuz, Lau-urdailekoak esan eban.

Bereala, une beratan, alkate jauna bere zentzuna jabetuta izaturik, iñoan: marmu-sarea daukat begietan edo nire andrea norbait besarkatzen ikusten dot!

Bere begietara eskuak eroanda, zuzen be, begi edo inguruetan marmu-sarea eukala nabariturik, beste aldera ogean bira eginda, nasai lo geratu zan.

Apur bat geroago alkatea txarritzar bat bezela zurrunka egoan, eta erritarrak bere zurrundakatatik, il-zorian egoan une larri areitatik iges egin ebalá, ta beraz osasuntsu aurkitzen zala ikusirik, orduan be negarrez, baiña oraingoan pozez beterik egozan. Euren erritar alkate jauna zana eriotzatik gaizkatu ebanaren

oroimenez egingo eben arpidean tarteko leiatsu joan ziran. Arpide onegaz Lesmesek irabaste aundiak izan ebazan, bai dirutan eta baita be bere izenaren buruz, gizon jaseko baten irudia ezartzen eutsan ON aurre-izena, aurrerantzean izango ebalako, ta ori zan zuzen be, berak beste gauzen ganetik nai ebana.

Alkate jauna osatzeak, Lesmeseri ospe, aomen, izugarria eragin eutsan, eta berak egiten ebazan osaketaren bitartez, guztiak azken ona izaten ebalako, bere aomen, izen-ona bitza lez gora joian.

Lesmesek esaten ba eban, "gizon au ilgo da", gaixoa, ziur, egun gitxi barru gorpu izango zan, ostera ba iñoan "gizon onek bizirik urtengo dau", naizta suge-arri zartada bat izan, bere gaixoa osatua izango zan. Lesmesen begia, osaki-saltzailearen arrikadea baño be ospetsuagoa zan.

Iñoen, eta nik ipuin onetzaz egokia ez balitz ez neuke esango. Gizaseme batek Osagileari deitu ei autsan, makal aurkitzen zalako, baiña bere gaixoa zer ez zein zan jakin barik, bada bere gorputzean ez eban miñik.

Gaixotasun maltzur onen bakanena, gaixoak aldarte ona, ondo lo egin eta jatun zala zan.

Ez zaitetz arduratu orretzaz, Osagileak iñotsan, laster zugandik gaitz guzti orreik alde egingo dabe.

Alan izan zan, ogeratuta, osaki ta jan-urri ta igortziz bitartez, gaitz-guzti areik kendu eutsazan, au da aldarte ona, ondo lo egitea ta jan-naia.

On Lesmes sarritan Eriotzea gaixoan alboan ikusten ez zan askogana deitua izaten zan, eta bere laguna bertan ikusi ezteak, gaitza irudizkoa zala, adierazoten eutsen.

Naizta gaixo areik Eriotzeagandik etsimenduta izan, eurakaz beste jokaera bat izatea iguingarri egiten jakon, baiña laster jokaera au baztertu eban. Guzurrezko gaixo oneikaz osaketarik ez eban erabilten, bearzenik ez ebalako; orduan gaixoak asarratuta, su-amurruz euren etxeetatik kanpora bialtzen eben; ezjakin, astokilo bat zala esanez, eta euren gaixoa ez ebala ulertzen eta orregaitik euren dirua, guztiz goraltzen eben beste Osagile batentzat izango zala.

On Lesmesek au ikusirik, ipuin onen idazleak bezela, Eriotzaren onua jarraitzea erabagi eban, au da, aldarte-ona, ondo lo egite ta jateko gogoz ogeraturik, jan urri ta igortze bitartez euren gaixoak osatzea.

Lesmesen ospe, izen-ona bitza bezela gorantz joian. Osagileek, eta ez errazoi gabe, sumindurik aurkitzen ziran. Ez eben ulertzen olako sasi-osagile ez jakinak, euren eguneroko ogia eskuratzeko bidea zelan kendu leikien. Aldi aretan ez eben beste etorririk, eta egunero jan bear zan.

Azkenean, Lesmes lanean legez kanpo izanik, zigor bat ezarri ta osakuntza lanetan jarraitzea galazo egien, Jaurlearitzako Osakidetze sailako bigarren ordezkariagana joatea erabagi eben. Baiña zoritxarrez, uri aretan Osakidetze ez

eze leenengo ez bigarren ordezkariarik ez egoan. Osagile, Sendagile, zein sasi-sendagilea izan, gaixoak osatu edo iltzeko baimena danak eben. Erri aretan erritarrak guztiz astokiloak ziran; Osagileari deitu bearrean, al baitereari deitzen eutsoen, gero onek agintzen eutsezan osakiak eraginda, ilten ziran.

Obenean dau bere ordaiña! Laterri azke ta ezitsu baten, Jaurlaritzaren baimen barik, gaixoak osatzea baño, ez litzake besterik bearko! Baiña gaur egun be au lurralde askotan jazoten da. Aprika ain atseratu ta basati dan lurralde ber-beratan be, españatar gizaseme ugari erbesteratuta joaten diran lurralde-tan be, gaixoak iñoren baime gabe osatu leiz!

Baiña naizta Lesmesen aomen, ospe, geroago ta aundiago izan eta bere bezeroak ugariagoak, Lau-urdailekoak bere asetu eziñeko gozea betetzeko beste diru ez eban eskuratzen. Beti izan ba zan jatun bete-eziñekoa, orain askoz be geiago zan.

Ergelkeri bat da, Lesmesek iñoan, nik nai dodan bezela jan eta edateko, amar mila leurleko urtero gitxienez alogora bear da, ta nik naizta euren irudimenean gaixo diranak begiak zabaldu ez dagiezan egia esanez, dollorkeriak egin, nik erdiak be ez dodaz irabasten, eskuratzen.

Errege, printsipe edo aundiki baten zori-ona ez ba dot, izaten ez ba dot, eta euren gazteluko Sendagilea ezarri, argi dago, iñoiz ez naz izango gizon guztiz, osoz, asetua.

Aldi aretan laterri aretako Erregea gaixorik aurkitzen zan, guztiz txarto aurkitzen zan, eta naizta gazteluko Osagileak osatzeko alegiñ guztiak egin, bere neke ta miñak, apur bat be ez ziran beratzen, makaltzen.

Gaztelu onetara Lesmesen ospe-ona eldu zan, merezi-gabeko ospe-on, izen-onak, lau ego gitxienez daukiez egaz egiteko, ostera merezidun ospeak bat eta bere txikerra, txikia.

Norbatiek, Lesmeseri deitu egien Erregea aolkatu eban, eta jakiña, bertako Osagile, Sendagileak albiste au jakin ebenean guztiz asarre, saminduta egozan. Osagilek, eta ez errazoi gabe, olan iñoen:

“Guk erregea, zuzen be ezin dogu osatu, baiña uste-gabe, gizon ori gu baño jakitunago izanik osatzen ba dau!, zer izango da gugaz?”

On Lesmesek Erregearen mezua artu ebanean, gaztelura Erregea ikustera joateko agintzen eutsan mezua jakin ebanean, poz-alaitasunez ilgo zala, uste izan eban.

Baiña inguruan Erjotzea ez ikustean, nasaiturik, gaztelurantz abiatu zan, esanez:

Errege-etxera joango naz, eta bertan nire jan-naia asetzen ez ba da, mirariz izango da. Ba... egia esan dagigun gosea iltzeko, urdaila asetzeko, laterriko aurre-kontua, presupuestoa, lakorik ez dago.

IV

Lau-urdaileko gaztelura eldu zanean, iñok Erregea osatuko ebala, erritarren artean, ez eban uste. Erregea erritarrekandik guztiz maitatua zan, baiña aundi-kiak, dan-danak Errege zaleak ez ziran, eta jakiña, gaztelura Erregea osatzeko asmuz gizon jakintsu bat etorrela jakin ebenean, aldarte, umorea, mingostu jaken. Talde onek, aundiki talde onek, Erregearren ileta ta ondorengoenen ostean, Errege barria ezarritzeko jaietan bitxituta izango ziran soiñeko garesti ta liluragarriak, gertuta eukezan.

Zer? Ai siñis-gaitz dala, gizonaren biotzatzaz asmakisun kaltegarriak dodazala? Oraintxe, ipuiña ez dan ipuiñ au edestuko dautsuet.

Iñoiz Lopezen andreatzaz, zeozer, zerbait, entzungo zenduen ez. Bere aundikeri ta erruki-sari buruz egunkarietan sarritan aitatukoa da. Madrillen, batez be aundiki artean, guztiz ezaguna da.

Goiz baten, odolez ogendu bat urkatzen ikusten joan ziralako, gertaera au guztiz atsegintsu izan bear dau, Españeko uririk jakituena izan bear ebana, bertako biztanleek, uritarrak ain pozik eta gogotsu ikuskai ain mingarri au ikustera gogotsu ta pozik joaten diranean, Madrilleko kaleak utsitu ziranean, andra esku-zabal eta aundikiaren ate aurrera ogenduna, urkatzera epaitu izan zana, Andra Isabel Errgiñeagandik parkatua izan zala, jakin-azo eben une ber-beratan, Lopezen andrea guztiz apain, bitxiz beterik eskileratik jaitziten ikusirik, beragana leiatsu joanda, esan neutsan:

“Andrea ez zaitez urteten larritu, Erregiñeak ogendunari parkamena emon dautso ta”. Lopezen andrea guztiz suminduta, asarre, Erregiñea bera be jateko gogoz kiñu bat egifiik, bere etxera itzuli zan, ori bai mar-mar iñoala:

Au da okerra!

On Lesmes erregearen logelara eldu zanean, bere iztarrak, On Lesmesen iztarrak ikaraz dar-dar eukazan. Eriotzea gaixo ospetsuaren oge-buruan ikusiko ba eban, bildurturik zan. Orduan bai, bidali polita izango zan berantzat!

Bere bildurak ez ziran izan ba guztiz zentzungabeak, sartu orduko, gaixoaren logelara sartu orduko, leeneri leenen ikusi ebana, Eriotzea ber-bera izan zan. Oge-buruan apur bat makurtuta, Erregearen ganera bere erpakaz jausteko, katu bat erratoi-zulo baten aurrean, zain erratoia noiz urtengo egoten dan bezela, ta ganera irribarretsu.

Eriotzea an ikustean, On Lesmesen adorea bere oiñetara jaitzi zan, baiña bere asmakisunetan apur bat bizkorturik, burutasun berezi bat izan eban, goseak sarritan eragiten dauazan orretariko asmakisun bat.

Zelan dago Jaun Txis Goren ori? Erregeari itaundu, galdetu etsan.

Txarto, guztiz txarto, gaixoak asarre, bekoki ilunagaz, iñoan. Azkar, leiatsu

ibili bearko zara osatu gura ba nozu, osterantzean ez dakit emen zer zoritxar jazoko dan.

Izan bedi Jaun Txist Goren orrek eroapen apur bat!, bakez ba gara, berori osatzea lortuko dogu ta. Leenengo ta bein lau morroi etorri daitezela.

Ze ausarkeri egin nai dozu nigaz, gizona!, Erregeak arrituta iñotson.

Ausarkeririk bat be ez, lau morroi orreik etorri daitezela, diñot barriro be.

Bereala errege-gelan lau morroi agertu ziran.

Artu eizue zuek oge ori, On Lesmesek agindu eutsen, aldatu eizue era ezbardinēan, au da, burua dagon aldean oiñak, eta oiñak dagozan aldean burua, ezarri eizue.

Beingo-baten morroiak On Lemesen agindua zeatz bete eben, eta ara non, Eriotzea bere be konturatu barik, oge-oiñetan non aurkitzen dan eta ez artero oge-buruan zan lez.

On Lesmesek Eriotzeari garail-begirakada bat egiñik, onek, Eriotzeak egiten eutsazan keiñuakaitik ulertu eutsan, iñotsola: “adiskide, zugandik itxaroten ez neban txakurkeri bat egin daustazu”, bereala On Lesmesek bere eskua zilborrara eroanda, adierazoten eutsan, “Andrea parkatu eistazu, goseak adimena bizkortzen dau ta biotza gogortu”.

Eriotzea, On Lesmeseri berak ta beste txakurkeri bat egiteko baimena eskatuz, bere nagusiari mezu bat bialtzeko egoan. Gaixoaren ogea leenago egoan erara ezarri egiela nai eban, baiña apur bat geiago gogoratuta, bere asmakisuna baztertu eban, berari be Lau-urdailekoari bezela, goseak eraginda asmakisun polit bat bururatu jakon; jakifia da, Eriotzeak aragi-gozea dauka beti.

Ba dakizu, Erregeak esan eban, ogea atsekoz-aurrera ezarri dozunetik, nasaiago, obeto aurkitzen nazala? Egia da, gu oituratuta gara gauzak, arazoak, aurkeztuak izatea.

Ba zer, uste eban Jaun Txir Goren orrek, oskiak non estutzen dautseezan, utsuneak, erregeak non dabezan, nik ez dakidala? Erregei euren inguruan ibiliten dirazan itxas-arotzeen oiñetan oskiak estutzen dautsee.

Eta bakanena da, gu ta erritarrak errenka gabiltzala, ostera eurak arro ta fara-fara.

Alkar-izketa au amaitu dagigun, eta urdai-azpiko zatitxu batzuk eta Valdepeñasko kuartilu-erdi ardao, ekarri daitsuezela.

Ez dozu ùste kalte egingo daustala?

Kalte urdai-azpiko ta ardaoak? Ez bedi berorrek ergelkeririk esan. Ganera ikusi dagian berorrek ez dauala kalterik izango, neuk beste orrenbeste jango dot.

Bai, baiña...

Ez dago baiñarik. Nire osakiak kaltegarriak ez dirala baieztatzeko, neuk lee-

nen-leenen eurakaz bete-bete egingo naz, au da, gaixoa jaten asi baño leenago, neuk jango dot.

Bai, zuk gaixorik ez dozun ezkeru...

Bai egia da, nik ez dot gaixorik, baiña berorrek urdai-azpiko zati txiki-txiki-txu bat edo beste ez dau jango, ta ardao espanak ostaz-ostaz bustitzeko añakoa, nik oster, bata ta besteagaz nire urdaila geiago eziñik, ezarriko dot.

Ara ba, urdai-azpiko ori ta ardao ori, ekarri dagiela, zuk dastatzea ez da bearrezkoa.

Zelan? Nik ez dodala daztatuko? Nik itza emoten dodanean, bete egiten dot. Ez litzake bear besterik, orixe baño! Berorren baimenagaz jangelara noa ta bertan ni urdai-azpiko ta ardaoaz bete-beteta, atzamarrakaz ukutu al izan arte, berorri dagokion jakia ekartzeko baimena ez dot emango. Osakiak mezedegarriak izan daitezcan, siñismenez, gogotsu artu bear dira, ta berorrek nik agindutako osaki oneitan itxaropen oso-osoa izan dagian, onena izango da, nigan ze ongarri, mezedegarri, izan diran, ikusi dagiala.

Lau-urdailekoak jangelara jaitsita, sekulako betekadea egin eban. Bertan, jangelan, aurkitzen ziran danak, ain puztuta ikusirik, plast egingo ebala urte eben.

Erregearentzat be, beingoan urdai-azpiko apur bat eta ardao igon eben, eta Erregeak sasi-sendagilea piper bat baño gorriago ta alai ikusirik, janedaria txistu baño ariñago iruntsi eban.

On Lesmesek une aretan, jaten egoan bitartean, aitzuta eban, izan be aitzupena tripazaiñen izakera berezia izaten da ta, Eriotzeatza gogoraturik, eta naizta alde batera ta bestera begiratu, ez eban iñon ikusten; errege-gelan itxuraz beintzat, ez egoan eta urrun-aldi onek, Erregea sendatu, eriotzatik gaizkatua zala, adierazoten eutsan.

V

Errege Jauna eriotzetik gaizkatzeko On Lesmesek izan eban izugarrizko erreztasuna dala ta, sendagile onek bere bezeroa aundituta ikusi eban. Gaixoak euren min eta nekeak aurkeztzen toki guztietatik etorten jakozan, jatorkozan. Zergaitik, euren Erregea ballotu izan ba zan, eurak be osagile onegaz ez ziran bilotuko ba?

Madrillen dagonik iturririk txarrena, gaizkiena Berro iturria da, ta ez utsutsean Madrillen, Madril urian, baita be inguruetan. Bere urak, naizta ugari ta ozkirri, gardenak izan, gogorrekiak be ba dira, eurak egosi al izatekko, oneitariko gauza bitik bat gitxienez bear zan. Leenengo urdail on bat, edo ur oneik edo antzeko batzuetatik edaten oituratuta izan. Erregeak edaten dabezela ta, aurrerantzean be edango dabe, beste zio-gabe. Madriltarrak, inguru areitako ur onenak zirala, baieztatzen eben. Karlos irugarrena Madrillera etorri zanean, Napolesko ur lodiak edaten oituratua zan, eta Madrilleko urak berantzat argal, meak izanik, kaltegarriak ziran.

Napolesen edaten ebazan uren antzekoak bilatu ebezan, eta Berrokoak edan ebazanean, ondo jatorkozala ikusirik, ur oneik edaten jarraiturik, arrezkero iturri aretako urak izan ziran, errege-etxean edaten ziranak. Berroko urak Errege ta bere sendiarentzat, ongarriak zirala ta, Berroko iturria inguru aretan ospetusa izan zan. Gaztelukko morroiak lusaila dizdiratsuetan iturri aretako ura errege-etxera eroaten ebela, konturatu ziranean, Berroko iturria miraragarria zala uste eben. Zuzengabeko aundikeriari, zuzenezko balioari, baliodunari baño obeto begirutzen jakola, onek adierazoten dau.

On Lesmes, osakintzan jakitun amaibakoa zan au, zaldi-burdi liluragarrietan eroaten ebela, erritar eta inguruetakoak ikusirik, bere lan-ospea neurri bakoa zan. Baiña alan da guztiz be, Lau-irdailekoak bere bezero guztiakaz be, bere ondar-bako urdaila betetzeko beste ez eban irabasten. Sekulako gosean eban lagun beti.

Argi dago, bere baitan iñoan Lesmesek, nire leenengo ileroko alogora ezkuratu arte, ni ez naz asetuko. Baiña egun orretan, bete-bete eginda, plats egiteko aurkitu arte, ez naz geratuko!

On Lesmes Eriotzeatzaz urduri, guztiz artega egoan, ez zan ain ketoa ez, Gazteluan egin eutsan txakurkeriaren ordea, aspekeri bezela aundituta, Andra arek egingo eutsala, sumatzen eban.

Berak, Eriotzeak, geien maiztatzen ebazan tokietan, edantegi, jolastoki ta joko-jokietan ikusi eben notin, pertsona batzuk esaten eben, Eriotzea, On Lesmestzaz izketan asi ezkeru, su-garrez asarratuta izaten zala, ta geroago apur bat nasaiturik, maltzurkeriz irribarretxu bat egiten ebala, esango baleu bezela: "Lau-urdaileko ori, itxi eistazue neuretzat, ordaiña, benetan arrigarria, epe laburrean izanigo dau ta".

Azkenean bai, eldu zan ba. On Lesemesentzat egun zoragarria, artu eban ileroko alogora, bere leenengo ileroko alogora, ain urduri itxaroten eban alogora. Egundaren mai baten nasai-nasai jazarrita, bere gurari, naia, bete eban; urdaila betetu geiago ezin arte ta bertatik jagi be ezin zan lez, mai ganean bere burua makurtuta, bazkalondoko lo-kukutxua egin eban; azkenengo bere begiak

idegi ebazanean, bere alboan Eriotzea egoan, eta begirekada gogor, su-garrez beteriko bateaz, adierazo eutsan.

Zer, uste zenduan, astokilo ori, Sendagileentzat zilegia dala, Eriotzeaz jolas-tea? Ba oker zara, guztiz oker, Sendagileak, Osagileak, biziaz uts-utsean jolas-tu leikee.

Eriotzeak, Sendagileentzat kalterako diran arazoetan, unetxu bat be ez dau alperrik galtzen, izan be Osagileak Eriotzearen kaltegarriak dira ta beraz gizar-tearentzat bear-bearrezkoak, au da ipuin onen zuzentasun edo moralitasuna. Alan ba, Sendagile jaunak, ipuin onen egileari jarraituz, esker onekoak ba zarie, gaixoak sendotzeko, osatzeko zeastasan geiago ba dozue, saiatu zaitzeze zintzo jokutzen. Nik ostera, idazteko liraintasun geiago baneu, sasi-sendagileak, titu-lodunak, isekatutko neukez, sasi-sendagileak deitzen diran guztiak.

ERRI-IPUIN BARRIAK EZ DAGO ABERRI ITSUSIRIK

I

Ogei urte baño geiago zan, nire jaiotze aranera itzuli naian, nire errimiña, nire erri-tze-naia, nire aita-amak ain luzarotik ikusi barik egoteak, eta baita be nire anai-arrebak, nire gaztearoko adiskideak, ikastetxeko lagunak, ia ume nintzala eurakandik aldendua izanik, leiatsu, kezkatu nengoan.

Ba dakit, nire aita-amamaganako maitasun ta baita be nire jaiotzeko ibarragaitik griña berezi bat beti izan dodala, sarritan zuzengabe irudikoa, ta gizaseme geinetatik ezbardintzen nauana. Milloi bat gizon-andratatik ez dala izango erreza, bere aita-ama ta bere jaiotzeko lurraldeganako, nik dodan griña ain sutsua dauan beste bat aurkitzea.

Nire griña ori, nire izakeari dagokiona zan, eta ez nire bizitzaren jazoki ta goraberarena; nire aita-amaren egoitzan, bertatik urrunduta aiztu eziñeko ondasun ugari ta bereziak ez nebazan itxi. Egoitz aretatik urrun be, eurakaz oitura eziñeko, zoritxar eta lan gogor eta neketsuak ez nebazan aurkitu. Ondiño geiago, nire jaiotze, polit eder iruditen jatazan lurraldeak; lurralde naiko itsusi onegaz, itxi nebazanak berdindu ezke-ro, ez eban izan bear gauza nire griña aunditu ta nire naia, guraria, erri-miña bizkortzeko.

Nire jaiotze errian bizitzeko, bizi al izateko, ia beteturik, beintzat geien baten, iku-sirik, eta orain nire burua, biotz-eragiñakaitik gitxiago menperatua danean, eta erri-arentzat idazten danean, burua ta biotza alkar lagunduta izateko saiatu bear da; biotzak itsusi diran gauza asko, politu egiten dauazala, ta politak diran beste asko itsusitu, ori orain argi ikusten dot.

Niretzat itzalgarrri ta ain maite dan adiskide Jose Gil de Fresno'k, Bilboko egunka-

ri baten orain egun gitxi ni aitaturik iñoan, elertia adieraspén eta berak adierazten emon nai dauan sendipenaren erdi-egíña dala. Eretxi au guztiz ontzat artzen dot, naizta, elertia zenbat eta iztu-ederragoa izan, adimenak argiago ikusten dau ta biotzean eragin samur-kutunago bat sortzen daula, uste dot.

Ez, eziña izango jat, ogei urte luze beragandik urrunduta, aldi orretan nire oldozmen guztia ta nire arimea be begaran izanda gero, bere edertasun osoa, ta beraz polita da benetan, azaldu, edestu al izatea. Nire gogomen eta nire arimeak, urrunetik begiraturik eta maitatuz, ondiño be geiago apaindu ebala esan neike. Izan be, ludi osoan a bezelako toki ain politik ezin litzakela aurkitu, uste neban.

Iturritza bizkaitar kondaira-egilleak, Bizkaitik aldedukeran Orduñako aitzak igarotean eta bertatik, aitz-ganetik bere aurrean agertzen zan ikuspegi zoragarria begiztatu, so-egíñez, negar-malkoz bere begiak bustintzen zirala, esaten eban, eta zelan bein baten beragaz joian mandaziñak, onelan iñotsola:

Zer? Lurralde oneik bere barnetik begiratuta, polit ederrak deritxazuz, ez? Guztiz be eder eta politagoak urrunetik begiratuta izango jatsuz!

Egia, benetan egi osoa, jaiotze-lurralde, umetxutan zapaldutako lurralde, ta baita be, norberak biotz-biotzez maite dauazan notin, pertsonak, urrunetik gogoraztean, sekulako eder, politik ikusten dira, zenbat eta urrunagotik, poli-ederragoak.

II

Azkenean nire jaiotze-ibarra ikusteko egarri, leia, bizi-biziak bete al izango nebazan. Orretarako mila ta zortzireunde berrogeta emeretzi garreneko Agorrellaren goiz eguzkitsu baten, zal-burdi apat-apatz baten jezarrí nintzan. Ondiño "Ferrocarriles del Norte" eritxona erainkintzan ebiltzan eta ez zan guztiz amaituta.

Madrilletik Somosierrara dagon bitartea, Lorail eta Ekaiñean izan ezik ez da bat be ikusgarria, baiña ile oneitan eze ta loratsu, orlegi izaten da.

Nire bidalian, lurralde areik zearkatu nebazanean, Agorrila zan, guztiz legor, igar, egoan. Lurralde txarto landuak, mendi landaratzegabe areik, erri txiro ta bertako urritze ta txirotasunaren jabeak, notin, pertsonak, nire lurraldeko solo ta zelai, mendibaso, erri ta biztanleakaz berdindatu ezkeró, ze aldakuntz ikaragarria! Berdinketa onen aurrean, ondiño be euren bizitza errukigarriago neritxan.

Izan be Kastilla Barriko mendiskak, eta batez be Karpetana deritxon mendilerroa, aran batzuk, aran txiki batzuk, Lozoya ibaiak urrestatzen dauana bezela izan ezik, guztiz txiro ta errukigarriak dira.

Lozoya ibaiak urestatzen dauazan lurraldeak, ibai ta lurra apur bat aberatsago, edertasun biziago bat agertzen dabe, beratan eguraldia ain gogorra ez dalako.

Erri txiki, txiro ta errukigarri areik igaroten nebazan bitartean bertako biztanleetan,

euren soifñeko, margo, izakera, izkuntza ta eurak bizi ziran lurraldeen zakartasuna iru-diturik, ikusten neban, eta guzti au olan ikusirik, nire baitan niñoan: zelan biztanle errukigarri areik, euren jaiotze erri txiro, itxarongabeko areik itxita, euratatik aldendu-ta, beste lurralde itxaropentsuago, lurrareik maitetu ez eze, eurakan gorrotoz begiratu bear ebezela uste neban.

Somosierrara eldu giñan, berrogeta amar biztanledun erritxua, izen bardiñezko mendi-lerro baten aurkitzen dana. Beratan, bidalian jarraitzeko, zaldiburdiko zaldiak aldatu euskuezan.

Artzain-nagusiak, maltzurkeriz iñoskun:

Nai ba dozue jaitsi zeinteke mendaitz onetako erririk politena ikustera.

Eta jaitsi giñan, bai, ta ni erria ta bere inguruak ikustera joan nintzan.

Somosierra, Madril eta Bilbo bezela u ria da, Madozek diñoanetik, sekulatik antzi-ña-antziñatik, amuko, patatak, indaba, kinpula... ta unore ta biriki miñak sortzen dauz.

Uri ta inguruak ezagutzean, euren etxeetan sartzean, bertako biztanleekaz alkar-izketatan, eta au da tamala, euren artean, bertako biztanleen artean, ez da amabost urtedun neskatik gazte artean be, polit-ederra deitzekorik, batxu bat be ezin leteke aurkitu. Bertako lurralde ta soloak ikustean eta inguratzen daben eremu, legortea, urrun-tasunetik begiraturaz, bertako biztanleek besarkatzeko naia, nire biotzean sortzen jatan, ba euren erri ta inguruei sue emon ez eutsonean, gaitzez erain eta beste lurralde oba baten bila, alde egin ez ebenean, deuntasunez beterik izan bear ebela, uste neban.

Jaiotze-erria ain beste maitatea, gizon deunei dagokiona dala arrokeriz uste iza-nik, biotz-bakoa ni, esan neban. Egia da, bai, nire jaiotze-erriaganako dodan maitasu-na, ia idolatri edo maitasun-zorua dala. Baiña, ze balio dau, ain eder eta emankorra izanik, nire erriaganako nire maitasun orrek, berdinkatzen ba dogu, ez diñot maitasu-nagaz, ba da euren erriak ezin leitekez maite, baiña bai erritar oneik, notintsa onek, euren jaioterriko errukigarritzko lurraldekan daben igaropenagaz?

Lurralde ta zugaitz areik bertako bero-sargoriz kizkilduta, etxe areik, Angustias baseliza a (an dana, atsekabe "angustia" bat zan), De las Nieves eleiza bera be (an dana zan otza), gure lurralde, zugaitz, etxe, baseliza, nire errikoakaz berdinkatuta, eurakandik luzaro aldentuta, gogoratuz eta adimen begiakaz ikusteaz, ames egiñik, nire barne, biotza zorion utsaz bete zan.

Gogoketa oneik nebazan bitartean, aizo txikitxu bateaz zarta bat landuten astia emon neban. Zartatxua baseliza aurrean egoan be-areitz zitrin baten adarra zan, gero zartea eskua dodala, zaldi-burdi dilligentzira, itzuli nintzan. Apur bat geroago zaldi-burdian zaldiak lau-anka joiazala, arrarte a igaro al izan genduan.

Kastilla zaarra lurraldetatik, lurralde zelai areitatik ibili ta ibili egun osoan, Arada de Duerotik Burgoseraño edatzen diran zelaigune areik, orain eder eta emankorrek iruditen jataz, baiña orduan...! Aaa zelakoak bertako biztanleek, biztanle baserritarrak, euren jaiotze lurraldeagaitik zer gogoratzen neban, jakin ba eben, emongo eustazan, bai! Nik beti gogoratzen nebana, lurralde areik Somosierra inguruaz berdinkatu ezke-ro, eder, politak zirala, baiña nire jaiotze erriko lurraldekez berdinkatuak izanik, izugarrizkoak zirala, zan.

Karpetana deritxoen mendietatik, eurak baño be itsusi ta txiroagoak diran Burgosko mendietara eldu giñan. Lurralde onek be, nire jaiotze-erriko lurraldeak edertzen dauz. Ebroko sakan edo mendiarteraño eldu arte, ta Valviesoko ibar ederra ikusi, ta bera begistazen egon ondoren, nire jaiotze-erriko lurralde txukun areikaz berdinkatu-ta, ludian zear, lotsa-arazi ez eitean erri anbat egon leitekean, gogoratzen neban.

Ebro ibaia igarotean, ilundurik, orduan bai, nire abertzaletasuna nire adimenean aunditu ta itzaldu zan. Gabaren iluntasunak nire adimenean sortzen ebazan itzalpenak, nire altasun guztia, elerti ta irudipena nire jaiotze-errigan barneratzen eban.

Ebrotik Bizkaiko mugaraño, amar bat milako bitartea da. Zaldi-burdi aldatz-gora joian lez, sei ordu ta apur bat geiagotan egingo eban, bitarte ori egingo eban. Bizkai mugara eldutean, lurralde maitegarria oinperatu naian, nire biotzikara amai-bakoa zan! Gaba aretako ixil eta iluntasun aretan, nire biotza ogei urte luzeetan gogo bizi-biziz irrikatzen eban zerbait, nire begiak aurkitu, ikusi naian, itaunkor ebiltzan.

Txakur bat zaunka, auzika, ba zan, edo oilar bat kukurrukuka, zaunka ta kurruka-da areitan. Nire gaztaroan, umetxu nintzanean entzundako zerbait bururatzen jatan. Zugaitz adar bitartetatik ego-aizearen txistua, nire aberri maitegarriko soiñu gozo, lilluragarri bezelakka zan. Gaba benetan zan iluna, baiña inguruko lurraldeak ikusi ta eza-gutu eziñeko aiñakoa ez. Baiña iluntasun aretan, ain urria zan ikusi al nebana, ain nas-garria. Sarritan laño bat iruditurik nire begiak begistatzen ebena, ez zala nik uste nebana, ta bai nire irudimenak ikusi nai ebana zala, uste izaten neban.

Zaldi-burdiak, baserrira, nire joaiotze-errira eldu baño legua bi aurrerago itxi bear ninduan, au da Balmasedara elduta, legu erdi bat mugati. Aurretizik jakin ez ba neban nire baserriraño ez ninduela eroango, bertako kanpadorrea ikusten nebala, umetan jolasten zugaiztia ta baita nire aita-amaren egoitza ikusten nebazala, nire baitan esango neban. Baita be, bertako zurrungabeko urak eragiten eben otsen bitartez, nire erriko burdiñola ta errotea ezagutzen nebazala, nire adimenean iruditzen jatan. Gaba, gau, ilun, ixil eta baketsu baten bidali apur bat luzea egin dauanak, edoitze bitartetatik estalduta ilargiak bialtzen dauan argitasun epelagaz, edo ortzi urdiñean dagozan itzar iltzatu areikaz, erriska txiki edo etxe anbat edo olako beste zerbait aurkitzen dan lekuan, uri aundi, kale zabaldun bat ikusten dauala uste izaten dau; aitz batzuk dagozan lekuan, tokian, gaztelu ta aldare bikaiñak, zugaitz goi, luze batzuk dagozan tokian, kanpadorre goi-goi batzuk ikusten dauazala, zin egingo leuke.

Inguru areik, une aretan zearkatzen nebazan lurraldeak, ia ez nebazan ezagutzen,

eta beraz nire errakuntz eta zalantzak aundiagoak ziran. Ondiño Bizkaitik bere mugatik urrun nengoala uste nebanean, nire espanetatik ots alai, bigun batek urtenda, nire begiak negar-malkoz ezotu ziran; nire jaiotze lurraldetara urreraatu nintzanean, zantzo bat entzun nebala bururatu jatan, zantzo au, egurtxondor bat erreten egozan ikasgileen oiuratsutariko bat zan.

Apur bat geroago, gau-argiz argitzen zan kale baten zaldi-burdia sarturik, gau-aargi orren laguntasunaz, laguntzaz, azaldu ezifiek biotz-ikaraz eta pozez, Balmasedan, nire gaztaroko erri maitegarrian aurkitzen nintzala, konturatu nintzan.

IV

Neke, biotz-ikara ta loak jota nengoan, baiña alan da guztiz be, naizta ostaetxe ona, oge garbi-garbi ta apatza izan, nire asmakisunekaz lo egiteko auzokide bereziak ez ziran.

Uriko platazara joten eban logela baten, bere balkoian gaba osoa emon neban Platzara a, arkupide areik, San Seberino goragarrizko eleizpe a, nire jaiotz-erritik joanez, mendiska batetik biratzean estaltzen zan bide-zior a, balkoitik naastuta, izkutuki, erdikaustatu egiten neban guzti a, niretzat oroimenez beterik izanik, nire biotz-ikara dar-daratuz, nire begiak negar-malkoz ezotu eragiten eben. Orduan, une aretan neban irriada, biotz-ikara, egun-sentiko argitasunez ezereztuten ba zan, iñoiz, sekula, iñongo olerkariaren biotzak ekianik abots gozo, argi aberats eta sentikera bako liluragarri bezeleko bat, idarokitu leiskedala, ez neban uste.

Egun-sentiak beragaz argitasuna ekarran, eta beragaz nire biotz-ikararen sua be beratzen joian; platazara jaitsi nintzanean, guztia beingoan ikusi naian, guztia leiatsu ikusi gurean, niretzat bizi osoa zan oroimenetan erdi-zorobioturik, nire biotz-taupadak ondiño be gogorraoak ziran.

Orduan gudarostetik azkatua zan, azkatu-barria zan, mutil gazte bateaz topo egin neban, sedazko zirgill zabal batetik dindilizka eroan tutulu batek, bere itzulpena urte luze askotan itxaroten irrikaturik egon ziran emakume maitegarriak, bere amak, arreba edo emaztegaiak bidalitako zirgill arek, beintzat ori adierazoten eban.

Une aretan, sendi ta aberri maitasunak, nire adimena bultzatu ta erakaten eben. Beste edozein unetan, niretzat tolesgabe izango zan gudari azkatu a, orduan, olan izatea ain urrun egoan... eta egoera onek eraginda, beragana urreratuta beragaz berba, itz egin, agurtu, berari adierazo, esan; ez dakit zer, barre-itzaz, sendi, maitasun eta umetako oroimenetzaz ta egoitzaz, aita-amaren egoitzatzaz, zerbait, zeozar esan. Ba nik asmakismetan guztiz ondo osotu ezifiek, nire baitan niñoan, obeto esanda oldoztzen neban; "mutil ori, beste neu bat da, nik sentitzen dodana sentitzen dau, maite nik maite dodana, itxaron nik itxaroten dodana, bere jaioteerria, nire aiñako aundi ta ede-

rra ez da izango, nire erria ain aundi ta ederrik ludian izatea, eziñekoa da, edertasu-
nean nire erriaren pareko izatea, baiña berana be ba laiteke ederra izatea, ta naizta
itsusia izan, maite izango dau ta pozik eta alai erriratuko da! Karpetos mendi tonto-
rretan bizi ta euren aberri daben zorigaiztoko arein bezelakoa izan ezik, ifiok bere abe-
rria ezin lei gorrotoratu”.

Asmakisun eta sentipen oneikaz, gudari lizentziatua agurtu neban, eta ia bere erri-
ra pozik itzulten ba zan itaundu nautsan.

Ez naz itzuliko ba!, bere begiakaz poza dizdiraturik, esan eustan. Ara jauna, siñis-
keri bat ez neuke nai esan, eta gitxiago orain, Jaungoikoak sekula neure bizitzan zin-
tzotasun geiagoaz eskaturiko mezede bat, opa daustan une onetan, baiña egon zaitez
ziur, zerurako bidean joango ba nintzake be, nire errirako bidean noan baño pozago
ez nintzake joango, izango.

Au entzutean, bere eskua estutua bera besarkatzeko gogoa be ba neban.

Eta zelakoa da zure erria? galdetu neutsan.

Nik ikusi dodazanatik politenatarikoa da, batez be mendi-besanga izanik.

Burgoskoa izango da, ez?

Kiiaa! Ez jauna, nire erria urrenagokoa da, ia Madril Madril lurraldeak dira.

Ni orain Madirilletik nator.

Orduan, bertatik, Madrilletik, onantz etortean, ba leiteke nire erritik igarotea!
gudari linzentziatuak pozez ifiostan.

Zelan deritxo ba?

Somosierra.

Abertzaletasunak norberaren erria, aberria, edertu, aunditu egiten dauala jakin ez
ba neban, gudariaren oguzkeran eta bere biotz-ikaretan bene-benetako zintzotasuna
ikusi ez ba neban, gudaria zerura joango balitz bezela, pozik eta alai bere errira joia-
la, ta bere jaiotz-erria mendi-besanga ziran errietatik politenatarikoa zala, biotz-bio-
tzez ifioala, jakin ez ba neban, izen a entzutean, bere erriaren izena entzutean, ni iseka
naian ebilela, esango neban.

Somosierra! arrituta, oiuka, esan neban.

Zer, andik igaro zara, ez?

Bai, jauna, ta erria ta inguruak ikustatu dodaz.

Aaaa! Ez da egia, mendi-besangako erri politenatarikoa dala

Egia da.

Ez dozu ikusi zein neskatil polit eta ederrak dagozan an?

Bai, egia da.

Nire eretxi bardiñekoa izateaz poztuten naz. Milaka bider gudar-etxean nire lagu-
nakaz nire erria olakoa ta alakoa zala ta, nire eroapena zirikatzen saiatuz, eurakaz
alkar-joten izan naz. Zuk dirautazuna eurak entzutea guztako litzaket. Nik neure erria
goraltzean, beragan neban zaletasuna, irrikak eraginda ez zala ikusi dagien. Olan dala
erri inguruak be begistatu zenduzan, ez?

Bai jauna.

Zurki, zure guztokoak izango ziran, batez be bazeliza aldetik ibili ba zara.

Zuzen be bertartik joan nintzan. Emen, eskuan daroan zarta au be, bazeliza aurrean dagon areitzean ebagi neban. Eta zeuri opatzen dautsut, ba da zeure errian ostua da ta.

Eskerrak zaldun ori, nik erakutsi neutsan zartea poz-alaitasunez beterik eutsirik, gudariak esan eban. Iñioiz Napoleoonen brigadier aundizaleak be, borroka gogor bat izan ondoren, mende onetan izan danik kapitanik ospetsuenak, bere adore ta ausartze saritu gurean ospatzen eutsoen mariskal-makilea berbera be, poz aundiagoaz ez eban artuko.

Gudariak bere eskuetan zarten pozik artu ez eze oroigarri deun bat balitzake lez, bere espanetarantz urreraturik, mozukatzeko gogoia be ba eban. Orrelako biotz-ikara bat izan eban, baiña nire aurrean eta bere begietan negar-malkoak eutsi ezizirik izan da, gertaera ori barregarria agertuko litzakela uste izanik, geldiarazi zan.

Ez zaitze arritu, naizta sarritan gizon oso, bene-benetako bat izatea baieztatu, orain umetxu baten bezelakoa biurtzeaz. Oneik, eskegita daroadazan kurutze oneik, egikisun orrean ezaugarriak dira. Zuk ez dakizu, lurraldeatzez, zugatz a ta baseliza aren buruz zuk niri itz, berba egiten, zenbat oroimen gozo bururatzen jatazan!

Batzuk iragarten dodazala uste dot, bada nire errian be baseliza, lur eta zugaitz ba be ba dagoz; eurak ordu batzuk barru ikusirik, nire adimenera eragarriko dabezan oroimenakaz, ziurki nire begiak negar-malkoz beteko dira.

Aaa zaldun ori!, zilegi eistazu zure eskua neureagaz estututzea, bada zuk, nire jaioterrira itzultean, nire biotz-barnean jazoten jatana ulertzen dozulako. Sei urte luze nire jaioterriaz eta inguruetak lurraldeakaz amesetan, eurak gogoratzen egonda gero, lurralde areitako biztanleak gogoan izan nabela uste izanik, nire biotz-ikarak izagutzen dozuzalako, emoidazu zure eskua.

Neureagan, neure erriaregan amesetan, gogoratzen, nire jaioterriko lurraldeak eta bertako biztanle guztiak nire buruan dodazala, eta eurak be nigan ames gozo ta zora-garriak ebezala, uste izanik, ia ogeta-lau emon dodaz nik. Ogeta-lau urte emon dodaz nire jaiotzeerritik erbestaratuta. Esaidazu zerbait, zeozer, zure oroimenez, baseliza, lurraldeak eta zure erriko zugaitzak, zure oroimenez zer iruditzen dautsuen, ia ordu batzuk geroago nire oroimenez nire erriko baseliza, lurralde ta zugaitzak eragingo daustenakaz antzik ba dabe.

Orretariko batzuk azaldutzeaz, bada guztiak ezizikoa izango da zuk eta nik une onetan ez dogun asti luzea bearko neuke, atsegin berezi bat izango dot.

Ni aurtxua nintzala, bular-aurtxoa, seaskatxuan nengoaela, nire ama erdi-ilik, ilzorrian ikusita, bere besoetan artu ninduan eta era onetan ariñeketa baten baselizara elduta, Ama Birgiñaren oiñetan belaunikotuta atsekabez otoitz egin eutsan: "Ama Errukigarri ta Done ori errukitu zaitz nigan, eta oneri, nire erraitako zati oneri, bergandik iges doakon bizia eutsiten lagundu eiozu! Nire ama laztanak, otoitz egin orduko, Ama Birgiñeak irribarre maitasunez beteriko bat egin ta aurpegi margo gorritzka osamuntzuaz irribarreka nengoala, mirari baten bitartez osasuna lortu nebalako.

Aurrerantzean, arik aurrera, nire ama baseliza aretara egunero joaten da, niretzaz Ama Birgiñagaz berba, itz egiten dau, barriro negarrez nigaitik otoitz egiz.

Uste dot zio naikorik dala, ta beste asko dodaz, zio asko dodaz, baseliza aregaz gomutauz biotz-eragiñak izateko; olan izango ez balitz, jazoriko guzti orreik gomutazeen, nire biotzean ez ba neuke biotz zirikatzerik, biotz-bako mutil arlote bat izango nintzake.

Egia da, adiskide.

Baiña zergaitik eta zertarako, nire umearako jolasketa ta alaitasunekaz nekarazi bear zaitut, eta nire gaztearako atsegin, poz, alaitasunekaz, jai egunetan lurralde aretan batzen giñan gaztedi talde aregaz izaten nebazan jolas-aldiak gogoratuz, zu nekarazi?

Nire bizitzaren ogei urte bere kerizpean emon dodazan zugaitzaren adar au ikustean, sei urte luze ludian zear arrisku aundietan ibiliko batek, ume-moko ta emakumeen biotz-biguntasuna ezainduten ibili dan batek, zer sentitzen dauan, eta iñoiz beste gizon bateri esango ez leikiona, osotasunean ulertu dagizun, bene-benetan ulertu dagizun, zuri esatea, azaltzea bear bearrezkoa dot.

Gudariak bere eskua bularrera eroanda, lizentzi tutulutik ziriko, sedazko girgiletik dindilizka eroan latoizko domiña bat erakutsirik, jarraitu eban: Ikusten dozu domiña txiki au? Sedazko girgil au ikusten dozu? Ba biak nire erritik baldukoak dira, emakume bat-baten opariak, eta ez da nire ama ta ez da be nire arrega...

Argi dago, ederto ulertzen dot.

Ba, arratsalde baten beragaz landa aretan dantzaten nengoala, maite dodala esan neutsan, eta apur bat geroago alkarren ondoan belaunikotuta, baseliza aretan ixilean eta dardaraz, azken arnasa arte alkaar maite izango genduala zin egin genduan. Iluntze baten zugaitz aren kerizpean batu giñan alkar agurtzeko, biramonean, egun-sentian, orain amaitzen dodan bidali luze, ilun, neketsu ta atsegin-gabekoa asi bear neban.

"Domiña au, Edur-Ama Birgiñaren domiña au, artu eizu, bedeinkatua da, ta biotzak diñost arrisku guztietatik gaizkatuko zaitula". Eta olan esanez, domiñatxu au mozukatu ta nire saman ezarri eustan. Orduan nik, lurrean, berak nigan izan eban ari-guriaren aifako ordezkakorik zeruan bilaturik ez aurkitzean, nire aizto txikia atera neban eta zugaitzean, begiak negarrez nebazala, negar-malkoz ondatuta, kurutze bat eginda, esan neutsan:

"Kurutze Deun onegaitik zin egiten dot, nire azken egun a arte, il arte, maite izango zaitudala, maitatuko zaitudala". Ulertzen dozu orain, eta parkatu ainbeste ergelkeri nigandik entzun bear izatea; ba da baselizan, landa a ta zarta onek gogoratzean, gogoratuz, senetik be kanpora ezartzen nabe ta!

Ez dot adituko ba, ta tamala dot!

Unetxu batzuk geroago, gudaria ta ni, eskuak alkar-estutura agurturik, bakoitza bere bide ezbaridiñean joan giñan. Bakoitza bere biotzak eta bere oroimenak erakar-garritzen ginduen tokirantz.

Ez, ez dago aberri itsusi, motsik, nire barne-indar guztiakaz asmatzen, niñoan.

ARELLANOKOA

I

Pedro el Cruel'ek Naxeran bere sasianai Enrike de Trastamarari lepo bete emon ondoren, au, Enrike, Aragonerantz txakurra buztena izterpean bezela igeska joian, eta lurralde aretara, almugara, joateko bidea ez ekian lez, eta ganera bere anaigandik artu eban zigorradeaz erdi-zorobioturik, nondik iges egin jakin ezifiik, biraka ta biraka ebilen, eta onelan aurreratzen eban oinkada bakoitzatik, bi atseratzen ebazan.

Solo zelai aundi baten lurgintzan nekazari bat ikusirik, beragana urreratuta, Aragonera joateko bidea nondik zan, mezedez esan egiola, eskatu eutsan:

Jaungoikoak zaindu zaiazala, nekarazi jauna, adeitasunez esan eutsan.

Eta berori be bai, zaldun ori, bere soifnekoak zein garestiak ziran eta guztiz zatituta eukazala ikusirik, apur bat maltzurkeriz nekazariak erantzun.

Emendik Aragonera joateko bidea nondik dan jakingo dozula, uste dot.

Begi bat ertsita be bai, txistu baño arifnago Pilarko Ama Birgiñaren aldare aurean izango nintzake; amaikatxu bider errames bertara joangoa naz ta.

Orduan mezedez, gidarituko nozu, bertaraño ez, ain urrun ez, baiña bai emendik ikusten diran Naxerako dorre madarikatu orreik nire begietatik estaldu arte?

Jakin leiteke, zalduna, zergaitik dorre arei madarikatuak, berorrek deitzen dau-tsoen?

Gaur goizean bertan, Naxeran, irabaste ugariak lortzea uste izan neban, eta apur bategaitik neurè bizitza be ez dot galdu.

Ez da izango berori Trastamaratariko anbat, ez?

Bai, etaa onenatarikoa.

Eldu da bai, ona be barri ori; zelan On Pedro el Cruel'ek bere anai Enrike ederki lepoa berotu dautsala. Olan da ze, adiskide, tamala dot baiña ezin dautsut lagundu ezetan be, eta gidari bezela be ez, On Pedro sumikoi ei da, eta salatari anbatek sala-

tuko ba ninduke, Enriken alderdiko gudari bateri iges egiten lagundu dautsodala esanez, ederrak izango litzake nigaz! On Enrike berbera izango balitzake be... eskatzen daustazun mezede egin baño leenago ondo oldoztu bear izango neuke.

Baiña On Enrike'ri lagunduko zeuskio, ez?

Ez diñot ezetzik, ba da mezede ori, bera erregetzara eldurik baliotsua izango litzaket.

Eta uste dau berorrek, noizbaiten erregetzara elduko dala?

Ez dot siñistuko ba!

Nire eretxiz, Jaungoikoak onesten dau, naizta ez betirako. Sasi-anai, bastardo, ta gura dan guztia izango da, baiña On Pedro'k daukazan errai txarrak ez daukaz, zeozergaitik, El Cruel ezizena ezarri dautsoe.

Astirik, denporarik, ez dagigun galdu, ba ni neure bizia galtzeko arriskuan izan nei-teke. Jakin eizu Trastamarako Konde ber-bera nazala.

Nekazariak au entzutean, bere txapel margo-gabea kendurik, berari egokion arauz itz, berba, ez egiteagaitik, ba guztia zan berak jakin ez ebalako, milaka bider parkame-na eskatu eutsan.

Parkatua zara, ta nik eskatuko gidaritza egiteko gertu ba zara, zeuk nai dozuzan mezede guztiak eskatu eistazuz, ni errege izango nazan egunean ordezkatuko dautsudz eta.

Ara ba, aldi ori eltzen danean, eltzen dan egunean, bildurrez lantzen asi nazan gobernu-lur larraki, oneik nire izenean ezarri dagizala.

Olan izango da, zeuk nai dozun bezela izango da, baiña goazen arira...

Nekazaria belarri ostean atz egiñik mugitzen zan, baiña aurrerantzarik ez eban egi-ten.

Aurrera gizona, ibili zaitez, bear ba da nire arerioak nire atsean jardungo dabe, guztiz artega igeslariak iñotsan.

Baiña... nik berorreri beste mezede bat eskatu nai neuskio.

Esaidazu ba.

Solo, lurralde zuk aginduko onetzaz, zuk opatukotzaz, idazki bat egin daistazula.

Ez daukat emen zegaz idatzi, baiña.

Nekazariak apur bat oldoztu eban, eta solo alboan egoan area moltso txiki bat iku-sirik, beste aldi baten erreka txikitxu bat izandako urak eroango area moltsoa begis-tatuta, esan eutsan:

Berorrek, area moltso aretan idatzi nai baleuke...

Olan egingo dot, kondeak esan eban, eta area moltso aurrean makurtuta, atzamar bateaz nekazariak gura izan eban guztia idatzi eban, gero leiatsu biak batera Aragone-rantz urteteko.

Egunak arin joaten dira ta, orduan be denporea joanez, Montielekoa eldu zan. On Enrike errege-gaia izatetik, errege anai iltzaila biurtu, baiña anailtzaila bere gogoar-en aurka izan zan, ba da bere anai il ba eban, bera, bere anaiak il ez egian izan zan.

Jauregian-entzupen bat izan zan egun baten, jauregian aurkezturik, Erregea ikusi naian, Juan Fernandez eritxon nekazari bat egoala, Erregeari adierazo eutsoen.

Erregeak bere aurrera nekazaria etorri eitela, aigndu etusen.

Nekazaria Erregearen aurrean aurkitu zanean, esan eutsan:

Jauna, Naxerako dorreak begistatzen dirazan lurralde, zelaietan, solo baten alboan areatan idatziko itz batzuk urak eta aizeak eroan dauz, baiña aizeak eta urak, idatzi aretan egin zan opari, agindua, ezin leiteke ezereztotu baztertu. Orrelan egun aretan opari au egin jakon ber-bera, oparia egin ebanari, agindutakoa bete dagiala eske, erregutzen jatorko.

Errozoizkoa da, zuzen da, etorri daiten, Erregeak erantzun, eta beste esker asko aditasunez egin ondoren, jarraitu eban:

Lenengoz ikusi zinduzanean esan neutson lez, landuten zenbiltzan lurralde zabal a, zeurea da, eta orain barriro baieztatzen dautsut. Bere jaun eta jabe bezela, bertan eskatu zeustana egingo dot. ARE EL LLANO'n bertan eskatu zeustana egingo dot.

Nekazaria guztiz pozik erriratu zan, eta beraganatu eban lurralde a guztiz emankorra zan ezkerro, urte gitxi barru aberastu zan. Erregeak egin eutsozan beste mezedo batzuk be, esate baterako andiki ta odol-garbikoen tartean izeta, kide izatea ta orrelan aberastasun, ondasunak ugaritu al izan ebazan, eta baita be aundiki ta Kastilla ta Nafarroako errege-etxeko laguntasuna eta mesedeakaz erribarri bat sortzea. ARE EL LLANO izena ezarri eutsan.

Iskilu-erregeak deritxen edestigille ofizialakaitik, naizta ez izan guztiz nastaugabea, au da ARELLANOREN kondaira.

ARANGURENEKOAK

Susunaga ospetsuaren aide, senidetariko baten urrengoak, Barakaldo estu baiña atsegintsu dan ibar Mendi-errekan sustraitu ziran. Ibar, aran txiki au, Mendi-erreka, gaur-egun gaztelarrez Regato deritxo. Eun bat egoitz, etxe, an emenka auzo ezbardin-ñetan ezarriak osotzen dabe. Susunaga sendiko urrengoak eta aran aretan sustraitu ziranak, Aranguren abizena artu eben, eurak geiago maite eben tokiaren izena zalako.

Sort-etxe dorrearen ganean, erauskiñen ganean, etxe au ezagutu ebenak guztiz oparotsua zala esaten dabe, ta eraiki orduan bere jabeak sendotasuna baño erosotasuna naiago izan ebala ta dorre aren erauskiñen ganean, barriro difot, oiñarrituta, etxe apal baiña polit bat eraiki eban.

Etxe aurreko orman dagon irakargai batek, etxe a antziñako Aranguren dorrea egon zan leku ber-beratan 1.842 urtean eraiki zala, adierazoten dau.

Regato, Mendi-errekako Arangurentarrak, "gizon aurrunt eta irabaslariek" deitzen eutseen tartekoak, kide, ziran. Erdi-aldian lurralde onetan, alderdi gabeko guztiei, ta borrokan jardun-gabe, lagintza eta nekazaritzan jarduten ebenei, au da, lurrak landu, aberetzan eta burdiñolatan lan egiten ebenei, olan deitzen jaken.

Sendi-jatorri onen oituratzaz dan ipuin bateaz, arterokoakaz egin dodan bezela, liburu onetan be, barregarri ez neuke emen agertzea. Erri-jakintzak azaltzen dauan bezela ta amabostgarren mendean izanik, aldi aretako ezeze gaur-egun be filosofi aberats baten ikaskai berezia da.

Mendi-errekako ibarxka baketsuak bere urak Barakaldoko zelai unean zabaltzen dau; antziña zugaitzez beterik izan zan zelaitxua, gaur egun solo ta ortu emankor ugari ta ondo landuak bihurtuta, agertzen da.

Lurralde zelai, udako, uda aldiko egun goiz argi ta ozikirri baten, oiñaziño tan ganboino taldekoak, borroka gogor eta zital baten ebiltzan, anai arteko borroka burugabeko baten, zoritxarrez gure errian olako borrokak larregitan izan dira. Taldetariko bat garaile urtenda, garaile bai, baiña irabasle ez, guda, borroka baten irabaslerik ez da ta, galtzaileen aldeko mutil gazte bat, odol eta izerdiz beterik, ezagutu be egin ezteko

eran, garaileekandik igeska, ibarska gora arifeketa baten joian, bere atsean amurruz garaile-taldekoak, gogotsu atrapau naian, igeslearen taldea, eurak izan eben talderik gogor, adoretuena izan zan, beraz aunditzen eban euren gorrotoa.

Igeslea Aranguren dorre ingurura eldu zanean, indargabe, odolgabe, itxaropena be ia galduta, lurrera jausi zan. Dorre beretako jaun eta jabe zanaren alaba bakarrak, Miren eritxonak, eta bere aitagandik guztiz maitatua zanak, au ikusirik, dorrearen aurrean, aurrez-aurreaz, ibarzka aretan borrokan ilten ziran arimakaitik otoiitzka egoan logelatik urtenda ta bere morroien laguntzagaz, mutil zauritua arreta aundiz dorrera eroan eta bertan estaldurik, maitasunez eta zeatz zaintzen eban.

Aitatu dogun otoiitz-gela orren ormak gaur-egun be ikusten dira, ortu txiki baten barruti egiten dabe.

Arangureneko etxeguna egun osoan bere abereak ikusten etxetik kanpo izan zan, eta gabean etxeratu zanean eta jazoriko au ezagutu, jakin, bere alabeak egin ebana-gaitik goraldtu eban. Naizta gudari igeslari a bere etxean estaltzea arriskutsua izan, zauritua arretaz eta maitasunez zaindu, jagon, eban. Zalantzagabe, beste borrokalari taldekoaren belarrietara barri au eldu ba zan, gudari zauritua Galdamesko Atsuriaga sendikoa izanik, eta beraz, arerio alderdi gogorrenatarikoa, ospetsu ta bere ausarta ta adoregaitik, Aranguren dorreko jaunak zigor gogorra izango eban.

Atxuriagatar Fernando, gudari zauritua olan eritxon, osatu, sendotu zan, eta beerraz etxe aretatik, dorre aretatik aldendu bear izan, baiña Arangurentar Miren, dorreko jaunaren alabea ta gudari zauritua, orain osatuta, alkar maitemenduta zirala, alkar-maitasun itsu, bero-beroa ebela, gertatu zan.

Neskatilatxuaren aitzak gertaera au jakin ebanean, su-asarrez asarratu zan, alkaartzeta au eziñekoa zala, uste eban. Aranguren dorreak langiletasun, zentzudun eta bakea ebazan ikurra lez, eta bertako alabea, Atxuriaga sorretxe, borroka, guda ta olako ezerkeriak bere ezaugarria izanik, etxe onetako seme bateaz eskontzeak, biotz-miñ ikaragarri bat, eragiten eutsan.

Atxuriagako gaztearen maitasuna Arangureneko alabearentzat bene-benetako, zintzo-zintzoa zana argi egoan. Fernandok orretzaz ezaugarri ugari agertu eban. Beste alde batetik, Aranguren dorreko alabeak, Mirenek, maitasun ori-gabe bere bizitzan zoriona debekatua izango ebal, argi adierazoten eban.

Azkenean Arangureneko jaunak, mutilari betirako, bere bizitza osoan, geiago borroka ta edozelako gudazaleen tarteko ez zala izango, zin egiola eskatu autsan. Eta onek, mutilak, Arangureneko alabeagan eban maitasun zoragarriagaitik onetsirik, zin egin eban.

Atxuriagatar Fernandok bere zaldun-espatearen ganean zin egin gura eban.

Ez, Arangureneko jaunak esan eutsan, kurutz orren ganean ez dozu zin egingo, beste deunago onen ganean baño, baizik.

Mutilari beragaz bere atsetik etorri eitela erruguturik, ondiño gaur-egun be, dorrea egon zan lekutik eunkada bat metro batzuk urrun dagon burdiñolarantz abiatu ziran. Burdiñola igarota, erreka urak eroen bideari jarraituz, zurrumba, presara, elduta bertan gelditu ziran, uxeta, konporta, ganean gelditu. Orduan be, gaur jazoten dan beze-

la uxeta edo konporta au, zutik, tente, dagon zure bat alde batetik bestera zulotuta dagon beste zure baten bitartez, kurutze egiten dauana, jasoten da.

Arangureneko jaunak, konporta ganeko kurutze ganean bere eskua ezarrita, mutilari esan eutsan.

Bi bider deuna dan kurutze onegaitik, ba da gizaseme guztien gaizkatzaila izan ezeze lan baketsu, deduzko ta emankorraren ikurra da; gizasemeen odolez zikinduta, loituta, dagon kurutze onegaitik, sekula geiago ezelako borroka, guda, matxinada ta zuzengabekeri olakoetan ez zarala izango, ta bai Jaungoikoak bedeinkatzen dauan bake ta lan emonkorra zure elburua uts utsean izango dala, zin egin bear dozu.

Mutilak bere belaunean espatea, bere espatea, ezarrita zati bitan apurtuta uretara jaurti ta konportako kurutz latz baiña deunaren ganean, Arangureneko jaunak, nai, gura, ebana lez, zin egin eban.

Orduan onek, Arangureneko Jaunak, negarrez, maitasunez eta biotz-ikaraz besarkatuz, semetzat artu eban.

ERRI ORKAI

I

Etxegoieneko Pepak ipuin au biderestu euskunean, beratan aintzindari danari "tio" iristean, ipuin ori emen, Euskalerrian, jazoriko bezela ezin zeinkeela edestu, errazoi sakonak dodaz; Lurralde onetan "tio" osaba, senidei uts utsean deitzen jake, au da odolkidetasun, aidetasunen bitartez diranei.

Olan asmatzeko, pentzatzeko, beste arrazoi bat be ba dot. Gure errian, Euskalerrian, ez da izan, ez dago, ta ez da zilegitzen be "Tio Igualdad", "Bardintasun osaba" antzeko bat egotea. Onek ez dau esan gura ez dirala izan eta orain be bera bezelako txarrak, zitalak, gaiztoak, ba dirala, baiña beste era batera.

Etxegoieneko Mari Pepari olan adierazo neutsan, olan da ze, ipulña euskeraz edestu euskun, eta egia esan nik orain zuei edestuko dautzuen baño askoz be txairo, politasun geiagoaz. Etxeko-andrea pozik izan zan, txiki-txikitxutan entzun eban lez eta buruz ikasita, edestu ebalako.

II

Ez dakit noiz, "EZDAKITNON" go betiko alkate edo endorea, "Tio Igualdad" deitzen eutsoen bat zan. Berantzat ludiko gauzarik onena, bardintasuna zan, eta une ta arazo guztietan bere menpekoei olan jardun egiela, erregutzen eutsen.

Erritar nagusi berezienak, erriko platzan batzarduta egon ziran egun baten, gai onen buruz, bardintasunatzaz, "Tio Igualdad" en itzaldia jasan bear izan eben. Aitatu-tako berbaldi au, olan amaitu ei zan:

Berdintasuna leenen-leenen, berdintasuna arazo guztietan eta arazo, gertaera danen genetik.

Legearen aurrean, alkate jauna, esan gura izango dau berorrek, batzarkide zentzundun eta apur ikasi batek, esan eutsan. Legearen aurrean berdintasuna bidezko ta zuzena izanik, berdintasun bakarra da, ba da legea bera be, mugatzegebe ez da beti, ta ekanduzko ta zosial-bearzenak agintzen dabena eratu, egokitu bear dau.

Bardintasuna leenen, gertaera guztietan eta danen genetik, "Tio Igualdad"-sek sutsu erantzun eutsan. Bereala udal-zaiña, bere deun-erexiak ontzat ez artuta eura-kaitik itz, berba, txarto egiten eben guztiak atxilotuteko asmuz, bialdu eban.

Atxilotuta udal-zaiñak eroan gizonak, bere bultzakadak jasan ezifnik, erantzun eutsan: "bardintasuna zuk daroanozun bezela izango balitz, orain emen atxilotuta ni bakarrik ez nintzake joango, emen gagozan entzule guztiak joango gintzakez".

Eroan zaizela ba guztiak atxilotuta, bai bardintasun-agintzaritzari dagokion aldetik eta batez be, agintze onen aurka esan dozuzan bidegabekeri guztiak, euren ixiltasunaz onetsirik entzun dabezelako.

Entzule guztiak atxilotuak izan ziran.

Alkateak, endoreak, ain zuzen erabilten eban, berantzat zuzena zan berdintasun au, bere eretxiei jarraituz, bardin-bardin epaitzen ebazan zintzo zein gaiztoa, errudun edo errugabea. Naizta gai onen buruz alkatea gogor eta gaiztoa izan, erritar asko ziran mar-mar, atxilotuta joateko arriskuz ifioenak, berak, alkateak, arreta aundia ebalu berdintasun orretan tarteko ez izateko.

Egun baten erri onetara "Ez dakitnon"ra, bertako udal-zaiñak, gizon batzuk erbes-tetar batzuk, errirutzen zirala ikusirik, eta erria ta bere berezitasunak ezagutzen etozala jakiñik, zaldun bezela bere serbitsuak opa eutsezan.

Txangolariak euren aldetik, udal-zaiñaren opakisuna eskertuz, onetsi eben, naizta apur bat errenka ibili, neketsu, ezbear au oskiak, aldean eroezan oskiak, luzegiak zirako zala ta, udal-zaiña gidari ona izango litzakela, uste eben.

Txangolari ta bere lagunak errian barneratu ziranean, gertaera bakan batek euren gogoa bizkortu eban; bertako, erri aretako, biztanle guztiak, bai andrazko ta baita be gizonetzkoak, udal-zaiñaren bezela errenka edo neketsu oiñez ebiltzala, nabaitu ziran.

Txangolari nagusiak, gertaera au zergaitik zan jakin, nai, gura eban eta bereala Udal-zaiñari itaundu eutsan, ia erritar guztien ibilkera errenka, neketsua zergaitik zan.

Ara jauna, erri-orkaigaitik da, itaundua izan zanak erantzun.

Oinkada bat egiten eban bakoitzean, gorriak ikusten ebazan, bere oiña txikia izanik eta osteria oiñetakoak, oskiak, guztiz aundiak, oiñak ontzi baten bezela alde bate-ra ta bestera ibilkiozan.

Erri-orkoa! Eta zer da ori?

Bai jauna, erri-orkoa, erri onetako biztanle guztientzat oiñetakoak egiteko tresna bat da, alkate berberatan asirik, aterik ate eskean dabilzan guztientzat.

Eta orrek zer dau, zuk emoten dautsozun "erri-orkaia" izenagaz, zer ikusirik.

Jauna, ez dau izango ba zer ikusirik? Gure alkate jauna, bardintasunaren maitale itsua da ta orka ber-beragaz erritar guztien oiñetakoak egitea agindu dau. Zalantza

barik, bere menpekoak oiñetakko txarrago batzuetan euren oiñak sartu dagiezen, bildur da.

Eta zein da oiñetako ori?

Atxilotu-lekua, espetxea, eun zulo txiki baño geiagoaz, Udaletxean aurkitzen dana.

Baiña, agintze ori, alkate ber-berantzat be ba dala, diraustazu?

Bai jauna, alkate jauna ber-bera izan zan leenengoa orkai orregaz egiñeko oiñetakoak erabiltea, bere egikisun au eredu izan eiten.

Adiskide, alkate ori da...

Ixildu zaitex jauna, ba zoritxarrez, zeuretzat zoritxarrez, entzuten ba daustu, atxilotu-gailu ori beingoan ezagutu al izango dozu, eta ez zeuk bakarrik, ut-utsean, zure lagunak be zugaz joan leitekez, eta neu be, naizta udalzaiña izan, tartekoa izan neiteke.

Baiña zergaitik joan bear izango zeunkee, zuok?

Bardintasunaren astapenagaitik, bere bide bakan egokiena.

IV

Txangolari nagusiarentzat, naizta errian berezitasun ugari izan, alkatea berelako bakan, berezirik errian egotea, zalantza-gabe ez eban uste. Udalzaiñaren azalpenak egiak ba ziran baieztatzeko, ta bera, alkatea, ezagutzeko gurariak eraginda, udalzaiñari bere aurrera, alkate jaunaren aurrera eroan egiala, eskatu eutsen.

Esan eta egin, Udalzaiña ta txangolaria alkaterenerantz abiatu ziran.

"Tio Igualdad" "Bardintasun osaba" ezazun onegaz deitua izatea, ezagutua, izatea, alkateari atsegin izaten jako. Deduzko, guztiz deduzkoa, bardintasun zalea izatea iruditzen jakon. Bere egoitzan, sutondoan, su-mukur ederren alboan, bere izatarrak berotzen aurkitzen zan; euren oiñarria, oiñ luze-luzeak, oskiakaz oiñetaratuta.

Jezarri zaitex, bere sutundu barik, esan eutsen.

Eskerrik azko, txangolariak erantzun, baiña ez gara nekatuta.

Ez dirautzuet nekatuta zagozelako, neu nagolako baño, ta bardintasun zalea naz.

Txangolaria ta bere laguna jezarri ziran.

Sutondora urreratu zaitex, alkateak jarraitu.

Ez dogu otsik.

Ez da otz zarielako, neu berotzen nagolako da, ta bardintasuna nire zaletasun bat da.

Txangolariek eta bere lagunak, sutondora urreratu ziran.

Alkate jauna, txangolariek iñotsoen, gurari, nai bik eragin nabe zu ikusten etortera, bata zu agurtzea ta bigarrena, zergaitik berdintasuna ainbeste maite dauan, mezedez azaldu daistan.

Bereala zutundurik, batzarkideak be bardintasuna da ta bardin egin eben, lenengo zure gurariagaitik, alkateak esan eutsan, eskertzen zaitut, eta bigarren guraritzaz, platzatik bidali labur bat egiten dogun bitartean, zure naia betetzea, atsegin izango jat. Bertatik, platzatik, erritar berezienak bidegiten ibiliko dira, ta bardintasunaren agintza-deuna, apur bat onetsitako baño ez ba da be, eurakaz antzeratu bear gara.

Alkatea, txangolariek eta udal-zaiña, plazarantz abiatu ziran. Erriko platza nagusia guztiz ur egoan, urbil egoan.

Txangolari nagusia, errian, erri aretan, errenka ta neketsu ez ebilen erritar bakarra alkatea zala, konturaturik, udalzaiñari ixilean itaundu eutsan, ia zelan zan arazo au, alkateak bere erritarrakaz ibilkera ezbardina izatea.

Gauza erreza da jauna, guztiz erreza, alkateak orkaia egiteko agindu ebanean, erri-orkaia bere ioñaren neurrian egin egiela agindu eban, udalzaiñak erantzun eutsan.

Txangolaria ta bere lagunak, bardintasunatzaz alkateak agertu ebazan azalpenak entzuten, luzaro egon ziran. Ondoren alkatea agurtu ta udalzaiña gidari ta lagun ebela, erriko berezitasunak ikusten jarraitu eben.

Alkategandik aldendu orduko, txangolaritariko batek alkateak bardintasun buruz esan ebana ez eutsoela ulertu, udalzaiñari esan eutsan, zuk ulertu dautsazu?

Bai jauna, argi geratu da, bardintasunaren maitale dala, dalako ta kitu.

Alan da, gitxi gora bera, ori izan da esan dauana.

Apur bat geroago txangolari ta bere bidalikideak "EZDAKITNON" utxita "-EZDAKITZE"ra aldatu ziran. Bertatik guztiz urbil egoan uri txiki batera. Beratan uri txiki aretan, errege-etxe bat egoan.

Txangolaria, ez zan besterik Errege Jauna ber-bera baño. Jauntxu onek, "-EZDAKITNON" urian gauza bereziak, arduratsuak egozala entzurik, bertan ixilean, ezkutan aurkezturik, jakin gura ebazan.

Erregeak, jakituna zan ezker, errege-etxera eldu orduko, itzuli orduko, agintze oneik egin ebazan.

Lenengo.- "EZDAKITNON" urian gizona, legean aurrean bardintasuna, zuzen eta deduzko bardintasun bakarra zala, esan ebalako espetxean atxilotuta egoan gizona, "Tio Igualdad"ren ordezkate izendatu egiela; ba da legea bera be muga-gabea ez da, deduzko ta sozial arazoakaz bearturik izaten dalako.

Bigarren. "EZDAKITNON"en erri-orkia erre ondoren, bakoitzak berak gura, nai eban bezela oiñetaratu eitezela, udalzaiña ta "Tio Miserias" izan ezik.

Oneik, orkai bardinañagaz egindako oskiakaz, oiñetaratu bearko ziran, baiña udalzaiñaren oiñen neurriaz egindako orkaiaz.

Gertarera au jazo ta urte batzuk geroago, "EZDAKITNON"en, ondiño be, "Tio Igualdad" ibilkeran eta beraz oinkada bat egiten eban bakoitzean izarrak ikusirik, bere min-murruzeak urrunetik entzuten ziran.

Aldi aretan Laterri osoan araudi edo lege-sorta bardinañak erabiltzeko agintza izan ba zan, eta arazo onetzaz alkate areri bere eretxia eskatu ba eutsoen, ziur naz, agintari ta agintzeak pikutara bialduko ebazala. Legeak Frantzitik ekarri bearrean, sifis-era-

zita erri bakoitzari, ende bakoitzari, dagokien bezela egin bear dirala, oskiak oin bakoitzaren neurriaz egiten diran bezela.

IKOA

Egiatar Jon, beste gauza baten, diru gaiaren buruz ganera, ez zan nire antzekoa, au da, ipuiñak edestuten, ipuiñak guztiz sestokari edesten ebazan.

“Kristo ta Kepa Deuna ludian zear ibili ziranean, Kepa Deuna, berantzat bear-bearezkoa zan zerbait egitera joango balitzake bezela, masti baten sartu zan; mastegi onen mugak iko batzuk kerizpetzen eben, eta mats-mordo pare bat, mats-mordo ez-titsu, gozo-gozoak artu ebazan. Bidean bidegifiñean joiazala, Kristo ta berak aurkitzen ebazan iturrietan ura edateko, lepoan eroaten eben bidezorroan euken ontzi baten, bideko iturri baten Kepa Deuna geldituta, mastegian artu ebazan mats-mordoak, lazkitu ebazan.

“Kepa Deunak, limurreta, mozota, gozo, atsegintsu aurkiturik, bere baitan iñoan:

“Tamala da, Jaungoikoaren ongarri onetatik, Irakasleak zurrutatatu bat be ez egitea! Lurrin, intzentzo egunetan janari anbatan edo bestean izan ezik, eta orduan be oso gitxi, ardaorik ez dau edaten, eta ori, Pablo Deunak Timoteori esan eutsana gogoratuz, “ura utsik ez eizu edan eta bai ardao apur bateaz”, eta bere ikasleek be olan edan dagigun gura dau, baiña moztotxu gozo-gozo au atsegintsu izango leia-kio.

“Eta au esanik, zurrutada baten ontzitzuan geratzen zana iruntzi eban, eta espanetan atseratuta geratu zana zurrupakaturik, iñoan:

“Ardaoa edan dodala jakiten ba dau, onak esango daustaz, baiña, ze arraioa! zurrutatatu bat berari be eroan bear dausat, ziurki eskertuko nau. Matsaren moztota dala esaten ez ba.dausat, eta bai beste edozein igaliaren ura, atsegintsu izango jako. Orrelan gauza bi lortu al izango dodaz, edate ez ukatzea, ta neu ardao zalea izanik, niri agirekadarik ez egitea.

“Olan asmatzen eta iñoan bitartean, Kepa Deunak aurkitu ebazan mats-mordo onenatariko bi artu ta ontzian lazkituz moztota egiñik, bereala Irakasleagana urreratuta, esan eutsan:

“Jauna, ziurki, bero sargori onegaz egarriz amorrotuta joango zara, ez?

“Bai, olan noa Kepa, eta iturri bat, ozkirritu gaitazan aurkitzea nai, gura neuke, baiña beingo baten.

“Neu be bardin-bardin noa, beroz kizkaltzen, baiña iko orreitan artu dodazan igaliak egin dodan edari gozo onegaz, beraz ozkirri-ozkirria da, orain guztiz ederto aurkitzen naz. Zuk be, Irakasle Jauna, egizu bardiña, edontzi onetatik zurrutada bat egin bedi ta ikusiko dau berorrek gorputzan ze atsegin izango dauan, atsegin-aldate berezi bat izango dau.

“Kepa Deunak emotson ontzia, Irakasleak bere eskuetan artu ta zurrutada baten utsitu eban. Izan be, egarriz itoten egoan.

“Edari au benetan da atsegingarria. zein igalitik atera dozu, Kepa maitea?

“Ikoaren ura da, Irakasle Jauna, ta berorrek ikusten dauan lez, igali-zuga tza au emen ugari da, lurralde onetan ugari da.

“Bere begiak zerurantz jasorik, Kristok esan eban, Ikoa bedeintatua izan daitela. Emendik aurrera urtero uzta bi emon dagiazala.

“Eta alan izan da, arik aurrera igali-zugatz onek urtero uzta bi emoten dauz, bata zakail, breba, izenagaz eta bestea ikoa diturik deritxona.

MIÑ LUZEA

I

Kristo ta bere ikasle, apostoluak, ludian zear ibili ziranean, Galilea eritxon uri baten, bere entzuleek, Kriston entzuleak, izan ziran euneko larogeta amabostek baieztatzen ebenetik, amaibako itz-etorri, itz-jario eban eta "Min-Jaungoikotua" deitzen eutsoena, bizi zan. Ostera euneko bots erritarrek, berri-ontzi, ao-aundi porrokotu bat uts utsean zalako, "Min Luzea" deitzen eutsoen. Zio au dala ta erri aretan eztabaida ta asarrea ugaari izaten zan.

Gizon aren birikiak sendoak ziran, bere miña guztiz azke, ariña, itza saratatsua ta bere aditzea bizi-bizia; berak esaten ebana entzutea baño atsegingarriagoa zan bere abots, itxura ta itz-jarioa.

"Miñ-Jaungoikotua", gizon zorionsua zalantza gabe izan bear eban, errionespena guztatzen jakon, eta zelan!, eta onek, erriak, ondo betetzen eban bere naia. Bere espak nabaldu orduko txalo ta onespen oiuk ugari, benetako zoroaldi, arrimen eta itzalpena leku guztietan, izaten zan. Erritar eta alboerrietakoak bere itz-jario, itz-etorria entzun gurean, bere eskuetan dirutsa politak ezarten ebezan. Guzti au naiko izan bear eban, gizon a zorionsua izateko, ostera guztiz zoritxarreko, zorigaiztokoa zan. Izartu ez lotan izaten zanean, bere biotz-barnean eban kezka batek zilegiten ez eutsolako, atsekabetuta bizi zan.

Altxor bat zan itz-jario a, bere aotik urten orduko suntzitu, ezereztu ta eguratzean, galduko balitzake bezela sentitzen ebalako, bere biotz-barneko kezka aldatu eziña zan.

Jauna, iñoan, tamala ez da, nire itz-jario au, entzuten daustenak uts utsean gozateza? Jaungoikotua, Jaungoikoaren itz ber-berana dala baieztatuz erritarrak esaten daben nire itz-jario au, naizta nabarkerian arriskuan jausteko arriskuan izan, zoragarrri, sekulako dala esango neuke.

Nire itza, nire itz-jarioa, nire abotik urten eta bereala eguratzean ezereztu, suntzi-

tu bearrean, entzulei, eurei be ia beragaz gozatzeko astirik emon barik, suntzitu bearrean, betikotasuna lortuko baleu, esate baterako, inguratzen nauan zerbait, tresna anbatan ezarrita, orduan danak eta aldi guztietan gozatu al izango leukie, eta beraz nire goraspem, aintza amaigabe, eriotz ostean be izango litzake.

Au zan ba, bere ta euneko larogetaamabost "Miñ-Jaungoikotua"ren entzuleen eretxi ta naigabe, biotz-barne kezka.

Erriak bere oroimenean emeretzi mendetan zear ertsuta izan dauan kondaira au, ta lenengoz nigaitik idatzia izan dana, gaur egun, gaurko gizaseme batek kondaira au irakurtean, aldi aretan Erroman ainbeste takigrafo izanik, oneitariko bat, "Miñ-Jaungoikotua"ri laguntzaille bezela, ezarri ba eutsoen, kezka ori baztertua izango zala, bururatu leikion, eta itz-jariodun orrek iñoan guztia idatzita betirako geratuko zala. Baiña irakurle jakin-arazi bear dautsut, zoritxarrez "Miñ-Jaungoikotua" ebilen lurraldetan, ez Erroma ez Atenasen, bera izketan zan bitartean beerak iñoana oso-osorik eta zeatz artzeko gauza zan batxu bat be ondiño ez zala jaio, ez da ludi osoan be lan au egiteko gizonik egon leitekela be, ez eben sumatzen.

II

Kristo ta bere ikasle, apostoluak, Galileatik "Miñ-Jaungoikotua" bizi zan lurralde-
tarantz joiazan, eta au, bidali jakitun izanik, berak eta bere goresleak gogotsu asma-
zen eben naia, guraria, mirari baten bitartez betikotasuna, bere itzaldien betikotasu-
na, lortu egiola Jaungoiko Irakasleari eskatzea, bere baitan oldozten jarduan. Aldi aar-
retan lurralde aretako biztanleek, Kristok, ilak biztu, mutuei aomena emon, itsuei ikus-
mena, mirariak egiten ebazala jakitun guztiz aundi, bereziagoak. Zer zan ba gizase-
meen itz, berbeteari, ikeertua zan arkatx bat, naizta onek itz-jario baten arintasuna ez
izan, bitarteko izanik, bere esaldien, itzaldien, bizikotasuna lortu al izatea?

Erri-gizonak, lurralde aretan olan deituak ziran auzi edo epaile-gizonak, batu ziran.
Beste leku askotan bezela an be, zuzen be argitasun geiagogaitik ziurki, erritarrei grie-
goz itz, berba egitea atsegin izaten jaken. Kristo ta bere apostoluak errirantz urrera-
tzen etozala jakin ebenean, barri ona zabaltzen, azaltzen etozan gizon arei, uriaren ize-
nean danak eretxi-batez, abegi on bat egin, agurtzea erabagi eben. Orrez ganera ta au
be danan eretxiz, uriaren ordezkari ta bere izenean, etorri-barriak agurtzen ta abegi on
bat izan egien, "Miñ-Jaungoikotua" egokiena izan eitekela erabagi ta onetsi egian,
erregutu eutsoen.

Nabarmenkeri uxatu gurean, "Miñ-Jaungoikotua"k erregutze luze ondoren, errita-
rren naia, ontzat artu eban. Erabagitze au dala ta, uri aretan eztabaida batzuk izan
ziran. Bertako talde urri batek, "Minluzea" deitzen eutsoen batzuk, barritsu ebiltzan.
Erritarrak batu ta erabagi ori artzea, "Miñ-Jaungoikotua" ber-berak antolatu eban

gertaera bat zala, bein eta barriro baieztatzen eben. Egia esan, «Miñ-Jaungoikotua»k ez eban galtzen aukerarik, naizta ostaz-ostaz lortua al izan, bere entzuleen aurrean itz, berba, eginda eurakandik txalo ta gorespen ugari lortzeko, baita txaloak ezeze, ots obeko beste zerbait. «Miñ-Jaungoikotua» bere itz-jario, berbetea, urrea zala siñist-arazita egoan, eta beraz bere bitartez moltsorik aundiena beraganatu nai eban.

Erri-gizonak, «Miñ-Jaungoikotua» euren, danan, aurretik eroela ta bere atsetik uri osoa, Kristo ta bere ikasleek agurtzen urten ziran.

Oituraz eta berari, «Miñ-Jaungoikotua»ri guztatzen jakon bezela, itzaldia, onek egin eban. Orduan, entzuleen artean egozan euneko bostek utsean itxaroten ebena jaso zan. Bere itzaldia entzule geienakaitik txalotua, bero-bero goraldia izan zan, ostera Kristo ta bere ikasleek ixil-ixilik, goibeldasun argiaz entzun eben, eta ez itzleriak use izan eban lez on-artua.

Kristok, berari edo bere ikasleei zerbait ongarri egin edo gogo ona agertzen eutsee-nei, eurakaz mezedegile izatea, oitura eban eta «Miñ-Jaungoikotua»k oitura onetaz zerbai ba ekian. Orregaitik, Kristok bere itzaldiari erantzunez, mezedo anbat berari, Kristori, eskatu egiola esanez, ez entzutean, «Miñ-Jaungoikotua» arritu zan.

Judas Iskariote zan uts-utsean «Miñ-Jaungoikotua»az artu-emonak, arremanak ebazana, au zan, laster esango dodan edo irakurriko dozun, zio bategaitik.

Kristok zartadaka sal-erosleak eleizatik atera ebazanean, ustegabe «Miñ-Jaungoikotua» bertan aurkitzen zan eta Judas Iskarioteaz tratu bat egin eban; au zan, eleiz aretan egoan bere adiskide batentzat, eleizan saltzen jarraitzeko baimena, lortzen ba eban, esan bear da ez ebela lortu, Judasek sal-erosketatik, saltzaile aren erosketatik, euneko bost eskuratu egiazala. Onelan saleroslea barriro eleizaturik, jakina sal-erosketatarako, Judasek bere irabastetatik zerbait eskuratuko eban.

«Miñ-Jaungoikotua» Judas Iskariotegana urreraturik, ixilkeriz eskupeko bat emonda, Kristogaz aratertuta oitura eban mezedea berantzat lortu egiala, eskatu eutsan.

Judas bitarteko izanik, «Miñ-Jaungoikotua»ren eskaria Kristori azaldu eutzan. Kristok bere eskaria, «Miñ-Jaungoikotua»ren eskari, betetzea merezigarria ba zan, asti apur bat ebanean gomutauz ikusiko ebala, erantzun eutsan.

Jakina, bere eskaria, berak iñoazan itz, berbak, bere aotik urten orudko suntsituta, ezereztuta geratu bearrean, bere aotik urteten eben bezela aidea galdu-gabe, esku artean egoki erabiltzeko tresna edo gai anbatan idatzita izan al deitekezela ta betirako, izan zan.

Kristok eskari au ontzat artuta, ikasleetatik zaarrena zan Kepa Deunak mezedo au, bedeinkatua eban, arik ona esaten da:

«Kristogandik zerbait artzen dauana, Kepa Deunak bedeinkatu dagiala».

Galilea uriko ormak zuriak ziranezkero, "Miñ-Jaungoikotua"ren aotik urtendako itz, berba guztiak euratan idatzita, bere aotik urten orduko ormatan idatzita, nabardun biurtu ziran.

Mirari arrigarri au, "Miñ-Jaungoikotua" ta bere jarraitzaileak ain leiatsu itxaron ebena, orain guztiz atsekabaten ebezan.

Len, beste aldi baten, su-garrez babesten ebenak, gramatika irakasle bere jarraitzaileak, bere itz-jarioa dala ta, len ainbeste goraltzen ebenak, bere itzaldiak ormetan agertuta, zeaztasun osoz idatzita gerturik, eurak gogo osoz irakurri ta zintzo arakutzen ebezanean, beragaitik "'Miñ-Jaungoikotua"'gaitik txakurrenak esaten ebezan. Eurak iñoenetik, beintzat, erderakada, mordoillokada, izugarriak euratan, idatzietan, agertzen ziralako.

Len ainbeste goraltzen eben erretorikoak, eurak be, bardin-bardin egiten eben. "Miñ-Jaungoikotua"ren idatzia azterkatuz, esaldietan, berba uztel, uts, eta itz-ordain tropo, barregarriak besterik aurkitzen ez ebelako.

Teologoak, bere itzaldiak ormetan idatzita agertzen ziranak irakurri orduko, euretan ziññauzkeri larregi ikusirik, len teologo bikain bezela eurakaitik aurtua izan zana, orain itzalaren aurka oiuka eten gabe jarduten eben.

Kondaire-idazleakaz be bardin jazoten zan, len "Miñ-Jaungoikotua"ren itzaldiak entzutean, kondaira-zaleen artean paregabeko zana, sekula izan zanik kondaira-idazle trebe ta jakituena zala, esaten ebenak, orain aren itzaldiaak ormetan idatzita irakurtean, zentzungabeko aldiz-urtegoak, idazkun oker eta ergelak, gertaera guzurrezkoak, bere itzaldietan besterik ez eben ikusten, eta beraz, gure itzlaria, basartean, lodatz aartean bezela zikinduta ezartzen eben.

Aldi baten sutsu txalotu, goraltzen eben zientzi-natural irakasle jakitunak be, orain "Miñ-Jaungoikotua" gizon ergel, keto, ezjakitun bat bezela ezartzen eben. Gizon kaiku, ergel bat zala, eta iturri-bedarra, ira-bedar batetik berezkatzen ez ekiala, eta ez da be urrea, urre-izunetik, esanez.

Eta azkenean, len geien goraltzen ebenetatik ukubilkada bat artu ba eban bezela, nekarazi, larrituta egunero izaten zan. Bera len goren txalotzen ebenak, eta gorespen aundienatarikoak egiten eutsoenak, eurak be, ormetan idatzita agertzen ziran bere itzaldiak zeatz azterkatuz, eurak, eurak ber-bera eurak be, sasoz konturatu ez ziralako, apaimen lotsagabekoak agertzen ebezala, su-amurrutz itzalaria iraintzen eben.

Alan da ze, "Miñ-Jaungoikotua" errukigarria txitik be egin barik egon bear izaten zan. Len bere itzaldiak entzuten ao zabalik egoten ziranak, zelan goraldtu jakin-eziñik egoten ziranak, naizta, berak iñoana estegu-jatordu baten bazkalkideak bere jakitunatzaz zerbait esan egiela eskatu. eutsoen maikidea zan neskatileak emon eban erantzun burugabekoaren antzekoa izan. Neskatila onek esan ebana au zan: "difiot ogia ebagi dagiela" (esaldi au gaztelarrez Truebak idatzi eban bezela egokiagoa da: "Digo que CUERTEN el pan". Lenago onen antzeko burugabekeri iñoanean, "Miñ-Jaungoikotua" txalotzen ebenak, orain iñoana naizta elerti, txanbelin bat izan, asto baten arrantza

zala, uste izaten eben eta beraz oi, txistu ta iraiñak ezeze, tomate ta arrikadak be jasan bear izaten ebazan.

Orduan "Miñ-Jaungoikotua" etsimenduta, lotsez beterik, bere egoitza eukan guztia itxita, utxita, Kristo ta bere Irakasleakaz lagun, Barri Ona azaltzen ebiltzan lurraldeetara joan zan.

Bere bidalian gure gizona bakar-izketan, ormetan idatzita egozan bere itzaldi batzuk gomutatzean, bakar-izketan joian bitartean, bertako biztanleen iraiñak ezeze batzutan baita be, zartada anbat edo beste jasan bear izaten eban.

Azkenean Kristo ta bere ikasleek, egun batzuk beratan emoteko gelditu ziran erri batera elduta, euran egozan ostaetxe ber-beratan, etxeratu zan.

Atean, ostaetxe aren atean, Judas Iscarioteaz topo egiñik, bere jazokisun guztiak edestu eutsozanean, arek, "Miñ-Jaungoikotua" k, intxaust-bedar baten urkatu eitela, aolkatu eban.

"Miñ-Jaungoikotua" k, arazoa orren besterako ez zala uste eban, eta bai oster, Kristo Jaungoikoari, zeruko deun eta aingeru guztien bitartez, beragan ezarri eban adegi miragarria, bere bizi-une aretan bat be atsegingarri ez jakon a, baztertu egiola eskatzeko, Kristogaz aurrez aurrez egon al izatea, beragan aurkeztutea nai ebala, eskatu eutsan. Orretarako Judaseri ixilean eskupeko bat emon eutsan.

Kristogaz aurrez aurrez egotea lorturik, bere gurari, naia, bere eskaria azaldu eutson.

Zuk adei bezela eskatu zeustana, Kristok erantzun, nik zure aundikeri ta arrokeria ikusita, lenengotan mututasun bidez zigortzea, uste izan neban, baiña gero obeto oldoztuz, ain arroputz erabili dozun adei ori, zigortza izan daitela, erabagi dot. Eskatzen daustazun adei barri ori be emoten dautsut. Aurrerantzean apal eta xalotasuna maite eizuz, eta zeure uts, erru guztiak parkatuak izango jatsuz. Maitasun aundia izan dauanak, parkamen amaigabea izango dau.

IV

"Miñ-Jaungoikotua" tzaz edestu eustan erritarrak, eta ez errazoi barik, berari jazo jakona guri be jazo ez daiskigun, edo beintat antzekoa, kondaira au idatzita ez egiala itxi, utxi, erregutu eustan, ba da kondaira onek azken negargarri bat dau.

"Miñ-Jaungoikotua" bere egoitza eukan errira itzuli zanean, erriratu zanean, guztiz txiro zan. Bere ondasun guztiak, eukan diru guztia ormagin, margolari ta arri-txilitarien artean, orma, zapaietxe ta inguruetan bere itzaldi idatzi egozan guztiak kentzeko edo kendu nai, ordaindu bear izan ebazan. Idatzi areik ezaba-eziñak ziran, aldi aretan ludi onetako gizasemearen eskuak ezba-eziñekoak.

Bere azken aldian, bere aotik urteten eben itzak aizeaz topatu orduko ezereztuten

ziran, baiña artero idatziak izan ziranak, eu ren egilearen lotsarako, erritarrak irakurri-ta, oroimen gaizto ta kaltegarria izanik, idatziak luzaro irauntzen eban.

Irakasle Jaunaren onuei jarraitu bearrean, apal eta xalotasuna maite bearrean, iñoiz baiño be arro ta burugabea zan, sekulako aundiki, norberekeria eban. Bere itz-etorriaren bitartez, artero bere entzuleekandik izan eban ospea lortu al izango ebala, uste eban, eta bere naia jaretsi gurean berba ta berba, itz eta itz, nekegabe jarraiturik bizi zan. Baiña itzak bere aotik urten orduko, entzuleekandik itz-gaizto, txistu ta baita be tomate ta arrikada batzuk be, erritarrekandik artu bear izaten ebazan. Bere erritarren artean bere aurkakoak bat edo bi uts-utsean ez ziran, ez, eunetik eun ziran, eta "Miñ-Jaungoikotua" ezizenen orde, "Min Luzea" deitzen eutsoen, eta egia esan, nire Bizkaiko Enkarterri maitean, bertako izketara itzulirik, "Lenguetero" izango zan.

Orduan bere adiskide Judas Iscariotereren onua gogoraturik, guztiz atsekabetuta uritik aldendu ta leenengo aurkitu eban itzuz-bedarrean bere burua urkatu eban.

GERREZTU TA TXAMARRAREN TARTEKO IPUIÑAK BURU TA BIOTZA

Kristo bere ikasleakaz munduan, ludian zear ebilenean, oitura eben, egunero taldeko bakoitza, eguneroko janaria sukaldatzeko eguneroko janari urria sukaldatzeko arduratua izatea. Kristo bera be, bere txanda zanean apal eta maitasunez, eredu izanik, sukaldari biurtzen zan.

Sarritan janaria artxo bat izaten zan, eta abere onen biotza, bere taldekidekaitik sukaldariak egin eban lanagaitik sari bezela, berantzat, sukaldarientzat izatea, oitura eben.

Kristo ta bere ikasleek itxasaldera eldu ziranean, Judas Iscariote janaria apaillatze-ko arduraduna izanik, zeregin onetan jardun. Judas Iscarioteri artxo-garaunak asko guztatzen jakozan, bear bada, bere garaun-gabetasuna bardintzearren izango zan, eta artxo-burua erdibituta guztiz ondo apaillduta ikusirik, zati biak jateko gogoa, tentaldia izan eban, eta biotz-zirikada onek eraginda, garaun biak jan ebazan; bitartean garaunak jaten ebazan bitartean, bere baitan iñoan: "Ara, Kristo olako gauza txikietan ez da konturatzen, eta Kristok oarpenik izaten ez dauazan arazoetan, ikasleak ixil-ixilik egoten dira'.

Kristo ta ikasleak maikideak zirala, Judas Iscariotek artxo-saltza danan artean banandu eban. Kristok, buruaren utsa, artxo-buruaren utsa maian nabaritu eban, zuzen be, Judasek oso-osorik, burua oso-osorik, berantzat gorde eban, eta ez bere ekela ta miña jateagaitik, ez ba da be, garaunen utsa nabaritu ez egien. Orduan Kristok sukaldariari, ia buru bako artxoak izan ba zan, itaundu, galdetu eutson.

Judas zorobioturik eta larritasun aregaz, zer erantzun ez jakiniik, lenengo bururatu jakona, esan eban "ara Jauna, izan be... lurralde onetan artxoak ez daukie bururik". Kristok Judasen erantzun on-artutzat emonez, irribarre goibel bat egin eban.

Biramonean Kristo bere ikasleakaz Itxas-III'aren bazterrean aurkitzen zan, eta egun aretan sukaldaritza Kristoren txanda zan. Egun aretan be bazkaltzeko artxo bat eukien. Kristok bere lana amaitutzat izan ebanean, artxoa ondo apailatuta izan ebanean, eskeko bat amaoin baten eske urreratu jakon. Kristok artxo-biotza artu ta ogi zati bateaz eskekoari emon eutsan.

Bazkal-orduan Kristo ber-berak, oitura eban lez, janaria danan arten banandu eban. Judas Iscariote artxo-biotzaren zain larri egoan, eta kazulatxuan ez egoala artxo-biotzik ikusirik, ia zelan zan artxo a biotz-bakoa izatea, Kristori itaundu eutsan.

Judas maite, Kristok berak be beste itaun bateaz erantzun eutsan, ez zenduan esan atzo lurralde onetan artxoak ez daukiela bururik?

Bai Jauna, ori esan neban, Jauna, Judasek lotsez eta zorobiotuta erantzun.

Ba, Judas maitea, barriro Kristok irribarre goibel bat egiñez, dirautso: bururik ez dagon lekuan, biotzaren utsa be izaten da!

TXIMIST-ARRI TA URREA

Apostoluak baserritar, oindarrak, txiroak bai baiña biotz oneko zintzo, apalak ziran ezkerro, Josu, Irakasle Deuna, ikaskai ta jardun-bidez, gero eurak, ikasleak, ludian zear, notin-pertzona guztiei Jaungoikoaren Barri-Ona zabaltzen gai izan eitezan, iraunkor eurantzat egokien zan mailan irakasten jarduten eban.

Egun baten Kristo, Simon eta Judas Iscariote maiteak lagun ebazala, bidali bat egiten Jordan ibai ibarretik joian. Eurak joiazan bide-ziorraren alboan, goian solo baten gizon bi, baserritar bi lanean, lurr lantzen aurkitzen ziran. Bata jasekoa, gizon ederra zan, bestea ostera guztiz itsusia. Gizon biak, nekazari biak, Kristo ta bere ikasleak apal eta adikotasunez agurtu ebezan, Kristo ta Simonek nekazari biak, maitasun eta aditasun bardin-badiñagaz agurtu ebezan, ostera Judasek, gizon itsusiaren agurtza erantzun gabe geratu zan eta gizon jasekoa maitasun eta adikotasunik beroenagaz agurtua izan zan.

Kristok, agurtze onetan Judasek izan eban ezbardintasuna nabaritu eban, eta apur bat aldendu ziranean, nekazarietik apur bat aldendu ziranean, Judaseri itaundu eutsan.

Judas, zergaitik gizon jasekoa, itxura onekoa, gizon itsusia baño maitasun eta adikotasun beroagaz agurtu dozu?

Ara Jauna, bidegileak bere bidean joanez tximist-arria ta urrea aurkitzen ba dozu, Judasek erantzun eutsan, zelan izango jako bardin tximist-arria edo urrea artzea? Onegaz, urreez geratuko da, ez?

Josusek, irribarre goibel bat Judaseri egiñik, bera ta bere bidegilekidea euren bidean jarraitu eban.

Bero, sargori, bidea luzea ta goiza larria zan ezkerro, ura dariola egoan iturri baten, ozkirritzen ziran bitartean, zugatz kerizpetsu batzuen kerizpetan jezarririk, atsedean apur bat artu eban.

Iturri ganean egoan arri baten, Kristo bere makileak joka jardun zan. Bereala, ustegabe, sorropil bat lur-jautsita, lurreaz naastauta urre ta tximist-arri zati bana agertu ziran.

Judas, urrea ikusita arrituta ta pozik oiuka asi zan eta urre zatia artu naian, aberastasanaren ikurra dan ori eskuratu gurean, apur bat makurtu ta bere eskuak luzatu ebazan.

Judas maitea, geldi-arazi zaitetz, Kristok esan eutsan, ba da urre ta tximist-arri zati ori agertuazo dauana neu izan naz, eta beraz tximist-argia ta urre zatia neurak dira, ta ez zureak.

Zuzen zara Jauna, Simonek espai barik iñotsan.

Bai zuzen zara Jauna, gogo txarrez baiña, Judasek be esan eutsan.

Kristok, tximist-arria ta urre zatia bere eskuetan artuta, urre ta tximist-arri uts-utsak, bene-benetakoak zirala ondo aztertuz, bere besoak Sortalderantz jasorik, esku-mako eskuan tximist-arria ta ezkerrekoan urre zatia eutsirik, bere apostulei esan eutsen:

Nire aurkitze onen jaun eta jabe egin gura zaituet. Biok batera nire eskuetatik, zeuek naiago dozuena, batak urrea ta besteak tximist-arria zatia, artu eizue.

Kristok au esan eban orduko, bat-batera, Simon eta Judas, bata eskumaara ta bestea esker aldera. Simonek tximist-arri zatia ta Judasek urrea artu gurean oldartu ziran.

Josu, Kristo, Judaseri irribarre goibel bat egiñez eta Simoneri agurtze guztiz alaia, irurak Jordan ibaiaren bazter basomortu aretatik jarraitu eben.

Jauna, Judasek esan eban, eguzkia sartaldean estaltzera doa ta ia egun osoan ez dogu janaririk artu.

Alan da, bai, Josuk erantzun. Daroazun urre orren zatitxu bateaz, urre apur bateaz, jaki, janari apur bat, danok jan dagigun, erosi eizu.

Judasek alde guztietara begiratuta, ta bakartasun eta ixiltasuna basomortu aretan jaun eta jabe zala nabariturik, erantzun eutsan:

Irakasle Jauna, eremu oneitan sal-eroskaiak saldu daiskuguezan jaki-saltzailerik egotea eziña da.

Kristok Judaseri irribarre itun bat egiñik, Simoneri esan eutsan:

Simon, Galileako itxasoan arrantzalea izan ziñan.

Simonek, Irakasleak, Jaunak, zer esan nai eban, argi ikusirik, Jordan ibaira urreratuta, bere ur mugildu areitan, kordel baten amu bat lotuta jaurti ta apur bat geroago arrain aundi bat narraz eroala, uretatik atera eban.

Kristo ta Simonek arrain ain eder, aundi bat uretatik kanpora ikusita, alkar irribarre gozo bat izan eben.

Zertarako nai dau berorrek arrain ori, Judasek iñotsan, bera erretako surik ez ba daukagu?

Kristo ta Simon ixil-ixilik geratu ziran, baiña Simonek zugatz baten enborretik ardagai batzuk artu ta tximist-arriaren ganean ezarrita, bere makileaz tximist-arriaren ganean marra batzuk egin eta arraskata egiñez, ardagai biztu zan.

Mukur batzuk erreta euren ilenti ganean apur bat geroago, arraiñea urrezko margo polita erakutsiz, irukote onetan berak, arraiñeak, jateko gurari, nai, bizi-bizia lortu eban. Izan be, Kristo ta bere apostuluek gose ziran eta onelan, arraiñea janda, goseak

eragintzen eutsoen naigabea bazterturik, bidalian jarraitzeko, euren gogo ta indarrak bizkortu al izan ebezan.

Aldendukeran, euren soiñganeko, longaiñeko azpilduratan, Simonek bere tximist-arria ta Judasek urrea, gorde ebezan. Kristo bata ta besteari aldizka begiratzuz, Simontzat irribarre gozo ta alai bat izan zan, ostera Judas goibeldasunez irribarretu eban.

Gaba eldu zanean, eta benetan zan iluna, obero bera aifñako iluna zan, Kristok bere ikaslei esan eutsen:

Argia, atsedena ta lo egitea, ber-bearrezkoak doguz. Gure bidalian jarraitu gura ba dogu, irukote au bearrezkoa dogu. Egun barri batek argia ekarriko dausku, baso onek, loa ta beragaz atsedena ospatzen dauskuz. Egun-sentia izan arte lo egin eta atsedendu gaitazan.

Au esanik, Kristo ta bere ikasleak, zotazal usaintsuaren ganean etzun ziran, eta apur bat geroago, Kristo ta Simonek gozoro lo egiten eben, ostera Judas izartuta, erne egoan, bere urre zatia mausari edo bide-lapur anbatek kenduko ba eutsoen, ostuko, lapurtuko ba eutsoen, gaba osoan zain egon zan.

Urrunetik pizti, basa-pizti orroak entzuten ziran eta gero ta urrago ziran orroak, Kristo ta Simon lo gozo ta gogorrean egozan ezkeru, ez eben ezer entzuten, orro bildurgarri orreik ez ebezan entzuten. Baiña Judas izartuta egoan lez, basa-pizti areik geroago ta urrago egozala ikusita, izugarrizko bildurra eban eta azkenean bildur au jasan ezifñik, larri ta estu, bere lagunak izartu ebezan, eta bereala aurkitzen ziran arrisku izugarria jakin-azo eutsen.

Judas maitea, Kristok iñotson, argiak izaki gaiztoetan lazura sortzen dau orregaitik basa-pizti orreik beragandik iges egiten dabe. Or daroazun urre orren zati txiki bateaz, bildur zaran arrisku orretatik danok gaizkatu gaiazan, argi eskuratu eizu.

Irakasle Jauna, Judasek erantzun, baiña bakardade onetan, argigai bat, argai bat, nok saldu al izango daust?

Kristo unetxu baten ixilik geratu ondoren, barriro zotazal gozo aretan etzandu zan bitartean, Simonek tximist-arria arrast egiñez sua biztu, pilotuta eukazan egurrakaz su eder bat egin, eta bera be loak artu egian, etzun zan.

Basa-piztiak sugar itzal aren argitasunaz bildurturik, inguru aretatik igez egin eben, aldendu ziran, baiña Judas urre zatia galtzeko bildurrez, erne, izartuta, bide-lapurak noiz agertuko ziran zain jarraitzen eban.

Egun barriak beragaz argitasuna ekarran. Judasen aurpegian lorik-eza ta bere kez-karen aztarnak agertzen ziran, ostera Kristo ta Simonen aurpegiak, atsedeen baketsu baten irudi ber-bera ziran.

Kristo ta bere ikasleak, lurralde askotatik ibili ziran; Josu, Irakaslea irakasten, eta jakitunez txiroak, baiña biotzez aberatsak ziranak maitatzen jardun eban bitartean, Simon, bere bitartez argia lortzen zan tximist-argia beragaz eroan, eta Judas, une aretan astuntasun utsa zan urrea bere laguna zan.

Baiña egun baten, Kristok, Simonek eroan arria oiñarri bezela ezarririk, arik ona, ordutik ona, jazoki onen oroimenéz, Kepa deitzen jakona (arria esan nai dauana),

beratatik zerura sartzeko, ate aundi-aundi bat eraiki eban eta bere giltza Simon, Kepari emon. Judasek, urreak inpernuko ateak idegiteko giltzak egiteko uts-utsean balio dauala ikusirik, saretz baten bere burua urkatu eban.

GERRESTU TA TXAMARREA

Txoriak eurak be erretzeko bezelako egun bero, sargori baten, bide-zior batetik gizon bi joiazan; bata gerretuz jantsita ta bestea txamarra bateaz, eta biak, bide bazterrean urrun ikusten zan zugatz adartsu ta beraz kerizpetsu baten azpira, bertan ozkirriturik atsedean apur bat artzeko, ainbat lasterren eldu naian, laiatsu, arin joiazan.

Dan bero, sargoriaz gerretzu onegaz ito bear dot!, gerretzudunak izerditan bustibustiita joiala, iñoan. Belaunetatik samaraño egozten nau, zuzen be egoitzak daukan tokirik onena, ba da beste gauza batzun artean sukaldeduna da ta, puska asi dan aize ozkirria be osoz kentzen daust. Ez, orixe ez, bidali geiago nik ez dot egingo, gerretzu au txamarra bataz-bateaz trukatu arte.

Txamarra au iguintzen dot!, beste bidegileak iñoan. Samatik garriraño baño babesten ez nauan lez, garritik bera eguzkiak kizkildu naian ezarten nau. Eta zu zen be bidegile batentzat gorputzerik alde bereziena orixe da, ba da beti esan da, sakelak iztarrrak daroetz. Ez, sekula be ez geiagotan udamiña agertzen danean, bidegile bat ni ez naz izango, orretarako artero txamarra au, gerretzu eder bategaitik trukutzen ez ba dot.

Bidegile biak bakoitza bere arazoa oldozten joiazan, bata bere gerrettua uko egiñik, eta bestea bere txamarrea ukaturik, eta ara non, biak batera zugaitz kerizpetsu baten orpora eldu ziran, eta bertan, kerizpe zoragarri aretan atsedean apur bat artu naian geratu.

Alkar-agurtu ziran, eta bata bestearen soifnekoaren bekaizkeriz egozan ezker, soifnekoen trukea egiteko bururatuta; alkar-adierazoteko aurkitzen ziran une ber-beratan, kerizpe beratara eskeko bat bidegilei amoin bat eske, non urreratzen jaken. Eskekoa guztiz txiroa zan, guztiz zorigaiztoko ikusten zan, alkondara zaar baten jabe be ez zan.

Biak eskekoari amoin bana emon eutsoen, eta beragan errukiturik, amoiña emon ondoren beragaz alkar-izketan jarraituz, ia zelán izakera, egoera ain errukigarri, zorigaiztoko aretara, zelán jausi zan itaundu eutsoen:

Aaaii anaiak!, negarrez eskekoak erantzun eutsen. Ara emen ikusten nozuen egoera onetan, alkondara bat be barik, oil-gurizko gerreztua be iñoiz euki dot, baiña gerreztua ezeze txamarreaz be naikotu ez arren, orain ia narru utsetan geratu naz!

Bidegile biak ixil-ixilik, eskekoak esan ebana ausnartzen geratu ziran, eta apur bat geroago guztiz pozik, Jaungoikoak bakoitzari emon eutsen soiñekoakaitik guztiz alai, euren bidean jarraitu eben.